



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArxuBonaparte.htm>

BESTE ZENBAIT ITZULPEN

Jean Baptiste Arxu

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

MOISEN LEHEN LIBRIA JENESA DEITHIA

BÜRÜ I.

Nula mündia eta gizona eginik izan diren.

1. Hatsarrian Jinkuak egin zütien zelia eta lürra.
2. Lürra mulde gabe zen, eta pikarrai; ülhünpetan zaguen osina, eta Jinkuaren Izpirtia hurren gañen zabilan.
3. Jinkuak arren erran zien: Egin dadila argia: eta argia egin zen.
4. Jinkuak ikhusirik argia hun zela, berhezi zien argia ülhünpetik.
5. Argia deithü zien egüna, ülhünpia aldiz gaia; eta arratsetik eta goizetik egin zen lehen egüna.
6. Jinkuak erran zien orano: Egin dadila zelü gaña hurren erdian, eta berhez ditzala hurrak hurretarik.
7. Eta Jinkuak egin zien zelü gaña: eta berhezi zütien peko hurrak gañekuetarik. Eta hola egin zen.
8. Eta Jinkuak zelü gaña deithü zien zelia; eta arratsetik eta goizetik egin zen bi gerren egüna.
9. Jinkuak erran zien orano: Zelü pian diren hurrak bil ditiela ber lek-hiala, eta lhü-idorra ager dadila. Eta hola egin zen.
10. Jinkuak lhü-idorra deithü zien lürra, eta hur algarretara bultatiak deithü zütien itxasuak. Eta ikhusi zien hori hun zela.
11. Jinkuak erran zien orano: Lürrak sorth ditzala belhar berde azidüna, eta zühañ bakhoitxa bere melgako frütü ekharliak, eta azia barnen ükhen dezela lürretik sorthzeko. Eta hola egin zen.



12. Lürrak arren sorthü zien belhar berde bere motako azi ekharle, eta zühañ frütü emaille bere melgako aziekilan. Eta Jinkuak ikhusi zien hori hun zela.

13. Eta arratsetik eta goizetik egin zen hirur gerren egüna.

14. Jinkuak erran zien ere: Argizko bolak egin ditiela zelü-gañen, egünaren gaietik berhezteko, marka ditzten denborak eta aruak, egünak eta urthiak:

15. Zelü-gañetik argi dezen lürra. Eta hola egin zen.

16. Jinkuak egin zütien arren bi argizale bola handi, handiena egüneko, eta txipiagua gaieko; izarrak ere bai.

17. Eta ezarri zütien zelü-gañen lürraren argitzeko,

18. Egünaz eta gaiaz, eta argiaren ülhünpetik berhezteko. Eta Jinkuak ikhusi zien hori hun zela.

19. Eta arratsetik eta goizetik laur gerren egüna egin zen.

20. Jinkuak erran zien orano: Hurrek sorth ditzela alimale igerikari biziak, eta txori lürrian, zelü pian hegaltariak.

21. Jinkuak egin zütien arren arrañ handiak, eta ihizi bizi eta igizale, bakhoitxa bere motako, hurrek sorthü zütienak oro, hegaltariak ere bai, motaren arabera. Eta Jinkuak ikhusi zien hori hun zela.

22. Eta benedikatü zütien, erraiten zeielarik: Handi eta hanitx zizte, eta beth'etzatzie itxasoko hurrak; eta txoriak ere hanitx ditiela lürrian.

23. Eta arratsetik eta goizetik bost gerren egüna egin zen.

24. Jinkuak erran zien orano: Lürrak sorth ditzala alimale biziak motaz mota, aberiak, herrestariak, eta motaz motazko basa ihiziak. Eta hola egin zen.

25. Jinkuak egin zütien arren basa ihizi motaz motazkuak, eta abere eta herrestari motaz motazkuak. Eta Jinkuak ikhusi zien hori hun zela.

26. Eta erran zien: Egin dezagün gizona gure itxura eta üdüripeniala, eta itxasoko arrañen, eta zelüko txorien, eta bas ihizien, eta lür güzia- ren, eta lürrian herrestaz igitzen direnen bürüzagi izan dadila.

27. Jinkuak egin ziren arren gizona bere itxurala eta üdüripeniala, eta egin zütien Jinkuaren üdüripeniala khotxo eta ürrüxa.

28. Jinkuak benedikatü zütien, eta erran zeien: Handi eta hanitx zizte; beth' ezazie lürra esküpien ezarten düzielarik, eta itxasoko arrañen, zelüko txorien, eta lürrian igitzen diren alimale güzien izan zizte bürüzagi.

29. Jinkuak erran zeien orano: Eman detzeitiet zien hazteko, lürrian azi ekharten tien belharrak oro, eta bere motako azia dütien zühañak oro:

30. Baita ere lürreko ihizier, zelüko txorier, lür gañen igitzen eta bizi- tzen dien orori, haz ahal ditién. Eta hola egin zen.

31. Ikhusi zütien Jinkuak egin zütienak oro, eta hun hun ziren. Eta arratsetik eta goizetik seigerren egüna egin zen.

BÜRÜ II.

Zazpigerren egüna. Lürreko Pharadüsia. Gizonari haizü etzena.

Nula emaztia egünik izan zen.

1. Zelia eta lürra izan ziren arren egünik bere eigergallieki.

2. Zazpigerren egünian Jinkuak akabi zien bere lana, eta phausatü zen zazpi gerren egünian, bere lanak oro eginik.

3. Benedikatü eta santifikatü zien zazpigerren egüna, egün hartan baratü zelakoz langitetik.

4. Hola da zeliaren eta lürraren hatsarria, holaxet Jinko Jaunak egin zütien bata eta bestia,

5. Eta kanpoko lanthariak oro lürretik sorthü beno lehen, eta kanpoko belharrak ere oro lüzatzen hasi zien beno lehen. Jinko Jaunak etzi- ren orano euri erazi lürriala, eta gizonik etzen orano laborantxan aritzeko.

6. Bena lürretik gora altxatzen zen üthürri bat lür axalaren bustatze- ko.

7. Jinko Jaunak lür lohiz gizona egin unduan, begithartiala phütz bat iaurri zeion, eta gizona phiztü zen bizi bizia.

8. Jinko Jaunak hatsarre danik baratze gozagarri bat egin zien, eta egin zien gizona han ezarri zien.

9. Jinko Jaunak sorth erazi ere zütian mota orotako zühañ miragarri gozo huneko frütü ekharle eli bat, eta Pharadüsü erdian zen biziko zühaña hunkiaren eta gaizkiaren jakintarzüneco zühañarekilan.

10. Gozagarriko lekhü hartarik elkitzen zen ibai handi bat, Pharadü- siaren millikatze, laur arrollatarat.

11. Batak Fison deithürrik, Hebilatheko ürhe sorth zale aldia üngüratzen dü;

12. Eta alde hartako ürhia hobenatarik da. Han ere bdellione eta oniz harria edirenten da.

13. Bigerren ibaiak, Jehon deithiak, Ethiopiako aldia üngüratzen dü.

14. Hirur gerrena, izenez Tigria, Asiriennen herrialat hedatzen da. Ibai hoién laur gerrena Eüfrata da.



15. Jinko Jaunak gizona hartürrik gozagarriko Pharadüsian ezarri zien, lanth eta begira lezan.
16. Eman zeion manü hau, eta erran: Jan ezazü Pharadüsüko zühañen frütü orotarik.
17. Bena eztezazüla jan hunkiaren eta gaizkiaren jakintarzünareneta-rik. Ezi haietarik jaten dükezün bezañ sarri, egiazki hilen beitzirade.
18. Jinko Jaunak erran ziren orano: Ezpeita hun gizona ber bera egon dadin; egin dizogün ber'üdüriko lagün bat.
19. Jinko Jaunak arren, lohiz egin unduan lürreko ihiziak oro, eta zelüko txoriak oro, eraman zütien Adamen aitziniala, ikhusteko nula izentatüren zütien. Eta Adamek ihizi bakhoitxari eman zien izena egiazko izena da.
20. Adamek ihiziak oro, bakhoitxa bere izenaz, izentatü zütien, zelüko txoriak lürreko ihiziak bezala. Bena Adamek etziren ber'üdüriko lagü-rik.
21. Jinko Jaunak igorri zeion arren lo handi bat; eta lo zelarik saiheits- exür bat ideki zeion, eta aragi buxi bat haren lekhian ezarri.
22. Eta Jinko Jaunak egin zien emaztia Adami ideki zien saiheits-exü- rretik, eta eraman zien Adamen gana.
23. Ordian Adamek erran zien: Hau da ene ezürren ezürra, ene ara- giaren aragia. Izentatürrik date gizona markatzen dien izenaz, gizonetik idekirik delakoz.
24. Hortakoz gizona, ber'aita eta ama ütirik, lothüko da bere emaz- tiari, eta biga dirate aragi batian.
25. Adan eta haren emaztia pikarrai ziren eta etziren hatik ahalke- gorritzen.

BÜRÜ III.

Gizonaren erortzia. Ar'Eroslia hitzemanik da. Adan aldiz kaz- tigatürrik.

1. Sügia Jinko Jaunak egin zütien ihizi ooren amarrütsiena zen lürrian. Eta emaztiari erran zeion: Zentako Jinkuak eztezie haizürrik eman Pharadüsian diren zühañ ooren frütütik jateko?
2. Emaztiak ihardetsi zeion: Hazten gütüzü Pharadüsian diren zühañ ooren frütiez:

3. Bena Pharadüsü erdian den zühañeko frütütik, erran diküzü Jin- kuak ezkingezan jan, ez hunki, hil ezkitien.
4. Sügiak erran zeion: Etsizteie ez hilen.
5. Badakizü Jinkuak frütü hortarik jan dükezien bezañ sarri, begiak zabaltüren zaitziela, eta Jinkuak bezala ziraztela, hunaren eta gaizkiaren ezagüttez.
6. Emaztiak ikhusi zien arren zühañ hartako frütia jateko hun zela; eder eta gozagarri zela: eta hartü zien eta txesta, eta senharri eman; hunek ere jan.
7. Ordü berian, begiak bier zabaltürrik, ezagütü züten pikarrai zirela; eta phik'ostuak algarri josirik, bestitü ziren.
8. Eta Jinko Jaunaren, aristiriko iphararen hartzen Pharadüsian ari zenaren mintzua entzünik, Adan eta haren emaztia Jinko Jaunaren begie- tarik gorde zien Pharadüsüko zühañen artian.
9. Eta Jinko Jaunak Adami oihü eginik, erran zeion: Nun zia?
10. Adamek ihardetsi zeion: Enzün dit zure mintzua Pharadüsian, eta pikarrai nintzalakoz lotsatürrik, gorde nüzü.
11. Jaunak erran zeion: Nulaz dakizü pikarrai zirela, jan ezpalin badüzü haizürrik eman eneizün zühañeko frütütik?
12. Adamek ihardetsi zeion: Lagüntako eman deitadazün emaztiak eskentü ditazüt zühañ hartako frütütik; eta jan dit.
13. Jinko Jaunak emaztiari erran zeion: Zertako egin düzü hori? Ihar- detsi zeion: Sügiak inganatü nüzü; eta jan dit.
14. Eta Jinko Jaunak sügiari erran zeion: Hola egin dialakoz, maradi- katürrik iz lürreko alimale eta ihizi ooren artian: sabel gañen herrestatüko iz, eta lür janen dük biz'izan egün oroz.
15. Etsaigua ezarrien diat hire eta emaztiaren artian, hire eta haren undokuen artian. Bürria zaphatüren deik, eta iseiatüko hitzaio aztaletik usi- kitzera.
16. Emaztiari ere erran zeion: Igorriko deitzüt min handiak izorra denboran; haurrak minekin sorthüren tüzü; gizonaren esküpian zirate, eta zure bürüzagi dükezü.
17. Eta Adami erran zeion: Behatü zielakoz zure emaztiari, eta jan düzülakoz haizü eman eneizün zühañeko frütütik, maradikatürrik dükezü lürra zure gatik; nekez idokiren derozü bizitzeko hazkürria.
18. Emanen deitzü ilhorriak eta khaparrak, eta haziren zira lürreko belharrez.
19. Ogia janen düzü belarreko izerdiaren khostüz, ütüzl zitien artino eginik izan zien lürrialat: erhauts beitzira, erhautstüren zira.



20. Eta bere emaztia Adamek deithü zien Eba, bizi diren ororen ama izan behar zielakoz.

21. Larrüzko arropak eginik, Jinko Jaunak bestitü zütien Adan eta haren emaztia.

22. Eta erran zien: Hau dügüla Adan gü bezalakoxtürük, hunaren eta gaizkiaren jakintsütürük. Eztezala orai eskia eraman biziko zühañiala, ez haren frütütik har, hartarik jan eta bethi bizi eztadin.

23. Jinko Jaunak elkh' erazi ziren gero gozagarriko Pharadüsütik, lanth lezan eginik izan zen lürra.

24. Hantik kanpo igorri zienian Adan, ezarri zien aingürü bat eta süzko ezpata distiazale bat gozagarriko baratze aitzinian, begira lezen biziko zühañialat zuan bidia.

BÜRÜ IV.

Kainek erhaiten dü bere anaia. Kainen undokuak. Sethen sorth-zia.

1. Adamek ezagütü zien Eba bere emaztia, hunek aldiz izorratü zenian, sorthü zien Kain, ziularik: Jinkuari esker, gizon bat badüt.

2. Orano ere sorthü zien Abel hunen anaia. Abel artzañ izan zen, Kain aldiz laborari.

3. Denbora hanitxen бүrian heltü zen nula Kainek lürreko frütüak eskentzen zütüela Jinkuari.

4. Abelek ere eskentzen zeitzon ardi saldoko lehen hüme gizenenak. Eta Jinkuak so gin zien Abeli eta haren dohañer.

5. Etziren aldiz kasürük egin Kaini, ez eta ere haren dohañer. Hortakoz Kain, begithartia ülhüntürük, khexü handitan zaguen.

6. Eta Jaunak erran zeion: Zentako khexü zira? eta zentako ülhüntü zaizü begithartia?

7. Untsa egiten badüzü, eztüzia ükhenen ordaria? eta gaizki egiten badüzü, gaizkia eztatia behala zure borthan? Bena goithüko eta garhaitüko düzü zure nahia.

8. Kainek Abel bere anaieri erran zeion: Hots kanpoalat. Eta alho-rretara heltü unduan, Kainek, joka hasirik, erho zien Abel bere anaia.

9. Eta Kaini Jaunak erran zeion: Nun da Abel zure anaia? Ihardetsi zeion: Eztakit: ene anaia zain niza, ni?

10. Jaunak erran zeion: Zer egin düzü? Zure anaie odola oihüz dia-gozü lürretik ene ganat.

11. Orai maradikatürük zirate lür ahua zabaltü dien huntan anaie odol ixurri düzünaren hürrüpatzeko.

12. Lanthü dükezünian ezteizü ekhoitzik emanen, tzirtziltürük ebilieren zira ihesi lürrian.

13. Kainek Jaunari ihardetsi zeion: Egin düdan gaizkia handiegi düzü nik pharkamentü ükheiteko.

14. Ohilterazten naizü lürretik, gorderen nüzü zure bixtatik. Ihes eta tzirtzil nükezü lürrian, edirenen naienak arren erhoko nizü.

15. Jaunak erran zeion: Eztükezü, ez, hola; Kainen erhailia zazpitan haboroago zehatürük dükezü. Eta Jaunak Kaini keñü bat ezarri zeron, harekin бүrü egilek erho elezen.

16. Kain, Jaunaren aitzinetik hürüntürük, ihes zabilan lürrian, eta egon zen Edeneko ekhia jaikitzen den aldian.

17. Kainek hatik ezagütü zien bere emaztia, eta izorratü zenian hunek, sorthü zien Henok. Egin zien gero hiri bat, izentatü ziena Henokh, bere semiaren izenaz.

18. Henokhek egin zien Irad; Iradek Mabiliael; eta Mabilialek Mathüsael; eta Mathüsaelek Lamekh.

19. Lamekh bi emazterekin ezkontü zen: bata Ada, bestia Sella deit-hiak ziren.

20. Adak sorthü zien Jabel, oihalezko olhetan egoiten direnen, eta artzañen aita.

21. Hunen anaia deithzen zen Jübal, soñü egilen aita.

22. Sellak ere sorthü zien Tübalkain martellükaria, lethu xurizko eta бүrdüñazko lan süerte orotan trebe eta abill zena. Noema Tübalkainen arrea zen.

23. Lamekhek Ada eta Sella bere emazter erran zeion: Lamekhen emaztiak, beha zizte ene elher, entzün ezazie erraitera nuaiziena: Ene kolpiaz erho düt gizon bat, eta beste kolpü batez ere muthiko gazte bat.

24. Zazpitan mendekatürük date Kainen heriotzia, Lamekhena aldiz hirurtan-hogei ta hamar aldiz zazpitan.

25. Adamek bere emaztia orano ere izorratü zien, eta hunek sorthü zien seme bat, izenez Seth, erraiten zielarik: Jaunak eman deit beste seme bat Abel Kainek erho dienaren ordari.

26. Sethi ere sorthü zeion seme bat Enos deithia. Hau hasi zen Jaunari othoitze egiten.



BÜRÜ V.

Adamen undokuak Sethik Noe gan artino.

1. Hau da Adamen undokuen khuntia. Jinkuak gizona egin zien egünian, bere üdüripeniala egin zien.
2. Khotxo eta ürrüxa egin zütien, eta benedikatü zütien, eta deithü Adan, egin zütien egünian.
3. Ehün eta hoge-ta-hamar urtheren bürrian, Adamek egin zien seme bat ber'itxur' eta üdüripeneko, eta izentatü zien Seth.
4. Seth eginez geroztik, Adan biz'izan zen zortzi ehün urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
5. Bederatzü ehün eta hoge-ta-hamar urthez bizi unduan, Adan hil zen.
6. Sethek ere, ehün eta bost urthez bizi unduan, egin zien Enos.
7. Eta, Enos eginez geroztik, Seth biz'izan zen zortzi ehün eta zazpi urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
8. Bederatzü ehün eta hamabi urthez bizi unduan, Seth hil zen.
9. Enosek laurtan hoge-ta-hamar urthez bizi unduan, egin zien Kainan.
10. Kainan sorthüz geroztik, biz'izan zen zortzi ehün eta hamabost urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
11. Eta bederatzü ehün eta bost urthez bizi unduan, Enos hil zen.
12. Kainanek hirurtan hoge-ta-hamar urthez bizi unduan, egin zien Malaleel.
13. Malaleel sorthüz geroztik, biz'izan zen zortzi ehün eta berrogei urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
14. Eta bederatzü ehün eta hamar urthez bizi unduan, Kainan hil zen.
15. Malaleelek hirurtan hoge-ta-bost urthez bizi unduan, egin zien Jared.
16. Eta, Jared eginez geroztik, Malaleel biz'izan zen zortzi ehün eta hoge-ta-hamar urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
17. Eta zortzi ehün eta laurtan hoge-ta-hamabost urthez bizi unduan, Malaleel hil zen.
18. Jaredek hirurtan hoge-ta-bi urthez bizi unduan, egin zien Henokh.

19. Eta, Henokh eginez geroztik, biz'izan zen zortzi ehün urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

20. Eta bederatzü ehün eta hirurtan hoge-ta-bi urthez bizi unduan, Jared hil zen.

21. Henokhek hirurtan hoge-ta-bost urthez bizi unduan, egin zien Mathüsala.

22. Henokh Jinkuari jarraiki zen, eta Mathüsala eginez geroztik, hirur ehün urthez biz'izan zen, eta egin zütien seme et alhaba eli bat.

23. Eta hirur ehün eta hirurtan hoge-ta-bost urthez bizi unduan lürrian, Henokh hil zen.

24. Jinkuari jarraiki beitzen, etzen haboro agertü, Jinkuak eraman beitzien.

25. Mathüsalak ehün eta laurtan hoge-ta-zazpi urthez bizi unduan, egin zien Lamekh.

26. Eta, Lamekh eginez geroztik, biz'izan zen zazpi ehün eta laurtan hoge-ta-bi urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

27. Eta bederatzü ehün eta hirurtan hoge-ta-bederatzü urthez bizi unduan, Mathüsala hil zen.

28. Lamekhek, ehün eta laurtan hoge-ta-bi urthez bizi unduan, egin zien seme bat,

29. Izentatü ziena Noe, zuelarik: Hunek konsolatüren gütü gure akhit-lanetan, eskiez egin behar direnetan, Jinkuak maradikatü dien lürrian.

30. Lamekh, Noe eginez geroztik, biz'izan zen bost ehün eta laurtan hoge-ta-hamabost urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

31. Eta zazpi ehün eta hirurtan hoge-ta-hamazazpi urthez bizi unduan, Lamekh hil zen. Noek bost ehün urthe bethe unduan, egin zütien Sem, Kham eta Jafeth.

BÜRÜ VI.

Gizonak hiotzen dira. Arkha egiten da.

1. Gizonak hanitxten lürrian hasi unduan, eta alhabak egin zütienian,
2. Jinkuaren semek, gizonen alhabak eder zirela ikhususirik, emazteta-kortü züzten agrada zeitzenak oro.



3. Eta Jinkuak erran zien: Ene izpirtia ezta bethi egonen gizonarekila, aragi delakoz; eta oraidanik haren bizi denborak ezteke seitan hogei urthe beno haboro.

4. Ordü hartan jigant eli bat baziren lürrian: Jinkuaren semiak ezkhuntüz geroztik gizonen alhabekin, hoiek sorthü züzten gizon ahal handiko lehen famatü hurak.

5. Ikhusirik gizonen malizia lürrian handi zela, eta memen oroz gogua gaizkiari josirik zütela,

6. Jinkua dolütü zen egin zielakoz gizona lürrian. Eta bihotz min handitan

7. Erran zien: Arrabaskatüko tüt oro egin düdanetan gizonetik alimaletarano, herrestaz ebilzaletarik zelüko txorietarano; dolü beniz egin dütüdalakoz.

8. Noek hatik pharkamentü ediren zien Jaunaren aitzinian.

9. Hoiek dira Noek egin zütien haurrak: Noe gizon xüxen eta beth'e-gin bat zen denbora hartako gizonen artian: Jinkuari jarraiki zen;

10. Egin zütien hirur seme, Sem, Kham eta Jafeth.

11. Lürra hatik hiotü zen Jinkuaren aitzinian, eta gaixtokeiaz bethe.

12. Jinkuak ikhusi zienian lürra hiotü zela (gizonek bizi gaixtua erabilten beitzüten),

13. Noei erran zeion: Goguan dit aragi ooren gal eraztia; gaixtoke-riek lürra bethe beitätü, gal eraziko ditit lürrarekila.

14. Taula aphaintiekin egin ezazü arkha bat: han thegitto eli bat eginen tüzü, eta barnetik eta kanpotik bitümez berekatüko düzü arkha.

15. Eta hola eginen düzü: Arkhak badikezü hirur ehün khamilata lüzetarzünian, berrogei-ta-hamar largotarzünian, eta hogei-ta-hamar goratarzünian.

16. Arkhan eginen düzü khamilata bat gora datien leiho bat. Saihetsian ezarriko düzü arkhako bortha, eta zolatik hasirik eginen tüzü hirur selauri.

17. Ühaldia gaintieraziko dit lürriala, aragi hats hartzen eta zelü pian direnak oro hileraz ditzadan; eta lürrian direnak oro arrabaska ditien.

18. Ene adixkidegua eginen dit zurekin; eta Arkhan sarthüren zireie, zü eta zure semiak, zure emaztia eta zure semen emaztiak.

19. Eta sareraziko dütüzü Arkhan mota güzietarik bi alimale, kotxua eta ürrüxa, bizi ahal ditien zurekila.

20. Txori mota güzietarik bia; ihizi mota güzietarik bia; herrestaz ebiltzale mota güzietarik bia; mota güzietarik bia zurekila han sarthüren dira, bizi ahal ditien.

21. Hartüko düzü arren zurekin bazka behar den orotarik, eta Arkhalat eramanen, zure eta alimale ooren hazteko.

22. Eta Noek Jinkuak manhatü zeitzonak oro egin zütien.

BÜRÜ VII.

Noe Arkhan sartzen da. Ühaldiak lürra gaintitzen dü.

1. Eta Jaunak Noei erran zeion: Sar zizte Arkhan, zü eta zure etxe-kuak oro; bizi dien hoiien artian, ene eretzian xüxen egon zirela ikhusi beitätü.

2. Har etzatzü zazpi khotxo eta zazpi ürrüxa alimale xahü dienetarik, eta bi khotxo eta bi ürrüxa alimale xahü eztiendetarik.

3. Zelüko txorietarik ere har etzatzü zazpi ar eta zazpi ama; haien arraza lür gañen begira dadin.

4. Oraidanik zazpi egünen bürian, euri eraziko dit lürriala berrogei egünez eta berrogei gaiez; eta egin dütüdanak oro arrabaskatüko lür gañetik.

5. Noek egin zütien arren Jaunak manhatü zeitzonak oro.

6. Sei ehün urthe bazütien ühaldiak lürra gaintitü zienian.

7. Noe Arkhan sarthü zen bere semekin, bere emaztiarekin, eta bere semen emaztekin, ühaldia gatik.

8. Alimale xahü zienak eta etzienak, eta txoriak, eta lürrian igitzen zirenak oro

9. Biaka, ara eta ama, sarthü ziren Arkhan, Jaunak Noei manhatü zien bezala.

10. Zazpi egünak igaran unduan, ühaldiko hurrak gaintitü zien lürriala.

11. Noeren adineko sei ehüngerren urthian, bigerren hilabeteke hamazazpigerren egünian, osin handiko üthürriak oro lehertü ziren, eta zelüko ühaitzak ere zabaltü;

12. Eta euria erori zen lürriala berrogei egünez eta berrogei gaiez.

13. Egüna agertü zen bezañ sarri, Noe sarthü zen Arkhan, Sem, Kham eta Jafeth, bere semekin, bere emaztiarekin, eta bere semen hirur emaztekin.

14. Han sarthü ziren basa ihiziak oro, bere motaren arabera; abere mantsuak oro, bere motaren arabera; lür gañen igitzen zirenak oro, bere



motaren arabera; hegaltariak oro, bere motaren arabera; txoriak oro, eta hegaltariak oro,

15. Biaka, aragi zienak oro Arkhan sarthü ziren Noeekilan.

16. Eta sarthü zirenak oro, ar eta ama ziren, motaren arabera, Jinkuak manhatü zeion bezala; eta Jaunak kanpotik zerratü zien Arkha.

17. Üholdia hedatü zen lürrian berrogei egünez; eta hurrek, handitü-rik, altxatü züten Arkha lürretik goiti.

18. Bazter orotarar gaintitürik, lür güzia gorde züten: Arkha hatik hurren gañen zabilan.

19. Izigarriki hurrak handitü, eta goratü ziradien lürrian, eta gordatü züzten zelü pian diren mendi gorenak.

20. Mendi thini gordatü zütienak beno gorago, hamabost khamilata-ra eraiki zen hurra.

21. Lür gañen igitzen zirenak oro, hegaldünak oro, alimaliak oro, ihi-ziak oro, herrestaz ebilzaliak oro;

22. Gizonak oro, bizia eta hats zütienak oro, hil ziren.

23. Lürrian bizi zirenak oro, gizonetik ihizietarano herrestaz ebiltzaliak, aidian hegaltariak bezala, oro arrabaskatürik izan zien lürretik. Noe ber bera baratü zen, harekin Arkhan zirenekilan.

24. Eta hurrek gordatü züten lürra berrogei-ta-hamar egünez.

BÜRÜ VIII.

Hurrak barneat sartzen dira. Noe Arkhatik elkitzen da.

1. Noeez, eta Arkhan harekin ziren basa ihiziez, eta abere mantsuez ohartürik, Jinkuak igorri zien aize bat lür gaña hurren ethereraztera.

2. Zerratü ziren osineko üthürriak, eta zelüko ühaitzak, eta baratü zelüko euriak erortetik.

3. Bazterretarik bulltatürik, barneat sarthü ziren hurrak; eta ether-tzen hasi ziren ehün eta berrogei-ta-hamar egünen bürian.

4. Eta zazpi gerren hilabeteke hoge-ta-zazpi gerren egünian Arkha baratü zen Armeniako mendi gañetan.

5. Hurrak hatik ethertez bazuatzan hamar gerren hilabeteke: hilabete horren lehen egünian mendi thiniak agertzen hasi ziren.

6. Eta berrogei-ta-hamar egünen bürian, Noek Arkhako leihua zabaltürik, hegaltatzera ützi zien bele bat.

7. Kanpua hartürik belia etzen ützüli lürreko hurrak idor artino.

8. Ürzo bat ere beliaren undotik igorri zien kanporat, jakiteko eia hurrek gordatzen zütenez orano lürra.

9. Bena ürzua, ediren etzielakoz nun phausa aztaparra, lürra hurrez estalirik beitzen, ützüli zen, eta Noek, eskia hedatürik, hartü zien eta Arkhan ezarri.

10. Zazpi egünez orano ügürüki unduan, kanporat igorri zien harzara ürzua.

11. Arratsen ützüli zeion, erramü osto berde bat moskuan. Ordian ezagütü zien Noek hurrak lürretik juan zirela.

12. Nahi bada ere zazpi egünez egon zen orano haidürü; eta igorri zien ürzua etzeion haboro ützüli.

13. Noeren adineko sei ehün eta bat urtheren bürian, lehen hilabeteke lehen egünian, lür gañen ziren hurrak barneat sarthü ziren eta Noek, Arkhako hegatza xilatürik, so gin ziren, eta ikhusi lürra idortürik zela.

14. Bigerren hilabeteke hoge-ta-zazpigerren egünian lürra idor idortü zen.

15. Minzatü zen Jinkua Noei, erraiten zeolarik:

16. Jalkh zizteie Arkhatik, zü eta zure emaztia, zure semiak eta zure semen emaztiak.

17. Eraman itzatzü hantik zurekilan zien alimaliak oro, motaz mota, txoriak eta ihiziak, eta herrestaz ebilten direnak: eta sar zizteie lürrian: han handi eta hanitx zizteie.

18. Noe elkhi zen arren Arkhatik bere semekin, bere emaztiarekin, eta bere semen emaztekin.

19. Basa ihiziak oro, abere mantsuak, eta herrestaz ebilten zirenak oro, motaz mota, elki ziren hantik.

20. Noek, althare bat Jaunari altxatürik, althare gañen eskentü zitzon erorerik hartü zütien alimale eta txori xahü eli bat.

21. Jaunak dohañ horri hunki-jin egin zeion, üsañ gozogarri bati bezala, eta erran zien: Haboro eztüt ene madarikhua lür gañen iauroko gizonen gatik: gaztaro danik gizonen izpiritia eta gogokak gaitzuala duatzalakoz. Eztüt arren joko, egin dütüdan bezala, bizi dienak eta hats hartzen dütienak.

22. Lürra irañen den bezañ beste, zorhitzia aziari, berua hotzari, negia üdari, egüna gaiari, bethi ere jarraikiko dia.



BÜRÜ IX.

Jinkuaren adixkidegua Noekilan. Noek benedikatzen tü Sem eta Jafeth, madarikatzen aldiz Khanaan.

1. Eta Jinkuak benedikatü zütien Noe eta Noeren semiak, eta erran zeien: Handi eta hanitx zizteie, eta lürra beth'ezazie.
2. Lürreko alimaliak oro, eta zelüko txoriak oro, izi eta ikhara dituela ziren aitzinian, herrestaz lürrian ebilten diren güziekin: itxasoko arrañak oro ezarri deitziet eskietan.
3. Bizitzen eta igitzen direnak oro hazkürritako dütükezie: eman beteiziet baratzeko eta kanpoko belharrak bezala.
4. Eztüt hatik nahi jan dezazien odolian nahasi aragirik.
5. Mendekatüko niz ihizi odola ixurten deitzienez; mendekatüko niz gizonari bizia idokiten gizonaz, aniaz edo atzeaz.
6. Nurk ere gizonari odola ixuriko beitu, bere odola ixuririk düke: gizona eginik beita Jinkuaren üdüripeniala.
7. Handi zizteie arren, eta hanitx; sar zizteie lürrian, eta beth'ezazie lürra.
8. Jinkuak erran zeien orano Noei eta harekin haren semer:
9. Adixkidegua eginen dü zirekilan, eta ziren undoko aziarekilan;
10. Eta ihizi zirekin bizi diren güziekilan, txoriekilan, alimale mantso eta basa Arkhatik elkhi direnekilan, eta lürreko ihizi güziekilan.
11. Eginen dit ene adixkidegua zirekin, eta aragi bizi datiena heben danik harat eztüzü ühaldiko hurretan ithoko; ezpeitate haboro ühaldirik lürra arrabaskatüren dienik.
12. Jinkuak erran zien: Hau da ene eta ziren artian, eta zirekilan bizi diren alimalen artian ezarten düdan kheña.
13. Ene Adarra ezariko düt odeietan, eta lürrarekin egin düdan adixkideguako kheña date.
14. Eta zelia odeiez übeltü dükedanian, en' Adarra agertüko da odeietan;
15. Eta ohartüko niz zirekilan eta bizi eta hats dütien güziekilan egin düdan adixkideguaz, eta eztateke haboro ühaldirik aragi düteienen arrabaskatzeko.
16. En' Adarra odeietan dateke, eta ikhusiko dü, eta ohartüko niz Jinkuaren eta lürrian bizirik hats hartzen diren ooren artian eginik den adixkideguaz.

17. Eta Noei Jinkuak erran zeion: Hori dükezü lürrian bizi diren güziekin egin düdan adixkideguako kheña.
18. Arkhatik elkhi ziren Noeen semiak, Sem, Kham eta Jafeth zien. Kham Khanaanen aita da.
19. Hoiek dira Noeen hirur semiak: eta hoietarik elkhi da lürreko gizonen arraza oro.
20. Noe laboraria hasi zen lürren lantzen, eta lanthatü zien aihena.
21. Eta ardu edanik, orditü zen, eta pikarraitü bere oihalezko olhan.
22. Kham, Khanaanen aita, gordallian egon behar zien aitaren ahalkegarriak ageri ziela ikhusirik, elkhi zen kanpulat bere bi anaier ikhusi zienaren erraitera.
23. Bena Sem eta Jafethen estalgi bat biek suñian hartürik, gibeltzez juaitez, aitaren gordallian egon behar zien ahalkegarriak estali zütien. Begithartia beste aldialat ütülirik beitzüten, aitaren ahalkegarriak etzüzen ikhusi.
24. Bere arduatik iratzartzian, eta jakin unduan bigerren semiak zer egin zien, Noek
25. Erran zien: Madarika dadila Khanaan: izan dadila bere anaien mithilen mithila.
26. Erran zien orano ere: Benedika dadila Semen Jinko Jauna, eta Khanaan izan dadila haren mithil.
27. Jinkuak hanitx eraz dezala Jafethen azia, eta Semen oihalezko olhetan egon dadila, eta Khanaan izan dadila haren mithil.
28. Ühaldia jinez geroztik, Noe biz'izan zen orano hirur ehün eta berrogei-ta-hamar urthez.
29. Eta bederatzü ehün eta berrogei-ta-hamar urthez bizi unduan, hil zen.

BÜRÜ X.

Noeen hirur semen leñhüra.

1. Hau da Noeen semen, Sem, Kham eta Jafethen, ühaldiaren undotik sorthü zeitzen haurren leñhüra.
2. Jafethen semiak ziren Gomer, Magog, Madai, Jaban, Thübal, Mosokh eta Thiras.
3. Gomerrenak: Aszenas, Rifat eta Thogorma.



4. Jabanenak: Elisa, Tharsis, Zethim eta Dūdanim.
5. Algarren artian phartitū zütüzten nazionen ühartiak, egongia egin zütelarik hanitx lekhütan, eta bakhoitxak han bazien bere mintzajia, bere familia eta bere popūlia.
6. Khamen semiak ziren: Khüs, Mesraim, Thüth eta Khanaan.
7. Khüsenak: Saba, Hebila, Sabatha, Erregma eta Sabatakha. Erregmarenak: Saba eta Dadan.
8. Khüsek egin zien Nemrod lürrian ahaltsü izaten hasi zena.
9. Jinkuaren aitzinian ihizlari handi bat beitzen; zaharrek erraiten züten: Jaunaren aitzinian Nemrod bezalako ihizlari handi.
10. Hunen erresumak hatsarre hartü zien Babilonan, Arakhen eta Akhaden eta Khalannen, Sennaareko lürrian.
11. Alde hortarik elkhi zen Asür, Ninibako hiri eta kharrika, khalekua ere egin zütiena.
12. Eta Niniba eta Khaleen artian egin zien Erreseneko hiri handia.
13. Mesraimen seme ziren Lüdim, eta Araniim, eta Laabim, eta Neftüim,
14. Eta Fetrüsüm, eta Khaslüim, zuñetarik elkhi beitrade Filistinak eta Kaftorinak.
15. Khanaanek egin zütien Sidon, haren primia, Ethe,
16. Jebüseus, Amorheus, Jerjeseus,
17. Hebeus, Arazeus, Sineus,
18. Eta Aradius, Samareus, eta Amatheus; eta hoietarik elkhi dirade Khananeako jentiak.
19. Kanaaneko zedarriak hedatzen dirade Sidonetik, Jerarat baduan bide aldetik Gazal'artino, eta Sodoma, Gomorha, Adama eta Seboim hegitik Lesal'artino.
20. Hoiek dirade Khamen semiak bere askaziguen, mintzajen, undokuen, egongien eta popūlien arabera.
21. Heberen undoko güzien aitak, Jafeten anaie gehienak, Semek ükhen zütien haur eli bat.
22. Semenak ziren: Elam, Asür, Arfatsad, Lüd eta Aram.
23. Aramenak: Üs, Hül, Jether eta Mes.
24. Arfatsadek egin zien Sale, Heberen aita.
25. Heberak ükhen zütien bi seme: bata deitzen zena Faleg, hunen bizi denboran phartitürük izan zelakoz lürra: bestia aldiz, Jektan.
26. Jektanek ükhen zütien Elmodad, eta Salef, eta Asarmoth, eta Jare,
27. Eta Adüram, eta Üzal, eta Dekla,
28. Eta Ebal, eta Abimael, Saba,

29. Eta Ofir, eta Hebila, eta Jobab: hoiek oro, Jektanen haurrak.
30. Hoiengonkiak hedatzen ziren Mesatik Sefareko ekhi ürratziari soz daguen mendia artino.
31. Hoiek dirade Semen haurrak bere askaziguen, mintzajen, egongien eta popūlien arabera.
32. Hoiek dirade Noeen undokuak bere popūlien eta nazionen arabera. Hoietarik elkhi ziren, ühaldia jinez geroztik lürreko nazione güziak.

BÜRÜ XI.

Babeleko thorria. Semen undokuak Abrahamer' artino.

1. Ordian lürrak mihi bat, eta mintzaje ber ber bat baizik etziren.
2. Eta gizonak, goiz aldetik abiatürük, ediren züten güne bat Senaareko aldian, eta han egon ziren.
3. Eta batek bester erran züten: Tziauzte, egin ditzagün teillak, eta erra ditzagün süian. Harritako teillak, eta latsüntako bithüma ükhen züten:
4. Eta erran züten: Tziauste, egin dezagün hiri bat, eta zelia bezañ gorako thorre bat; eta fama dadila gure izena, gü bazter güzietarat barreatü beno lehen.
5. Jinkua hatik erraitsi zen Adamen hurrek egiten züten hiriaren eta thorriaren ikhustara.
6. Eta erran zien: Giza saldo hunek ber mihia beiti; lan hasi dien hori ürhent artino, eztükete beste gogorik.
7. Tziauste arren, erraits giten, eta nahas dezagün hoiengonkiak, algar enthelega ahal eztezen.
8. Eta holaxet Jaunak barreatü zütien güne hartarik bazter orotarar, eta hiriaren egitetik baratü zien.
9. Eta hortakoz güne hura deithü zen Babel, han lürreko mintzajia oro nahastekatürük izan zelakoz: eta hantik Jaunak barreatü zütien gizonak bazter güzietarat.
10. Hau da Semen hurren leñhüra: ehün urthe bazütien Semek, Arfatsad egin zienian, ühalditik bi urtheren bürian.
11. Eta Arfatsad eginez geroztik, bost ehün urthez biz'izan zen, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.
12. Arfatsadek, hogeita-hamabost urthetan, egin zien Sale.



13. Eta, Sale eginez geroztik, biz'izan zen hirur ehün urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

14. Salek, hogei-ta hamar urthetan, egin zien Heber.

15. Eta Heber eginez geroztik, biz'izan zen laur ehün eta hirur urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

16. Heberrek, hogei-ta-hamalur urthetan, egin zien Faleg.

17. Eta, Faleg eginez geroztik, biz'izan zen laur ehün eta hogei-ta-hamar urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

18. Falegek, hogei-ta-hamar urthetan, egin zien Erreu.

19. Eta, Erreu eginez geroztik, biz'izan zen berrehün eta bederatzü urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

20. Erreuk, hogei-ta-hamabi urthetan, egin zien Sarüg.

21. Eta, Sarüg eginez geroztik, biz'izan zen orano berehün eta zazpi urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

22. Sarügek, hogei-ta-hamar urthetan, egin zien Nakhor.

23. Eta, Nakhor eginez geroztik, biz'izan zen berrehün urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

24. Nakhorek hogei-ta-bederatzü urthetan, egin zien Thare.

25. Eta, Thare eginez geroztik, biz'izan zen ehün eta hemeretzü urthez, eta egin zütien seme eta alhaba eli bat.

26. Tharek, hirurtan hogei-ta-hamar urthetan, egin zütien Abram, eta Nakhor, eta Aran.

27. Hoiek dirade Thareen undokuak: Tharek egin zütien Abram, Nakhor eta Aran. Aranek egin zien Lot.

28. Thare, haren aita beno lehen, Aran hil zen bere sorth lekhian, Üren, Khaldeako aldian.

29. Abram eta Nakhor ezkhuntü ziradien: Abramen emaztia deithzen zen Sarai, Nakhorena aldiz Melkha, Aranen alhaba; Aran Melkharen eta Jaskharen aita beitzen.

30. Saraik hatik, behota beitzen, etzian haurrik.

31. Tharek arren Ür Khaldeakotik eraman zütien Abram, bere semia, Lot bere semeñia, Aranen semia, eta Sarai, ber'alabaizüna, Abramen emaztia, Khanaaneko aldialat: eta Haranera heltü unduan, han egon ziradien.

32. Eta Thare, berrehün eta bost urthez bizi unduan, hil zen.

BÜRÜ XII.

Abrahamen deia. Kanaaneko aldialat badua, eta eraisten da Ejiptuala.

1. Jaunak erran zien gero Abrami: Ütz ezatzü zure herria, zure etxe-kuak, zure aitaren etxia, eta tziauri nik erakhutsiko deizüdan lürriala.

2. Eginen zütüt jente hanitxen aita, benedikatüren zütüt; zure izena handi' raziren dit, eta benedikatüririk zirate.

3. Benedikatüko tit benedikatüren zützenak, madarikatüko ere madarikatüren zützenak, eta lürreko nazioniak oro benedikatüririk dütü-kezü zütan gañen.

4. Abram elkhi zen arren, Jaunak manhatü zeion bezala, eta Lot juan zen harekilan: Hirurtan hogei-ta-hamabost urthe bazütien Abramek elkhi zenian Haranetik.

5. Eta eraman zütien berekilan Sarai bere emaztia, eta Lot bere anaiaren semia, eta zütien hatiak oro, eta Haranen sorthü zeitzenak oro: eta elkhi ziren hantik Khanaaneko aldialat juaiteko. Eta hara heltü zirenian,

6. Abram aitzinago juan zen Sikheneko günial'artino, naballa famatial'artino. Ordü hartan Khananearrak ziren aldi hartako nausiak.

7. Jauna agertü zen Abrami, eta erran zeion: Zure aziari emanen dit güne hau. Eta han agertü zeion Jaunari althare bat egin zeion Abramek.

8. Eta hantik Bethel beno goizago den mendi batetara igaranik, han hedatü zien bere oihalezko olha, Bethel zaguelarik arratseko aldian, Hai aldiz goizeko aldian: Güne hartan ere althare bat altxatü unduan, oihü egin zien Jaunari.

9. Aitzinagotzez juan zen Abram ügerdiko aldialat.

10. Bena gosete bat alde hartara heltüririk, Abram eraitsi zen Ejiptuala han arrotz bezala egoiteko, gosetia handi zelakoz.

11. Eta Ejiptuan sartzera zuatzalarik, Sarai bere emaztiari erran zeion: Badakit emazte ederra ziela:

12. Baita ere Ejiptuarrek, ikhusi zütükienian, erranen dütela: Gizon hunen emaztia da: eta erhoko nizie zure begiratzeko.

13. Errezü arren, othoi, ene arreba zirela: hunki-jin egin deizaden zure gatik, eta bizia begira deizaten.

14. Ejiptuan sarthü zenian Abram, Ejiptuarrek ikhusi zütien emaztia ederrenetarik ziela.



15. Eta aitzindariak, berri emanik Farauni, emaztia haren aitzinian laidatü züten, baita altxatü eta eraman Faraunen etxerat.

16. Haren gatik Abrami hunki-jin egin züten: eta ükhen zütien ardi, idi, asto, mithil eta neskato, ast'ama eta khamelü eli bat.

17. Bena Jaunak zauri handi eli bat igorri zütien Farauni eta haren etxekuer, Sarai Abramen emaztia, zela kausa.

18. Jinerazirik bere gana Abram, Faraunek erran zeion: Zertako hola egin deitazüt? zertako ezteitazüt erran zure emaztia zela?

19. Ezteiküzia erran zure arreba zela, nik emaztetako har ahal nezan? Hor düzüia orai zure emaztia; har ezazü, eta zuaza.

20. Faraunek bere jenter manhatürik, kanporat lagüntü züzten Abram bere emaztiarekilan, eta bere hatü güziekilan.

BÜRÜ XIII.

Abraham eta Lot algarganik hürrüntzen dira. Jinkuak bere hitz emana araberritzen deio Abrahami.

1. Abraham Ejiptotik elkhi unduan bere emaztiarekin, bere huntarzünekin, eta Lotekilan, juan zen ügerdiko aldialat.

2. Aberats aberatsa zen, ürhe eta diharü hanitx beitzien.

3. Eta ügerdiko aldetik Bethelerat ützüli zen, jin zen bidiaz, bere oihalezko olha hedatü zien güñiala, Bethelen eta Haien artiala,

4. Altharia lehen egin zien güne hartara, eta han oihü egin zien Jaunaren izenari.

5. Lotek ere, Abramekin zenak, bazütien ardi eta idi salduak, eta oihalezko olhak.

6. Lekhia birentako hersiegi zen, aberatstarzün handiak zütielakoz, eta etztien algarrekilan egon ahal.

7. Hortakoz arren aharra handi bat eraiki zen Abramen eta Loten artzañen artian. Denbora hartan ere Khananearrak eta Feresearrak egoiten ziren alde hartan.

8. Abrahamek erran zien arren Loti: Eztadila, othoi, aharrarik izan zure eta ene artian, ez eta ere zure eta ene artzañen artian, anaie beikirade.

9. Lürra oro zure aitzinian düzü; ene ganik hürrünt zite, othoi: eixkerrialat hartzen badüzü, juanen nüzü ni esküñialat; esküñeko aldia berhezten badüzü, eixkerrekualat juanen nüzü.

10. Lotek arren, büria altxatürik, begiztatü zien Jordane undotik Segorerano hedatzen zen güne güzia; Sodoma eta Gomorha Jaunak arrabaskatü beno lehen, güne harek hurrez millikatürik üdüri beitzien Jaunaren baratzia eta Ejiptua.

11. Eta Jordane khantian berhezirik bere egongia, Lot goizeko aldetik hürrüntü zen: Holaxet bi anaiak algarretarik phartitü ziren.

12. Abraham egon zen Khanaaneko lürretan, eta Lot aldiz Jordane khantian ziradien hirietan, eta egon zen Sodomán.

13. Sodomarrak hatik gizon gaixto eta gaizki egile handiak ziren Jaunaren aitzinian.

14. Eta Jaunak Abrami erran zeion, Loten ganik hürrüntü zenian: Altx'itzatzü begiak, eta orai zü zien lekhü hortarik, negü eta ügerdi aldialat, goiz eta arrats aldialat.

15. Ikhusten tüzün lürak oro emanen deitziet zuri eta zure undokuer egün eta bethiko.

16. Zure leñhüra hanitxtüko düzü lürreko erhautsa bezañ. Lür erhautsa khunta ahal balin bada, zure leñhüraen belhañak ere khunt ahal dita- ketzü.

17. Jaiki zite, eta ürhots egizü güne horen lüzetarzüñian eta largotarzüñian; güne hori emanen beteizüt.

18. Bere oihalezko olha eraikirik Abram, egoitera jin zen Manbreko naballa unduala, Hebroneko aldiala; eta han Jaunari altxatü zeion althare bat.

BÜRÜ XIV.

Bost hirietako errege gerla. Melkhisedekkek benedikatzen dü Abraham.

1. Denbora hartan hatik Amrafel Sennaareko erregek, Ariokh Ponteko erregek, Khodolahomor Elamiten erregek, eta Thadel Nazionen erregek,

2. Gerla eman züten Bara Sodomako erregeri, Bersa Gomorhako erregeri, Sennaab Adamako erregeri, Semeber, Sodoimeko erregeri, eta Bela, Segor deneko erregeri.

3. Hoiek oro algar gana jüntatü ziren Oihaneko naballan, orai itxaso gazia den güñian.



4. Hamabi urthez Khodolahomorren eskü pian egonik, hamahirur gerrenian haren manü petik elkhi ziren.
5. Hamalaur gerren urthian arren Khodolahomor jin zen hari jüntatü ziren erregekin, eta goithü zütien Astaroth Kharnaimen Errafaimtarrak, eta hoiekin ziren Züzimarrak. Goithü zütien ere Emimtarrak Sabe Kariathaimian,
6. Eta Khorreatarrak aldiz Seireko mendietan Faraneko desertian den kanpuetarano.
7. Hantik ütültzian, jin ziren Misfateko üthürriala, Kadeseke günian deniala, eta arrabaskatü züzten Amalezitarren eta Amorheentar Asasont-hamarren zaudenen bazterrak oro.
8. Eta Sodomeko, Gomorheko, Adamako, Seboimeko, eta Bela, Segor deneko, erregek, kanporat elkhirik güdükan aritzeko, herrokaka hedatü züzten bere gizon salduak Oihanetako naballan, errege haier büri egiteko:
9. Erran nahi beita Khodorlahomorri, Elamitarren erregiari, Thadali, Nazionen erregiari, Amrafeli, Sennaartarren erregiari, eta Ariokhi, Ponteko erregiari; laur errege bosten kuntra.
10. Oihaneko naballak bithümezko phützü hanitx bazütien. Sodomatarren eta Gomorheko erregek ihes egin züten, eta han goithürik izan ziren, eta salbatü zirenak aldiz mendietan gora juan ziren.
11. Eta Sodomako eta Gomorheko huntarzünak eta jakiak oro hartürik, goithzaliak hürrüntü ziren hantik.
12. Berekilan eramaiten züztelarik Lot, Abramen anaiaren semia, eta haren hatü güziak, Sodomén egoiten beitzen.
13. Eta salbatü ziren haietarik bat berri hori ekharri zien Abram Hebrearari, Manbre Amorheararen, Eskolen eta Aneren anaiaren naballan, zaguenari: hoiek adixkidegua egin beitzüten Abramekin.
14. Abramek, entzüin unduan atzaman zütela Lot haren illoba, bere mithil gothorrenetarik berhezi zütien hirur ehün eta hamazortzi, eta lasterkatü zütien errege huak Dan artino.
15. Bere lagünak phartitürik, gaiaz errorri zen etsaien gaña, zaflatü zütien, baita ere lasterkatü Hoba, Damasén eixkerrian den günialano.
16. Eta eraman zeitzen hartü zütienak oro, Lot bere anaia, eta hunekil zirenak, emaztiak eta popülia.
17. Eta ütültzen zelarik, garhaitü unduan Khodorlahomor eta hunekil ziren erregiak, Sodomako errege aitziniala elkhi zeion Sabeko naballala, errege naballala.

18. Melkhisedekhek, Salemeko erregiak, ogi eta ardu eskentzen zeitzolarik, Jinko gain gainkuaren apheza beitzen,
19. Benedikatü ziren Abram, erraiten zeolarik: Jinko gain gainkuak, zelia eta lürra egin dütienak, benedika zitzala:
20. Eta Jinko gain gainkua benedika dadila, lagüntü beitzüte zure etsaien garhaitzen. Eta Abramek eman zeion bildü zütien detxima.
21. Sodomako erregek erran ziren hatik Abrami: Eman itzadatzü jentia, eta beste gaizak oro begir'itzatzü zuretako.
22. Abramek ihardetsi zeion: Besua goititzen dit Jinko Jaun gain gainkua ganat, zeliaren eta lürraren büüzagia ganat,
23. Nula eztüdan deusik hartüren, bilbe haritik oski ligetar' artino, zuriak dienetarik, erran ahal eztezazün: Nik aberatstü düit Abram;
24. Mithilek jan dütena salbü, eta enekin jin diren gizonen, Aneren, Eskolen eta Manbreren phartia salbü: hoiek hartüko dizie zor zaien phartia.

BÜRÜ XV.

Jinküa agertzen da Abrahami. Seme bat hitzemaiten deio. Jinkuak Abrahamekin bakiak egiten tü.

1. Hoiek hola igaran unduan, Jauna agertzen zeolarik, mintzatü zen Abrami, eta erran zeion: Abram, etzitiela lotsa, zure althe beniz, dohañ handiak dütükezü zük.
2. Abramek ihardetsi zeion: Jinko Jauna, zer emanen deitazüt? Haurrik gabe hilen nüzü, bona Eliezer Damaseko ene etxeko aitzindariaren semia.
3. Azirik eman ezpeiteitadazüt, ene mixkandia diket primütako.
4. Eta behala Jaunak erran zeion: Eztükezü, ez, hori zure primia; zure zañetarik elkhiren den bat dükezü primütako.
5. Eta kanporat eraman zirenian, erran zeion: Gor'itzatzü begiak, eta ahal batützü, khunt'itzatzü zelüko izarrak: hola hola dükezü zure azia.
6. Abramek sinhetsi zien Jinkua, eta agradatü zeion.
7. Eta Jinkuak erran zeion: Ni nüzü Khaldeako Üretik idoki zütien Jauna lür hunen zuri emaiteko, zuria izan ahal zadin.
8. Abramek ihardetsi zeion: Jinko Jauna, nula dakiket ükhen düdala?



9. Jaunak erran zeion: Har itzatzü hirur urthetako behi bat, hirur urthetako ahüntz bat, eta hirur urthetako ahazartz bat, üzaphal bat eta üzro bat.

10. Abramek abere hoiek hartürrik, erdiz erdi trenkatü zütien, eta trenkatü bi zathiak algarren eretzian ezarri: Etzütien hatik zathikatü üzaphala eta üzua.

11. Txoriak hegaltaz horra ziren aragi hiliala, eta Abramek ohiltzen zütien.

12. Ekhia etzatera zuelarik, lo handi batek hartü zien Abram, eta harritü zen beldürrez ülhünpian zelakoz.

13. Eta elhe hoiek entzün zütien: Jakin ezazü geruan zer heltüren zaion zure leñhürari; egonen düzü atzeguan besteren lürretan, mixkandi dükezü, minez lehertürrik, laur ehün urthez.

14. Nahi bada ere, nik hatik jüjatüren dit zure undokuen nausi datien popülia, eta elkhiren tüzü aberatstürrik.

15. Zü aldiz bakian zure aitasuen ganat juanen zirade, ehortzirik zahartarzün hun batetan.

16. Zure laur gerren belhañeko undokuak hunat ütüzüliren tüzü: Amorhetarren gaixtokeriak ezpeitira orano mükhürri.

17. Ekhia etzan unduan, ülhünpe beltz beltz bat egin zen, eta sügarretan zen khezko labe batetarik sütü bat igaran zen zathikatürrik ziren ihizien erditik.

18. Eta egün hartan Jaunak egin ziren axkidegua (sic) Abramekilar, erraiten zeiolarik: Zure undokuer emanen dit Ejiptoko ibaietik Eüfratako ibai handialano hedatzen den güne güzia,

19. Zinetarren, Zenezetarren, Zedmonetarren,

20. Ethetarren, Feresetarren, eta Errefaitarren,

21. Eta Amorhetarren, eta Khananetarren, eta Jerjesetarren, eta Jebüsetarren herriak orai han beitira.

BÜRÜ XVI.

Abrahamek hartzen dü Agar emaztetako. Ismael sorthzen da.

1. Saraik, Abramen emaztiak, etziren arren haurrik egin; bena nula beitziren Ejiptutar neskato Agar deithü bat,

2. Bere senharrari erran zeion: Jaunak kherestatü nizü haurrik egin ahal enezan: zuaza arren ene neskataua ganat, jakin dezadan eia eginen deitadanez haurrik. Eta Abramek bai erran zeionian,

3. Saraik hartü ziren neskato Agar Ejiptutarra, eta eman emaztetako bere senharrari hamar urtheren bürian Khanaanen egoiten hasi zirenaz geroztik.

4. Abram neskataua gana ebili zen; eta Agar, izorra zela düdatürrik, ber'etxek' anderiaren ihikistatzen hasi zen.

5. Eta Saraik Abrami erran zeion: Gaizkiz ari zitzait; nik eman deizüt ene neskataua emaztetako; eta, izorra delakoz, ihikistatzen nizü. Jaunak izart gitzala zü eta ni.

6. Abramek erran zeion: Zure eskietan düzü neskataua; egin izozü nahi düzüna. Eta Saraik zaflatü zirenian, Agar ihesi juan zen.

7. Eta Jaunaren aingürriak, ber bera ediren zirenian desertian, Sürerat duan bideko üthürri khantian,

8. Erran zeion: Agar, Saraien neskataua, nuntik horra zira? eta nuat zuaza? Eta ihardetsi zeion: Sarai ene etxek' anderiaren begietarik hürrüntzen nüzü.

9. Jaunaren aingürriak erran zeion: Ützül zite zure etxek' anderiaren ganat, eta haren eskü pian belharika zite.

10. Eta zure azia hañ hanitxtüko dit nun ezpeitateke khunta.

11. Erran zeion orano ere: Izorra beitzirade sorthüko düzü seme bat, Ismael deithüren düzün bat, Jaunak entzün dielakoz zure bihotz-mina.

12. Gizon harro eta basa bat dükezü, eskia gora dükiena ororen kuntra, orok ere hunen kuntra: Oihalezko-olhak altxatüko ditüzü bere anaieren eretzian.

13. Ordian Jaun mintzo zeionaren izena deithzez, Agarek erran zeion: Zü zirade Jinko ni ikhusi naizüna. Erran beitzien: Segürki gibeletik ikhusi düit ikhusi naiena.

14. Hortakoz deithü zien phützü hura, bizi denaren eta ikhusten naiaren phützia. Kadesen eta Baraden artian den phützia da.

15. Agar erdi zen gero seme batez, Ismael izentatü zienaz Abramek.

16. Agarek sorthü zeionian Ismael, bazütien Abramek laurtan hogeita sei urthe.



BÜRÜ XVII.

Jinkua Abrahami agertzen da. Izena khanbiatzen deio eta seme bat hitzemaiten. Zirkonzisionia.

1. Abram sarhzen zelarik laurtan hogeita himeretzü gerren urthian, Jauna agertü zeion, eta erran zeion: Ni nüzü ahalorotako Jinkua: ebil zite ene aitzinian ogenik egin gabe.
2. Zurekilan eginen dit ene adixkidegua, eta hanitx hanitxeraziko zütüt.
3. Ahozpez lürriala jarri zen Abram.
4. Eta Jinkuak erran zeion: Ni nüzü; zurekilan ene adixkidegua eginen dit, eta nazione hanitxen aita zirate.
5. Etsizade haboro deithüren Abram; deithüko zirade Abraham, hartü beitzütüt nazione salduen aita izan zitien.
6. Hanitx hanitxeraziko dit zure azia; ezarriko zütüt nazione бүрү, eta zütarik elkhiren tüzü erregiak.
7. Zurekilan eginen dit ene adixkidegua, eta zure undokuekin, bethiko üztarri batez: izan nadin zure Jinkua, eta, belhañez belhañ, zütarik landan, zure undokuen Jinkua.
8. Eta emanen deiziet, zuri eta zure undokuer, orai, atze gisan, egoiten zien lürra, bethiko ükhen dezen zure undokuek; eta haien Jinkua nükezü.
9. Abrahami erran zeion orano Jinkuak: Ene adixkidegua begiratüren düzü zük ere, zure undokuek ere begiratüko dizie belhañez belhañ.
10. Hau düzü zurekilan egiten düdan üztarria: Begira dezazien ziek eta zure undokuek: ziren artian khotxo direnak oro zirkonzisitürik izan ditiela:
11. Aragi mutxtüra hori izan dadin zirekilan egiten düdan adixkideguako kheñia.
12. Zien zortzi egünetako haurra zirkonzisitürik date, eta, belhañez belhañ; undotik sorthüren zaitzienak oro, mixkandi ziren etxen sorthiak, erosi dütükezienak bezala, eta ziren odoletik eztatratekienak ere zirkonzisitüko dirade.
13. Eta bethiko zurekin egiten düdan adixkideguako kheñia zure aragi gañen dükezü.
14. Khotxo zirkonzisitürik eztatiena, galdüren da bere popüliaren erditik, ene üztarria mesperetxatü beitüke.

15. Abrahami Jinkuak erran ziren orano: Eztüzü gehiago deithüren zure emaztia Sarai, bena bai Sara.

16. Eta benedikatüren dit, eta emanen deizüt harek sorthürik benedikatüko düdan seme bat; nazione hanitxen бүria beitate, eta haren ganik erregiak elkhiren beitrade.

17. Ahoz petü zen Abraham, eta erri egin zien, goguan ziolarik: Ehün urthetako gizonak ükhen liua seme bat? Eta Sara erdi laitia laurtan hogeita hamar urthetan?

18. Eta Jinkuari erran zeion: Bizi dadila Ismael zure aitzinian.

19. Eta Abrahami Jinkuak erran zeion orano: Sara zure emaztiak sorthüren deizü seme bat, deithüren düzüna Isaak, eta bethiko adixkidegua bat eginen dit harekin, eta haren undokuekin.

20. Othoitü naizün bezala, eginen dit Ismaelen; benedikatüren dit, eta emanen diot undotze handi eta hanitx bat: hamabi printzeren eta popülü handi baten aita dükezü.

21. Bena ene üztarria Isaakekila eginen dit, egün huntarik urthe бүrian sorthüren deizü Sarak.

22. Abrahamekilan bere solaza ürhentürik, Jinkua gora juan zen.

23. Abrahamek hartü zütien Ismael, eta etxen sorthü zeitzon mixkandiak oro, eta erosi zütienak oro, haren etxen khotxo zirenak oro, eta behala, egün berian, zirkonzisitü zütien, Jinkuak manhatü zeion bezala.

24. Lurtan hogeita-hemeretzü urthe bazütien Abrahamek zirkonzisitü zenian.

25. Eta Ismaelek hamahirur urthe bethe zütien zirkonzisioneko denboran.

26. Ber egünian Abraham eta Ismael zirkonzisitürik izan ziren.

27. Eta etxen sorthü khotxo mixkandiak oro, eta lür atzetan sorthürik zirenak oro, zirkonzisitürik izan ziren.

BÜRÜ XVIII.

Hirur aingürü agertzen dira Abrahami. Sodomako arrabaskia.

1. Abrahami Jauna agertü zeion Manbreko naballan, jarririk zelarik ügerditan oihal-olhako athalazian.

2. Begiak eraiki zütienian, hirur gizon khantian agertü zeitzon, eta ikhusi zütienian lehian aitziniala juan zeien, eta belharikatürik,



3. Erran zeien: Jauna, grazia ediren badüt zure aitzinian, etzitiela igaran heben baratü gabe.
4. Ekharriko deiziet hur txorta bat zankhuen ükhüzteko; eta phausa zizteie zühañ pe huntan.
5. Eta eman deiziet ogi buxi bat, indarren altxatzeko, eta igaranen zizte gero: hortakoz jin beitzireie ziren zerbütxaria gana. Ihardetsi zioien: Egizü erran düzüna.
6. Abraham lehian sarthü zen etxen, eta Sarari erran zeion: Ohatzazü fite hirur irin izarri, eta err'etzatzü ophilak hauts pian.
7. Ordü berian juan zen bere azindala, eta aretxe gizen hun bat hartürrik, eman ziren bere mithil bati erra lezan.
8. Zenbera eta ezne eman zeien jatera aretxe erriaekin, eta bera txüti zaguen zühañ pian, haien khantian.
9. Eta jan unduan galthatü zeioten: Nun da Sara, zure emaztia? Ihardetsi zeien: Oihal-olhan.
10. Batek Abrahami erran zeion: Urthe bürian bizi baniz, ikhustera jinen nitzaizie, eta Sara zure emaztiak badikezü seme bat. Hori entzünik, oihal-olhako bortha gibeletik erriz hasi zen Sara.
11. Biak zaharrak eta adin handikuak zielakoz, eta Sarak galdü zütielekkoz emazten hilabethe liliak.
12. Erri egin zien arren ixil ixila, ziuelarik: Zahartürrik nizalarik, eta ene Jauna ere zaharskatürrik denian, ezkhunt lanetan ari nintake?
13. Jaunak hatik Abrahami erran zeion: Zentako erri egin dü Sarak, erraiten zielarik: Zahartü unduan ükhen nioke haur bat?
14. Jinkuarentako badeia mügarik? urthe bürian, hitzeman deizüdan bezala, bizi baniz, jinen nitzaizü ikhustera, eta Sarak badikezü seme bat.
15. Sarak, beldürtürrik, ükhatü zien, ihardetsten zielarik: Eztit erri egin. Eztiozü egia, erran zeion Jaunak, erri egin düzü.
16. Txütitü unduan gizon haiek Sodomako alderat so gin züten; eta Abrahamek egin zeien lagüntze.
17. Jaunak erran zien: Gorda niokia Abrahami egitera nuana?
18. Izan behar beütü handi eta gothor baten aita, eta hunen gañen lürreko nazioniak oro benedikatürrik beitrirate.
19. Beitakit bere haurrer, eta etxekuer manhatüren direla Jaunaren bidian egon ditien eta xüxen xüxena ebil ditien, Jaunak egin ahal lezan Abrahami hitzeman tienak oro.
20. Jaunak erran zien arren: Sodomako eta Gomorhako oihia goratü da, baita hanko gaixtokeria ere mügatik gaintitü.

21. Eraitsiko niz, eta ikhustiren dü eia haien eginek ihardetsten direnez ene gana heltü den oihiari; badakiket hola datienez, ala ez.
22. Gizon haietarik biga hantik Sodomara juan ziren: Abraham egon zen orano Jaunarekilan.
23. Eta, hüllantzen zelarik, erran zeion: Galdüren düzia xüxena gaixtuarekilan?
24. Berrogei-ta-hamar jente xüxen baliade hiri hortan, galeraziko tüzia bestiak oro bezala? Eztüzia lehenago pharkatüko hiriari berrogei-ta-hamar jente xüxenen gatik, edireiten balin badia han?
25. Arauz eztüzü hola egin nahi: eztüzü galdü nahi xüxena okher denarekin, ez eta ere hun dena gaixtuarekin, ezpeita holako zure egitatia: lür güziari züzena emaiten beütüzü, etziteke hola ari.
26. Jaunak ihardetsi zeion: Sodomako hirian edireiten badütüt berrogei-ta-hamar jente xüxen, hoien gatik pharkatüko dit hiri güziari.
27. Abrahamek erran zeion: Behin hasiz geroztik, mintzatüko nüzü ene Jaunari, nahi bada enizan hauts eta erhauts baizik.
28. Zer egin ziniro, bost jente xüxen falta baliade berrogei-ta-hamarren egiteko? Gal eraz ziniua hiria berrogei-ta-bost baizik eliatielakoz? Jaunak ihardetsi zeion: Berrogei-ta-bost jente xüxen edireiten badirade, eztit arrabaskatüko hiria.
29. Abrahamek erran zeion orano: Bena berrogei baizik ezpalinbadirade, zer eginen düzü? Ihardetsi zeion: Han berrogei jente xüxen edireiten badirade eztit arrabaskatüko hiria.
30. Eztezaizüla, othoi, gaitz orano ere mintzatzen baniz ene Jaunari: Hoge-ta-hamar baizik ezpalirade han, zer egin ziniro? Jaunak ihardetsi zeion: Han hoge-ta-hamar jente xüxen badirade, eztit hiria arrabaskatüko.
31. Behin hasi nizanaz geroz, mintzatüren nüzü ene Jaunari: Zer egin ziniro hoge baizik ezpalinbadira? Hoge balinbadira, eztit hiria arrabaskatüko.
32. Jauna, etzitiela, othoi, khexa, orano ere mintzazen banitzaizü: hamar baizik ezpalinbadirade, zer eginen düzü? Hamar jente xüxen han edireiten badüt, eztit hiria arrabaskatüko.
33. Solaza ürhentürrik, Jauna hürrüntü zen; eta Abraham ere ützüli zen etxerat.



BÜRÜ XIX.

*Sodomatarren gaizki eginak. Sodoma garretan. Moab eta Ammon
sorthzen dirade.*

1. Arrats aldian, bi aingüriak heltü ziren Sodomara, Lot hiriko portalian jarririk zelarik. Ikhusi zütienian, txütütü zen, eta aitziniala juan zeien; eta othoitü zütien büria aphaltüririk,
2. Erraiten zeielarik: Tziauste, othoi, Jaunak, ziren zerbütixariaren etxerat, eta han egon ziteie: zankhuak ükhüz etzatzie, eta bihar goizan hartüren düzie zien bidia. Ihardetsi zioten: Ez, ez, plazan egonen gütüzü.
3. Arakhümitatü zütien lehia handitan eta bortxaz ere bere etxerat eraman zütien. Han sarthü zirenian, apairü bat eman zeien, ophil altxatür'azi gabe ereririk; eta aihaltü ziren.
4. Bena etzatera juan ziren beno lehen, hiritarrek, haur txi piek, gizon zaharrek, populü güziak etxia üngüratü zütien.
5. Eta Lot deithüririk, erran zeioen: Nun tüzü gaur heben sarthü diren gizonak? Elkh eraz itzatzü kanporat, ezagüt ditzagün.
6. Lotek, kanporat elkhirik, gibeletik bortha zerratü unduan, erran zeien:
 7. Eztezaziela, othoi, ene lagünak, eztezaziela holako gaizkirik egin.
 8. Bi alhaba beitütüt, orano gizonik ezagütü eztütienak, hunat ekharrien deitziet; nahi düziena egin ezezie, gaizkirik eztezazien behin egin en'etxen, ostatü segür batetan bezala, sarthü diren gizon hoier.
 9. Bena ihardetsi zeioten: Zuaza hebentik. Eta erran zeioten: Atze bezala jin zinatia gütarat gure jüjatzeko? Zihauri ere haier beno gaitz haboro eginen deizügü. Eta joka hasi zeitzon: Eta borthen hautstera zua-tzalarik,
 10. Barnen ziren bi gizonek, eskia emanik Loti, etxen sar erazi zütien, baita ere bortha zerratü.
 11. Eta kanpuan zirenak oro ütsütü zützen, txipienetik handieniala-no, hala nula ezpeitzioten bortha ediren.
 12. Eta erran zütien gero Loti: Badüzia heben zunbait askazi, sühi, seme edo alhaba? Elkh eraz itzatzü hiri huntarik zuriak direnak oro.
 13. Güne hunen arrabaskatzera guatza, hiritar hoi en gaixtokerien oihia gora goratzez heltü beita Jauna gana, eta igorri beikütü hoi en gal eraztera.

14. Lot arren kanporat elkh zen, eta minzatü bere sühi alhaben senhar geier, erraiten zeielarik: Jaiki eta elkh zizte güne huntarik, Jauna hiri hunen arrabaskatzera beitu. Bena uste ükhen zütien haiez trüfatzen zela.
15. Eta argi hastian aingüriak lehiatü ziren Loten kanporat elkh eraztera, erraiten zioielarik: Txütü zite, eta eraman etzatzü zure emaztia eta zure bi alhabak, hil etzizteien hiri huntako arrabaskian.
16. Eta nula ere berantzen beitziren, eskütik hartü zützen Lot, haren emaztia eta bi alhabak, Jaunak salbatü nahi zütielakoz.
17. Elkh erazi unduan, lagüntü zütien hiritik kanpo: eta holaxet minzatü zeitzon: Ihes egizü, eztezazüla gibelialat so gin; etzitiela nihun ere, üngürü huntan, bara: bena mendietalat ihes zuaza, bestekilan etzities hil.
18. Lotek ihardetsi zeien: Jauna, othoi,
19. Zure aitzinian zure mixkandiak grazia ediren direnaz geroztik, eta ürrikal hañ handia düzunaz geroztik haren salbatzeko, ikhus ezazü eztiotala ihes egin mendialat, hara heltü beno lehen heriuak atzaman enezan.
20. Hebentxet badüzü hiri bat, zuñtarat ere ihes egin ahal beitiot. Txipi beita han gorda nintezü. Ikhusten düzü txipiñi dela, eta bizirik begiratüren naiela.
21. Aingüriak ihardetsi zeion: Zure othoitziari ere behatü nahi dit orano, mintzatzen zaiztadan hirittua ezti arrabaskatüko.
22. Harat ihes egitera lehia zite, zü han sar artino ezpeitiot deusik egin ahal. Hortakoz hiri hura Segor izentatüririk izan zen.
23. Ekha jaiki zen, Lot Segoren sarthzen zelarik.
24. Zelütik eraitserazi zien Jaunak Sodomana eta Gomorhan gaña sofrezko eta süzko euri erauntsi bat:
25. Eta arrabaskatü zütien hiri hoiek, eta hoi en üngürüko aldiak oro, eta hiritarrak oro, eta lanthariak oro.
26. Loten emaztia, gibelialat so gin zielakoz, gatz khürsotü zen.
27. Abraham hatik goizik jaikirik, jin zen Jaunarekila lehenago egon zen güni ala,
28. Sodomara eta Gomorhara, eta üngürüko bazter orotara so ginik, sü ilhañak goratzen, labeko khia bezala, ikhusi zütien.
29. Alde hartako hirien arrabaskatzian, Jinkua orhitü zen Abrahamez, eta begiratü ziren Lot egon zen hirien arrabaskatik.
30. Segoratik gora juan zen Lot, eta [...] gañen egon zen, bere bi alhabekilan; (egoitea beldür zelakoz Segoran), eta egon kharbe batetan bere bi alhabekin.



31. Eta ahizpa gehienak gaztenari erran zeion: Aita guria zahar düzü, eta eztüzü haboro baratü gizonik lürrian gure ganat hüllant ahal denik mündü güziko legiaren arabera.

32. Tziauri, ordieraz dezagün aita arduz, eta lo gin dezagün harekilar, giz'azia begira ahal dezagün aita ganik.

33. Gai hartan aitari ardu edatera eman zeioen; eta primak lo egin ziren harekila; aitag hatik etzien senditü nuiz etzan eta jaiki zen alhaba.

34. Biharamenian primak gaztenari erran zeion: Barda nik lo gin dit aitarekilar, gaur ere eman dezogün edatera ardu, eta zük lo eginen düzü harekin, begira ahal dezagün giz'azia aita ganik.

35. Gai hartan ere arren eman züten aitari ardu edatera, eta etxek' alhabak harekin lo egin zien, aitag senditü gabe alhaba nuiz etzan eta jaiki zen.

36. Bi alhabak Lot aita ganik izorra ediren ziren.

37. Primak, seme bat sorthürrik, izentatü zien Moab, Moabitar orai dano dieien aita.

38. Etxek' alhabak ere sorthü zien seme bat, Ammon deithü ziena, erran nahi da, ene popüliaren semia, Ammonitar orai dano direnen aita.

BÜRÜ XX.

Abimelekhek Abrahami Sara ebasten deio. Hortakoz kaztigatü-rik da.

1. Güne hartarik elkhirik ügerdiko aldialat jauiteko, Abraham egon zen Kadesen eta Süren artian, eta Jeraran, atze bezala, ebili zen.

2. Eta erran zien Sara haren arreba zela. Eta hortakoz Abimelekhek, Jerarako erregeak altx erazi zeion Sara etxetik.

3. Bena Jinkuak, gai batez ametsetan jinik Abimelekhen gana, erran zeion: Hilen zirade ebatsi düzün emaztia dela gatik; senharra beitiü.

4. Abimelekhek, ezpeitzien emaztia hunki, ihardetsi zeion: Hil erazi- ren dütüzia ogenik ez tien jentiak?

5. Gizon horrek ezteita erran: Ene arreba düzü? eta emaztiak aldiz: Ene anaia düzü? Gaitzki hori egin dit, eskiak xahürrik, eta ene enüxentkerian.

6. Jinkuak erran zeion: Badakit enüxentkerian egin düzüla: eta hartako begiratü zütüt eni ogen egitetik, ezpeteizüt huntkitzera ützi emaztia.

7. Ützül ezazü arren orai emaztia bere senharrari, profeta beita: eta othoitüren dizü zuretako, eta biziren zirade. Ützüli nahi ezpalinbadüzü aldiz, jakin ezazü heriuak joko zütela zü eta zure direnak oro.

8. Abimelekhek gai erditan jaiki zen behala, eta, mixkandiak deithürrik, entzün zütienak erran zeitzen eta oro harritü ziren.

9. Abimelekhek, Abraham jin erazirik, erran zeion: Zer egin deiküzü? zer gaitzki egin geneizünen, ene eta ene erresumaren irallerazteko holako bekhatü handiala? Egin behar etzeneikiena egin deiküzü.

10. Orano ere khueintatzen zelarik, erran zeion: Zer ikhusi zeneikün, guri hola egiteko?

11. Abrahamek ihardetsi zeion: Ene goguan erran nizün: behar bada güne huntan ezta Jinkuaren beldürrik; eta erhoko naie ene emaztiaren ükheiteko:

12. Bizkitartian ere ene arreba düzü egiazki, ene aitaren alhaba delako, bena ez ene amarena, eta hunekilar ezkhuntü nüzü.

13. Jinkuak elkh erazi gütienian ene aitaren etxetik, erran niozün: Juanen giren bazter orotan diket erran dezazün zure anaia nizala.

14. Abrahami eman zeitzon arren Abimelekhek ardi, idi, mithil eta mixkandi eli bat, eta Sara, bere emaztia, ützüli zeion,

15. Eta erran zeion: Aitzinian düzü lürra; laket ziraten günetan, egon ziteie.

16. Sarari erran zeion gero: Mila zilhar buxiak eman ditit zure anaieri, eros dezazün begi aitzineko belatto bat, nuat nahi zuaztekienian ekhar dezazün zurekilar diratekienekin; eta orhit ahal zitien ebatsirik izan zirela.

17. Abrahamek, Jinkua othoitürrik, Abimelekhek, haren emaztia eta mixkandiak sendotü ziren, eta erditü ziren:

18. Jinkuak behot erazi beitzütien Abimelekhen etxenko ürüraxak oro, Sara Abrahamen emaztia zela kausa.

BÜRÜ XXI.

Isaaken sorthzia. Agar eta Ismael ihes duatza. Abimelekhen eta Abrahamen adixkidegua.

1. Hitz eman ziren bezala hatik, Jauna jin zen Sararen ikhustera, hitz emana etxekirik.



2. Izorratürük, Sarak sorthü zien seme bat, Jinkuak erran zeion denboran.
3. Eta Sarak sorthü zeion semia Abrahamek deithü zien Isaak.
4. Eta zortzi gerren egünian zirkonzisitü ziren, Jinkuaren maniaren arabera.
5. Ehün urthetan Isaaken aita izan zen.
6. Eta Sarak erran zien: Jinkuak eman deit alagranziazko seme bat; berri hori dakikiena ere alageratüko da.
7. Eta erran ziren orano ere: Nurk sinhetsi lükien behin ere Abrahamek erranen ahal ziela: Sarak hazten dü ene zahartarzünian egin deitan semia?
8. Gothortü zen arren haurra, eta, thitia ützi zienian, Abrahamek apairü handi bat eman zien.
9. Sarak, Agar Ejiptarraren semia txostatzen ikhusirik Isaak bere semiarekilan, erran zien Abrahami:
10. Kanpuan ezartzü mixkandi hori eta horen semia: mixkandiaren semiak ezpeitü behar izan gur' etxeko seme Isaak eniarekin.
11. Elhe hoiek latztü züten Abraham, semia zela kausa.
12. Jinkuak erran zeion: Etzitiela latz zure mixkandia eta semia dielakoz; beha zite Sarari erranen deizün orotan: Isaaken ganik elkhiren beita zur'izeneko azia.
13. Bena mixkandiaren semia ere, zure azitik delakoz, ezarriko dit populü handi baten aita.
14. Argi hastian arren jaiki zen Abraham, eta anhua eta hur xahako bat, suñian ezarri zeitzon Agari, eta, semia eman zeionian, etxia hüts erazi zeion. Agar, bidia galdürük, Bersabeeko desertian herratürük zabilan.
15. Eta xahakoko hurra agortü zeionian, ützi ziren bere haurra hanko zühañ pe batetan.
16. Eta hürrüntü zen kürkürü tiro baten bidiaz, baita ere jarri haurraren eretzian, ziuelarik: Hiltzen ezpeitüt ikhusiko; eta, mintzua goratürük, nigar egin zien.
17. Jaunak hatik haurraren oihia entzün zien: eta Jinkuaren aingüriak, zelütik Agari oihü eginik, erran zeion: Agar, zer ari zia? Etzitiela lotsa: Jaunak entzün beitü haurrak den günetik egin deion oihia.
18. Jaiki zite, har zazü haurra, eta emozü eskia: populü handi baten aita eginen beitüt.
19. Eta Jinkuak zabaltü zeitzon begiak, eta Agar, hurrez betherik zen phützü bat ikhusi unduan, hartara juan zen xahakuaren bethatzera, eta haurrari edatera eman zeion.

20. Jinkuak lagüntzez, haurra handitü zen desertian, eta egin zen gizon gazte flexari trebe bat.
21. Faraneko desertian egon zen, eta amak ezkhunt erazi zien Ejiptar emazte batekilan.
22. Ber denboran Abimelekh, Fikol, bere armadako aitzindariarekin, jin zen Abraami erraitera: Jinkuak lagüntzen zütü egiten tüzün orotan.
23. Jinkuaz zin egin izadazüt arren nula ezteiküzün gaitzik eginen eni, ene undokuer, edo ene aziari, bena nula eginen deiküzüla eni, eta atze bezala egon ziren güne huni, nik egin deizüdan bezala.
24. Abrahamek ihardetsi zeion: Zin egiten dit.
25. Eta khueintatü zen Abimelekhi hunen mithilek bortxaz phützü bat hartü zeioelakoz.
26. Abimelekhek erran zeion: Eztakit nurk egin deizün gaizki hori: zihauk ere deusik ezpeitadazü erran, orai dano ezüt entzün hortzaz mintzatzen.
27. Abrahamek arren ekharri zütien ardi eta idi eli bat, baita ere eman Abimelekhi: eta egin züten adixkidegua.
28. Abrahamek, saihetsialat ezarri unduan zazpi antxü arres saldotik berhezi zütianak,
29. Abimelekhek galthatü zeion: Baztertü dütüzün zazpi antxü hoiek zer erran nahi die?
30. Abrahamek ihardetsi zeion: Ene eskütik hartüko tüzü zazpi antxü hoiek, jakile izan ditien nula nik egin düdala phützü zilo hua.
31. Eta güne hua Bersabee deithü zen, han biek zin egin zielakoz
32. Eta bakia egin zütelakoz zineko phützian.
33. Jaiki ziren Abimelekh eta Fikol, haren armadako aitzindaria, eta ützüli ziren Filistintarren aldialat. Abrahamek hatik, oihan [...] Bersabeean lanthatürük, Bethiko Jinko Jaunari deith egin zeion.
34. Eta hanitx denboraz egon zen Filistintarren güne hartan.

BÜRÜ XXII.

Abraham badua Moriako mendi gññiala. Isaaken hiltzea. Jinkuak Abrahami hitzemanak. Nakhorren azia.



1. Hoiiek hola igaran zirenian, Jinkuak herritatü zien Abraham, eta erran zeion: Abraham, Abraham? Abrahamek ihardetsi zeion: Heben nüzü.

2. Jinkuak erran zeion: Har zazü Isaak zure seme maitia, eta zuaza gogoz ikhugarriko lürriala, eta han erakhutsiko deizüdan mendi gañian errerik eskentüko deitadazü.

3. Argitü beno lehen jaiki zen Abraham, eta astua adelatü unduan, hartü zütien berekin bi mithil gazte eta Isaak bere semia: eta err'erazteko behar ziren egürra mutztürük, juan zen Jinkuak manhatü zeion güniala.

4. Hirur gerren egünian, begiak eraikirik, günia ikhusi ziren hürrü-netik:

5. Eta bere mithiler erran zeien: Ügürüki nezazie heben astuarekin; ni eta haurra, haraxet heltü unduan, eta othoitze egin dükegünian, ützüli-ren girade ziren ganat.

6. Erratzeko egürra hartürük, bere semiari bizkarrian ezarri zeion: eta berak eskietan eramaiten zien süia eta ganibeta. Algarrekin bazuatzalarik,

7. Isaakek aitari erran zeion: Aita? Abrahamek ihardetsi zeion: Zer nahi düzü, ene semia? Isaakek erran zeion: Badizügü süia eta egürra: nun da errerik izan behar dena?

8. Abrahamek ihardetsi zeion: Ene semia, Jinkuak berak igorriko diküzü errerik eskentü behar zaiona: Algarrekin bazuatzan arren.

9. Jinkuak erakhutsi zeion güniala heltürük, han Abrahamek eraiki ziren althare bat, hartan gañen egürrak adelatü zütien, baita ere althareko egürren gañen Isaak ezarri estekatürük.

10. Eskia hedatü zien, eta hartü ganibeta bere semiaren erhaiteko.

11. Ordü berian Jaunaren aingüriak oihü egin zeion zelütik, erraiten zeiolarik: Abraham, Abraham? Ihardetsi zeion: Heben nüzü.

12. Aingüriak erran zeion: Eztezazüla haurran gaña heda zure eskia, eztezazüla minik egin. Bazakit orai Jinkuaren beldür zirela, ene maniaren egiteko ezpeitüzü zure seme bakhoitxari pharkatü.

13. Abrahamek begiak altxatürük, ikhusi zien ahazartz bat khapar bati adarretarik lothürük, eta ahazartz hua hartürük, erre unduan eskentü ziren bere semiaren lekhian.

14. Eta güne hua izentatü zien: Jaunak ikhusten dü; eta hortakoz orai dano erraiten da: Jaunak [...], ikhusiko dü.

15. Jaunaren aingüriak zelütik oihü eginik, Abrahami erran zeion:

16. Nihauz zin egin dit, dio Jaunak; gaiza hori egin düzülakoz, eta zure seme bakhoitxari eztüzülakoz ene maniaren egiteko. 17. Benedikatü-

ren zütüt, eta zure azia hanitx eraziren dit, zelüko izarrak eta itxas bazte-rreko hariñak bezala: zure aziak ber'etsaien portaliak hartüko tizü,

18. Eta zure azi gañen benedikatürük dütükezü lürreko nazione güziak, jarraiki zielakoz ene maniari.

19. Abraham ützüli zen bere mithiletarat, eta oro algarrekilan jin ziren Bersabeerat, eta han egon zen.

20. Hoiiek hola igaran zirenian, berria jin zeion Abrahami Nakhor haren anaiak ükhen zütüela haur eli bat Melkha bere emaztia ganik,

21. Hüis primia, eta Büz hunen anaiak et Kamüel Siritarren aita,

22. Eta Kased, eta Azau, Feldas ere bai, eta Jedlaf,

23. Eta Bathüel, Errebekaren aita: Hoiiek dira Nakhor, Abrahamen anaiaren, eta Melkha, haren emaztiaren haurrak.

24. Haren [...] Erroma deithiak, sorthü zeitzon Sabee, Gaham, eta Tahas, eta Maakha.

BÜRÜ XXIII.

Sara hiltzen da. Abrahamek alhor bat erosten dü Sararen hartan ehortzteko.

1. Sara, ehün eta hogeita-zazpi urthez bizi unduan,

2. Hil zen Arbeeko hirian, zuñ beita Hebron, Khanaaneko aldian: eta Abrahamek nigarretan dolia hartü zien.

3. Eta, hiler egin behar dienak egin unduan, jaikirik mintzatü zen Hethen semer, eta erran zeion:

4. Ziren artian bidejant eta atze bat bezala beniz, [...] othoi, ziren herrian ehortzteko züzena, ehortz ahal dezadan hil zaitana.

5. Hethen semek ihardetsi zeioen:

6. Beha zakizkü, Jauna, gure artian Jinkuaren printze handi batentako igaraiten beitzira; ehortz ezazü hil zaizüna gure hobi ederrenetan: Gütarik batek ere etzütü enphantxatüko haren hobian hil zaizünaren ehortztetik.

7. Txütitü zen Abraham, eta güre egin aldi hartako ekhoiliarer, Hethen semer;

8. Eta erran zeion: Laket bazaizie ehortz dezadan hil zaitana, beha ziztadeie; othoizazie enetako Efron, Seoren semia,



9. Eman dizadan bere alhor bazterrian dien kharbe doblia; behar den dihariaren ordari, ziren aitzinian, enia izan dadin, han egin ahal dezadan hobi bat.

10. Efron hatik Hethatarren artian zen; eta, orok entzüten zütelarik hiriko portaletarik sarthzian, Abrahami ihardetsi zeion, eta erran:

11. Ez, ez, ene Jauna, eztükezü hola; bena untsa beha zite erraitera nuazünari: emaiten deizüt alhorra eta han den kharbia, ene herritarren aitzinian; han ehortz ezazü hil zaizüna.

12. Abraham, gür eginik, aphaltü zen herritarren aitzinian.

13. Eta hoi en erditik Efroni erran zeion: Beha zakitzat, othoi; emanen deizüt alhorrak balio dien diharia, har ezazü saria, eta han gero ehortziko dit hil zaitana.

14. Efronek ihardetsi zeion:

15. Ene Jauna, beha zite: galthatzen detazün lürrak balio dizü laur ehün zilharrezko sikla; zure eta ene artian balio hortako düzü. Bena zer da hori? ehortz ezazü hil zaizüna.

16. Solaz hori entzün unduan, Abrahamek phezerazi zien, Hetarrak jakile zirelarik, Efronek galthatü zeion diharia, laur ehün zilharrezko siklak, oro zilhar hunekuak.

17. Holaxet arren Efronen alhorraz, Manbreko aldialat soz zaguenaz, eta kharbe dobliaz jabetü zen, bai eta ere alhorren eta kharbiaren üngürian ziren zühañez.

18. Hoietzaz jabetü zen Abraham, Hetheko haurren eta hiriko bort-han bilkhüra egiten ziren ororen aitzinian.

19. Abrahamek ehortzi ziren arren Sara, bere emaztia, alhorreko kharbe doblían, Manbreko aldialat soz daguenian, nun ere beita Hebron, Khanaaneko aldian.

20. Hethtarrek jab'erazi züten Abraham alhorraz eta hartan zen kharbiaz, ükhen letzan bere ilherritako.

BÜRÜ XXIV.

Abrahamek ezkhunt erazi nahi dü Isaak. Bere gogua Jinkuak erkhusten dü. Isaak ezkhuntzen da Errebekkaekilan.

1. Zahar zen Abraham eta adin handitan, eta Jaunak gaiza orotan benedikatü ziren.

2. Eta mithil zaharrenari, bere etxeko aitzindariari, erran zeion: Ezarzü zure eskia ene azpi gañen,

3. Zin egin dizadazün zelüko eta lürreko Jaunaz, eztüzüla zük Khanaaneko hoiekin egoiten nizan neskatiletarik bat ere hartüko ene semiarren emazte;

4. Bena juaen zirela ene etxekuen herriala, emazte baten bilha Isaak, ene semiarentako.

5. Mithilak ihardetsi zeion: Neskatilak ezpalin badüke nahi jin enekilan alde huntarat, behar düketa eraman zure semia zure sorth lekiala?

6. Abrahamek erran zeion: Begira zite behin ere ene semiaren alde hartarat eramaitetik.

7. Zelüko Jinko Jaunak, ene aitaren etxetik eta ene sorth lekhütik ideki naienak, mintzatü zaitanak, eta zin egin deitanak, erraiten zeitalarik: Zure aziari emanen dit alde hau, igorriko dizü bere aingüria zure aitzinian, alde hartan bilha ahal dezazün emazte bat ene semiarentako.

8. Neskatila ezpalin bazaizü jarraiki nahi, zure zinetik solt zinateke; bena behin ere eztezazüla alde hartarat ene semia eraman.

9. Mithilak arren eskia ezarri ziren Abrahamen, ber'etxeko Jaunaren, azpi gañen, eta zin egin zeion harek manhatü bezala eginen zirela.

10. Eta bürüzagiaren saldotik hartü zütien hamar khamelü, huntarazün parrasta bat ere, eta bidian jarririk, juan zen Mesopotamiala, Nakhoren hiriala.

11. [...] undo batetan, hiri khantian, bere khameliak phausatzera ütirik arrats aldian, emaztiak hur txerkhara duatzan tenorian, erran zien:

12. Abraham ene nausiaren Jinko Jauna, egün helt zitzaiztela, othoi, eta [...].

13. Eta üthürri hunen khantian niagozü, eta hiritar hoi en neskatilak jinen dütüzü hur txerkhara.

14. Arren neskatila, nik erranen düdanari: Eraits ezazü zure untzia, edan dezadan, eta ihardetsiren deitadanak: Edan ezazü, zure khamelier ere edatera emanen diet, izan dadila Isaak zure mixkandiarentako begiratzen düzün emaztia: Badakiket gero ürrikaltü zirela ene bürüzagiarekilako.

15. Hitz hoiek goguan ürhentzen zütietarik, agertü zeion Errebekka, Bathüelen alhaba, untzi bat suñian. Bathüel Melkharen eta Nakhor, Abrahamen anaiaren semia zen.

16. Neskatila hori püerian eginik, ederrenetarik zen, eta phüntzela; üthürriala eraitsi zen, eta untzia betherik, etxerat ütüzltzen zen.

17. Aitzinia mithila elkhi zeionian erraitera: Ekhearten düzün hur hortarik indazü edatera txorta bat.



18. Ihardetsi zeion: Edan ezazü, ene Jauna; eta suñetik besuala beha-la eraitsirik untzia, eman zeion edatera.
19. Eta edan zirenian, erran zeion: Zure khamelier ere idokiko diet hur, orok edan dezen.
20. Eta untziko hurra asketara hüstürik, lehia handitan juan zen phützütik hur idokitera eta khamelü güzier eman zeien edatera.
21. Ixil ixila soz zaguen mithila, jakin nahi zielakoz eia Jinkuak bida-je hun egin erazi zeion, bai, ala ez.
22. Khameliek edan zütenian, ürhezko behar undoko eli bat, bi sikla phezatzen zütenak, [...] [...] idoki züten, baita ere ükharai esteka eli bat, hamar sikla phezatzen zütenak.
23. Eta erran zeion: [...] nuren alhaba ziren: badeia zure aitaren etxen ostatatzeko lekhürik?
24. Ihardetsi zeion: Bathüelen, Melkha eta Nakhorren semiaren, alhaba nüzü.
25. Gur' etxen badüzü lasto, belhar eta lekhi hanitx ostatatzeko.
26. Gizonak büria aphaltü zien, eta Jaunari othoitze egin,
27. Erraiten zielarik: Benedika dadila Abraham, ene nausiaren, Jinko Jauna, ürrikaltü zaiolakoz, eta bide xüxenaz eraman naielakoz ene nausia-
ren anaieren etxera.
28. Neskatila hatik amaren etxera lehiatan juan zen, entzün zütenen erraitera.
29. Errebekak bazien anaie bat, izenez Laban, etxetik elkhi zena gizonaren aitziniala, üthürri khantialano.
30. Arrebaren eskietan ikhusi beitzütien behar undokuak eta ükharai estekak, baita ere entzün gizonak erran zütienak: haren gana jin zen arren khameliekin üthürri khantian zaguelarik:
31. Eta erran zeion: Barneat zite, zü Jinkuaz benedikatürik zirena; zertako zaude kanpuan? Etxen adelatü dit zure khamelientako lekhü bat.
32. Eta sar erazi zien etxen; khameliak deskargatürik, eman zeien lasto eta belhar eta hurra ekharri, zankhuak ükhüz zitzen harek eta harek-
kilan zirenek.
33. Eta ogia aitzinian ezarri zeion. Bena mithilak erran zeien: Eztit janen zier, erran behar deiziedana, erran beno lehen. Mintza zite, iharde-
tsi zeion Labanek.
34. Eta hola mintzatü zen: Abrahamen mithila nüzü:
35. Eta Jaunak benedizionez eta huntarzünez bethe dizü ene nausia: eman beteitzo ardi, idi, zilhar eta ürhe, mithil et mixkandi, khamelü eta
asto hanitx.

36. Sarak, ene nausiaren emaztiak, bere zahartarzünian sorthü diozü seme bat, eta aitak dütien huntarzünak oro eman ditzotzü semiari.
37. Eta ene nausiak zin egin erazi ditazüt, erraiten zeitalarik: Eztüzü hartüko ene semiaren emaztetako Khanaaneko, ni egoiten nizan aldeko, neskatiletarik bat ere;
38. Bena juanen zira en'aitaren etxera, eta ene askazietarik hartüko düzü emazte bat ene semiarentako.
39. Nik hatik ene nausiar ihardetsi neion: Bena neskatilak ezpalin badü nahi jin enekilan?
40. Eta erran deit: Jaunak, zuñen aitzinian banabila, igorriko dizü bere aingüria zurekilan, erakhuts dizazün bidia: eta hartüko düzü ene semiarentako ene askazi, eta ene aitaren etxetik datien emazte bat.
41. Ene azkazietara heltü unduan, eztatzen bazüte, zük eztükezü oge-
nik, eta zure zinetik solt zirateke.
42. Egün arren heltü niz üthürri khantiala, eta erran dü: Abraham ene nausiaren Jinko Jauna, zük lagüntü banaizü orai artino ebili nizan bidian,
43. Üthürri hunen khantian niagozü; hurkara elkhiren den neskatila, zuñi ere erranen beittüt: Zure untzian den hurretik indazüt txorta bat eda-
tera,
44. Eta ihardetsiren deitana: Edan ezazü, zure khamelier ere edatera emanen diet, izan dadila Jaunak ene nausiaren semiarentako begiratü dien emaztia.
45. Holako gogokan nintzalarik, Errebekka ikhusi dü horra zela hur untzi bat suñian: eraitsi da üthürriala, eta bethe dü untzia; eta erran deiot: Emadazü edatera hur txorta bat.
46. Lehian untzia suñetik erraitsirik, erran deit: Edan ezazü, eta zure khamelier ere emanen diet edatera. Nik edan dü, eta edan erazi deie ene khamelier.
47. Galthatü deiot gero: Nuren alhaba zirade? Ihardetsi deit: Bathüel-
en alhaba nüzü, Nakhorren eta Melkharen semiarena. Behar undokuak ezarri deitzot arren begithartiaren edertzeko, eta ükharai estekak ere.
48. Eta büria aphaltürik, Abrahamen, ene nausiaren, Jinko Jauna othoitü dü, benedikatzen nielarik, bide xüxenaz lagüntü naielakoz ene nausiaren illobaren gana, emaztetako har nezan horren semiarentako.
49. Nahi badüzie arren zin zinki plazerik egin ene nausiar, erradazie; ezpalin badüzie aldiz nahi, mintza zizte, juan nadin esküñialat edo eixke-
rrialat.



50. Labanek eta Bathüelek ihardetsi zioien: Jinkua mintzo düzü zure mihiatz: harek nahi diena baizik eztizügu erran.

51. Ori Errebekka, har ezazü, eta eraman, izan dadin zure nausiaren semiaren emaztia, Jinkuak erran diren bezala.

52. Abrahamen mithilak, ihardets hori entzün bezañ sarri, ahozpetürik othoitü zien Jauna.

53. Ürhezko eta zilharrezko untziak, eta arropa eder eli bat idokirik, Errebekari eman zütien: haren anaier ere eta amari dohañak eman zeitzen.

54. Mahañian jarririk, jaten eta edaten egon ziren. Biharamen goizan mithila jaiki zen, eta erran zeien: Ene nausia ganat juaitera üt nezazie.

55. Errebekaren anaiek eta amak ihardetsi zioien: Hamar bat egünez berere egon dadila ürrüxa gurekilan, eta gero juanen düzü.

56. Mithilak erran zeien: Enezaziela begira gehiago, Jaunak ene bidian lagüntü benai; üt nezazie ene nausia ganat ützültzera.

57. Ihardetsi zeioen: Deith dezagün neskatila, eta jakin dezagün haren gogua.

58. Eta deiala jin zenian, galthatü zeioen: Nahi ziradia juan gizon hunekin? Bai, bai, ihardetsi zeien.

59. Ützi züten arren juaitera bere haz-amarekin, Abrahamen mithilarekin eta hunen lagünekin,

60. Eta dohatsütarzün hanitx arrebarentako galthatzen zütelarik, erran zeioen: Gure arreba zirade, mila milatan hanitx zite, eta zure azia jabet dadila ber'etsaien portalez.

61. Errebekka arren eta haren neskatuak, khamelien gaña igaranik, jarraiki ziren bere nausia ganat lehia handitan ützültzen zenari.

62. Tenore hartan haitik, Isaak paseiatzen zen Bizi eta ikhusten deithürik den phützialat duan bide gañen: egoiten beitzen ügerdiko aldian:

63. Arrats aldian, gogoketara elkhi zen kanporat: eta begiak altxatürik, khameliak horra zirela ikhusi zütien hürrünetik.

64. Errebekka ere, Isaak ikhusirik, eraitsi zen khamelü gañetik,

65. Eta mithilari erran zeion: Nur da alhorra gainti gure ganat horra den gizon hori? Eta ihardetsi zeion: Ene nausia düzü. Eta Errebekka, kapuxina behala hartürik, jauntsi zien.

66. Mithilak egin zütienak oro Isaaki erran zeitzon.

67. Isaakek Errebekka, sar erazi unduan bere amaren oihal-olhan, emaztetako hartü zien: eta horentako zien amodiuk em'erazi zeitzon, ama hil zeiolakoz ükhen zütien bihotz min handiak.

BÜRÜ XXV.

Abraham ezkhontzen da Zethüraekilan. Hoiien leñhüra. Abraham hiltzen da. Ismaelen azia. Esau eta Jakob sorthzen dira.

1. Abraham ezkhuntü zen gero Zethüra deitzen zen emazte batekilan;

2. Sorthü zeitzon Zamran, Jeksan, Madan, Jesbok eta Süe.

3. Jeksanek egin zütien Saba eta Dadan. Dadanek aldiz Asürim, eta Latüsim, eta Loomin.

4. Madianek egin zütien Efa, Ofer, eta Henokh, eta Abida, eta Eldaa: Hoiek oro Zethüren azitik elkhi ziradien:

5. Eta bere huntarzünak oro Isaaki eman zeitzon Abrahamek:

6. Eta beste emaztetarik ükhen zütien haurrer ere eman zeien dohañ eli bat, bizi zelarik, eta berhezi zütien Isaak bere semetik, bai ta ere igorri elkhi jaiki aldialat.

7. Abraham biz'izan zen ehün eta hirurtan hogei-ta-hamabost urthez.

8. Eta, ingoxatü zen zahartazün hunez, adin handian, bizitzez aserik, hil zen, eta bere gizeliari jüntatü zen.

9. Bere semek, Isaakek eta Ismaelek, ehortzi züten kharbe doblían, Efronen, Seor Hethtarraren semiaren, alhorrian, Manbreko eretzian;

10. Hetheko semer erosi zien alhorrian han ehortzirik izan zen, Sara bere emaztia bezala.

11. Eta hura hil zenian, Jinkuak benedikatü ziren Isaak, Bizi eta ikhusten <...>.

12. Hau da Abrahametik eta Agar Ejiptarretik, Sararen mixkanditik, elkhi ziren haurren zumbata, Ismaelek eginena:

13. Eta hoiek dirade haur haien izenak, belhañez belhañ. Ismaelen primia Nabajoth, bestiak aldiz Zedar, eta Abdeel, eta Mabsam,

14. Eta Masma, eta Düma, eta Masa,

15. Hadar, eta Thema, eta Jethür, eta Nafis, eta Zedma.

16. Hoiek dirade Ismaelen semiak: eta bere jauregier eta herrier eman zützen izenak, hamabi aitzindari izan beitziren bere gizelietan.

17. Ismael biz'izan zen ehün eta hogei-ta hamazazpi urthez, eta indarrak mentstürik hil zen, baita ere jüntatü bere gizeliari.



18. Haren egongia hedatzen zen Hebilatik Sürerano, Ejiptoko aldi-lat soz daguenari Asiriarat jauier. Hil zen bere anaie güzien aitzinian.

19. Hoiiek ere dirade Isaaken, Abrahamen semiaren undokuak: Abrahamek egin ziren Isaak;

20. Isaak, berrogei urthetan, ezkhuntü zen Errebekkaekilan, Bathüel Siritar Mesopotamiakuaren alhabarekilan, Labanen arrebarekilan.

21. Eta othoitü ziren Jauna, emaztia behota zielakoz; eta Jaunak Errebekari eman zeion izorratzeko ahala.

22. Eta, nula haurttuak sabelian joka ari betzeitzon, Errebekak erran zien: Hola heltü behar zeitanaz geroztik, zentako izorratü niz? Eta Jaunari aholkü galthatzera jua zen.

23. Jaunak erran zeion: Bi gizeli sabelian ekharten dütüzü, zure sabeliek elkhi unduan, algarren kuntra jaikiko dütüzü; eta, batak bestia garhaitürük, primia gaztenaren azpian egonen düzü.

24. Erditzeko tenoria jin zenian, bi seme sorthü zütien.

25. Lehenik sorthü zena, gorrixka zen, oro bilhostatürük; eta Esau deithü zütien. Bestia ere behala sorthü zen, anaiaren zankhua eskian etxekitzen zielarik: eta hortakoz izentatü zütien Jakob.

26. Hirurtan hogeï urthetan zen Isaak, haurtto hoiiek sorthü zeitzonian.

27. Handitü zirenian, Esau ihizlari trebetü zen, eta lür lanetan ari zen: Jakob aldiz, zühür beitzen, oihal-olhan zaguen.

28. Isaakek maite zien Esau, jateko ihizi atzamaiten zeiolakoz: eta Errebekak maitiango zien Jakob.

29. Jakobek egos erazi zien janhari bat: akhitürük jin zenian kanpotik, Esauk,

30. Erran zeion: Indazü janhari gorri gorrixka hortarik, akhitürük beniz hanitx. Hortakoz izentatü zütien Edom.

31. Jakobek ihardetsi zeion: Sal ezadazüt zure primüguako züzena.

32. Esauk erran zeion: Hiltzen nüzü, zertako düket primüguako züzena?

33. Jakobek erran zeion: Egin izadazüt arren zin. Esauk zin egin zeion, baita ere saldü primüguako züzena.

34. Eta hola ogi, eta ilhar biribil salsa hartürük, jan eta edan ziren, eta kanpua hartü; primügua saldü zielakoz axolik hanitx gabe.

BÜRÜ XXVI.

Isaak badua Jerarat; ebasten deie Errebekka. Adixkidegua egiten dü Abimelekhekilan. Esau ezkhuntzen da.

1. Abrahamen denboran heltü zen bezalako gosete handi bat, jin zen alde hartarat, eta Isaak jua zen Abimelekhen, Filistinen erregiaren, ganat.

2. Jinkuak, agertürük, erran zeiolakoz: Etzitiela Ejiptualat jua, egonen zirade erakhutsiko deizüdan aldian.

3. Han atze bezala ebil zite, zurekila nukezü, eta benedikatüren zütüt; zuri eta zure aziari emanen deiziet güne hoiiek oro, Abraham zure aitari egin düdan zinaren arabera.

4. Zelüko izarrak bezala hanitxtüko dit zure azia, baita ere zure undokuere emanen güne hoiiek oro: eta zure azian benedikatürük dütükezü lürreko giz'eli güziak,

5. Abrahamek egin dielakoz erran neiona, begiratü dütielakoz ene maniak, eta ene erakhutspenak, etxeki dütielakoz eman neitzon legiak.

6. Isaak egon zen arren Jeraran.

7. Eta alde hartako gizonak galthatürük nur zen Errebekka, ihardetsi zeien: Ene arreba da, beldür beitzen erho lezen aithortzen bazeien emaztia ziela, ederretarik zelakoz.

8. Hanitx egünen bürian, nula güne hartan egoiten beitzen, Abimelekhek, Filistinen erregiak, leihotik soz zaguelarik ikhusi zien libertitzen zela Errebekka bere emaztiarekila.

9. Eta bere gana jin erazi unduan, erran zeion: Ageri beita emaztetako düzüla, zentako gezürrez erran deiküzü arreba züniela? Ihardetsi zeion: Beldür nüdüzün erho nentzazien haren gatik.

10. Abimelekhek erran zeion: Zentako inganatü gütüzü hola? Gütarik nurbaitek borrokatü ahal zikezün zure emaztia, eta bekhätü handi egin erazi zineiküzün. Eta manü hau bere giz'eli güziari eman zeion:

11. Gizon hunen emaztia huntkitzen dükiena, izanen da erhorik.

12. Güne hartan aziak erein zütien Isaakek, eta ehünetan bildü zien erein azia; eta Jaunak benedikatü zien.

13. Huntarzüna handitü zeion, oro probetxatzen zeitzolarik, eta egünetik egüniala aberatstex ahal handien batetara heltü zen:

14. Saldozka beitzütien ardiak, aberiak, sehiak eta mixkandiak. Hortakoz bekhaitzürük Filistinek,



15. Abraham haren aitaren mithilek egin zütien phütziak, thapatü zeitzoen, baita ere lürrez bethe:

16. Eta Abimelekhek Isaaki erran zeion: Hürrünt zite gure ganik, gü beno haborotü beitzirade.

17. Isaak hürrüntü zen, eta egoitera jin zen Jerarako ühaitz unduala.

18. Berriz zil'erazi zütien lehenago Abraham ber'aitaren mithilek egin zütien phütziak, Filistinek, hura zentü zenian, lürrez bethe zützenak, eta aitak eman zeien izenaz izentatü zütien.

19. Naballa barnia zilatürrik, ediren züten hur bizia.

20. Bena han ere Jerarako artzañek aharra txerkhatü zeien Isaaken artzañer, erraiten zeielarik: Hur hau guria da: Eta hortakoz, Isaakek phützü hua izentatü zien Ghezürra.

21. Beste bat ere zilatü unduan, harzara aharratü ziren artzañak: eta Isaakek izentatü zien phützü hua Etsaiguak.

22. Hantik juanik, beste phützü bat zil'erazi zien, eta hunen gatik aharrarik etzütielakoz ükhen Larga deithü zien, erraiten zielarik: Jaunak larguan ezarri gütü, baita ere hanitz erazi lürrian.

23. Güne hortarik igaran zen Bersabeeralat,

24. Eta biharamen, gaijan agertürrik, erran zeion Jaunak: Zure aita Abrahamen Jinkua nüzü ni; beldürt etzütiela, zurekilan banago; benedikatüren zütüt, eta Abraham ene sehia dela kausa hanitxtüko dit zure azia.

25. Han arren eraiki zien althare bat, eta Jaunari deith eginik, hedatü zien bere oiha-olha: baita ere bere sehier manhatü phützü bat zila lezen.

26. Güne hartara jin ziradien Abimelekh, eta Okhosath haren adixkidia eta Fikhol, haren armadaren aitzindaria;

27. Isaakek erran zeien: Zentako horra zireie ene gana, hastiatzen düzien, eta zien herritik hürrünt erazi düzien gizona gana?

28. Ihardetsi zeioten: Ikhusi dizügü Jauna zurekilan dela, eta hortakoz erran dizügü: Algarri zin egin dezagün, eta adixkidegua,

29. Nula gaizkirik zük ezteiküzün eginen, gük deusik ezpeiteizügü hunki, eta gaitzirik ere ezpeteizügü egin; bakian ützi beitzütügü juaitera Jaunaren benedizioez betherik.

30. Barazkaitara eman zeien arren Isaakek, eta jan eta edan unduan,

31. Goizik jaikirik, algarri zin egin züten, eta Isaakek bakian ützi zütien bere herrialat ützültzera.

32. Egün berian sehiek zilatü züten phütziaren berri Isaaki eman züten, erraiten zeioelarik: Ediren dizügü hurra.

33. Phützü hua Isaakek deithü zien Hanitxdüra: hiriak aldiz, Bersabeek orai artino begiratü dien izenaz.

34. Esau hatik, berrogei urthetan, ezkhuntü zen Jüdithekin, Beer Hethtarraren alhabarekin, eta Basemathekin, Elonen ber lekhükuaren alhabarekin,

35. Isaakek eta Errebekak begi hunez sogiten etzeienekin.

BÜRÜ XXVII.

Jakobek aitaren benedizionia ükheiten dü. Esauen bihotz-mina eta mehatxiak.

1. Isaak hatik zahartü zen, eta begiak ülhüntü betzeitzon, etziuen ikhus: eta Esau bere primia deithürrik, erran zeion: Ene semia? Esauk ihardetsi zeion: Heben nüzü.

2. Aitak erran zeion: Ikhusen düzü zahartü nizala, eta eztakidala zuñ egünez hilen nizan.

3. Hart zatzü zure armak, zure flex' untzia eta üztea, eta zuaza kanporat; eta ihizi zunbait atzaman dütükezüenian,

4. Adelatüko deitzadatzü nik maithe [...] gisan, eta ekhar itzadatzü, jan detzadan, eta benedika zitzadan hil beno lehen.

5. Errebekak entzün zien solaz hori, eta kanporat elkhi zenian Esau aitak manhatien egitera,

6. Jakob bere semiari erran zeion: Zure aita entzün dit elhestan Esau zure anaiarekin, eta erraiten ziola:

7. Atzamanen tüzün ihizietarik ekhar itzadatzü zunbait, eta adel'eza-dazü janhari bat, Jaunaren aitzinian benedika zitzadan hil beno lehen.

8. Orari arren, ene semia, ari zite ene aholkiaren arabera:

9. Arres salduala juanik, ekhar itzadatzü bi ahüñe hobenatarik, haieztaz adela dezadan zure aitentako khoi den salsa bat;

10. Eta zük eskentürrik jan dükienian, hil beno lehen, benedika zitzan.

11. Jakobek ihardetsi zeion: Badakizü Esau ene anaia oro bilhostatürrik dela, eta ni aldiz bilho gabe nizala.

12. Aitak huntkitzen balin banai ezkiez (sic), eta asmatzen balin banai, lotsa nüzü ust'üken dezan harez trüfatü nah izan nizala, eta gero benedizioiaren lekhian eman dizadan bere madarizionia.

13. Amak erran zeion: Ene semia, nitan gaña eror bedi madarizione hori: beha zakitzat, eta behala erran deitzüdanak ekhar etzadatzü.



14. Juan zen, eta ahüñiak ekharririk, amari eman zeitzon. Amak, aitak nahi zien bezala adelatü zien janharria.
15. Eta Esauen arropa ederrenez, etxen begiratzen zeitzonez, beztitü zien Jakob.
16. Eta ahüñe larrüz üngüratü zeitzon eskiak, lephua eta ageri zütienak oro.
17. Eta eman zeitzon adelatü zien janharria, eta err'erazi zütien ophalak.
18. Jakobek aitari hoiek erraman unduan, erran zeion: En'aita. Zer nahi düzü? ihardetsi zeion Isaakek: nur zia zü, ene semia?
19. Jakobek erran zeion: Esau, zure primia nüzü: zük manhatü bezala, egin dit: Jaiki zite, eta jar, eta jan ezazü nik atzaman dütüdan ihizietarik, benedika nezazün.
20. Isaakek bere semiarri erran zeion berriz: Nulaz ediren ahal tüzü hañ laster? Ihardetsi zeion semiak: Jinkuak nahi ükhen dizü bürü egin nezan nahi nienarekin.
21. Isaakek erran zeion: Hüllant zite hunat, huntki zitzadan, ene semia, eta jakin dezadan Esau ene semia ziren, bai al'ez.
22. Jakob aita ganat hüllantü zen, eta Isaakek, aztatü zienian, erran zien: Mintzua Jakobena da, bena eskiak Esauenak dira.
23. Eta etzien ezagütü, eskiak primiarenak bezala bilhostatürrik zütiekoz. Benedikatzen zirelarik,
24. Erran zeion: Esau ene semia zireia? Bai, ihardetsi zeion Jakobek.
25. Ene semia, eman ezadazüt jatera atzaman dütüzün ihizietarik, benedika zitzadan. Jakobek jatera eman zeion; eta jan zienian, edatera eman zeion ardu, eta edan unduan,
26. Isaakek erran zeion: Hüllant zite, ene semia, eta besarka nezazü.
27. Hüllantü zen, eta besarkatü ziren; eta, senditü bezañ sarri haren arrokek santzen zien ürrin huna, Isaakek erran zeion, benedikatzen zirelarik: Ene semiaren üsañak Jaunak benedikatü tien alhor bethen üsañak üdüri dizü.
28. Eman deizazüla Jinkuak zelüko ihitza, eta lür huntkallü, eta ogi eta ardu hanitx.
29. Zure sehi ditiela popüliak, eta giz' eliek othoit zitzela: izan zite zure anaien Jaun; eta zure amaren haurrak künkür ditiela zure aitzinian: zü madarikatüren zütiena izan dadila madarikatürrik; eta zü benedikatüren zütiena, betha dadila benedizionez.
30. Isaakek elhe hoiek ürhentü zütien bezañ sarri, eta Jakob kanporat elkhi zienian, Esau jin zen,

31. Eta aitari ekharri zeion ihizizko janharria adelatürrik, erraiten zeio-larik: Jaiki zite, en'aita, eta jan ezazü zure semiak atzaman tien ihizietarik, benedika nezazün.

32. Isaakek erran zeion: Nur othe zirade zü? Esauk ihardetsi zeion: Esau, zure primia nüzü, ni.

33. Izigarriki espantatü zen Isaak, eta sinhets ahal daitien beno haboruago zoratürrik, erran zeion: Nurk arren doidoia ekharri deit ihizketan atzaman diena? Orotarik jan <...> zü jin beno lehen, eman diot ene benediziona, eta benedikatürrik dükezü.

34. Aitaren solaz hau entzün zienian, Esauk, orrua bat eginik, bihotz-min handi handitan erran zeion: En'aita, eman ezadazüt eni ere zure benediziona.

35. Isaakek ihardetsi zeion: Zure anaiak atzaman nüzü, eta zuri zor neizün benediziona ükhen dizü.

36. Esauk erran zien: Ezpeitie gaizki izentatü Jakob: beste aldi batez ere ene lekhian jarri beita: lehen, primügua eraman ditadazü, eta orai ere zük zor zeneitadan benediziona eraiki ditadazü. Bena, aita, ezteitazia eni ere begiratü beste benedizione bat? erran zeion orano.

37. Isaakek ihardetsi zeion: Zure bürüzagütü dit, bere anaiak oro haren üztarri pian ezarri diotzüt: hazkürritako eman diotzüt ogi eta ardu, eta hortik kanpo, zer egin diot zuretako, ene semia?

38. Esauk erran zeion: Aita, eztüzia arren benedizione bat baizik? Ni ere othoi, othoi, benedika nezazü. Eta nula nigar turrustaz eta marraskaz ari beitzen,

39. Isaakek bihotza minberatürrik, erran zeion: Lür huntgallian eta zelü gañetik horra den ihitzian,

40. Dükezü zure benediziona. Biziko zirade ezpataren khostüz, eta izanen zira zure anaiaren sehi: eta jinen düzü denbora bat, zuñtan ere, haren üztarria bürü gañetik iharausirik, solt beitzirate.

41. Esauk hastiatzen ziren Jakob, aitak eman zeion benediziona gatik; eta bere goguan ziuen: Heltüren da en'aitaren hil dolia, eta ordian erhoko dü Jakob ene anaia.

42. Gogo hori jakinik, Errebekak jin erazi zien Jakob bere semia, eta erran zeion: Esau, zure anaia, mehatxüz diagozü erhoko zütia.

43. Beha zakitzat arren, lehia zite hebentik jauitera Laban, ene anaie, Haranen denaren ganat:

44. Zünbait egünez egonen zirade harekilan, zure anaieren khexia em'artino,



45. Eta khexia igaranik, egin deizozüna ahats dien artino: Mezü bat nik zuri igorrorrik, jin eraziko zütüt gero hunat. Zentako, egün batez, gal nitzake ene bi semiak?

46. Errebekak erran zien gero Isaaki: Biziak ünhatzen nizü Hethtar neskatilak direla kausa; Jakob ezkhuntzen bada alde huntako azi batekin, haboro enüzü nahi bizi.

BÜRÜ XXVIII.

Jakob badua Mesopotamialat. Esau ezkhuntzen da Mahelethekin, Ismaelen alhabarekin. Ametsetan Jakobek ikhusten dü zürübü bat.

1. Isaakek arren, Jakob deithürrik, benedikatü zien, eta manü hau eman zeion: Eztezazüla emaztetako har Khanaaneko neskatiletarik bat ere,

2. Bena zuaza Mesopotamialat, Sirian denialat, Bathüelen, zure amaren aita denaren etxerat, eta ezkhunt zite Labanen, zure osabaren, alhaba batekilan.

3. Jinko ahalarotakuak benedika zitzala, handi eraz eta hanitx eraz dezala zure azia, izan zitien giz' eli saldo baten aita:

4. Eman ditzatzüla, eta eman ditzala zure undokuer, Abrahami hitzaman zütien benedizioiak: jabe izan zitien egoiten zien lürraz, zure aita handiari hitzaman zienaz.

5. Jakob juan zen, aitari adio erranik, Siriako Mesopotamialat, Labanen, Bathüel Siriatarraren eta Errebekka, bere amaren, etxerat.

6. Eta Esauk ikhusirik aitak, benedizionia emanik, Jakob igorri ziela Mesopotamialat, hanko emazte batekin ezkhunt zadin; eta, benedizionia eman unduan, manhatü zeiola: Etzitiela ezkhunt Khanaaneko neskatila batekin ere;

7. Eta Jakob, ait'amen maniaren arabera, juan zela Srialat:

8. Borogatürrik ere aita Khanaaneko neskatilez etzela agrada,

9. Juan zen Ismaelen gana, eta, emazte jadanik zütienetarik kanpo, ezkhuntü zen Mahelethekin, Ismaelen, Abrahamen semiaren, alhabarekin, Nabajoten arrebarekin.

10. Jakob arren, Bersabeetik elkhirik, bazuan Haranerat.

11. Güne batetara heltü zenian, ekhi itzaltzian, han deskansatü nah' izan zen; hanko harrietarik bat hartü zien bürünegitako, eta güne hartan lo gin zien.

12. Eta ametsetan ikhusi zien zürübü bat lürretik zelü gañiala txüti: Eta Jaunaren aingüriak gora eta behera zabiltzan zürübü hartan.

13. Jauna ere ikhusi zien zürübü thinian künkürtürrik hari erraiten: Ni Jauna nüzü Abraham zure aitaren Jinkua, eta Isaaken Jinkua: zuri eta zure aziari lo zaudian lür hori emanen dit.

14. Eta zure azia lür erhautsa bezala dükezü: hedatüko zirade arratseko eta goizeko aldialat, ügerdiko et gaierdiko aldialat: eta lürreko giz'e-liak oro benedikatürrik dütükezü zütan, eta zure azian.

15. Zantüren zütüt nun nahi ere ziratien lekhian, eta ekharriko zütüt alde huntara; eta etzütüt ützioko nik erran deitzüdanak oro egin artino.

16. Jakobek, lotarik irratzarri zenian, erran zien: Egiazki Jauna güne huntan da, eta nik enakien.

17. Eta ikharatürrik erran zien: Züñ izigarri den güne hau! Jinkuaren etxia, eta zelüko bortha beita.

18. Goizik jakirik, Jakobek hartü ziren bere bürü peko harria, eta txüt-txüt ezarri zien jakiletako, olio gaña ixuririk.

19. Eta lehen Lüsa deithen zen hiriari Bethelen izena eman zeion.

20. Eta hitzaman hau egin zien: Jinkua enekilan balin badago, eta zañtzen balin banai nabilan bidian, eta emaiten balin badeitzat hazteko ogia, eta beztitzeko arropak,

21. Eta ützültzen baniz dohatsüki ene aitaren etxerat: Jauna date ene Jinkua;

22. Eta jakile txüt-txüt daguen harri hau, deithüren da Jinkuaren Etxia: Eta emanen deiztatüzün ooren detxima eskentüko deizüt.

BÜRÜ XXIX.

Jakob heltzen da Labanen etxera. Han zazpi urthez egon unduan, ezkhuntzen da Liarekin, eta, beste zazpi urtheren bürían, Errebekarekin. Liaren haurrak.

1. Bidia hartürrik, Jakob heltü zen Goizaldeko lürriala.



2. Eta sorho batetan phützü bat ikhusi zien, baita ere hirur arres saldo phützü khantian etzanik: phützü hartako hurrian edan erazten beitzüzten arresak, eta phützü ahua losa handi batek thapatzen zien.

3. Arresak oro saldotü zirenian, eraikiten zeien losa, eta hurrez ase zirenian, ara thapatzen zeien phützia.

4. Eta Jakobek artzañer erran zeien: Anaiak, nunko zireie? Ihardetsi zioten: Haraneko.

5. Galthatü zeien: Eztüzieia ezagützen Laban Nakhoren semia? Ihardetsi zioten: Ezagützen dizügü.

6. Untsa da? galthatü zeien. Untsa düzü, erran zioten: Eta hortxe Errakhel, haren alhaba, bere arresekilan hunat horra düzü.

7. Eta Jakobek erran zeien: Orano ekhia gora da, eta ezta arresen korralialat hotsemaiteko tenoria; edan eraz itzatzie, eta eraman itzatzie gero alhagialat.

8. Ihardetsi zioten: Eztiozügü hol'egin, arresak oro saldo artino, eta losa phützü gañetik eraiki beno lehen arreser edatera emaiteko.

9. Solazian ari zielarik, Errakhel heltü zen ber'aitaren arresekilan: berak hotsemaiten beitzütien alhatzera.

10. Errakhel ikhusi zienian, jakinik haren küzüña zela, eta arres saldua Labanena, haren osabarena zela, Jakobek phützia thapatzen zien losa eraiki zien.

11. Eta arresek edan zütenian, mintzua goratürrik, nigar turrustaz, besarkatü zien Errakhel,

12. Eta erran zeion haren aitaren anaia zela, baita ere Errebekaren semia: berri hori behala aitari ekharri zeion Errakhelek.

13. Aita, ber'arrebaren semia horra zeiola entzünik, behala elkhi zen Jakopen bidiala; eta besuetan tinkatürrik, potak egin unduan, eraman zien etxerat. Eta zentako bidian jarri zen jakin unduan,

14. Erran zeion: Ene aragiaren aragia eta ene odolaren odola zira. Eta hilabete baten bürrian,

15. Erran zeion: Ene anaie zirelako, behar naizia dohañ zerbütatü? Erran ezadazüt arren zer soldata nahi düzün.

16. Labanek bazütien hatik bi alhaba: prima, deithzen zen Lia, etxek' alaba aldiz, Errakhel.

17. Lia llapartsü zen; Errakhel aldiz begithartez eder eta gozagarri.

18. Etxek' alhabaz amodiotürrik, Jakobek Labani erran zeion: Errakhel zure etxek'alhabaren ordari, zazpi urthez zerbütatüko zütüt.

19. Labanek ihardetsi zeion: Hobiago düzü bai zuri eman dezadan beste gizon bati beno lehen: Egon zite enekilan.

20. Errakhelen ükheiteko zazpi urthez sehi egon zen Jakob, eta denbora hori llabür üdürütü zeion, handi beitzen Errakhelentako zien amudiua.

21. Eta Labani erran zeion: Eman ezadazüt ene emazt<...>, bethe beita harekin ezkhuntzeko ene denbora.

22. Labanek, adixkide saldo eli bat khümitatürrik, egin zütien ezteiak.

23. Eta arratsen Lia ber'alhaba sar erazi zien Jakopen ohian,

24. Emaiten zeolarik neskato bat, Selfa deithzen zen bat. Kostüma zen bezala, emaztia ganat hüllantü zen Jakob, eta biharamenian Lia ziela ikhusi zien:

25. Eta aitagarrebari erran zeion: Zer egin nahi ükhen deitazüt? Eztütüta Errakhelentako zerbütatü? Zentako inganatü naizü?

26. Labanek ihardetsi zeion: Gure herrian eztüzü üsatzen etxek'alhabak ezkhunt dieten primak beno lehen.

27. Ürhent ezazü zure emaztiarekin hasi düzün astia; eta hau ere emanen deizüt zazpi urthez eginen deitztadatzün lanen ordari.

28. Labanek nahi zien bezala egin zien Jakobek, eta zazpi egüinen bürrian, ezkhuntü zen Errakhelekilan.

29. Huni aitak eman zeion neskato bat, Bela deithzen zen bat.

30. Azkenian nahi zirenekin ezkhuntürrik, primaren beno amodio haboro etxek'alhabaren zielarik, beste zazpi urthez sehi egon zen Labanen etxen.

31. Jaunak hatik ikhusirik Lia mesperetxatürrik zela, izorra erazi zien, ahizpa behota zaguelarik.

32. Loditürrik Liak sorthü zien seme bat, izenez Errüben, erraiten zielarik: Jaunak ikhusi dü en' aphaltarzüna; ene senharrak orai maithatüko nai.

33. Berriz ere izorratü zen, eta seme bat sorthü zienian, erran zien: Jaunak, ikhusi beitä hastiatürrik nizala, eman deit bigerren seme hau; eta deithü zien Simeun.

34. Hirurgerren aldiko izorratü zen, eta beste seme bat sorthürrik, erran zien: Orai ene senharrak maitiako naike, eman deitzodalako hirur seme; eta semia izentatü zien, Lebi.

35. Laurgerren aldiko izorratü zen, eta seme bat sorthü zien, eta erran zien: Orai laidatüko düit Jauna: eta hortakoz bere semia deithü zien Jüda: eta haur egitetik baratü zen.



BÜRÜ XXX.

Jakobek ükhen zütien haurrak Bela, Selfa, Lia eta Errakhelen ganik. Labanekin bake egiten dü.

1. Errakhelek, behota zelakoz, ahizparen kontra bekhaiztürrik, bere senharrari erran zeion: Eni ere haur egin ezadazü, bestela hilen nüzü.
2. Khexatürrik Jakopek ihardetsi zeion: Jinko batentako hartzen naitzia, nik zütüta behot erazi?
3. Errakhelek erran zeion: Bela badit neskatotako, zuaza haren ganat haur egin dizadan, eta ene belhañen gañen sorth ditzadan.
4. Eta emaztetako eman zeion Bela: hau,
5. Gizona ezagütürrik, izorratü zen, eta seme bat sorthü zien Belak.
6. Eta Errakhelek erran zien: Hunki egin deit Jaunak, entzün beitu ene oiha, eman beiteit seme bat; eta hortakoz izentatü zien Dan.
7. Belak, berriz izorratürrik, sorthü zien beste seme bat.
8. Errakhelek erran zien ordian: Jinkuak izart erazi nai ene ahizparekin, eta goithü düit ahizpa; eta hortakoz haurra deithü zien Neftali.
9. Liak ere, haur egiteko balheü zela ikhusirik, senharrari eman zeion Selfa, bere neskatua.
10. Hunek, izorratürrik, sorthü zien seme bat.
11. Eta Liak erran zien: Iruski; eta haurra deithü zien Gad.
12. Selfak sorthü ziren berriz beste haur bat,
13. Eta Liak erran zien: Hau ene dohatsütarzüneko: emaztek deithüren benaie dohatsia; eta hortakoz izentatü zien Aser.
14. Ogi ephaiteko arruan hatik, alhorretarat juanik, Errübenek Lia bere amari ekharri zeitton ediren zütien lo belhar eli bat. Eta Errakhelek Liari erran zeion: Eman izadazü semiak ekharri deitzün lo belhar hoietarik.
15. Liak ihardetsi zeion: Etsizereia mengua gabe senharra eni eramanez geroztik, nahi züntükia ere orano semiak ekharri deitzadan lo belharrak? Errakhelek erran zeion: Senharra lo dadila gaur zurekilan, emaiten badeitazüt semiak ekharri deitzün lo belharretarik.
16. Eta arrats aldian, alhorretik horra zelarik, Jakobi bidiala elkhi zeion Lia, eta erran zeion: Ene ganat ztiaurri, erosi beitzütüt ene semiarren lo belharren ordari. Eta harekilan gai hura igaran zien.
17. Eta Jinkua haren othoitzer behatürrik, izorratü zen Lia, eta sorthü zien bostgerren seme bat,

18. Eta erran zien: Jinkuak eman deit ordaria, senharrari eman neiolakoz ene neskatua; eta bere semia izentatü zien Isakhar.
19. Eta berriz ere izorratürrik, Liak sorthü zien seigerren seme bat,
20. Eta erran zien: Jinkuak eman deit dohañ hun bat: aldi huntan ere ene senharra enekilan date, sei muthiko egin beteizot: eta haurra izentatü zien Sabülön.
21. Eta hunen undotik, sorthü zien alhaba bat, Dina deithü zien bat.
22. Errakhelez ere ohartürrik, Jauna haren othoitzer behatü zen, eta haurgiteko ahala eman zeion.
23. Errakhel izorratü zen, eta sorthü zien seme bat, erraiten zielarik: Jinkuak eraman deit ene ahalkegarria.
24. Eta deithü zien bere semia Josef, erraiten zielarik: Eman dizadala Jaunak beste seme bat ere.
25. Josef sorthü zeionian, Jakobek bere aitagarrebari erran zeion: Ütz nezazü juaitera ene herrialat, ene sorth-lekhialat.
26. Eman itzadatzü ene emaztiak, eta ene haurrak, haien ükheiteko zerbütatü beitzütüt, juan nadin hebentik: badakizü zük nula zerbütatü zütüdan.
27. Labanek ihardetsi zeion: Pharka izadazü, badakit zü ziela gatik Jinkuak benedikatü naiela.
28. Egizü zihauk nik zor deizüdanen khuntia.
29. Jakobek erran zeion: Badakizü zük nula zerbütatü zütüdan, eta nula ere zure huntarzüna hanixtü den ene eskietan.
30. Aphürtto zünien ni zure ganat jin artino, orai aldiz aberats zirade; Jaunak benedikatü beitzütü zur'etxen ni sarthü nizan bezañ sarri. Jüsto düzü arren en' etxiari ere gogo eman dezadan.
31. Labanek ihardetsi zeion: Zer emanen deizüt? Jakobek erran zeion: Eztit nahi deüsik: bena egiten badüzü nik erranen deizüdana, orano ere bazk'eraziren tit eta ere artzañtüren zure arresak.
32. Khunt itzatzü zure arres salduak oro, eta bazterrealat ezartzü ardi ñabarrak oro eta hebentik harat xurpall thonatürrik, eta ñabar sorthüren diren ardiak eta, ahüntzak oro, eñe soldatoko ditiket.
33. Eta phartitzeko tenoria jin datenian, althe diket ene egitatia: eta ardietan eta ahüntzetan ñabar, eta thonatürrik, eta xurpall eztiatenek orok erran dezela ebatsi tüdala.
34. Labanek ihardetsi zeion: Agrada zitazü galthatzen düzüna.
35. Eta egün hartan berian bazterrialat ezarri zütien ahüntz, ardi, eta akher eta ahazartz ilhia ñabar zütienak oro; eta bere semer eman zeitzen



begiratzera kolore batetako zien arres salduak oro, erran nahi beita ilhia xuri edo beltz zütienak.

36. Eta hirur egüinen bidia ezarri zien bere arresen sühiak bazk'erazten zütienen artian.

37. Eta Jakobek haltz eta ürrütz eta gazteñatze zaharo eli bat mutztürik, xurixkatü zütien, hantxe hebentxe axala idokitzen zeielarik; eta holatan üdüri züten xuri eta berde zirela, eta hanitx koloretako.

38. Eta ezarri zütien edangia bazterrian, arresek ikhus letzen edatera jitian, eta haier soz ernalt litien.

39. Eta heltü zen nula arresek, zaharo haier soz ernaltü unduan, sorthü zütela hüme ñabar, eta hanitx kolorez thonatü eli bat.

40. Eta Jakobek berhezi zien arres saldua, eta zaharuak ezarri zütien asken gañen, ahazartzek ikhus litzen: eta ilhia xuri eta beltz züten arresak, Labanenak ziren; bestiak oro aldiz Jakopenak; arres salduak berhezirik zaudielarik.

41. Bedatsian arren, ardiak azkaratzen zienian, Jakobek zaharuak hur asketan ezarten zütien ahazatzen eta ardien bixtan, haier soginez ernalt litien.

42. Bena, berantxa edo bigerren aldiko azkaratzen ziener, zaharorik bixtan etzeien ezarten. Larrazkenian sorthzen zien hümiak oro Labanentako ziren; primaberan sorthzen zienak aldiz Jakobentako.

43. Holaxet, Jakob aberats aberatstü zen, saldozka beitzütien, arresak, mixkandiak eta sehiak, khameliak eta astuak.

BÜRÜ XXXI.

Labanen ixilik Jakobek ihes egiten dü. Laban lasterka undotik jarraikiten zaio. Biek adixkidegua egiten düte.

1. Jakobek entzün zütien gero Labanen semiak mintzatzen, erraiten zütelarik: Gure aitak zütienak oro hartü tü Jakobek, eta, haren huntarzünez aberatstürik, ahal handiko gizona egin da.

2. Eta ikhusi zien ere Labanek etzeiola lehen bezalako begitharte argi bat egiten.

3. Eta nula Jaunak erraiten betzeion: Ützül zite zure aiten herrialat, zure askazien ganat, eta ni zurekilan nükezü,

4. Errakheli eta Liari igorri zeien erraitea, jin zütien arresak bazkatzen zütien güniak;

5. Eta erran zeien: Ikhusten dit ziren aitaren begithartia ezteela enetako lehen bezañ argi, nahi bada ere, ene aitaren Jinkua enekin diagozü.

6. Ziek badakizie nula ene indar oroz zerbütatü düdan zien aita.

7. Bena aitak zienak xederak ene hedatürik hamarretan khanbiatü ditazü soldata, nahi bada Jinkuak etzeion haizütü eni gaizki egitez.

8. Erraiten bazeitan: Arres ñabarrak oro zure dütükezü: ardiek sorthzen zütien hüme ñabarrak; erraiten zeitadanian: Arres xuriak oro zure dütükezü: ardiek sorthzen zütien hümiak xuri.

9. Jinkuak ziren aitari ideki deitzon huntarzünak eni eman deitzat.

10. Ardien ernalt erazteko tenoria jin zenian, begiak goratü tüt, eta, lo nintzalarik, ikhusi tüt khotxo ñabarrak eta kolorez thonatiak ürrüxen estaltzen.

11. Eta ametsetan Jinkuaren aingüriak erran deit: Jakob? Eta ihardetsi deiot: Heben nüzü.

12. Eta erran deit: Eraik itzatzü begiak, eta soizü khotxo ñabarrek, nula ürrüxak estaltzen dütien. Ikhusi tit Labanek egin deitzün gaizkiak oro.

13. Ni Betheleko Jinkua nüzü; han berekatü zünien harria, eta txüt txüt ezarri zineitadan. Jaiki zite behala, eta alde huntarik zuaza zure sorthlekhialat.

14. Errakhelek eta Liak ihardetsi <...>: Guri zer baratzen zaikü gur'aitaren huntarzünetik eta etxeko züzenetik?

15. Ezteikia arrotzer bezala egin? ezkütia saldü? eta ezta jan gure sal saria?

16. Bena gur'aitari huntarzünak ideki beteitzo Jinkuak emaiteko guri eta gure haurrer, egitzü arren Jinkuak manhatzen deitzünak oro.

17. Jaiki zen arren Jakob, eta haurrak eta emaztiak khamelien gaña igaran erazirik, bidian jarri zen.

18. Bere huntarzünak oro eramaiten zütielarik, eta ardisalduak, eta Mesopotamian irabazi zütienak oro, juaiteko Khanaaneko aldialat, Isaak bere aitaren ganat.

19. Denbora hartan ere Laban juan zen bere ardien muxtera, eta Errakhelek ebatsi zeitzon bere aitaren Jink' aizünak.

20. Aitaginarrebari Jakobek etzeion nahi ükhen aithortü bazuela haren ihes.

21. Eta nula abiatüz geroztik bere hatiekilan, igaranik ibaia, hüllantzen beitzen Galaadeko mendialat,



22. Labani salhatü züten abiatü zeneko hirurgerren egünian, Jakob ihes zuala.
23. Anaiak berekilan hartürrik, zazpi egünez undotik jarraiki zeion Laban, eta Galaadeko mendian atzaman zien.
24. Eta ametsetan ikhusi zien Jinkuak, erraiten zeiola: Begira zite Jakobi gaizkirik erraitetik.
25. Jakobek mendi gañen hedatürrik zien oihal-olha: Labanek ere heltü zenian, han hedatü zien beria.
26. Eta Jakobi erran zeion: Zentako ar'izan zirade hola, eramaiten zeneiztalarik ene alhabak gerlan mixkandi eginak balia bezala?
27. Zentako ene ixilik nah'izan zia ihes juan? zentako ezteitazü zure gogua agertü, lagünt zintzadan khantalotsez, eta txürülotsez eta soñüz?
28. Eztüzü nahi ükhen besarka nitzan ene haurrak eta ene alhabak: astokeria bat egin düzü, eta orai
29. Nik ere gaitz egin ahal deizakezüt: bena atzo zure aitaren Jinkuak erran ditazü: Begira zite Jakobi gaitz egitetik.
30. Zur'etxekuen ganat nahi bazirade juan, untsa; bena zentako eba-tsi deiztatzü ene Jink' aizünak?
31. Jakobek ihardetsi zeion: Zure ixilik juan nüzü, beldür nintzalakoz bortxaz begira zintzadatzen zure alhabak.
32. Bena uhuñkeria mintzatzen zien horentako: nahi dit gure anaien aitzinian erhorik izan dadin zure jink' aizünak hartü dütükiena. Txerkha, eta hartatzü heben zuriak direnak oro. Hola mintzo zelarik etzakien jink' aizünak aitari Errakhelek hartü zeitzola.
33. Jakoben, Liaren eta bi mixkandien oihal-olhak ikhertü zütien Labanek, eta han deusik etziren ediren. Eta Errakhelen oihal-olhan sarthü zenian,
34. Laster Jink' aizünak gorderik khamelü baten basto pian, Errakhel jarri zen basto gañen, eta, nula aita, deusik ediren gabe, xokho orotan ikhertzen ari beitzen, erran zeion:
35. Ene Jauna ezadila khexa enizalako z jaikiten zure aitzinian, emaminek eritürrik beniz. Eta elhe hoiez bastertü zien aitaren aiherra.
36. Eta khexü handitan mehatxatzen zielarik, Jakobek erran zeion: Zer gaizki, eta zer ogen egin deizüt nik, ene hola tratatzeko,
37. Ene hatien ikhertzeko eta zaurtzeko? Zer ediren düzü ene hatietan zure denik? Ezar ezazü heben zure eta ene anaien aitzinian, jakile izan ditien zure eta ene artian.
38. Hori da ene hogeï urthen mithilguako saria? Zure ardiak eta ahüntzak eztütüzü egon antzü; eztitit zure saldoko ahazartzak jan:

39. Ihiziek janak ezteizüt erakutsi; galtzen zirenen ordariak emaiten neitzün, galthatzen betzineztadan.
40. Beruak eta hotzak errerik, gaiak eta egünak loik gabe igaraiten nitizün.
41. Eta holaxet hogeï urthez zur'etxen zerbützatü zütüt, hamalauz zure alhaben gatik, seiez aldiz, zure arres salduen gatik; eta hamarretan khanbiatü deitazü zor zeneitan soldata.
42. Abraham ene aitamen Jinkuak, eta Isaken beldürak ezpanüntie lagüntü, zük pikarrai igorri nüdükezün: Jinkuak, ene bihotz-minak eta ene eskarniuk ikhusirik, hezi zütü atzo.
43. Labanek ihardetsi zeion: Ene alhabak, eta ene semiak, eta zure arresak, eta ikhusten tüzünak oro, eniak dütüzü: zer egin ahal diot ene alhaben eta ene semeñientako?
44. Tziauri arren, eta egin dezagün adixkidegua bat, zure eta ene artian jakile datien bat.
45. Jakobek ekharri zien arren harri bat, eta txüt txüt jakile ezarririk,
46. Bere anaier erran zien: Ekhart zatzie harri. Eta athetü zütienian, harri athe gañen jan zütien:
47. Eta Labanek deithü zien Jakiliaren athia, eta Jakobek aldiz, Jakileguako athia, bakhoitxak bere mintzajiaren arabera.
48. Eta Labanek erran zien: Egün harri athe hau zure eta ene arteko jakile dükezü; eta hortakoz güne hua izentatürrik izan zen Galaad, erran nahi da, Jakiliaren harri athia.
49. Jaunak so gin deizagüla, jakile datielarik gure artian, algar ganik hürrüntzen gjatienian,
50. Ene alhabak zaflutzen badütüzü, eta haiez kanpo, beste emazte zunbait hartzen batüzü; Jinkua, orai heben ikhusten gütiena, baizik gure hitzen jakilerik eztizügü.
51. Eta berriz Jakobi erran zeion: Zure eta ene artian daguen harri athe hau, eta txütitü düdan harri hau,
52. Jakile dükezü: athe hau, eta txüt txüt daguen harria jakile dütükezü, nik gañtitzen badüt gogo gaxtotan zure ganat horra nizalarik, edo zük gañtitzen batüzü ene ganat jiteko gaxtokeriaz.
53. Abrahamen Jinkua, eta Nakhorren Jinkua, eta hoi en aitaren Jinkua, izan dadila gure Jakilia. Jakobek arren zin egin zien Isaak bere aitarren beldürrez;
54. Eta mendi gañen ahari eli bat erho unduan, jatera khümitatü zütien bere anaiak ogia jan lezen. Jan zienian, han egon ziren.



55. Eta argia beno lehen jaikirik, Labanek besarkatü zütien bere semeñiak eta alhabak, eta benedikatü zütien adio erraiten zeielarik, eta bere herrialat ützüli zen.

BÜRÜ XXXII.

Jakobek horra dela mezia igortzen dü Esau. Bidian borrokan ari da aingürü batekin.

1. Jakob ere juan zen hartü zien bidiaz eta Jinkuaren aingüriak elkhi zeitzon aitziniala.
2. Eta ikhusi zütienian, erran zeien: Hoiek Jinkuaren armaden egongiak dira; eta güne hari eman zeion Mahanaimen izena, erran nahi da, Gaztelü.
3. Aitzinian hatik igorri zütien meziak Esau anaieren ganat, Seireko lürrialat, Edomeko aldialat.
4. Eta manhatü zeien: Holaxet mintzatüko zizteie Esau ene anaie Jaunari: Hoierraiten deitzü Jakob zure anaiek: Labanen etxen arrotz bezala igaran dit zunbait denbora, orai artino han nündüzün.
5. Batit idiak, eta ardiak, mithilak, eta mixkandiak; eta igorten ditit orai mezü egiliak ene Jaunari, hunki jin egin dezadan.
6. Eta mezü egiliak ützüli ziren Jakobek ganat, erraitera: Ikhusi dizügü Esau zure anaia, horra düzü zure aitzinialat laur ehün gizonekilan.
7. Jakob izitü zen eta, harritürrik, bi saldotan ezarri zütien berekilako jentiak, aberiak, eta arresak, eta khameliak,
8. Erraiten zielarik: Esau saldo batetara jiten bada, eta bahitzen balin badü, beste saldua salba laiteke.
9. Eta Jakobek erran zien: Abraham en'aitaren, eta Isaak en'aitaren Jinkua: Jauna, erran zineitan: Ützül zite zure herrialat, eta zure sorth-lek-hialat, eta hunki eginen deizüt.
10. Txipi nüzü zure ürrikaltarzünaren merexitzeko, eta hitzaman zineztadanak oro etxeki deiztadatzü. Makhila eskian igaran nizün Jurdaneko ibai hau, eta orai ar'igaraiten dit bi saldokin.
11. Begira nezazü Esau ene anaiaren eskütik; harentako beldür nüzü: jin eztatidin amaren bere haurrekin erhaitera.
12. Erran deitazüt hunki eginen zineitala, eta iaurrien züniela ene azia itxasoko hariña bezala, zuñ, hanitx delakoz, khunta ezpeitaiteke.

13. Gaia güne hartan igaran unduan, berhezi zütien bere aberas-tarzünetarik dohañ eli bat bere anaie Esauentako;
14. Ber ehün ahüntz, hogeï akher, ber ehün ardi, eta hogeï ahazartz,
15. Hogeï-ta-hamar khamelü bere hümekin, berrogeï behi, eta hogeï zezen, hogeï ast'ama, eta hamar astokhüme.
16. Eta berhez saldo hoiek igorten zütielarik, mithiler erran zeien: Zuazte ene aitzinian, eta üt ezazie bide buxi bat abere saldo batetik bestiala.
17. Eta ororen aitzinian juaiten zenari erran zeion: Bürü egiten badüzü ene anaie Esauekin, eta galthatzen badeizü nurena zien edo nuat zuazan edo nurenak diren hots emaiten tüzün aberiak,
18. Errozü: Jakob zure zerbütxiarenak; dohañ igorten ditizü Esau ene Jaunari, eta bera ere horra düzü ene gibeletik.
19. Ber maniak eman zütien bigerrenari, hirur gerenari, eta abere hotsemaile orori, erraiten zeielarik: Hola hola mintza zizte Esau, harekilan bürü egin dükezienian.
20. Eta errozie orano: Zure zerbütxiaria jarraikiten ziküzü: Goguan erraiten zien: Aitzinian igorten deitzodan dohañez ematürrik date, eta ikhusten dükedanian, eginen deit bentüraz hunki jin.
21. Aitzinian juan zeitzon arren dohañak, eta gaia igaran zien armaden egongian.
22. Eta goizan goizik hartü zütien bere bi emaztiak, eta bi mixkandiak, eta bere hameka semiak, eta haiekilan Jakobek igaran zien erreka.
23. Eta zütienak oro errekan gañti igaran erazi zütienian,
24. Ber bera egon zen: eta harekin goizialano gizon bat borrokan ari izan zen.
25. Eta garhait etziuela ikhusirik, hunki zeion izta zaña, eta izta zaña eihartü zen behala.
26. Eta Jakobi erran zeion: Ütz nezazü, ekhia agertzera beitua. Jakobek ihardetsi zeion: Etzütüt ützioko zük eni zure beneditzionia eman artino.
27. Eta galthatü zeion: Nula deithzen zia? Jakob deithzen nüzü, ihardetsi zeion.
28. Eta erran zeion: Hebentik harat etzia haboro Jakob deithüren, bena bai Israel: Jinkuaren kuntra azkhar izan zirenaz geroztik, gizonen kuntra azkharago zirate.
29. Jakobek galthatü zeion: Erradazü, nula deithzen zia? Ihardetsi zeion: Zentako galthatzen deitazü ene izena? Eta güne berian benedikatü zien.
30. Eta gune hua izentatü zien Jakobek Fanüel, erraiten zielarik: Begiz begi ikhusi düt Jinkua, eta eniz hil.



31. Fanüel igaran zien bezañ sarri, ekhia jaiki zen, eta Jakob txaiñkü baratü zen.

32. Hortakoz orai artino Israeleko hurrek eztüte izta zañ Jakobi eihartü zeion hartarik jaten: aingüriak hunkirik, sohaiotü zelakoz.

BÜRÜ XXXIII.

Jakobek eta Esau бүрү егтен дүте алгарреки. Jakob Sikhenera hel-tzen da.

1. Begiak eraikh unduan, Jakobek ikhusi zien Esau horra zela laur ehün gizonekilan: eta phartitü zütien Liaren eta Errekhalen haurrak eta bi mixkandienak ere.

2. Eta lehen herrokan ezarri zütien bi mixkandiak bere semeki; bigerren herrokan aldiz Lia eta hunen haurrak; eta Errakhel eta Josef azkenian.

3. Eta bera aitzina juanik, zazpitan künkürtü zen lürrialat anaia gana hel artino.

4. Esauk, lehia handitan anaia gana jinik, besoetan tinkatü ziren potez eta nigar turrustaz zaiuelarik,

5. Eta begiak eraikirik, emaztiak eta haurttuak ikhusi zütienian, erran zeion: Zer dia hoiek? Zuriak direia? Jinkuak zure zerbütxiari eman deitzon haurttuak dütüzü, ihardetsi zeion Jakobek.

6. Eta mixkandiak bere hurrekilan hüllantürik, künkürtü zien lürrialat.

7. Lia ere hüllantü zen bere hurreki, eta ber gisan lürrialat künkürtü zen, eta Josefek eta Errakhelek ere hola hola egin züten.

8. Eta Esauk erran zeion: Zentako dira doidoia ikhusi tüdan abere saldo hoiek? Ihardetsi zeion: Nik pharkamentü ükheiteko ene Jaunaren ganik.

9. Esauk erran zeion: Badit aberastarzün aski, ene anaie; zuretako begira itzatzü zuriak.

10. Eta Jakobek erran zeion: Eztit, othoi, hola nahi: Bena, zure begien aitzinian ediren balin badüt grazia, har ezazü emaiten deizüdan dohañttua, ikhusi beitüt egün zure begithartia, Jinkuarena ikhusi banü bezala; ürrikal zakitzat,

11. Eta har ezazü igorri deizüdan dohaña, eta Jinkuak, oro emaiten dütienak, eman deitadana. Herabexka hartürik anaiak emaiten zeitzonak,

12. Esauk erran zeion: Hots algarrekila, eta zure bideko lagün nükezü.

13. Eta Jakobek erran zeion: Badakizü, ene Jauna, haur txipi eli bat, eta behi ernari dien eli bat eneki dütüdala: sobera akhit eraz banintza bidian, ene abere salduak oro egün batez hil litaketzü.

14. Duala ene jauna bere zerbütxiaren aitzinian: Eta ni emeki emeki hari jarraikiren nitzozü, ene haurttuek ahal düken bezala, eta ene jauna ganatüren nüzü Sehiran.

15. Esauk erran zeion: Begira itzatzü, aments ene gizon hoietarik zunbait bide lagüntako. Eztit ez beharrik, ihardetsi zeion Jakobek. Nik behar düdana düzü zük pharka dezadazün, ene jauna.

16. Esau arren jin zen bidiaz ber egünian ützüli zen Sehirarat.

17. Eta Jakob heltü zen Sokothela: han etxia eraiki, eta oihaal-olhak hedatü unduan, güne hua izentatü zien Sokoth, erran nahi da, oihaal-olhak.

18. Eta Mesopotamiatik ützüli zenian, juan zen Salemala, Khanaaneko lürrian den Sikhemitarren herriala: eta hiri khantian baratü zen.

19. Eta oihaal-olhak hedatü zütien alhorreko lür pheza bat erosi zien, ehün axuri emaiten zütielarik Hemorren, Sikhemen aitaren semer, lürarren sari.

20. Eta han althare bat eraikirik, deith egin zien Israeleko Jinko azkhar azkharrari.

BÜRÜ XXXIV.

Dinari lehen floria eramanik Sikhemek, Hemorren semiak, Sikhemitarrak arrabaskatzen düzte Jakobek semek.

1. Ordian Dina Liaren alhaba kanporat elkhi zen, alde hartako emazten ikhustera.

2. Sikhemek, Hemor Hebetarraren semiak, alde hartako printziak, Dina ikhusi zienian, amodio handi batek hartürik, altxatü zien hürrüxa hori eta horeki lo egin zien, eta eraman zeion lehen floria.

3. Maitheriak bihotza josirik, Dinari balaküz ari zeion, triste zelakoz.

4. Eta Hemor ber'aita gana juanik, erran zeion: Ezkhunt eraz nezazü ürrüxa hunekila.



5. Jakobek gaiza hori jakin zien, bena semiak kanpuan beitzütien aberen bazkatzen, ixil ixila egon zen huak jin artio.

6. Hemor, Sikhemen aita hatik juan zen mintzatzera Jakobi:

7. Eta hunen semiak ordü berian ützültzen ziren bazkagiatik: eta, zer heltü zen jakin zütenian, kolera handitan jarri zien, Sikhemek laidogarritü zielakoz. Israel, eta Jakopen alhabaren likhitzkatzian, sori eztzen (sic) gaizkia egin zielakoz.

8. Hemor jin zeien arren mintzatzea, eta erran zeien: Sikhem, ene semiaren, bihotza lothürrik dago zien alhabari: emaztetako eman ezozie.

9. Eta aldizka egin ditzagün ezkhuntzak: emaztetako eman itzagützie zien alhabak, eta hart zatzie guriak.

10. Eta egon zizteie gureki: lürra badüzie, lanth ezazie, sal eta eros ezazie, eta esküpien etxek'azie.

11. Sikhemek ere ürrüxaren aitari eta anaier erran zeien: Phark'izadazie, eta nahi düketüzienak emanen deitziet.

12. Saria nahi düzien bezañ gora ezar zie, dohañak galth'itzatzie, galthatiak oro gogo hunez emanen deitziet, emaiten balin badeitazie ürrüxa emaztetako.

13. Jakoben semek, khexüz barnia betherik, Sikhemi eta haren aitari, goguan etzütena, ihardetsi zeien:

14. Galthatzen deiküziena eztiözügü egin, ezpeitiögü gure arreba eman zirkonzisitürik ezten gizon bati: gure artian hola egitia ezpeita haizü, laidogarri delakoz.

15. Zirekilan ezkhuntzak egin ginioke gü bezala nahi bazinzte izan, ar edo khotxuak zirkonzisitürik.

16. Ordian emanen deitziegü gure ürrüxak, eta hartüko tügü zienak emaztetako: eta ziekilan egonen girade, eta ber popülü bat eginen dügü.

17. Ezpalin badüzie aldiz zirkonzisitürik izan nahi, gure alhaba hartüren dügü, eta juanen girade.

18. Hemorri eta Sikhem, haren semiari, solaz hori agradatü zeien:

19. Erran zeienaren egitia etzien berantü muthiko gazte horrek ürrüxa hanitx maite beitzien. Ohore handitan ere zen aitaren etxen.

20. Eta portaletarik hirian sarthürrik, mintzatü zien popüliari:

21. Gizon hoiek bakezko gizonak dira, eta nahi düte gurekilan egon: tratian ari ditiela arren güne huntan, eta lanth ditzela lürrak, lüze eta largo delakoz, güne hunek ezpeitü aski langile: hoiien alhabak emaztetako hartüren tügü, eta guriak emanen ditzegü.

22. Hunki handi hori gaiza batek baizik eztiro berant eraz: lehenik, arrotz hoiien kostümaren arabera, ar edo kotxo girenak behar dügü zirkonzisitüak izan.

23. Hoiien huntarzünak, abere eta arres salduak eta hatiak oro guriak dirate, hoiien arabera egiten bagira; eta algarreki egoiten gielarik, eginen dügü ber popülü bat.

24. Orok bai bai erranik, ar edo khotxo zirenak oro zirkonzisitürik izan ziren.

25. Eta hirurgerren egünian, zirkonzisio sakhonak minago egiten zien tenorian, Jakoben bi seme, Simeun eta Lebi, Dinaren anaiak, ezpatak eskian, beldürrik gabe, hirian sarthü ziren: eta khotxuak oro hil unduan,

26. Hemor eta Sikhem erho züzten, eramaiten zütelarik Sikhemen etxetik Dina bere arreba.

27. Hoiek hiritik elkhi zirenian, Jakoben beste semiak parrastaz jin zien hiletara; eta arrabaskatü züten hiria, arrebari egin zen laidorioaz mendekatzeko.

28. Ardi, idi eta asto salduak oro bahitü züzten, etxetan eta kanpue-tan zirenak oro arrabaskatzen zütelarik.

29. Hango haurttuak eta emaztiak ere mixkanditako eraman züzten.

30. Hoiek beldür gabe eginik izan zirenian, Jakobek Simeuni eta Lebiri erran zeien: Izi erazi naizie, hastio erazi ere bai Khananeentarrer eta Feresetarrer, hebenko ekhoiliarer. Gü aphür beikira; hoiek saldotarik zaflatüren gütie, eta ni eta ene etxeuak arrabaskatüren gira.

31. Ihardetsi zeioen: Behar zütena gure arrebaz egin ema tzar batez bezala?

BÜRÜ XXXV.

Jakob Bethelerat badua. Benjamin sorthzen da eta Errakhel hiltzen. Jakoben undokuak. Isaaken hiltzia.

1. Jinkuak hatik Jakobi erran zeion: Jaiki zite, eta zuaza Bethelerat, han egon zite, eta Esau zure anaiaeren ihesi juaiten zinenian agertü zeizün Jinkuari eraik ezozü althare bat.

2. Jakobek ber'etxeuak oro bilkhüratü unduan, erran zeien: Zitarik hürrün urthuk'itzatzie zien artian dütüzien jink' aizün arrotzak oro; ükhüz zizteie, eta khabia itzatzie arropak.



3. Jaiki zizte, eta guatzan Bethelerat, han egin dezagün althare bat ene eskarnioko egünian entzün naien, eta ene bidian lagüntü naien Jinkuari.

4. Eman zeiotzen arren jink' aizün arrotz zütienak oro, eta behar' unduetan zütien pendentak oro: eta Jakobek lür pian ehortzi zütien haritz baten unduan, Sikhemeko hiri gibelian.

5. Eta bidian jarri zien bezañ sarri, Jinkuaren beldür handi handia hedatü zen üngürüko hiri orotara, eta nihur ere etzen atrebitü haier jarraitkizera.

6. Jakob, eta harekilan zirenak oro heltü zien arren Lüzara, izen goitiz Bethel deithzen deniala, Khanaaneko aldian.

7. Eta althare bat han eraikirik, güne hua deithü zien, Jinkuaren etxia: han agertü betzeion Jinkua, anaieren ihes zuelarik.

8. Ber denboran hil zen Debora Errakhelen amañua, eta ehortzirik izan zen Betheleko zolan, haritx pe batetan: eta güne hua deithü zen, Nigarretako haritxa.

9. Jinkua hatik berriz ere Jakobi agertü zeion, Siriako Mesopotamiatik ützülü zenian, eta benedikatü zien,

10. Erraiten zeiolarik: Etzira haboro deithüren Jakob, bena bai Israel. Eta deithü zien Israel.

11. Eta erran zeion: Ni nüzü ahalorotako Jinkua, handi eta hanitx zite: jentia eta nazionen giz'eliak zütarik elkhiren dützü, Erregiak ere bai.

12. Zuri eta zure undokuer emanen dit Abrahami eta Isaaki hitzaman düdan lürra.

13. Eta Jinkua juan zen.

14. Bena Jakobek txüt txüt ezarri zien jakileguako harri bat, Jinkua mintzatü zeion güne berian, harri gaña ixurten zielarik ardu eta olio.

15. Eta güne hua izentatü zien Bethel.

16. Juan zen gero Bethetik, eta bedatsian heltü zen Efratarat duan bidiala; eta Errakhel, erditzeko mügan zelakoz,

17. Haur min handietan biziaren galtzera zuan. Eta emaginak erran zeion: Etzitiela lotsa, ükhenen beitzü seme hau ere.

18. Hatsaren eta biziaren galtzera zuelarik, haur-minen gatik, Errakhelek haurra izentatü zien Ben oñe, erran nahi da, ene minetako semia. Bena Jakobek deithü zien Ben jamin, erran nahi da, ene esküñeko semia.

19. Hil zen arren Errakhel, eta ehortzirik izan zen Efraterat erran nahi da, Bethleemerat duan bidian.

20. Eta Jakobek haren ilherrian jakiletako txüt txüt ezarri zien harri bat. Harri hori egün artino txüti dago, Errakhelen orhitzpen.

21. Hantik juanik, oihal-olha hedatü zien arres thorretik haratago.

22. Eta nula güne hartan egoiten beitzen, Errüben juan zen logitara Belaren ganat, aitare andria ganat. Gaizki hori jakin zien aita. Bazütien hatik Jakobek hamabi seme.

23. Liarenak ziren: Errüben prima, Simeun, Lebi, Jüda, Isakhar eta Sabülon.

24. Errakhelenak: Josef eta Benjamin.

25. Bela Errakhelen mixkandiarenak: Dan eta Neftali.

26. Sefa Liaren mixkandiarenak: Gad eta Aser. Hoiek dirade Jakob haurrak; Siriako Mesopotamian oro sorthü zeitzon.

27. Jin zen gero ber'aita Isaaken ganat Manbrera, Arbeeko hiriala, Hebron deithiala: han atze bezala ebili beitzien Abraham eta Isaak.

28. Eta Isaak ehün eta laurtan hoge urthe bethe unduan,

29. Zahartziak higatürük, hil zen: zahartürük eta egünez aserik bere popüliari jüntatü zen: Esauk eta Jakobek haren semek, ehortzi züten.

BÜRÜ XXXVI.

Esauen ondokuen zunbata.

1. Hau da Esauen edo Edomen undokuen zunbata.

2. Esau ezkhuntü zen Khanaantar neskatala hoieki: Ada Elon Heth-tarraren alhabareki, eta Oolibama Anaren alhabareki; Ana Sebeon Heth-tarraren alhaba zen:

3. Eta Basemath Ismaelen alhabareki, Nabajoten arrebareki.

4. Adak sorthü zien Elifas: Basemathek sorthü zien Errahüel:

5. Oolibamak sorthü zien Jehüs, eta Ielon, eta Kore. Hoiek dira Esaui Khanaaneko lürrian sorthü zeitzon haurrak.

6. Ber'emaztiak, eta semiak, eta alhabak, eta etxequak, eta hatiak, eta aberiak, eta Khanaaneko lürrian zütienak oro hartürük, Esau juan zen beste alde batetara, eta hürrüntü zen bere anaie Jakobek ganik.

7. Hanitx aberats zielakoz, algarrekila etzitazkien egon, eta haien egongiak etzetzakien eden haien abere salduak.

8. Esau, Edom deithia, egon zen Seireko mendian.

9. Hoiek dira Seireko mendietan egon diren Esauen undokuak:



10. Hoiek aldiz haren haurren izenak: Elifas Adaren eta Esauen semia: Errahüel Basemathen eta Esauen semia.
11. Elifasen semiak ziren Theman, Omar, Sefo, eta Gatham, eta Zenes.
12. Thamna Elifasen, Esauen semiaren, andrea zen, eta Amalekhen ama. Hoiek dira Ada Esauen emaztiaren undokuak.
13. Errahüelen semiak aldiz: Nahath, eta Sara, eta Samma, eta Mesa. Hoiek ziren Basamethen, Esauen emaztiaren, semexiak.
14. Jebüs, eta Ihelon, eta Kore Oolibamaren, Esauen emaztiaren, semiak ziren; Anaren alhabarenak, eta Ana Sebeunen alhaba zen.
15. Esauen haurren aitzindariak izan zien: Elifaz, Esauen primiaren semiak: Theman printzia, Omar printzia, Sefo printzia, Zenes printzia,
16. Kore printzia, Gatham printzia, Amalekh printzia. Hoiek ziren Elifas Edomen zaudenaren, eta Ada Esauen emaztiaren undokuak.
17. Eta Errahüelenak, Esauen semiarenak, hoiek: Nahath printzia, Sara printzia, Samma printzia, Mesa printzia. Hoiek ziren Errahüel Edomen zaudenaren eta Basemath Esauen emaztiaren azitik elkhiak.
18. Oolibamaren, Esauen emaztiaren, semeñiak hoiek ziren: Jehüs printzia, Ihelon printzia, Kore printzia. Hoiek Oolibamaren, Esauen emaztiaren eta Anaren alhabaren azitik elkhi ziren.
19. Hori da arren Esau, Edom deithiaren, semen zunbata; eta hori aitzindari haietan izan diena.
20. Seir Horretarraren semiak, alde hartako ekhoiliarak, ziren: Lot-han, eta Sobal, eta Sebeun, eta Ana,
21. Eta Disun, eta Eser, eta Disan: hoiek ziren Horretarraren aitzindariak, Seiren semiak, Edomeko aldian.
22. Lothanan semiak ziren: Hori eta Heman: Lothanan arreba aldiz Thamna.
23. Sobalen semiak: Alban eta Manahat eta Ebal, eta Sefo eta Onam.
24. Eta Sebeunen semiak: Aia eta Ana. Ana hunek ediren zütien hur ephelak desertian, bazk'erazten zütielarik Sebeon bere aitaren astuak:
25. Eta ükhen zütien Dison semetako, eta Oolibama alhabatako.
26. Eta Disonen semiak ziren Hamdan, eta Eseban, eta Jethran, eta Kharan.
27. Eta Eseren semiak: Balaan, eta Saban, eta Akan.
28. Disonenak aldiz: Hüs eta Aram.
29. Horretarren aitzindariak hoiek ziren: Lothan printzia, Sobal printzia, Sebeun printzia, Ana printzia,

30. Dison printzia, Eser printzia, Disan printzia. Hoiek ziren Horretarren aitzindariak Seireko aldian manhatü zütienak.
31. Edomeko aldia errege izan zirenak, Israeltarrek errege bat ükhen zütien beno lehen, hoiek dira:
32. Bela Beoren semia, Denaba hiriko errege zen.
33. Bela hil zenian, Jobab Sara Bosrakuaren semia, haren lekhian jarri zen.
34. Jobab hil zenian, Hüsam Themantarren herritarra haren lekhian jarri zen.
35. Hüsän hil zenian, Adad Badaden semiak, haren lekhia hartü zien, eta goithü zütien Madiantarrak Moabeko günian: Haren hiria deithzen zen Abith.
36. Adad hil zenian, Semla Masrekatarra haren lekhian jarri zen.
37. Semla hil zenian, Saul Errohoboth ibai garaikua haren lekhian jarri zen.
38. Saul hil zenian, Balanan, Akhoboren semia, haren lekhian jarri zen.
39. Hau ere hil zenian, hunen lekhian jarri zen Adar, Adaren hiria deithzen zen [...], emaztia aldiz Meetabel, Matreden Mesaaben alhabaren alhaba.
40. Hoiek dirade arren Esauen azitik elkhi ziren aitzindarien izenak, bere askaziguen, egongien, eta izenen arabera: Thamna printzia, Alba printzia, Jetheth printzia,
41. Oolibama printzia, Ela printzia, Finon printzia,
42. Zenes printzia, Theman printzia, Mabsar printzia,
43. Magdiel printzia, Hiram printzia: Hoiek ziren Edomeko aitzindariak bere aitzindariguako aldetan egon zirenak, Esau bera da Idümetarren aita.

BÜRÜ XXXVII.

*Jakoben Semen bekhaitzkeria Josefentako. Saltzen düte Josef.
Ejjiptualat eramanik da Josef.*

1. Jakob egon zen arren Khanaaneko aldian haren aita atze bezala ebili zen günian.



2. Eta hoiiek dirade haren undokuak: Josefek, haur zelarik orano eta hamasei urthetan, aitaren arresak bazkatzen zütien bere anaieki, Belaren eta Zelfaren semeki; eta aitari salhatü zütien anaiek egin gaizki eli bat.

3. Israelek hatik beste semiak oro beno maitiako zien Josef, zahar-tarzünian sorthü zeiolakoz: eta egin erazi zeion arropa ñabar bat.

4. Anaiek, borogatürük aitzaz hurak oro beno maithatüagorik zela, hügüntü züten, eta hitz eztirik etzioien erran.

5. Josefek ere, egin zien ametsa anaier erranik, hoiien hügüntkeria emendatü zien.

6. Eta erran zeien: Soi zie zer ikhusi düdan ametsetan:

7. Üdürütü zait estekatzen güntiela azauak alhor batetan: eta ene azaua txüt txüt zaguela erdian, eta zienak aldiz üngürían othoiez ari zeitzola.

8. Anaiek ihardetsi zioien: Gur'errege ziatia othe? eta zure eskü pian egon behar dükegia? Amets eta elhe hoiiek emendatü züten arren haien hügüntkeria eta bekhaitskeria ere.

9. Beste amets bat ere egin unduan, anaier erran zeien: Ametsetan ikhusi düt nula Ekhia, eta Argizagia, eta hameka izar othoiez ari zeitzala belharikatürük.

10. Anaier eta aitari amets hori erran unduan, Aita khexatü zeion, erraiten zeiolarik: Egin düzün ametsak zer erran nahi dü? Ni, eta zure ama, eta zure anaia, belharikatükü gireia zure aitzinian?

11. Anaier arren hügüntgarrütü zen: Aitak hatik ixil ixila goguan erabilten zien gaiza hori.

12. Eta nula anaiek Sikhemen aitaren arres salduak begiratzen beitzütien,

13. Israelek Josefí erran zeion: Zure anaia Sikhemen tü arresen alhazten: tziauri, igor zitzadan haien gana.

14. Prest nüzü, ihardetsi zeion Josefek: Zuaza, erran zeion Israelek, ikhus ezazü nula diren zure anaia, eta nula diren ere arresak: eta zer igaraiten den erraitera jin zakitzat. Hebroneko naballatik juan zen arren Josef Sikhemera.

15. Eta gizon batek ediren zien kanpuan bere bidiaren ezin traukatüz, eta galhatü zeion zeren bilha zabilan.

16. Eta erran zeion: Ene anaien bilha nabilazü; erradazü, othoi, nun alhatzen dütien arresak.

17. Gizonak ihardetsi zeion: Güne huntarik juan tüzü: Bena entzün ditit erraiten zütela: Guatzan Dothainerat. Josef juan zen arren anaien undotik, eta ediren zütien Dothainem.

18. Hoiiek, heltü zen beno lehenago, hürrünetik ikhusi zütenian, hitz hartü züten erho behar zütela.

19. Eta algarri zioten: Amets gilia horra zaikü,

20. Tziauste, erho dezagün, eta ezar dezagün zilo zaharrian; eta erranen dügü ihizi gaixto batek jan deiküla; eta ordian ikhusiko da zertako bere ametsak zerbütatü zaitzon.

21. Errübeneke hatik, solaz hori entzünik, eskietarik eraman nahi zeien anaia, eta erraiten zeien:

22. Eztezaziela hil eraz; eztetzaziela eskiak theiü horen odolian; urhuk ezazie desertian den mala zilo hortarat, eta eskiak xahü etxek'itzatzie. Hola mintzo zeien goguan beitzien, haien eskietarik idoki unduan, muthikoaren aitari eramaitia.

23. Anaietara heltü zen bezañ sarri, hoiiek, arropa xamar ñabarra idokirik, pikarraitü züten Josef;

24. Eta urthuki züten mala zilo zaharrial, agortürük zeniala.

25. Eta anhuaren jateko jarri unduan, igaraiten ikhusi zützen Ismaeltar eli bat, Galaadetik horra zienak khameliak üsañ hunez, erreziñaz eta inseñsüz kargatürük, Ejiptualat bazuatzanak.

26. Jüdasek anaier erran zeien arren: Zer probetxü dükegü gure anaiaren hiltzez, eta haren hiltziaren gordatzez?

27. Hobiago da sal dezagün Ismaeltar hoier, gure eskiak theiütü gabe, gure anaia eta gure aragia beita. Anaia gogo hortako ediren zien.

28. Eta Madiantatratülantak igaraiten zielarik, mala zilotik idoki züten, baita ere Ismaeltarrer saldü hogeï zilhar buxinkarentako: Hoiék eraman züten Josef Ejiptualat.

29. Eta Errübeneke, mala ziluala ützüli zenian, etziren ediren muthikua han.

30. Eta arropak ürратürük juan zen anaier erraitera: Muthikua ezta ageri, eta nuatko niz ni?

31. Ordian eraiki züten Josefén arropa xamarra, eta ahüñe erho züten baten odolian latsatürük,

32. Igorri züten aitari, eta mezü egilek erran zioien: Hau ediren dizügü; soizü eia zure semiaren arropa denez, bai ala ez.

33. Aitak, arropa ezagütürük, erran zeien: Ene semiaren xamarra da; bas'ihizi gaixto batek jan beitü, ihizi batek iretsi dü Josef.

34. Eta suñeko arropak phorrokatürük, kapusilla bat jauntsi zien, seme galdiaren dolüz.

35. Haren haurrak oro aita ganatü zien, aitaren bihots min handien em'erazteko; bena gor zaguén haien aholkier, eta erran zeien: Lür pialat



ene semia ganat nigarrez juanen niz. Eta bere nigarretan hurtürrik zaguelarik Jakob,

36. Madiantarrek Ejiptuan saldü züten Josef Pütifari, Faraunen sehiari eta haren armaden aitzindariari.

BÜRÜ XXXVIII.

Jüdasen semiak. Fares eta Sara sorthzen dira.

1. Ber denboran Jüdas anaiak zien günetik eraitsirik, juan zen Hiras deithzen zen, Odollamitar gizon baten gana.

2. Eta han ikhushi zien Süe deithzen zen Khanantar gizon baten alhaba, eta emaztetako hartürrik lo'gin zien hunekin.

3. Emazte hau izorratü zen, eta Her deithü zien seme bat sorthü zien.

4. Eta berriz izorratürrik sorthü zien beste seme bat izenez Onan.

5. Eta hirur gerren seme bat ere sorthü zien, Sela deithia, eta hori sorthü unduan haur egitetik baratü zen.

6. Her bere primiarri Jüdasek eman zeion Thamar emaztetako.

7. Bena Her ere, Jüdasen primia, gaizki egile handia beitzen Jaunaren aitzinian, hilik izan zen.

8. Jüdasek erran zien arren Onani, bere bigerren semiari: Emaztetako har zazü zure anaieren alhargüntsa, eta anaieri haur zunbait egiotzü.

9. Bena Onanek, ikhusirik anaieren alhargüntsatik zütükien haurrak etzütükiela beriak, emaztia ganat hüllantzen zenian lürrialat iaurten zien azia, anaieren izeneko haurrik sorth ez ahal zadin.

10. Eta egitate harrigarri hori zela kausa, Jaunak hil erazi zien.

11. Jüdasek arren Thamarri ber' alhabaizünari erran zeion: Alhargüntsa egon zite zur' aitaren etxen, Sela ene semia gothor artino. Lotsa beitzen Sela hil zadin beste anaiak bezala. Holatan Thamar ber' aitaren etxerat ützüli zen.

12. Hantik denbora hanitxen bürían Süeen alhaba, Jüdaen emaztia, hil zen. Eta emaztia ehortzirik, dolüko denbora igaran zenian, Jüda aholkatürrik juan zen Thamnaserat, ardi mutxzalen ikhustera Hiras Odollamitarrareki, bere arres artzañareki.

13. Eta Thamarri mezü batek erran zeion haren aita ginarreba Thamnaserat bazuela, ardien mutxtera.

14. Alhargüntsak arren, dolüzko arropak bilaizirik, bürían mantilla bat ezarri zien, begithartiaren gordatzeko: eta, zaia khanbiatürrik, Thamnaserat züen bidexka hegi batetan jarri zen; Sela gothortürrik beitzen, eta Jüdak senhartako ezpeitzeion eman.

15. Han jarririk ikhushi zirenian, Jüdak ust'ükhen zien ema giza-khoi bat zela, begithartia gorderik beitzien, ezagüt elezen.

16. Haren ganat arren hüllantü zen, eta erran zeion: Ütz nezazü zureki libertitzera, ezpeitzakien bere alhab'aizüna zela. Harek ihardetsi zeion: Zer emanen deitazü galthatzen düzünaren ordari?

17. Erran zeion: Ene ahünts salduetarik igorriko deizüt ahüne bat. Harek ihardetsi zeion: Egitera ützioko deizüt nahi düzüna, zerbait emaiten badeitazü erres, hitzamaiten deitazüna igor artino.

18. Jüdak erran zeion: Errestako zer nahi düzü? Harek ihardetsi zeion: Zure erhaztüna, zure ükharai esteka, eta eskian düzün makhila. Eta lehen kolpian emaztia izorratü zen.

19. Eta txütütü zenian juan zen: eta hartü zien zaia bilaizirik, alhargüntsa arropak jauntsi zütien.

20. Jüdak hatik ahüñiaren eramaitera igorri zien bere artzañ Odollamitarra, emaztiari eman zeitzon erresak eraiki litzan. Eta nula hunek emaztia ezpeitzien ediren,

21. Hanko gizoner galthatü zeien: Nun da bidexka hegi huntan jarririk zen emazte hua? Ihardetsi zioien: Eztüzügü behin ere heben ikhushi ema gizakhoik.

22. Ützüli zen arren Jüda ganat, eta erran zeion: Emazte hua eztit khausitü, eta hanko gizonek erran ditazie egündano eztele izan han ema gizakhoik.

23. Jüdak ihardetsi zeion: Begia bitza, eztioküzü erran gezürrez ari izan gitzola, ahüñia igorri diot, bena zük eztüzü hua khausitü.

24. Hirur hilabetheren bürían hatik jin ziren Jüdai erraitera: Thamar zure alhab'aizüna izorra düzü, sabela loditzen ageri betzaio. Jüdak ihardetsi zeien: Kanpuan ezar ezazie, eta err'eraz ezazie.

25. Eta sü labialat zuelarik, Thamarrek igorri zien aita ginarrebari erraitera: Erres hoiek eman deitzadanak izorratü nizü; soizü eia nurenak diren erhaztün hau, ükharai esteka hau, eta makhila hau.

26. Eta dohañak ezagütü zütienian, Jüdak erran zien: Ni beno xüxena da: senhartako ezpeneion eman Sela ene semia.

27. Erditzeko tenoria heltü unduan, bi haurrez izorra zela ezagütü zen: eta batak sorthzian eskia kanporat elkhi zien; eta emaginak ezarri zeion ligeta gorri bat, erraiten zielarik:



28. Hau lehenik sabeletik elkhiko da.
29. Bena haur hunek eskia barneat sarthürrik, beste haurra elkhi zen; eta emaginak erran zien: Zentako zure gatik hautsi da zerrallia? Eta hortakoz izentatürrik izan zen Fares.
30. Eta ligeta gorria besuan zien anaia sorthü zen azkenik, eta deithü züten Sara.

BÜRÜ XXXIX.

Josefek Pütifar bere nausiaren fidanza merexitzen dü. Etxek' anderiak, lohikeriako lanian harekilan ari nahi ezteko, gaztelian ezar erazten dü.

1. Josef arren Ejiptuala heltü zen; eta Pütifar Ejiptarrak, Faraunen sehiak, eta haren armaden aitzindariak, berekilan ekharri züten Ismaeltar haier erosi zien.
2. Eta Jauna Josefeki zaguen, eta egitekuak oro untsa egiten zütien: eta bere bürüzagiaren etxen egoiten zen.
3. Bürüzagiak beitzakien Jaunak lagüntzen ziela, eta haren eginek orok undorio hun zütela,
4. Bürüzagiareki hunki jinik zen, kurentel zelakoz haren egitiaz, eskian ezarri betzeiton etxeko gora beherak oro, nahi zütükien bezala erabilteko.
5. Eta Jaunak benedikatü zien Ejiptarraren etxia, Josefengatik, baita ere hanitxtü hirian eta kanpuan zütien huntarazünak oro.
6. Nausiak, ogi jaten zienaz kanpo, etxeko gora beheretarik etzakien deusik. Josef hatik begithartez eta khorpitzez ederrenetarik zen.
7. Eta egün hanitxen bürrian, etxek' anderiak begistatü zien Josef, eta erran zeion: Lo zite enekila.
8. Eta, nula holako lan hügüntgarririk ezpeitzien egin nahi, Josefek ihardetsi zeion: Ikhusten düzü ene bürüzagiak, bere gora beherak oro eni ütziarik, eztekiela zer dien ber'etxen.
9. Deusik eztüzü ene eskietan ezarri ezteitanik, zü salbü, haren emaztia beitzirade: nula arren gaizki hori egin nio, ene Jinkuari gaitzezin gabe?
10. Eta egün oroz emaztiak ber solazak egiten zeitton gizon gazte hori, eta Josefek ezetz erraiten zeion.

11. Egün batez hatik Josef etxen sarthü zen ber bera, jakilerik gabe egiteko lan baten.

12. Eta emaztiak arropa hegaletik etxekiten zielarik erran zeion: Lo zite enekilan. Bena Josef, kapa haren eskietan ütziarik, ihes jua zen, eta kanpulat elkhi zen.

13. Emaztiak, kapa eskian, mesperetxatzen zirela ikhusirik,

14. Oihü egin zien etxekuer, eta erran zeion: Hebreitar muthiko hau hartü dü aretaz ene senharrak gure laido'razteko: ohiala jin zait, eneki lo'giteko; eta heiagoraz hasi nizanian,

15. Ene oihia enzünik, kanpulat ihes egin dü, eskietan ützen zeitalarik bere kapa.

16. Senharrari ere, etxeratü zenian, erakutsi zeion kapa, jakin lezan fidel egon zeiola.

17. Eta erran zeion: Hebreitar hartü düzün sehi hua jin zitadazü bortx' egitera;

18. Eta heiagoraz entzün naianian, ützi ditadazü etxekitzen neion kapa, eta ihes kanpua hartü dizü.

19. Hoiek hola entzün unduan, etxeko Jauna, emaztiari sinheskortürrik, khexü handitan jarri zen.

20. Eta erregeren manüz estekatürrik zienen gaztelialat igorri zien Josef, eta hau han egon zen giltz pian.

21. Jauna hatik Josefeki zaguen, eta hunez ürrikaltürrik, hunki jin egin erazi zeion gaztelü zañaz.

22. Gaztelü zañak presunerak oro eskü pian ezarri zeitton, eta han deusik etzen egiten Josefek manhatüz baizik.

23. Eta bürüzagiak etzakitzan gaztelüko berriak, aitzindarigua eman beitzieion: eta Jauna Josefeki zaguelarik, egitekuak oro untsa zuatan.

BÜRÜ XL.

Josefek argitzen tü Edatera-Emailiaren eta Ogi-hautsiaren ametsak.

1. Hoiek hola igaraiten zielarik Ejiptoko erregeren bi sehiak, Edatera emailiak eta Ogi-hautsiak, hüts egin züten bere bürüzagiari.

2. Eta Faraunek hoi kuntra khexatürrik, aitzindari zirelakoz, bata edatera emailen, bestia aldiz ogi-hautslen



3. Bere tropen aitzindariaren gaztelian ezar erazi zütien; Josef zaguen gaztelü berian.

4. Eta gaztelü zañak Josefi eman zütien, zerbütxa litzan. Gaztelian zirenetik denbora aphürtto baten bürrian,

5. Gai berian egüin zützen biek amets bana, ber erran nahikuak etzienak.

6. Haietara goizan jin zenian, bihotza ülhün zütela ikhusi zien Josefek.

7. Eta galthatü zeien: Zentako egün beste egünez beno beltzago düzie bihotza?

8. Ihardetsi zioien: Amets egin dizügü, eta zer erran nahi dien errak-hutslerik eztizügü. Josefek erran zeien: Jinkua ber bera ezta ametsek zer erran nahi dien errakhutsli? Erradatzie zien ametsak.

9. Edatera emailiak lehenik erran zeion bere ametsa: Ene aitzinian ikhusten nizün aihen undo bat,

10. Hirur laia zütiena. Laia hoietarik emeki-emeki elkhitzen ikhusi nitizün muhurittuak eta liliak, eta mahats molkho huntiak.

11. Eskian nizün Faraunen xalhia; mahats molkho hartü dit arren eta marrüskatü ditit xalhiala, eta erregeri eskentü diot xalhia, edan lezan.

12. Josefek ihardetsi zeion: Amets horek erran nahi dizü hau: hirur laiak, hirur egün tüzü.

13. Hebentik hirur egüen bürrian, Faraun ohartüko düzü zure ofi-ziuaz, eta lehen zünien kargian ezarriko zütü eta eskentüren derozü xalhia lehen egiten zünien bezala.

14. Orhit zite arren nitzaz untsa ziatienian, eta plazer egin izadazü Farauni goguan ezarteko ni hebentik idoki nezan.

15. Uhoinkiaz eraiki benaie Hebreako lürretik, eta ogenik batere gabe gaztelü huntan ezarri.

16. Okhinen bürüzagiak ikhusirik zuñ zühürki thipiltü zien ametsa, erran zeion: Nik ere egin dit amets bat: üdüri zitadazün bürrian ekharten nütiela hirur saski irinez betherik,

17. Eta gañeko saskian nütiela okhinek egiten dütien janhari süerte orotakuak, eta haietarik txoriak asetzen ziela.

18. Josefek ihardetsi zeion: Amets horrek hau erran nahi dizü: Hirur saskiak, hirur egün tüzü;

19. Hirur egüen bürrian, Faraunek mutztüko deizü lephua eta khürü-txian hedatü zütükienian, zelüko txoriek janen deizie aragia.

20. Hirur gerren egüna Faraunen sorth-egüna zen: eta bere aitzindari-er apairü handi bat emanik, apairü erditan ohartü zen Faraun Edatera emailen et Ogi hautslen bürüzagiez.

21. Eta bata lehenko kargian ezarri zien, xalhia eskhent lezan,

22. Bestia aldiz ürkhobian ezarri zien txilintxau; eta hola Josefek errana argitü zen.

23. Bere dohatsütärzünian, Edatera emailen bürüzagia Josefek etzen hatik orhitü.

BÜRÜ XLI.

Josefek argitzen tü Faraunen ametsak. Kargü handietara igaraiten da, eta ezkhuntzen. Ejiptoko gosetia.

1. Hantik bi urtheren bürrian Faraunek amets egin zien. Üdüri zeion ibai bazterrian zaguela

2. Eta ibaietik gora elkhitzen ziela zazpi behi eder, eta gizen gizen, eta bazkatzen ziela güne hezetan.

3. Eta beste zazpi behi txar, eta mehe mehe elkhitzen ziela ibai bar-netik, eta alhatzen ziela ibai bazterreko sorho belhartsietan.

4. Eta azkhen hoiek jan zütela behi eder gizenak. Iratzarri undorian, Faraun

5. Ara lotü zen, eta beste amets bat egin zien: üdüritü zaion ikhusten zütiela zazpi ogi bürü ederrenetarik; eta bihiz betherik zankho baten thianian,

6. Eta sorthzen ikhusi zütien beste zazpi ogi bürü txar, eta balheiü, aiziak eihartürik,

7. Iretsi zützenak ogi bürü ederrak. Eta lotarik iratzarri zenian, Faraunek

8. Izitürik, gozian goiz bilkür erazi zütien Ejiptoko aziak eta belhagiliak oro, eta bere ametsa erran zeien eta nihurk etzeion erakhutsi ahal ükhen zer erran nahi zien ametsak.

9. Ordian arren edatera emailen Bürüzagiak Josefek ohartürik, erran zien: Ene ogena aithortzen dü.

10. Erregek, bere mixkandien khexü zelarik, ni eta okhinen bürüzagia urthuk' erazi güntien bere tropen aitzindariaren gaztelialat.



11. Biek gai berian egin günien amets bana guri heltü behar zeikünen gañen.
12. Han ere zaguen Hebreter murruiñ gazte bat, zure armadako aitzindariaren sehi bat: erran giniotzün gure ametsak.
13. Xuri xuria erran ziküzün geroztik heltü zaiküna: Ni ene kargian ezarri benaie; ene lagüna aldiz khürütñian txilintñau.
14. Behala, erregeren manüz, gaztelütik kanpo idoki züten Josef, eta bizarra egin eta arropak khanbiatü ziotzenian, errege ganat eraman züten.
15. Faraunek erran zeion: Amets eli bat egin ditit, nihurk ere xurit' ahal eztadeitzadenak; erran ditazie azti jakin handikua ziela.
16. Josefek ihardetsi zeion: Ni gabe Jinkuak Farauni xuritüko ditzotzü dohatsüki heltüren zaitzonak.
17. Ikhusi ziena erran zeion arren erregek: Üdüri zitadazün ibai bazterrian ninzala,
18. Eta ibaitik gora elkhitzen zirela zazpi behi eder eta gizenenatarik, eta güne hezetan alha zirela;
19. Hoiñ undotik ere horra zütüzün beste zazpi behi txar, mehe mehiak, nulakorik behin ere ezpeiniñ ikhusi Ejiptuan:
20. Lehenik elkhiak iretsi zütienian,
21. Aserik ziela etzüzün ageri: lehen bezañ txar, mehe eta eihar egon zütüzün. Irartzartü unduan, berriz luak hartürük,
22. Ametsetan ikhusi nitizün ber zankhotik sorthzen zazpi ogi bürü bihiz mükhürri, eta ederrenatarik,
23. Eta beste zazpi bürü balheiü, aize beruak tximaltürük zankho beretik elkhitzen ikhusi nitizün:
24. Eta bürü mükhürri ederrak iretsi zitizien. Sorginer ene ametsa erran diet, eta batek ere eztitazü xuritü ahal ükhen.
25. Josefek ihardetsi zeion: Erregeren bi ametsek ber gaiza erran nahi dizie: Farauni Jinkuak erakhutsi nahi dizü zer heltüren den gero.
26. Zazpi behi ederrek, eta zazpi ogi bürü bihiz mükhürriek, erran nahi dizie zazpi urthez izanen den ekhoizpen handi bat: ber gaiza markatzen dizie.
27. Eta zazpi behi txar eta mehe ibaietik lehenik elkhiar jarraiki direnek, eta zazpi ogi bürü balheiü, aize beruak ütsütü dütiñenek erran nahi dizie zazpi urthez izanen den gosete handi bat.
28. Herroka huntan jinen dütüzü:
29. Zazpi urthez Ejiptoko alde orotara hedatüko düzü ekhoizpen handi bat:

30. Beste zazpi urthez jarraikiko ziozü gosete hañ handi bat, nula ahatzeraziren beütü aitzinaldiko urthen ekhoitzpena: gosetiak janen dizü lür güzia,
31. Janhari mentsguak gañtitüren beütü ekhoitzpen handia.
32. Egin düzün bigarren ametsak ber gaiza erran nahi dizü, lehenaren berme düzü; eta erakhusten dizü Jinkuaren hitza laster xuritüko dela.
33. Orari arren erregek ezarri behar dizü Ejipto güziaren bürüzagü gizon zühür eta xothil bat,
34. Bazter orotarat aitzindariak igorrien dütiñ bat, bil dezen zazpi urthez lürak emanen dien ekhoitzpenetik bostgerren phartia.
35. Eta selaurietan bildürük datien ogi bihia oro egon dadila erregeren esküpiñ, hiritetan gorderik,
36. Bürü egiteko Ejiptuaren zaphzera heltü behar dien gosetezko zazpi urther, gosiak jan eztezan lürra.
37. Aholkü hori erregeri, baita ere haren aitzindariak, agradatü zeion.
38. Eta Faraunek erran zeion: Hülako gizon bat ediren ahal ginuia, hau bezala Jinkuaren izpiritiaz betherik?
39. Josefi erran zeion arren: Jinkuak errakhutsi beteitzü erran deizkützünak oro, nun jauki ahal nio zure üdüriko edo zü beno zühür-rago den gizon bat?
40. Zü zirate arren en' etxenko gehiena, orok eginen tizie zük man-hatiak; nihau ere enükezü zü beno gorago ene jargian baizik.
41. Berriz ere erran zeion: Ezarten zütüt arren Ejipto güziko aitzindari.
42. Eta ber' erhitik erhaztüna idekirik Josefi erhian ezarri zeion; lizko arropa mehiak jaunts erazi zeitzon, baita ere ürhezko khatia bat lephuan ezarri.
43. Eta igaran erazi zien beriaren undotik horra zen txarriot baten gaña, oihü egin erazten zielarik txerre batez, oro belharika litiñ Josefen aitziniñ eta orok ezagüt lezen Ejipto güziaren aitzindariako.
44. Erregek Josefi erran zeion: Ni Faraun nüzü: zure manüz baizik, nihurk ere eztizü igitüko eskia, ez et'ere zankhua Ejiptoko lür güziñ.
45. Eta izena khanbiatü zeion, eta Ejiptoko mintzajiñ, deithü zien mündü Begirazalia; eta emaztetako eman zeion Aseneth Pütifar Ekhi hirik' aphezaren alhaba. Josef juan zen gero Ejiptoko bazter güziñ ikhustera.
46. Hogeita-hamar urthetan zen Josef, erregeren aitziniñ jiniñ zenian, eta Ejiptoko bazter ororen üngürüa egin zien.



47. Zazpi urthezko ekhoitzpena heltü zen: eta ogi azauak Ejiptoko sabaietan metatü ziren;
48. Bihiak ere parrastaka hiri orotan sarthü ziren.
49. Eta bihi-atthiak hañ handi ziren, itxasoko hariñen üdüri, nula ezpeitzazitekien izar.
50. Aseneth, Pütifar Ekhi hirik' aphezaren alhabak bi seme sorthü zeitzon Josef, gosetia jin beno lehen.
51. Primia izentatü zien Manases, erraiten zielarik: Jinkuak ahatz erazi deitzat ene eskarniuak oro, baita ere en' aitaren etxia.
52. Bigerrena deithü zien Efraim, erraiten zielarik: Jinkuak handi erazi nai ene gabeziako lürrian.
53. Ekhoitzpenezko zazpi urthiak Ejiptuan igaran zirenian,
54. Heltü ziren, Josefek erran bezala, gosetezko zazpi urthiak: Eta bazterrak oro gosiak jaten zütielarik, Ejiptoko lürrian etzen ogi mentsik.
55. Gosiak hartü zütienian, Ejiptarrak hasi ziren oihüz, Farauni jan-hari galthatzen. Bena ihardetsi zeien: Zuazte Josefek gana, eta erranen deitzenak oro egitzie.
56. Egünetik egüniala gosetia gañtiagotzen zen lür güzietan, eta, selauriak zabaltürrik, Josefek saltzen zien ogi bihia Ejiptarrer, beste alde-tan bezala, Ejiptuan ere gosetia handi beitzen.
57. Eta bazter orotarik Ejiptuala horra zien jentia bihi eroatera, gosezko gaitzaren em'erazteko.

BÜRÜ XLII.

Josefen anaiak baduatza Ejiptuala. Josefek kukuxkariak bezala tratatzen tü; eta begiratzen dü Simeun.

1. Jakobek, entzünik Ejiptuan ogi bihia saltzen zela, bere semer erran zeien: Zer ari ziradeie?
2. Entzün beität ogi bihia saltzen dela Ejiptuan, harat zuazte behar dügünaren eroatera, gosiak hil ahal ezkitzan.
3. Josefek hamar anaiak Ejiptuala eraitsi ziren arren, bihi eroatera.
4. Aitak etxen begiratü zien Benjamin hunen anaier erranik lotsa zela bidian gaizki zunbait helt zakion.
5. Ejiptuala heltü ziren bihi eroatera harat zuatzanekila, Khanaaneko aldian gosete handia beitzen.

6. Ejiptoko lürrian aitzindari beitzen Josef, haren manüz jenter saltzen zen bihia. Eta anaiak, aitzinian othoiez belharrikatü zeitzonian,
7. Ezagütü zütien, eta bester beno garrazkiago mintzatü zeien, galthatzen zeielarik: Nuntik horra zizte? Ihardetsi zioien: Horra gütüzü Khanaaneko lürretik, jateko behar dügünen eroatera.
8. Nahi bada anaiak ezagützen zütien, hoiez etzen ezagütürrik.
9. Eta lehenago egin zütien ametez ohartürrik, erran zeien: Kukuxkariak zireie; jin zireie hebenko güne mendrenen ikhustera.
10. Ihardetsi zioien: Ez, Jauna, ez, ezkütüzü holakuak: Zure zerbüt-xariak jin tüzü hazkürri eroatera hunat.
11. Aita baten semiak gütüzü oro; bakian jin beikira, zure zerbüt-xariek eztizie gogo gaxtorik batere.
12. Erran zeien: Egia eztiozie; jin zireie lür huntako güne mendren ikhustera.
13. Bena haiek ihardetsi zioien: Hamabi anaie gütüzü zure zerbüt-xüko, oro aita baten semiak, Khanaaneko lürrekuak. Txipiena gur' aitareki düzü, bestia aldiz zentü.
14. Hau erran deiziet: kukuxkariak zireie, erran zeien Josefek.
15. Ikhusiko düüt bai laster eia egia diozienez. Ala Faraun, ziren anaie txipiena jin artino etzireie hebentik elkhiren.
16. Haren bilha igor ezazie zietarik bat, hunat ekhar dezan: ziek aldiz gaztelian egonen zireie, nik jakin artino egia ala gezürra erran düzienez; bestela, ala Faraun, kukuxkariak ziezte.
17. Hirur egünez gaztelian egon erazi zütien.
18. Hirur gerren egünian hantik elkh' erazirik erran zeien: Erran deiziedana egizie, eta biziko zireie; beldür beniz Jinkuaren.
19. Bakezkuak baziradeie, zien anaietarik bat egon dadila gaztelüko estekan; bestiak aldiz zuazte, eta eraman etzatzie etxerat erosi tüzien bihiak.
20. Ekhar ezazie ziekila anaie txipiena, jakin dezadan egia erraiten düzienez, eta hil etzizteien. Manhatü zeien bezala egin züten,
21. Eta algarren artian zioten: Merexitü dügü egiten deiküna, gur' anaiari gaizki egin beitätü, ezpekitzaitzo behatü, bihotz-min handitan othoitzten güntielarik; hortakoz heltzen zaikü oraiko gaitza.
22. Haietarik batek, Errübenek erran zien: Eneiziena erran: ezteza-ziela haurriari ogenik egin? Etzizaiztade behatü? Orai haren odolaren berri galthatzen deikie.
23. Etzakiten Josefek enthelegatzen zütuela, haiekin arteko batez mintzo zelakoz.



24. Gibeltü zen amiñi bat hetarik nigar egiteko, eta ützüli zenian mintzatü zeien.

25. Eta haien aitzinian atzaman erazi eta estek' erazi unduan Simeun, bere aitzindarien manhatü zien haien zakiak bihiz bethe litzen, bakhoitxaren zakü ahuan diharia ezar lezen, bideko anhua ere eman lizen. Eta hola hola aitzindariak egin züten.

26. Astuetan gañen bihiak ezarririk, Josef enaia bidian jarri zien.

27. Ostatü batetan batak zakia zabaltürrik, astuari zaldariaren emaiteko, zakü ahuan ikhusi zien diharia,

28. Baita anaier erran: Ützüli deite ene diharia; soizie, zakian da. Ahalkez gorritürrik eta harritürrik algarri erran züten: Zentako Jinkuak hola egiten deikü?

29. Jakob ber' aita ganat jin zien Khanaaneko lürriala, eta heltü zientzenak oro erran zioien, ziotelarik:

30. Garrazki mintzatü ziküzü güne hartako bürüzagia, eta ust' ükhen dizü kukutxariak ginela.

31. Erran diozügü: Bakezko jentia gütüzü, eztüzügü gogo gaxtorik batere.

32. Bagütüzü hamabi anaie ber aitarenen semiak: bata zentü ziküzü, bestia aldiz aitareki düzü Khanaaneko lürrian.

33. Ihardetsi diküzü: Jakin nahi dü eia bakezko jentia zireienez: eneki üt ezazie zien anaietarik bat: hart zatzie zien etxetako behar tüzien bihiak, eta zuazte.

34. Eta ene ganat ekhar ezazie zien anaie txipiena, jakin dezadan kukutxariak etzireiela, eta bürdüñetan daguen hau solta dezazien, eta ordian haizü zaiekezi nahi dükezienen erostia.

35. Hoik erranik, hüstü züzen bihiak, eta bakhoitxak bere diharia zakü ahuan tinkatürrik ediren zien: eta oro harritürrik zielarik

36. Jakobek erran zeien: Seme gabetü naizie, Josef zentü da, Simeun aldiz bürdüñetan, eta eramaiten deitazie Benjamin; gaitzak oro horra zaitzat.

37. Errübenek erran zeion: Erhot zatzü ene bi semiak, ezpalin badeizüt Simeun ekhartan: eman ezadazüt Benjamin, eta nik ütülükü deizüt.

38. Bena Jakobek ihardetsi zeien: Ene semia ezta zireki eraitsiren, hunen anaia galdüz geroz; hau baizik ezpeitüt, zerbait helt balikio ziek juaiten zien aldian, bihotz-min handitan eraits ninte hobialat, bilhua xuri xuritürrik.

BÜRÜ XLIII

Jakoben semiak Benjamineki baduatza Ejiptualat. Josefek apairü bat emaiten deie.

1. Arte hartan gosetiak lür güzia jaten zien.

2. Ejiptotik ekharri hazkürriak akabi zienian, bere semer Jakobek erran zeien: Zuazte berriz bihi iñhar baten erostera.

3. Jüdak erran zeion: Gizon harek erran diküzü zin zinez: Eztüzie ene begithartia ikhusiko, ezpalin badeitazie zieki ekhartan zien anaie gaztena.

4. Nahi badüzü arren gurekilan jitera ützi, algarreki juaen gütüzü, eta behar tüzünak erosiko deitzügü.

5. Ezpalin badüzü aldiz nahi, ezkütüzü juaen: gizon harek, erran deizügün bezala, bere gogua erakhustez erran beteikü: Ene begithartia eztüzie ikhusiko, zien anaie txipiena ezpadüzie zieki.

6. Israelek erran zeien: Ene gaitzeko erraiten ari izan zitzaioe beste anaie bat bazüniela.

7. Eta ihardetsi zioien: Gizon harek lerroz lerro galhatü ziküzün nulako zen gur' aurhidegua; aita bizi günienez; anaierik bagünienez: eta gük ihardetsi diozügü galthatzen zeikünaren arabera. Uste ahal ükhen güniküena erranen zeiküla: Ekhar ezadazie zien anaie gaztena?

8. Jüdak ere aitari erran zeion: Enekila igor ezazü haurra, abia gitien eta bizi ahal gitien; eta hil ezkitien gü eta gure haurttuak.

9. Ni nükezü haurraren berme, eni galhatükü deitazü; ezpalin badüt hunat ekhartan, eta ezpalin badeizüt ützültzen, bethi ogendün nükezü zur' aitzinian.

10. Ezpalin bagünü hañ berantü, jadanik bi gerren aldiko hantik ützülikü güntükezü.

11. Israel aitak erran zeien arren: Hola behar denaz geroz, nahi düziene egizie: alde huntako gaiza baliusetarik hartatzie zunbait: dohañtako eraman ezozie gizon hari, erreziña, ezti, olio üsañdün, inseinsü, phino sagar, eta hür parrasta eli bat.

12. Eraman ezazie diharü doblia, eta zakietan ediren düziene ere eraman izozie, uste gabian bentüras ützi beitzüten.

13. Eraman ezazie zien anaia, eta zuazte gizon haren gana.



14. Ene Jinko ahalorotakuak zientako hunki dezola bihotza, igor dezan ziekila han etxekitzen deizien anaia eta Benjamin hau: ni aldiz haur gabe bezala nizate.

15. Eraman zützen arren dohañak, eta diharü doblia, eta Benjamin, eta eraitsi zien Ejiptuala, eta Josefen aitziniala juan.

16. Ikhusi zütienian, eta Benjamin ere haieki, bere sehi gehienari erran zeion: Gizon hoiek barneat sar eraz itzatzü, eta artzarrak erhot zatzü, eta apairü handi bat egizü, ügerditan eneki barazkaltüko beitura.

17. Sehiak manhatü zeiona egin zien, eta gizonak etxen sar erazi.

18. Eta harritürik algarri zioten anaiek: Hunat sar erazi gütü zakietan eraman günien diharüa gatik, ogen dügüla guri erakusteko, eta gure bor-txaz mixkandi erazteko, eta gure astuen bahitzeko.

19. Eta athalazian zirelarik, etxeko sehia ganat hüllantürik,

20. Erran zioien: Othoi, beha zakizkü, jauna. Lehenago ere eraitsi gütüzü hunat ogi erostera;

21. Erosi unduan, ostatü batetara heltürik, zabaltü gintizün gure zakiak, eta zakü ahuetan ediren ginizün ogi saria, eta orai ekharten dizügü phezü bereko diharüa.

22. Beste diharüak ere ekharten ditüzügü behar dügünaren erosteko. Eztakizügü nurk diharü hua ezarri dien gure zakietan.

23. Sehiak ihardetsi zeien: Zauzte bakian, etziteiela lotsa: Zien eta zien aitaren Jinkuak ezarri zeitzen huntarzünak zakietan. Ziek eman zineitaden diharüa nik xehe xehia begiratzen dü. Eta gaztelütik ekharri zeien Simeun.

24. Eta etxen sar erazi zütienian ekharri zeien hurra, eta zankhuak ükhüzi zützen, eta jatera eman zeien, haien astuer ere bai.

25. Dohañen adelatzen ar' izan zien Josef jin artino ügerditan, entzün beitzüten han barazkaltü behar zütela.

26. Josef arren ber' etxen sarthü zen, eta eskietan hartürik dohañak eskentü ziotzen, eta künkürtürik othoitü züten.

27. Josefek ere begitharte hun egin zeien, eta eztiki galthatü zeien: Nula da zien aita zahar hua, zuñez mintzatü betziztaitade: Bizi da orano?

28. Ihardetsi zioien: Gur' aita, zure zerbüttxaria, bixkor düzü, eta orano ere bizi. Eta künkürtürik othoitü züten.

29. Begiak goratü unduan, Josefek ikhusi zien Benjamin haren ama bereko anaia, eta erran zeien: Hori da zien anaie ñimiñi mintzatü zineiztaden hua? Eta erran zeion orano: Jinkua ürrikalt dadila zützaz, ene haurra.

30. Eta behala kanporat elki zen, anaia gatik bihotza minberatürik, begiak aldiz errada, eta bere khanberan sarthü zen nigar egiteko.

31. Eta begithartia xükatü unduan, ützüli zen, eta nigarrak gañtizen zeitolarik, erran zien: Jatekuak mahañian ezartzie.

32. Eta berhezki jatera eman züten Josefi eta Ejiptar hareki barazkaler, berhezki ere haren anaier. Ejiptarrer ezpeita haizü jatia Hebretra-reekila; holako apairiak üdüri betzaizte profanuak diela.

33. Josefen aitzinian jarri zien arren adinen arabera, gehiena lehenik eta txipiena azkenik. Eta espantatürik zaudien,

34. Josefek eskütik zathiak hartü zütienian; zathi handiena Benjamin heldü zeion, bostetan bestena beno handiago beitzen. Edan züten eta ase harekila.

BÜRÜ XLIV.

Josefek bere xalhia ezar erazten dü Benjaminen zakian, eta ber' anaia gbelialat ützüli erazirik uhuñak bezala tratatzen tü. Jüda bürdüñetan egon nahi da Benjaminen lekhian.

1. Josefek ber' etxenko sehi gehienari manhatü eta erran zeion: Ogiz beth'etzatzü hoiien zakiak egar ahal dien bezañ beste, eta ezar ezezü diharüa zakü ahuetan.

3. Eta biharamen goizian ützi zütüzte juaitera ber' astuekila.

4. Hiritik elkhirik bide buxi bat egin zütienian, Josefek bere etxenko sehi gehienari erran zeion: Laster egizü haien undotik, atzaman itzatzü, eta errezü: Zentako gaizkia egin düzie hunkiaren ordari?

5. Ebatsi deozien xalhian ene Bürüzagiak edaten dü, eta aztiguako zerbüttxatzen zaio; gaizki handia egin düzie.

6. Manhatürik zen bezala sehiak egin zien, eta atzaman zütienian hola hola mintzatü zeien.

7. Haiek ihardetsi zeioen: Zentako hola mintzo da gure Jauna bere mixkandier, ogen bagünü bezala?

8. Zakü ahuetan ediren dügün diharüa ekharri deizügü Khanaaneko lürretik, eta nula ebatsi günike gure Jaunaren etxetik haren zilharrezko xalhia?

9. Gütarik nurk ere uhuñkeria hori egin beitüke, ezar dadila hil hotz; gü ere egonen gütüzü gure Jaunaren mixkandi.



10. Egin bedi erran düzien bezala, ihardetsi zeien sehiak: uhuñkeria egin dükiena ene mixkandi date, bestiak aldiz juanen zireie, ezpeitükezie ogenik.

11. Orok behala lürrian phausatü zützen zakiak eta zabaltü.

12. Sehiak oro ikhertü unduan gehienarenetik hasirik txipienareniala-no, xalhia ediren zien Benjaminen zakian.

13. Bena ordian arropak ürراتzen zütielarik, astuak arakargatürük, hirialat ützüli zien.

14. Eta Jüda ber' anaien bürían jin zen Josefén gana (ezpeitzien orano etxia hüstü) eta belharriko güziak jarri zien haren zankhuetan.

15. Josefek erran zeien: Zentako egin düzie hola enekila? Eztakizieia ni bezalako aztirik eztela nihun ere?

16. Jüdak ihardetsi zeien: Zer erranen dügü ene Jaunari? nula mintza ginainte aski untsa gure nabastarrien phark' erazteko? Jinkuak bilhatü dizü zure zerbütxiaren gaxtokeria. Ene Jaunaren mixkandiak gütüzü oro, gü eta zure xalhia zakian ediren zaion hua.

17. Jinkuak begira nezala holako egitetik, ihardetsi zeion Josefek: ene xalhia ebatsi diena ene mixkandi dükezü, ziek aldiz laxüki zuazte aita ganat.

18. Jüdak hatik hüllantxiagotürük erran zeion beldürrik gabe: Beha zakitzat, othoi, ene Jauna, batere khexatü gabe. Faraunen undotik

19. Zü ziade ene Bürüzagia. Lehen aldian galthatü zineikün zure zerbütxiarier: Badüzieia aitarik edo anaierik?

20. Eta gük ihardetsi ginizün ene Jaunari: Badizügü aita zahar bat, eta bere zahartarzünian sorthü zaion haurtto bat; hunen ber sabeleko anaia zentü ziküzü. Amak hau baizik eztizü, eta aitaren begi ninia düzü.

21. Eta erran zineikün: Jin eraz ezazie ene aitziniala ikhus dezadan.

22. Gure Jaunari erran giniozün: Haurrak eztiözü aita ützi, hua gal baledi, hil belaiteke.

23. Eta erran zünien zure mixkandier: Zien anaie txipiena ezpalin bada ziekin jiten, eztüzie ene begithartia haboro ikhusiko.

24. Ützülü ginenian gur' aita zure zerbütxiaren ganat, erran giniozün zük erran zineizkünak oro.

25. Eta aita erran diküzü: Ützül ziteie bihi inhar baten eroatera.

26. Ihardetsi diozügü: Ezkitetzü juan. Gure anaie txipia jiten bada, algarreki juanen gütüzü; hua gabe ezkitakezü agert Jaun haren aitziniala.

27. Aita erran diküzü: Badakizie ene emaztiak bi haur zeitadala.

28. Batak kanpua hartü zien, eta erran deitazie: Ihizi batek jan dizü. Orai artino ja ezta agertü.

29. Hau ere eramaiten badeitazie, eta zerbait bidian heltzen bazaio, bihotz minez ni hil erazirik ene zahartarzünian, hobian ezarriko naizie.

30. Ützültzen baniz arren haurra gabe en' aita, zure zerbütxiaren ganat, (hunén bizia haurraenari josirik beita)

31. Eta ikhusten badü eztela gurekilan, hilen düzü, eta zure mixkandiek bihotz-min handitan lagüntüko dizie ber' aita zaharra ilherriala.

32. Ütz nezazü ni zure mixkandi egoitera, haurra hartü beität aitari hitzamanik: Ezpalin badüt eramaiten etxerat, aitaren eretzian bethi ogendün nükezü.

33. Egonen nüzü zure mixkandi, eta zerbütxiatüko zütüt haur hunen lekhian, eta ützüladila haurra etxerat bere anaiekila.

34. Enintezü ni aita ganat ützüladila haur hori gabe, haren bihotz min izigarrien ikhusteko.

BÜRÜ XLV.

Nur den erraiten dü Josefek bere anaier, eta aita ganat igorten tü dohañez kargatürük, Ejiptualat jin eraz ezen ber' etxekueki.

1. Bere nigarrak ezin gordez hanko jenten aitzinian, Josefek oro elkh' erazi zütien kanpualat, nihurk ere ikhus elezan ber' aurhideki ezagütze egiten.

2. Botza goratürük, nigar turrustaz Ejiptarrek eta Faraunen etxekuek orok entzün zütén

3. Ber' anaier erraiten: Josef niz, ni. En' aita bizi da orano? Anaiek izitürük etziokien ihardets.

4. Eztiki erran zeien: Ene ganat hüllant zizte. Eta hüllantü zirenian erran zeien: Ni niz Josef zien anaia Ejiptarrer saldü züniena.

5. Eitzeiela izi, ezteziela bihotz minik ükhen saldü naizielakoz alde huntarat. Zien begiratzeko igorri nai Jinkuak, zien aitzinian, Ejiptualat.

6. Badü bi urthe gosetia hasi dela lürrian, eta bost urthez eztaiteke orano lürra lanth ez ephait.

7. Jinkuak igorri nai zien aitzinian, bizi ahal zizteien lürrian, eta behar dena bizitzeko ükhen ahal dezazien.

8. Hunat igorri nai Jinkuaren nahiak eta ez zienak; Jinkuak egin nai Faraunen aita bezala, hunen etxeko jaun, eta Ejiptoko bazter orenen aitzindari.



9. Zuazte berantü gabe en' aitaren gana, eta errozie: Mezü hau igorten deizü Josef zure semiak: Jinkuak ezarri nizü Ejjipto güzian aitzindari: tziauri ene ganat, eztezazüla berant.

10. Egonen zia Jeseneko lürrian, ene khantian ziratee zü eta zure semiak, eta hoiien haurrak, zure ardi eta idi salduekila, düütüzün güziekila.

11. Eta han hazien zütüt (bost urthez orano irañen beita gosetia), gosiak hil etzizten zü eta zure etxeukuak, eta düütüzünak oro.

12. Zien begiak eta Benjamin ene anaiaren begiak jakile dirate nula hitz hoiek ene ahotik elkhi diren.

13. En' aitari errozie nulako den ene loria, eta Ejjiptuan zer ikhusi düzien; lehia zizte haren jin erazteko ene ganat.

14. Eta Benjamin bere anaia besarkatzen zielarik nigar egin zien, harek ere bai büria ezarririk anaiaren suñan gañen.

15. Bere anaiak oro besarkatü zütien Josefek nigarrez ari zelarik. Eta hoiek ere mintzatzera atrebitü zeitzon.

16. Josefen anaien jin-berria iauri eta hedatü zen erregeren khortian. Eta Faraun, eta haren etxenkuak boztariotü zien.

17. Eta Josefi manhatü zeion bere anaier erraitez: Astuak kargatürrik ütüzil zizte Khanaaneko lürrialat,

18. Hantik eraik' itzatzie zien aita eta askaziak, eta tziauste ene ganat: eta nik emanen deitziet Ejjiptuan dien gaiza hobenak, jan dezazien lürreko hüna.

19. Manh' ezezü hart detzen Ejjiptoko orga eli bat, ber'emazten eta haurren ekharteko, eta errezü: Har ezazie zien aita, eta tziauste lehen beno lehen.

20. Eztezaziela zien hatietarik batere ützi; Ejjiptoko huntarzünak zien beirate.

21. Israelen semek manhatü zeien bezala egin züiten. Josefek eman zeitzen orgak eta bideko anhua Faraunen maniaren arabera.

22. Anaie bakhoitxari bi arropa eman zeien, Benjamini aldiz hirur ehün zilhar buxinka bost arropa ederreki.

23. Aitari igorri zeitzon hañbeste diharü eta arropa, eta hamar asto Ejjiptoko huntarzünez kargatürrik, eta hamar astaña bihiz eta ogiz bideko kargatürrik.

24. Igorri zütien arren bere anaiak, eta abiatzian erran zeien: Etziz-tela aharra bidian.

25. Ejjiptotik gora heltü zien Khanaaneko lürriala, Jakob ber' aitaren gana.

26. Eta erran zioien: Josef zure semia bizi düzü; Ejjiptoko bazter güzian aitzindari düzü. Berri hori entzün unduan, lo tink batetarik iratzarri baliz bezala, etziuen sinhets Jakobek.

27. Semek aldiz heltü zeitzenak oro lerroz lerro erraiten ziotzen. Ikhusi zütienian hatik orgak, eta Josefek igorri zeitzonak, ber' engoxadüratik iratzarri zen.

BÜRÜ XLVI.

Jakob badua Ejjiptualat. Jakob en haurren zunbata. Aitziniala Josef elkitzen zaio.

1. Israel bidian jarri zen bere aberatstarzüneki, eta heltü zen Zineko phütziela, eta Isaak bere aitaren Jinkuari eskentü zeitzon hil zütien abere eli bat.

2. Ametsetan gaiaz entzütien (sic) zien botz batek erraiten zeiola: Jakob, Jakob; eta ihardetsi zeion: Heben nüzü.

3. Jinkuak erran zeion: Ni nüzü zure aitaren Jinko indardüna. Ettiela beldürt; eraits zite Ejjiptualat, han beitzirate giz' eli handi baten aita.

4. Ni ere harat eraitsiren nüzü zurekila, eta hantik ütüziltzen ziate-nian, lagüntüko zütüt, eta Josefek begiak thapatüko deitzü eskiaz.

5. Zineko phützü undotik txütitü zen Jakob, eta bere semek eraman züiten hurrekila eta emaztekila Faraunek igorri zeitzon orgetan gañen,

6. Khanaaneko lürrian zütien aberatstarzüneki: eta heltü zen Ejjiptuala ber' etxekuekila,

7. Semekila, semeñiekila, alhabekila, eta sorthü zeitzon güziekila.

8. Hoiek dirade Israelen semen Ejjiptuan sarthü zienen izenak, hara bere hurreki heltü zenian: Errüben gehiena.

9. Errübenen semiak: Henokh, eta Fallü, eta Hesron eta Kharmi.

10. Simeunenak: Jamüel, eta Jamin, eta Ahod, eta Jakhin, eta Sohar, eta Saul khanaanantarraena.

11. Lebienak: Jerzon, eta Kaath, eta Merari.

12. Jüdaenak: Her, eta Onan, eta Zela, eta Fares, eta Sara. Her eta Onan hil zien hatik Khanaaneko lürrian. Faresen semiak: Hesron eta Hamül.

13. Isakharrenak: Thola, eta Fúa, eta Job, eta Semron.

14. Zabülönenak: Sared, eta Elon, eta Jahelel.



15. Hoiek dirade Liak Siriako Mesopotamian sorthü zütien haurrak, khuntatzez ere Dina haren alhaba. Hogei-ta hamahirur seme eta alhaba ükhen zütien.

16. Gadenak: Sefion, eta Hagji, eta Süni, eta Esebon, eta Heri, eta Arodi, eta Areli:

17. Aserenak: Jamne, eta Jesüa, eta Jesüi eta Beria, eta Sara haien arreba. Beriaren haurrak: Heber eta Melkhiel.

18. Zelfa Labanek ber' alhaba Liari eman zeionaren eta Jakobek azitik sorthü zien hamasei haur hoiek.

19. Errakhelen, Jakobek emaztiaren semiak: Josef eta Benjamin.

20. Josefi Ejiptoko lürrian Asenethek, Pütifar Ekhihiriko aphezaren alhabak sorthü zeitton: Manases eta Efraim.

21. Benjaminen semiak: Bela, eta Bekhor, eta Asbel, eta Jera, eta Naaman, eta Ekhi, eta Erros, eta Mofim, eta Ofim, eta Ared.

22. Errakhelen eta Jakobek azitik sorthü diren haurrak oro: hamalaur dirade.

23. Danen semiak: Hüsim.

24. Neftalienak: Jasiel, eta Güni, eta Jesem, eta Salem.

25. Belaren Labanek ber' alhaba Errakheli emanaren eta Jakobek azitik sorthü diren hoiek oro: zazpi dirade.

26. Eta Jakobeki Ejiptualat jin zienak oro, khuntatü gabe haren semen emaztiak, hirurtan hoge-ta-sei zien.

27. Josefi Ejiptoko lürrian sorthü zeitton bi seme: Jakobek azitik Ejiptuan sarthü zien güzia hirurtan hoge-ta hamar dira.

28. Jakobek igorri zien Jüda Josefi erraitera horra zela, eta aitziniala jin lekion Jeseneko lürrialano.

29. Hara heltü zenian Jakob, Josef bere txarriotiala igaranik aitaren aitziniala juan zen lekhü hartara: eta ikhusi zienian aita, lephuala jausi zeion, eta nigarrez besarkatü zien.

30. Aitak erran zeion: Orai botzik hilen nüzü, ikhusi beitzütüt, eta ene undotik üzten beitzütüt.

31. Bere anaier eta aitaren etxeko güzier Josefek erran zeien: Banua Farauni erraitera: Ene anaiak, eta en' aitaren etxekuak, Khanaaneko lürrian zirenak oro, ene ganat jin dütüzü.

32. Artzañak beitera, arresak alh' eraziren tizie. Bere ardi eta idi salduak oro berekila hunat hotzeman tizie.

33. Eta bere gana jin erazten zütüzkenian erranen deizie: Zer ofizio düzie?

34. Ihardets ezozie: Gü zure zerbütxiariak haurzarotik orai dano artzañ gütüzü, gure aitañiak ere artzañ zütüzün. Hola mintza zitozte, egon ahal zizteien Jeseneko lürrian, Ejiptarrek artzañak hügünt beittie.

BÜRÜ XLVII.

*Jakob egoiten da Jeseneko lürrian. Gosetia handitzen da Ejiptuan.
Jakoben eritarzüna.*

1. Faraunen gana juanik Josefek erran zeion: En' aita eta ene anaiak Khanaaneko lürretik jin zitadatzü bere hatieki eta bere arres saldueki: Eta baratü dütüzü Jeseneko lürrian.

2. Bost anaie azkenetarik erregeren aitziniala eraman zütien.

3. Eta erregek galthatü zeien: Zer ofizio düzie? Ihardetsi zioien: Artzañak gütüzü gü, eta gure aitañiak, zure zerbütüküko.

4. Jin gütüzü zure lürretan ebiltera: Khanaaneko günetan ezpeita belharrik zure zerbütxiaren arresentako, gosetia handi delakoz: eta galhatzen deizügü manha dezazün zure zerbütxiariak egon ditien Jeseneko lürrian.

5. Josefi arren erregek erran zeion: Aita eta anaiak jin zaitzü.

6. Ejiptoko lürra zure aitzinian düzü, egon eraz güne hobenian, eta emezü Jeseneko lürra. Haietan ezagützen badüzü gizon trebe eta xotilh (sic) zunbait, emetzü ene aberiak begiratzera.

7. Hortik landan Josefek bere aita jin erazi zien erregeren khantiala; eta dohatsütärzün erregeri Jakobek desiratü zeionian,

8. Faraunek galthatü zeion: Zer adin düzü?

9. Jakobek ihardetsi zeion: Ehün eta hoge-ta-hamar urthe badüzü lürrian nabilala; egün llabürak bena txarrak ükhen ditit; eta orano ere enüzü heltü ene aiten adiniala.

10. Eta beneditzione güziak erregeri desiratü unduan, kanpualat elkhi zen.

11. Josefek hatik aitari eta anaier eman zeien Ejiptuan zen güne hobena, Errameseko aldia, erregek manhatü bezala.

12. Eta huak hazten zütien, aitaren etxekuak ere bai, orori emaiten zeielarik behar zütienak.

13. Mündü orotan ogia mentstü zen, eta gosetia bazter güziak jaten zütien, berheziki Ejiptoko eta Khanaaneko aldia.



14. Eta hanko diharia oro bildü zien Josefek erregeren hütjala saldü zeien ogiaren ordari.

15. Eta nula erosliak diharü gabetü beitziren, Ejiptua oro jin zen Josefek gana galthatzera: Ogi eman izagüzü. Nahi gütüzia gosez hiltzera ützi, diharürik eztügüalakoz?

16. Josefek ihardetsi zeien: Diharürik ezpadüzie, ekhar itzadatzie zien aberiak, eta ogi emanen deiziet ordari.

17. Aberiak ekharri zeiotzenian, ogi bihia eman zeien, zaldien, ardien, idien eta astuen saritako, eta urthe batez hazi zütien aberen ordari.

18. Bi gerren urthian ere jin zeitzon erraitera orano: Gure Jaunari eztiozügü gordeko nula, diharia mentstü unduan, aberiak mentstü zaizkün, eta zük badakizü gük orai deusik eztügüla gure büriez eta lürrez kanpo.

19. Zentako arren hilen girade zure bixtan? gure lürak eta gü zuriak gütüzü, eros gítatzü erregeren mixkandi izan gitien; eta aziak eman itzagützü, lürra pikarrai egon eztatdin langiliak hil diatenian.

20. Ejiptoko lür güzia erosi zien arren Josefek, ekhoiliarek bere alhorrak saldü beitzütien gosetia handi zelakoz, eta lürra erregeren esküpian ezarri zien,

21. Eta hanko ekhoiliarak ere bai Ejiptoko bazter batetik bestia lano.

22. Aphezerege eman zeitzen lürak salbü: bere selaurietako ogietarik eman erazten betzeien pillista eli bat bizitzeko, etziren bortxatürik izan aphezak bere alhorren saltzera.

23. Giz'elien arren Josefek erran zeien: Ikhusten düzien bezala, ziek eta zien alhorrak Farauntü zireiee: oritzie aziak, eta ereñ itzatzie alhorrak

24. Ephaitza ükhen ahal dezazien. Bost gerren phartia erregeri emanen derozie, eta beste laur ephaitzako phartiak ützen deiziet, zien alhorren ereñteko eta etxekuen eta haurren hazteko.

25. Ihardetsi zioien: Gure bizia zure eskietan düzü: sogin ezagüzü, eta botzik gük zerbütatüko dizügü errege.

26. Ordü hartarik orai artino Ejiptoko lür güzian ephaitzaren bostgerren phartia erreger phakatzen da, üsanxa hori legia beita, aphezen lürretan salbü, hoienetara ezelakoz hedatü.

27. Israel arren egon zen Ejiptuan, erran nahi beita Jeseneko lürrian, eta handitü eta hanitxtü zütien bere huntarüzinak.

28. Eta han biz' izan zen hamazazpi urthez, eta haren biziko egünak heltü ziren ehün eta berrogei-ta zazpi urthetara.

29. Eta heriua hüllantzen ikhusi zienian deithü zien Josef bere semia, eta erran zeion: Zure aitzinian grazia ediren balin badüt, ezarzü zur' eskia ene azpi gañen, eta zin zinez hitzaman ezadazüt enaizüla Ejiptuan ehortziko;

30. Bena ene aitañieki lotara nitakenian eramanen naizüla lür huntarik, eta ehortziren naizüla ene aitasuen hobian. Ihardetsi zeion Josefek: Manhatü düzün bezala eginen dit.

31. Jakobek erran zeion: Zin egin izadazüt arren. Josefek zin egin zeionian, Jinkua othoitü zien Israelek, büria ohe bürün egialat aphaltürik.

BÜRÜ XLVIII.

Jakobek benedikatzen tü Josefek haurrak, eta züzentako emaiten deio Sikheneko alhorra.

1. Hoiek hola igaran zirenian, Josefi berria jin zeion aita eri ziela: Manases eta Efraim bere bi semiak hartürik aitaren ikhustera juan zen.

2. Eta erran zeioen: Ikhustera horra zaizü Josef zure semia. Eta Jakob indarrak hartürik ohe gañen jarri zen.

3. Eta Josefi, barneat sarthü zenian, erran zeion: Ahalorotako Jinkua agertü zitadazün Lusan, Khanaaneko aldian, eta benedikatü nindizün,

4. Eta erran zitadazün: Handi'raziko eta hanitx eraziko zütüt, eta giz'eli parrasta baten aita eginen zütüt, eta bethikoz zuri eta zure aziari emanen deiziet güne hau.

5. Ejiptoko lürrian sorthü zaitzün bi semiak, ni hunat jin nintzan beno lehenago, eniak dütüzü: Efraim eta Manases eniak dütüketzü, nula ere beitira Errüben eta Simeun.

6. Hoiez goiti dütükezün haurrak aldiz, zuriak dütükezü, eta bere anaian izenian ükhenen tizie lürak.

7. Mesopotamiatik horra nintzalarik, bidian hil zitazün Errakhel, Khanaaneko lürrian, Efratara heltzen nintzalarik, eta ehortzi nizün Efratarat, beste izenez Bethleemerat, duan bide khantian.

8. Ikhusten zütielarik hatik haren bi semiak, galthatü zeion: Nur dia hoiek?

9. Josefek ihardetsi zeion: Jaunak alde huntan eman deiztadan semiak dütüzü. Ene ganat hüllant eraz itzatzü, benedika ditzadan, erran zeion Jakobek.



10. Zahartze handiak ülhüntü beitzütien Israelen begiak, klarki etziuen ikhus. Eta hüllantü zienian pot egin zeien, eta besarka zütielarik,

11. Bere semiari erran zeion: Zure ikhusteko boztariaua ükhen dit: eta, horrez goiti, Jinkuak eman ditazü zure haurren ikhustekua ere.

12. Ber' aitaren besuetarik haurrak idokirik Josef' othoitzetan belharikatü zen.

13. Eta Efraim ezarri zien ber' esküñian, erran nahi da Israelen exkerrian, eta Manases ber' exkerrian, erran nahi da aitaren esküñian, eta biak haren gana hüllant erazi zütien.

14. Jakobek, eskü esküña hedatürrik, ezarri zien Efraim gaztenaren bürü gañen, exkerra aldiz Manases gehienaren bürü gañen, besuak khürütxatü beitzütien.

15. Eta benedikatü zütien Josefen semiak, erraiten zielarik: Jinkuak, zuñen aitzinian ebili beitira Abraham eta Isaak ene aitak, eta ni haurzarotik oraidano hazi naien Jinkuak,

16. Eta gaitz orotarik ideki naien Aingüriak benedika ditzela haur hoielik; deith ditiela ene izenaz, eta Abrahamen eta Isaaken, ene aiten izenaz, eta hanitx ditiela lürrian.

17. Aitak eskü esküña Efraimen bürü gañen ezarri ziela Josefek ikhusirik, bihots min ükhen zien, eta aitaren eskia hartürrik eraiki nahi ükhen zien Efraimen bürü gañetik Manasesenian ezarteko,

18. Eta aitari erran zeion: Eztüzü hola untsa, ene aita; hau primia beita, ezar ezozü eskü esküña bürü gañen.

19. Jakobek ihardetsi zeion: Ez, ez; badakit, ene semia, badakit zer ari nizan: hau ere giz'elien aita dükezü, eta hanitxtüko düzü; bena hunen anaie txipia hau beno handiago dükezü: eta gaztenaren azi zohitütik elk'hiko tüzü nazioniak.

20. Ordian benedikatü zütien erraitetz: Zienen gañen Israel benedikatürrik date, eta erranen da: Jinkuak benedika zitzala, Efraim eta Manase benedikatü dütien bezala. Eta ezarri zien Efraim Manases beno lehen.

21. Eta Josefi, bere semiari erran zeion: Ikhusten düzü hiltzera nuela. Jinkua zieki beitate, eramanen zütie zien aiten lürrialat.

22. Zure anaien züzenaz goiti emaiten deizüt Amorheentarrer ene ezpataz eta flex üzteiaz goithü neien lür pheza hua.

BÜRÜ XLIX.

Jakoben azken elhiak. Bere semer zer heltüren zaien erraiten deie

1. Jakobek arren bere semiak deithü zütien, eta erran zeion: Algar gana bil zizte, bakhoitxari erran dezadan zer heltüren zaizien azken egünetan.

2. Algar gana bil zizte, eta beha zizte, Jakobek semiak, beha zizte Israel zien aitari.

3. Errüben ene primia, zü ene indarra, eta ene bihotz mineko hatsarria, dohañez lehena, eta aitzindariguako gehiena,

4. Hurra bezala hedatü zia; etzirade handitüren, igaran beitzia zur'aitaren ohe gaña eta etzangia zikhintü beitozü.

5. Simeun eta Lebi anaiak, gerla gaxtoko untziak.

6. Jinkuak begira nezala haien gogo gaxtuen ükheitetik, eta ene loria-ren haien bilkhüretan behin ere ezartetik: bere fürian gizon bat hil beittüte, eta bere nahiküntian harrise bat zilatü.

7. Maradika dadila haien füria, zall delakoz, eta hügünt dadila haien khexia, gogor delakoz. Berheziko düttüt Jakobek, eta barreatüko düttüt Israelen.

8. Jüda, zure anaiek laidatüko zütie: zure eskiak heziko tizü etsaien büriak; zure aitaren haurrak othoiez egonen zaitzü.

9. Jüda lehu hümia, igaran ziade gora bazkaren ebasteko, ene semia; eta deskansatzeko etzan zia lehu ar bat bezala, eta lehu ama bat bezala: nurk hua iratzar eraziko dü?

10. Eztüte eramanen Jüdaen bürüzagiguako makhila; haren zañetarik elkhiren da printzia, igorririk izan behar diena eta giz'eliek ügürikiten diena jin artino.

11. Estekatüko dizü bere astokhümia aihen unduari, eta zük, ene semia, estekatüko düzü astaña aihen laiari. Arduian ükhüziko dizü bere arropa, eta mahats odolian bere kapa.

12. Haren begiak ardua beno ederrago tüzü, eta haren hortzak ezni beno xuriago.

13. Sabülön egonen da itxaz bazterrian, eta untzien egongian, hedatzen delarik Sidoner'artino.

14. Isakhar, asto azkharra, ezta elkhiko bere güneko zedarriez kanpo.

15. Ikhusi deskansia hun dela eta haren alhorra gizen; eta suñian haxia hartü dü, eta legar emaitetü da.



16. Danek bere popülia jüjatüko dü Israeleko beste giz'eli batek bezañ untsa.

17. Izan dadila Gan süge bideko eta süsker bidexkako, zaldiaren aztaletik usukizale, urthuk dezan zamalzaña.

18. Zütarik ügürikiko dit osagarria, ene Jinkua.

19. Gad armatürük güdükan ariko eta armez begiratüko da.

20. Aseren ogia gizen; erregen gozagarri date.

21. Neftali orkhatz ohiltia, eta mintzazale ederra.

22. Josef handitzen ari da, eder eder da; neskatilak harrisiala jin dia haren ikhusteko.

23. Bena flexariék khex erazi düte, aharra txerkhatürük, eta bekhaitzü zaitzo.

24. Haren üzteia egon da hedatürük; Jakobén Ahalorotako Jinkuak laxatü deitzo besuetako estekak; hortik elkhi da artzaña, Israeleko botxia.

25. Zure aitaren Jinkua zure lagüntzalia dükezü; ahalorotakuak benedikatüren züte, zelüko beneditzionez, peko osineko beneditzionez, thitien eta sabelaren beneditzionez.

26. Zure aitaren beneditzionek igaraiten tizie aitasuek eman zeitzenak. Egon dituela Josefén bürü gañen, Nasareenaren, anaien artian denaren, bürü gañen, bethiko mendixkek desiratzen dütena hel artio.

27. Benjamin otso uhuñak, ahützetaz janen dü goizan bere bazka, arratsen aldiz zathikatüko dü larria.

28. Hoiek zien Israeleko hamabi Giz'elien printziak: hor dirade aitak erran zeitzen elhiak, eta bakhoitxari eman zeitzon beneditzioniak.

29. Eta manü hau eman zeien: Ene popüliari jüntatzera nua ni: ehortz nezazie ene aiten kharbe doblían Efron Hethtarraren alhorrian den hartan,

30. Manbreko erezian, Khanaaneko lürrian, Abrahamek Efron Hethekuari, hobi baten ükheiteko, erosi zeion alhorrian.

31. Han izan beita ehortzirik bere emazte Saraekila: han ehortzirik da Isaak Errebekka bere emaztiareki, eta Lia ere han dago etzanik.

32. Manü eta erakhutspen hoiek eman unduan bere semer, zankhuak jüntatü zütien ohe gañen, eta hil zen; eta bere popüliari jüntatü.

BÜRÜ L.

Jakoben ehortzeta. Josefén hiltzia.

1. Hilik ikhusi zienian marraskaz eta potez eralli zen Josef aitaren begitharte gaña.

2. Eta bere sehi axeter ziener manhatü zeien erreziña üsafündenez barnia bethe liozen.

3. Manü horen egiten berrogei egün igaran züten axeterrek: üsanxaz denbora hori behar beitzen khorpitzen üsañ hunez bethatzeko, eta Ejip-tuak hirurtan hogeita-hamar egünez nigar egin zien.

4. Eta dolüko denbora akabi zenian, Josefek Faraunen etxekuer erran zeien: Grazia ediren balin badüt zien aitzinian, Farauni errozie, othoi,

5. Aitak zin egin erazi deitala, erran zeitadarian: Hiltzera nuazü; ehortziko naizü Khanaaneko lürrian egin düdan hobi barnen. Juanen niz arren aitaren ehortztera, eta hunat gero ütülükio niz.

6. Eta Faraunek erran zeion: Zuaza eta ehortz ezazü zur'aita, hitzaman derozün bezala.

7. Josef juan zen arren Faraunen etxeko zaharrez eta Ejiptoko aitzindari gehien güziez lagüntürük.

8. Josefén etxekuak eta anaie güziak ere juan zien, haurttuak, arresak eta aberiak ützirik Jeseneko aldian.

9. Orgak eta zamalzañak, eta jente saldo hanitx jarraiki zeitzon undotik.

10. Eta heltü zienian Atadako ezkaratziala, Jurdanetik haratago deniala, zazpi egünez nigar marrasketan han egin züten Jakobén ehortzeta.

11. Khanaaneko ekhoiliarek hori ikhusi zütenian, erran züten: Dolü handia da Ejiptarren artian. Eta hortakoz güne hua deithü züten Ejiptoko dolia.

12. Jakobén semek egin züten arren aitak manhatü zeien bezala.

13. Aita eraman züten Khanaaneko lürrialia eta ehortzi züten Abrahamek Efron Hethekuari hobitako erosi zeion kharbian, Manbreko erezian den alhorraeki.

14. Jakob ehortzi bezañ sarri, Josef ützüli zen Ejiptualat bere anaie eta lagün güzieki.

15. Aita hil unduan, anaiek beldürtürük algarri zioien: Orhit baledi egin diogün ogenez eta egin diogün gaizkia ützüli baleizagü.

16. Erraitera igorri zioien mezü bat: Zure aitak hil beno lehen manhatü diküzü,

17. Haren phartez erran ginezeizün: Othoitzen zütüt pharka ditzetzün egin deitzien ogenak. Gük ere othoitzen zütügü pharka



ditzatzün zure aitaren Jinkuaren zerbützarier egin deitzien gaizkiak. Hitz hoiak entzün zütienian Josef nigarrez hasi zen.

18. Khantiala jin zeitzon anaiak, eta, belhariko othoitzzen zütelarik, erran zioien: Zure mixkandi gütüzü.

19. Ihardetsi zeien: Etziteiela lotsa. Oldart ahal gitia Jinkuaren nahiküntiari?

20. Gaizki ziek egin nahi zineitadena hunetara khanbiatü dü Jinkuak ene ospatzeko, ikhusten düzien bezala, eta giz'eli hanitxen salbatzeko.

21. Etziteiela lotsa; haziko zütiet ziek eta zien haurrak. Eta konsolatü zütien, eta ezti ezteki mintzatü zeien.

22. Eta Ejiptuan egon zen aitaren etxeko güzieki, eta ehün eta hamar urthez biz'izan zen. Eta Efraimen haurrak ikhusi zütien hirur gerren belhañial'artino. Makhiren, Manasesen semiaren, haurrak ere bere belhañen gañen erabili zütien.

23. Hoiak hola igaran unduan anaier erran zeien: Hil nizatienian, Jinkua ikhustera jinen zaizie, eta igaran eraziko zütie Abrahami, Isaaki eta Jakobi zin zinez hitzaman deien lürrialat.

24. Eta erran zeienian: Jinkua ikhustera jinen zaizie, erran zeien: Zin egin ezazie, eta zirekila hebentik ene ezürak eraman itzatzie.

25. Hil zen, ehün eta hamar urthe bethe unduan, eta erreziña üsañdünez barnia khalkatürrik, Ejiptuan ezarri züten hütxa batetan barrenen.

Jenesaren ürhentzia.

DABIDEN GORANTZAK EDO PSALMIAK

GORANTZA I.

Xüxenen zori huna, egin-bidiak eta egin-biden saria. Gaxtuen zorigaitza.

1. Dohatsü sinhets gabe dienen goguala iralli ezten gizona, eta ogen-gilen bidian baratü eztena, eta gaxtuen üzürrizko züzülian jarri eztena.

2. Bena Jaunaren legiari lothürrik, legia egünaz eta gaiaz goguan dabilana.

3. Eta hur bazterrian lanthatürrik, frütia bere aruan emaiten dien zühaña üdüri beitüke.

4. Eta haren ostua ezta eroriko, eta haren eginak oro untsa heltüren dira.

5. Sinhets gabiak eztira ez halako, aiziak lür gañetik eramaiten dien erhautsa bezala beitira.

6. Hortakoz ere sinhets gabiak eztirade phiztüren jüjamentian, ez eta ere ogengiliak jüstuen bilkhüran.

7. Jaunak ezagützen beitü jüstuen bidia, eta sinhets gaben bidia galdüko da.

GORANTZA II.

Etsaiak ezintürrik daude. Erregek goithzen tü, eta erreginatzen da.

1. Zentako jentia bürünbaz jaiki dirade, eta zentako egin düzte giz'eliek balheiüzko goguak?

2. Txütitü dira lürreko erregiak, eta printziak algarri jüntatü Jaunaren eta haren Khristuaren kuntra.

3. Ethen detzagün haien hediak, eta gütarik hürrün urthuk dezagün haien üztarria.

4. Zelieta daguenak erri eginen deie, eta Jauna haiez trüfatüko da.



5. Ordian bere koleran mintzatüren zaie eta bere fürian ikhar'erazi-ko dütü.

6. Ni, aldiz, errege ezarri nai Sioneko bere mendi saintian, haren maniak iaurt ditzadan.

7. Jaunak erran deit: Ene semia zia zü; egün sorthü zütüt.

8. Galth'ezazü, eta huntarzüntako emanen deitzüt giz'eliak, eta бүрү-zagigua lür bazterrialano.

9. Ern'ereziko dütüzü bürdüñazko zaharuaz eta phorrokatüko dütüzü gathülü gliaren untzia bezala.

10. Eta orai, erregiak, entheleg'ezazie, eta ikhas ezazie ziek, lürra jüjätzen düzienek.

11. Jauna zerbüt'ezazie beldürrian, eta hartan alagera zizteie ikharaz.

12. Erakhutspenari loth zizteie, azkenian Jauna khex' eztadin, eta gal etzizteien bide xüxenetik kanpo.

13. Haren khexia laster herakitzen beita, dohatsü hari behatzen die-nak oro.

GORANTZA III.

Dabiden othoitzia Absalunen armadaren ihes duelarik. Bere bihotz minian Jaunari hersatzen zaio, haren ganik salbamentia horra delakoz.

Dabiden khantoria Absalun bere semiaren ihes zue-larik.

1. Jauna, zentako hanitxtü dirade ene lasterk'erezliak? Hanitx ene kuntra jaikiten dütüzü.

2. Hanitxek diozie ene arimari: Jinkua ganik ez ügürüki salbamentü-rik.

3. Zü hatik, Jauna, ene begirazalia, ene loria eta бүрү altx'erazlia zirade.

4. Jaunari oihü eta hel egin deiot, eta bere mendi saintütik entzün nai.

5. Etzan niz eta luak hartü nai; eta jaiki niz, Jaunak hartü benai bere estalgi pian.

6. Milaka üngüratzen naien giz'elien eniz beldür izanen. Txütü zite, Jauna, salba nezazü, ene Jinkua.

7. Jo beitätüzü, nik merexi gabe, ene kuntra zienak oro; ogen giler hautsi beteietzü hortzak.

8. Salbamentia Jaunian da, eta zük, ene Jinkua, benedikatzen düzü zure popülia.

GORANTZA IV.

Jaunari sokhorri galthatürrik, Dabidek bere etsaiak bakiala khümitatzen tü.

Khantoren ürhentzeko Dabiden khantoria.

1. Othoiez nintzeiolarik, ene xüxenguako Jinkuak ardietsi nai; tinkatürrik nielarik bihotza zabaltü deitazü, ene Jinkua.

2. Ürrikalt zakitzat, eta ene othoitzari beha zite.

3. Gizon semiak, nuiz artino phezü dükezie bihotza? Zentako maite düzie harrotarzüna, eta gezür bilha zabiltze?

4. Jakin ezazie Jaunak loriaztatü diela bere saintia. Behatüren zait Jauna oihü egiten derokedanian.

5. Khexa zizte, eta ez ogenik egin; goguan ebilten tüzienetzaz ohian dolü zizte.

6. Xüxenguako sakrifizio bat egizie, eta Jaunian esparantxa har zazie; hanitxek beitiöie: Nurk erakhutsiko deizkü gaiza hunak?

7. Jauna, zeinhatürrik düzü gütan gañen zure begitharteko argia; ene bihotzari boztario eman derozü.

8. Aberastü tüzü ogizko, arduzko eta oliozko ekhoitzpenez.

9. Ni aldiz, bakian lo gitez, gozatüko nüzü ene phausiaz.

10. Zük, Jauna, berheziki esparantxan bermatü benaizü.

GORANTZA V.

Profetaren othoitzia. Ogen gliak eztira Jinkuaren aitzinian agertüko. Gaitzez betherik dirate, xüxenak aldiz huntarzünez eta loriaz.

Dabiden khantoria huntarzüna ükhen dienari.



1. Ene elher gogo emezü, Jauna, eta entzün ezazü ene oihia.
2. Beha zite ene othoitzaren botzari, ene errege Jauna.
3. Zü othoitüko beitzütüt; Jauna, goizik entzünen düzü ene botza.
4. Goizan txütütüko nitzazü, eta ezagütüko dit etziradiela gaizki nahi dien Jinko bat.
5. Zure khantian eztüzü egonen gaxtua, eta ogen giliak zure begien aitzinetik hürrüntüko tüzü.
6. Zük hügüntzen tüzü gaizki giliak oro; gal erazten ere bai gezürtiak oro.
7. Jaunak hastio dü odol ixurlia eta inganazalia. Ni aldiz zure ürrikal-tarzün handian,
8. Sarthüko nüzü zure etxen, eta beldürrez betherik othoitüko zütüt zure eliza saintian.
9. Lagünt nezazü, Jauna, zure xüenguako bidian; ene etsaiak diela kausa, ebil eraz nezazü zure begien aitzinian.
10. Egiarik ahuan ezpeitüte, bihotza thüsto dizie.
11. Tzüntzürra leze zabal bat bezala beütüte, falsüki ari zütüzün mihiz; jüj'itzatzü, Jinkua.
12. Elhort eraz itetzü bere goguak; zure ganik hürrünt eraz itatzü, bere gaxtokeriak diela kausa, therriatü beitzütie, Jauna.
13. Eta alagera ditiela zütan esparantxa dütienak oro, bethi alagran-zian beitirate, eta haiekin beitzirate.
14. Eta zütan loriatüko dütüzü zure izena maite dütienak oro, zük benedikatüko beitzüzü xüxen dena.
15. Jauna, zure amodiuz üngüratü gütüzü estalgi batez bezala.

GORANTZA VI.

Dabidek eritarzün batetan galthatzen deio Jaunari ezti ezteki trata dezan. Osagarria Jinkua ganik ügirikitzen dü, eta bere etsaien ihakinez trüfatzen da.

Dabiden khantoria azken zortzigerren lerroko.

1. Jauna, enezazüla hez zure fürian, ez eta ere kaztiga zure khexian.

2. Ürrikalt zakitzat, Jauna, flakü beniz; sendo nezazü, Jauna, ezürrak oro harritürrik beütütüt.
3. Bürria oro nahasirik dit; bena zük, Jauna, nuiz artino hola ützioko naizü?
4. Ützül zakitzat, Jauna, eta solt'ezadazü arima, salba nezazü zure ürrikal-tarzünaren amorekati.
5. Heriuan nihur ere eztüzü zützaz ohart denik, infernian aldiz nurk laidatüko zütü?
6. Akhitü nüzü ene hasperenetan; gai oroz ene nigarrez latsatüko dit ohia, nigarrez bustatüko dit ene etzangia.
7. Errabia khexiak thürbüstü ditazü begia; zahartü nüzü ene etsai güzien artian.
8. Hürrünt zizte ene ganik gaizki giliak oro, Jaunak entzün beütü ene nigarren herotsa.
9. Jauna ene heiagorari behatü da; Jaunari ene othoitzia agradatü zaio.
10. Ahalke gorri ditiela eta lotsaz ikhara ene etsaiak oro; gibelialat ützü bite lasterka eta ahalkez gorri.

GORANTZA VII.

*Jaunari heiagoraz ari da Dabid, Saulek lasterkatzen dielarik.
Etsaier dioie Jaunak kaztigatüko tiela.*

Dabidek Jaunari khantatü zeion gorantza, Khüs Jeminien semiaren elhen kausa.

1. Ene Jinko Jauna, esparantxa zütan hartü dit; begira nezazü undotik horra zaiztan etsaietarik, eta salba nezazü.
2. Bizia lehuak bezala eraman ezteizadan, nihurk ere ezpanai haren eskietarik idekiten eta salbatzen.
3. Ene Jinko Jauna, egin balin badüt hori, ene eskietan gaizkirik balin bada,
4. Gaizki egiten zeitaner, gaizkia ützüli badeiet, eror nadila, merexi bezala, ene etsaien azpiala.
5. Etsaiak lasterka dezala ene bizia, eta atzaman; ostika dezala ene bizia, eta erhauts dezala ene loria.



6. Jaiki zite, Jauna, zure khexian, eta erakhuts ezazü zure ahala en'etsaien bazterretan.

7. Eta jaiki zite, ene Jinko Jauna, eman düzün maniaren arabera; eta giz'elien bilkhüra dükezü üngürian.

8. Hortakoz zuatza gora. Jaunak jüjatzen tü giz'eliak.

9. Jüja nezazü, Jauna, ene xüxentarzünaren arabera, eta ene ogen gabetarzünaren arabera.

10. Ogen gilen gaxtokeria akabiko düzü; xüxena lagüntüko düzü zük, bihotzak eta errañak ikhertzen beitütüzü, Jinkoa.

11. Arazuki Jauna ganik ene lagüntzia, bihotz xüxenak salbatzen beitütü.

12. Jinkua jüje xüxen, azkhar eta lüzakor, egün oroz khexatzen deia?

13. Ezpalin bazireie haren ganat ützültzen, ber'ezpata iharrausiko dü; hedatüko dü üztea eta prest etxekiten dü.

14. Eta hartan adelatü tü herioko untziak; bere flexak sü-garstatü tü.

15. Etsaiak sorthü dü gaizkia, bihotz-min ükhen dü, eta gaxtokeria sorthü dü.

16. Mala zilo bat egin dü eta barnatü, eta egin dien zilo barna erori da.

17. Orano ere bürütik min düke; eta bere gaxtokeria eraitsiko zaio bürü gaña.

18. Xüxen delakoz laidatüko dü Jauna, eta Gaingainko Jaunaren izena khantatüko.

GORANTZA VIII.

Jinkuaren lan miragarriak. Guretako dien ürrikaltarzün müga gabekua. Egin dütienak oro gizonaren eskü pian ezarri düti.

Ürhentzeko Dabiden khantoria lakiuen gañen.

1. Jaun gure Bürüzagia, lür güzian zuñ eder den zure izena!
2. Zure handitarzün ederra igaran düzü zelü gañiala.
3. Haurttuen ahuan eta egoskizalenian ere gorantza ederrak ezarri tüzü, zure etsaiaren eta mendekazaliaren arrabaskatzeko.
4. Soz naguenian zelier, zure erhiko laner, argizagiari eta egin dütüzün izarrer,

5. Zer da gizona hartaz zü ohartzeko, edo gizonaren semia haren ikhustera zü jiteko?

6. Aingüriak beno beheraxiago ezarri düzü, loriaz eta uhurez kho-ruatürrik, zure esküko lanen bürüzagi.

7. Oro zankho petan ezarri derotzü, ardi eta idi güziak, eta hoiez gañeti kanpoko aberiak;

8. Zelüko hegaltariak, eta itxasoko arrain, itxas barneko bidexketan igerikariak.

9. Jaun gure Bürüzagia, lür güzian zuñ miragarri den zure izena!

GORANTZA IX.

Dabidek esker emaiten deio Jinkuari, hunki egin dielakoz Israel-tarrer, eta berheziki Dabidi. Agertzen tü gaxtuen xederak eta eskeliaren pazenzia.

Semiaren koxelien gañen Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Aithortüko zütüt, Jauna, bihotz oroz; erranen ditit zure edergallü güziak.

2. Zütan boztüko eta alageratüko nüzü; zure izena khantatüko dit, Gaingainkua.

3. Ene etsaia gibelt erazi dükezünian, engoxatüko tüzü eta hilen zure aitzinian ni hügüntzen naienak.

4. Eman beteitzazü züzen, eta ene althe jarri beitzia; zure tronuan jarri zirade xüxenguan aritzeko.

5. Zaflatü tüzü nazioniak, eta sinhets gabia hil düzü; haien izena galdü düzü sekülakoz, mendez mendekoz.

6. Etsaien axkorak lanpüstü dütüzü bethiko, eta haien hiriak barreiatü.

7. Orhizpena galdü dizie herots handitan; eta Jauna bethiko dago.

8. Bere tronua adelatü dü jüjatzeko, eta berak bardinian jüjatü dü lür güzia, bardinki jüjatü dütü giz'eliak.

9. Eskeliaren heupe izan da Jauna; behar ordian heltzen zaio bere eskarnian.



10. Zütan esparantxa dezela ezagütü zütienek; zure bilha dabilzienak ezpeitütüzü ützi, Jauna.
11. Soñü egizie Sionen daguen Jaunari; haren zühürtzia barrei'ezazie giz'alien artian.
12. Odol mendekazalia haiez ohartü beita, ezpeitü ahatze eskelen oihia.
13. Ürrikalt zakitzat, Jauna, soizü nula beheratü naien etsaiek.
14. Herioko portaletarik gora eramaiten naizü, zure gorantzen erraiteko nik Sioneko alhabaren portaletan.
15. Boztariotüko nüzü bizia begiratü deitazülakoz; giz'eliak sarthü beitirade egin zeitaden zilo barnen.
16. Gordallian hedatü zeitaden zephuan haien zankhua hartü beita.
17. Ezagüt dezela Jaun züzen emailia; ogen gilia bere eskü lanetan atzaman beita.
18. Ifernialat duatzala ogen giliak eta Jinkua ahatzten düten giz'eli güziak.
19. Sekülakoz ezateke eskelia ahatzerik, sekülakoz ezateke eskelen pazentzia inganatürük.
20. Txüti zite, Jauna, gizona azkhar eztaadin; jüja ditiela nazioniak zure aitzinian.
21. Bürüzagi ezerzü legemaile bat, jentek ikhas dezen gizon diela.
22. Zentako, Jauna, hürüntü ziade ene ganik, eta ezteitazüt kasüik egiten ene beharretan, ene eskarniuan?
23. Bürü mensa hantzen delarik, eskelia zankhopetan diagozü; bere gogoketan inganatzen dütüzü.
24. Bere bihotzeko nahiküntietan laidatürük beita ogen gilia, eta hunetsirik gaxtua.
25. Ogen giliak therritatü Jauna, eta bilhatzera etzaio juaen.
26. Haren begietan eztüzü Jinkorik, zer nahi denboraz haren bidiak lohizün dütüzü.
27. Zure jüjamentier ezteiezü kasürük egiten, bere etsaiak goithüren ditüzü.
28. Bere bihotzian erran beitü: Undokuetarik undokuetarano eniz igitüko, gaitzik gabe egonen niz.
29. Ahua mareditzonez, gaxtokeriaz eta falsükeriaz betherik dizü, gaxtokeria eta bihotz mina mihi pian ditüzü.
30. Gordallian huntarzünak gorderik erphai diagozü ogenik eztiaren erhaiteko.

31. Eskeliari begiez soz gordallian hedatzen diozü zephua, kharbian daguen lehuak bezala.
32. Erphai diagozü eskeliaren atzamaiteko, eraman ahal dezan jin erazi dükienien.
33. Eror eraziko dizü bere zephuala; bera aphaltüko düzü, eta iralliko, eskelia goithü dükienian.
34. Bere goguan erran beitü: ahatzkortü da Jinkua, büria ützüli dü behin ere deusik ikhus elezan.
35. Txüti zite, ene Jinko Jauna, altx'ezazü besua, ez ahatz eskelia.
36. Zentako sinhets gabiak therritatü dü Jinkua? Bere goguan erran beitü arranküratüren eztela.
37. Ikhusten düzü, eskarniuer eta bihotz miner soz beitzau, ogen giliak atzaman detzatzün.
38. Eskeliaren hunkigilia zirade, eta aitama gabe direnen zaña.
39. Phorrok' ezazü ogengiliaren eta gaxtuaren besua, ogenik txerhatü unduan ezpeteie edirenen.
40. Jauna erregiñatüko da bethi, eta mendez mende. Jentiak galdüko zizteie harren lürretik.
41. Eskelen nahiri behatü da Jauna. Zure beharriak entzün dizü, Jauna, haien bihotzeko adelagua,
42. Züzen emaiteko ait' ama gabe eta zaphatürük denari; handiagotzea lürrian iseia eztaadin gizona.

GORANTZA X.

Mendialat ihes egin lezan erranik adixkidek, Dabidek ihardesten deie eztela deusen lotsa Jinkuan ezarriz geroztü bere fidanza.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Jinkuan düten ene fidanza, nulaz diozie ene arimari: Txoria bezala zuaza mendialat?
2. Ogengilek hedatü dielakoz üztea, ülhünpian ere adelatü dütielakoz flexak untzian, bihotzez xüxen dienen gaña thiratzeko.
3. Zük untsa eginak barreatü beitütie, xüxen denak aldiz zer egin dü?
4. Jauna dago bere eliza saintian; Jaunak bere jargia zelian.
5. Begiak soz dütü eskeliari, bephüriak aldiz gizon semer galthoz.



6. Xüxen denari eta gaxtuari Jauna galthoz dago; gaxtokeria maite dienak arren hügünt dü bere arima.
7. Ogengiler igorriko tü zepho errauntsiak: süia, sofria eta hegua barreiazalia haien dirate.
8. Jauna xüxen beita, xüxengua maite dü; xüxenguari josirik dütü begiak.

GORANTZA XI.

Mendeko hirokeria eta gizonen gaxtokeria khantore huntzalia Jinkuari heiagoraz ari da. Etsaiak galdüko diela dio.

Ürhentze zortziko Dabiden khantoria.

1. Salba nezazü, Jauna, saintiak mentstü dielakoz, egiak nahasi dütielakoz gizon semek.
2. Batak bester ezdeuskeriez mintzo dütüzü, ezpañak faltsü eta bihotza okher dütielakoz.
3. Gal eraz bitza Jaunak ezpañ faltsü güziak eta mihi lüziak.
4. Erran beütüte: Mihia loriatüko dügü, guriak dütügü ezpañak; nur dügü bürüzagi?
5. Eskelen gabezia dela kausa, eta haien heiagoren gatik, jaikiko niz orai, erran dü Jaunak.
6. Ezarriko tüüt lekhü segürrian, nahi bezala beitioket hori.
7. Jaunaren elhiak, elhe garbiak, zilhar süian igarana, lürrian xahatia, zazpitan garbitia üdüri düte.
8. Jauna, begiratüko gütüzü, sekülakoz arraza huntarik begiratüko gütüzü.
9. Sinhets gabiak üngürüz dabilatzazü; zure goratarzünaren arabera hanixtü tüzü gizonen haurrak.

GORANTZA XII.

Bihotz minetan denak Jinkuari egiten deitzen othoitziak.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Nuiz artino, Jauna, ahatziko naizü? Bethiko? Nuiz artino ützüliko deitazü zure begithartia?
2. Nuiz artio gogoz betheko düüt büria, nuiz artio egünaz bihotza düket minetan?
3. Nuiz artino ene etsaiak (sic) gaintitüren nai? Soizadazü, eta beha zakitzat, ene Jinko Jauna.
4. Arg' itzatzü ene begiak heriuan behin ere loik egin eztezadan, erran eztezan ene etsaiak: Hura goithü düüt.
5. Eskarniatzen naienak boztariotüko dütüzü, ni khordokatzen baniz. Nik hatik zure ürrikaltarzünian esparantxa ükhen dit.
6. Ene bihotza alageratüko düzü begiraten naizülakoz; bere hunki eginak khantatüko diotzüüt Jaunari; soñü arrapikotsez ariko niozü Gain-gainkuari.

GORANTZA XIII.

Sinhets gaben gogüak. Jaunak, latz erazirik sinhets gabiak, begiratüko dü eskelia, eta bürdüü petarik idokiko bere popülia.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Bürü mentsak bere bihotzian erran dü: Jinkorik ezta.
2. Hirotü eta hügüntgarritü dirade bere nahiküntietan; unts' egiten ari denik ezpeita bat ere haietan.
3. Zelü gañetik gizon semen gaña so gin dü Jaunak, ikhus lezan eia bazenez enthelegüdünik edo Jinkotiarrik haietan.
4. Oro baztertü dira bidetik eta thüstotü, unts' ari denik egiten ezpeita haietan bat ere.
5. Haien tzüntzürä leze zabal bat da; falsüki erabilten düte mihia; ezpañ petarik darraioe süskher elderra.
6. Ahua burhauetz eta kharatstarzünenez betherik düte; zankhoz zalhü dirade odol ixurteko.
7. Eskarnio eta zorigaitz haien bidetan, ezpeitakie bakezko bidia; Jinkuaren beldürrik eztüte begien aitzinian.
8. Eztiadia othian eskolatüko gaizki ari dienak oro, ene popülia, ogi zerra bat bezala iresten dütienak?



9. Jaunari eztrade hersatü; lotsaz ikharatü dira, beldürrik etzen lek-hian.

10. Jauna xüxenen arrazan dago, eskeliaren goguak xehekatü tüzie, bena Jaunian dü bere esparantxa.

11. Sioneko aldetik nurk igorriko dü Israeleko salbamentia? Jaunak bere popülia ideki dükienien bürdüñ petarik, Jakob boztariotüko da eta Israel alageratüko.

GORANTZA XIV.

Nulako dien Jinkuaren hirian eta mendi saintian egon behar die-nak. Gaizki egitetik mihi khaldü gaxtuetarik begratü behar, eta hitz emanak etxeke.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Jauna, nur egonen da zur'etxen, edo deskantsatüko zure mendian?
2. Thona gabe dena, eta hunki egilia.
3. Bihotzetik egiaz mintzo dena, falsükeriarik mihian eztena.
4. Aizuari gaitzik egin eztena, eta lagünez laidorio errailer behatü eztena.
5. Gaxtua haren aitzinian ezdeus bat da; bena Jaunaren beldür die-nak lorian altxatzen dütü.
6. Hitz emanetan eztü inganatzen lagüna; hartziaren goratzeko eztü emaiten diharia, ez et' ere dohañak hartzen gabezia denaren eskarnia-tzeko.
7. Hola ari dena, behin ere ezta khordokatüko.

GORANTZA XV.

Gizeli arrotzen artian Jinkuari hersatzen da Dabid. Erraiten deio Jink'aizünak hastio tiela, eta Jaunian ezarten diela bere zorihun güzia. Jinkua erremestiatzen dü, eta Salbazalia phiztüren dela dio.

Harri baten gañen Dabidek izkiribatü zütien hitzak.

1. Begira nezazü, Jauna, zütan esparantxa hartü beität. Jaunari erran dü: ene Jinkua zia zü, ezpeitüzü ene huntarzünen beharrik.

2. Ene nahiküntiak oro lürrian dien saintier erakhutsi deitze.

3. Flakeziak hanixtü zeitzenian, laster egin beität.

4. Algar gana ezütüt bil eraziko, aberen odola ixur ezen haien ize-nez mintzatzeko eniz orhitüren.

5. Jauna da ene huntarzün phartia eta xalhüta; ene züzen phartia zük emanen deitazü, Jauna.

6. Ene sokak erori dira güne hobeniala, eta ene huntarzün phartia ederrena da.

7. Benedikatüko düt enthelegü eman deitan Jauna; ene errañek gaiaz ere eskolatzen neielakoz.

8. Jaunari soz nindaguen begi petan benien bethi; ene esküñian beitago khordoka enadin.

9. Hortakoz ere bihotza alageratü zait, eta mihia arrapikotsez hasi; ene exürak esparantxan deskantsatüko dirade.

10. Ifernian ezpeitüzü ene arima ützi, ez ere zure saintia hiotziari eskentüko.

11. Bizitzeko bidiak erakhutsi deiztadzü, zure begitartiaz boztariotüko naizü, bethiko gozagarriak eskü esküñian beitätüzü.

GORANTZA XVI.

Khantore huntzaliak Jinkuari sokhorri galthatzen deio. Ogen gabe dela beitätio, bere etsaien gaxtokeria salhatzen dü.

Dabiden othoitzia.

1. Jauna, beha zite ene züzenari, beha zite ene othoitziari.
2. Beharriak zabalt itzatzü ene othoitziari, ezpañ falsietarik horra ezpeita.
3. Zure begithartian irakur dezadala ne jüjamentia, zure begiek ikhus dezela ene züzena.
4. Ene bihotza borogatü düzü, eta gaiaz ikhustera jin zitzaio; süian igaran naizü, eta nitan gaizkirik eztüzü ediren.



5. Ene ahua gizonen lanez mintza eladin, bide patarrer jarraiki nüzü, zure ezpañen hitzak diela kausa.
6. Berm' itzatzü ene ürhotsak zure bidexketan, ene herexak okhert eztiñen.
7. Oihü egin deizüt, entzün naizülakoz; aphil ezadazü zure beharria, eta beha zite ene elher.
8. Ederki erakhuts etzatzü zure ürrikaltarzünak, begiraten beitätüzü zuri hersatzen dianak.
9. Zure esküñari bortx' egiten dienetarik begira nezazü zure begi ninia bezala.
10. Zure hegaleen itzal pian begira nezazü, sinhets gabeko ixterbegi bihotza erdiratzen deitenetarik.
11. Arima üngüratü ditazie etsaiek; milgoraz kargatürrik beitia, ürgüllüki minzatü düzü haien ahua.
12. Hürrünt urthuki naienian üngüratzen nizie orano; goguan hartü beitie begien lürrari soz etxekitia.
13. Atzaman nizie, lehuak bere bazka bezala, eta gordallian daguen lehu hümiak bezala.
14. Jaiki zite, Jauna, lehent zakitzo, eta irail ezazü; idok ezozü ene arima sinhetsgabiari, zure esküko etsaier idok ezezü zure axkora.
15. Jauna, bizitze huntan berian, lürrian dütüzün aphürttuatarik berhez itzatzü; sabela betherik dizie zure huntarzünez.
16. Haur asia badizie; bere huntarzünak bere haurttuer üzten tizie.
17. Ni, aldiz, jüstizian agertüko nüzü zure begier; aseko nüzü zure loria agertü datienian.

GORANTZA XVII.

Dabidek erremestiatzen dü Jinkua goitherazi deitzolakoz bere etsaiak.

**Jinkuaren sehiak, Dabidek huntü dien khantoria,
Jaunaren uhuretan, etsaien eta Saulen eskietarik
ideki zielakoz.**

1. Maithatüko zütüt, Jauna, ene indarra; Jauna, ene azkharzalia, ene ihes lekhia, eta ene soltazalia.

2. Ene Jinkua, ene lagüntzale, hartan düket ene esparantxa.
3. Ene atherbia, ene bizia begiratü deitan adarra, ene harzalia.
4. Khant arrapikotsez deithüko dü Jauna; eta ene etsaietarik salbatüko niz.
5. Heriotzeko minek üngüratü naie, eta gaxtokeriako txurrustek izi erazi.
6. Ifernüko minek üngüratü naie, eta heriotzeko zephuek abanzüñi atzaman.
7. Ene eskarniuan Jauna ganat egin dü heia gora, eta ene oihia Jinkua gana heltü da.
8. Eta ene oihia entzün dü bere eliza saintütik, eta ene heia gora, aitziniala heltürrik, sarthü zaio beharrietan.
9. Lürra izitü eta ikharatü da, mendien erruak khordokatü eta iha-rausi dirade, khexatü zeielakoz.
10. Khia goratü da haren khexian, eta begihartetik sü phiztü zaio; inkhatzak garretan jarri dirade.
11. Aphaltü dütü zeliak, eta eraitsi da; haren zankhopetan lanhua.
12. Eta igaran da Kherübin gaña eta hegaltatü; hegaltatü aizen hegaltetan.
13. Ülhünpetan bere gordallia egin dü; bere thoxa erdian ezarririk, aideko lanho beltzetan.
14. Haren begiharteko argiak lehertü dütü lanhuak, txitxer eta süzko inkhatz erauntsiak.
15. Zelütik Jaunak ühülgü, eta Gaingainkuak oihü egin dü; txitxer eta süzko inkhatz.
16. Eta flexü khaldüka hasi, eta barreiatü etsaiak, eta iñhazi parrastez harrit erazi.
17. Hur begiak agertü, eta lür bolako erruak pikarraitü.
18. Zure mehatzia, Jauna, eta zure khexiaren heguak.
19. Zelü thinitik mezü igorri eta ni hartü, eta ühalditik idoki.
20. Ene etsai azkarrener eta hügünt nündiener ideki nai, ni beno azkarragotü zielakoz.
21. Ene bihotz mineko egünian ilhastera jin zeiztan; eta Jauna ene althe jarri da.
22. Eta kanpo zabalialat eraman nai, bait' ere salbatü, hala nahi ükhen beitätü.
23. Jaunak emanen deit, ene züzenaren arabera; saria emanen deit, ene eskiak xuri diatien bezala.



24. Jaunaren bide-zain egon beniz, gaizki ar' izan ezpeniz Jinkuaren eretzian.
25. Haren jüjamentiak oro begietan beitütüt, eta bere jüstiziak ezpe-teitzot araferatü.
26. Harekila thona gabe nizate; eta begiratüko niz ene gaitzetik.
27. Eta Jaunak phakatüko nai ene züzenaren arabera, eta ene eskien xahütarzüna ikhusten dükien bezala.
28. Saintiareki saintü zirate, eta ogen gabiareki ogen gabe.
29. Xahiareki xahü zirate, eta gaxtuareki gaxto.
30. Popülü ahalkorra salbatüko beitüzü, eta begi oldartiak lürrialat eraziko beitütüzü.
31. Zük phizten beitüzü, Jauna, ene litxer' argia, ene Jinkua, ene ülhünpiak arg' itzatzü.
32. Zük gaitzialako lerragiatik begiratüko naizü, eta ene Jinkuak igan-eraziko nizü harrisi gaña.
33. Ene Jinkuaren bidia garbi garbia; haren hitzak süian iganenik, hant-ansparantxa dien güzien begirazalia beita.
34. Jaunaz kanpo badeia beste Jinkorik? Edo gure Jinkua salbü zuin beste Jinko da?
35. Indarrez ni üngüratü naien Jinkua, eta bide xahü hunian ezarri naiena;
36. Orkhatzarenak bezala zankhuak berm'erazi deitztana, eta güne goretan ezarri naiena;
37. Ene eskier güdükan erakhusten deiena. Ene besuak ezarri düttüzü, Jauna, letuzko üzteia bezala.
38. Ene salbatzeko, zure heupia eman deitadazü, eta zure esküñaz etxeki naizü.
39. Xüxentü eta eskolatü naizü, eta zure eskolan ikhasiko dit.
40. Ebil günia zabaltü deitazü, eta ene ürhatsak eztütüzü flakatü.
41. Ene etsaier jarraikiko nitzezü eta atzamanen ditit, eta enüzü ützü-liko huak barreiartino.
42. Porrokatüko tit; eztütüzü txüti egonen, ene zankho petara eroriko düttüzü.
43. Güdükako azkhartü naizü, eta ene piala egotxi tüzü ene kuntra jaiki zirenak.
44. Ene etsaier gibela ützü erazi deiezü, eta ni hügünt nüntienak arrabaskatü tüzü.
45. Marraska egin dizie, bena nihurk ere eztitüzü begiratü; Jaunari hel egin dizie, eta etziezü behatü.

46. Xehekatüko ditit aizen erhautsa bezala; ohatüko ditit kharriken lohia bezala.
47. Soltatüko naizü popülüko builtetarik; nazionen bürian ezarriko naizü.
48. Ezagützen enien popülia eskü piala jin zait, ene maniak egin tü entzün tien bezañ sarri.
49. Seme arrotzek hitz emanak ezteztade etxeki; seme arrotzak zahartü dirade, eta mainkhütü bere bidexketan.
50. Bizi bedi, Jauna, eta benedika ene Jinkua; lorietan daguela begiraten naien Jinkua.
51. Zük mendekatzen naizü, ene Jinkua; popüliak eskü pian ezarten deitadatzü; ene etsaien khexütik soltatzen naizü.
52. Eta ene kuntra jaikitzen direnak beno gorago ezarriko naizü; gizon gaxtua ganik eramanen naizü.
53. Hortakoz aithortüko zütüt nazionen artian, eta khantoretan khantatüko dit, Jauna, zure izena.
54. Hañ ederki begiratü beitü errege; Dabid, bere khristuari eta haren undokuer mendez mende ürrikaltzen beita.

GORANTZA XVIII.

*Zeliak eta zelüko izarrek Jinkuaren photeria aithortzen düte.
Zuin gaitz den Jinkuaren legë hunari jarraikitzia.*

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Zeliak diote Jinkuaren loria, izarrek aldiz, haren eskien lanak.
2. Egünak egünari eta gaiak gaiari ikhasten düte egia hori.
3. Ezta mihirik ez eta mintzajerik hoiien mintzua enthelegatzen eztienik.
4. Lür orotara hoiien mintzua, eta bazter güzietara hoiien elhia hedatü da.
5. Ber'egongia ezarri dü ekhi barnen; ohetik jaikiten den senhar gaxtia üdüri dü.
6. Jauzten da jiganta bezala eбилteko; zelü gañetik haren jauzgia,
7. Haren builta zelü thinalano; nihur ere haren beruari ezin gorda.



8. Jaunaren lege thona gabiak, ütül erazten arimak; Jaunaren jakile-gua xüxenak zühürtarzün emaiten txipier.

9. Jaunaren jüstizia xüxenek alageratzen bihotzak; Jaunaren manü argiak argitzen begiak.

10. Jaunaren beldür saintia mendez mende igaraiten; Jaunaren egiazko jüjamentiak berberak xuritzen.

11. Ürhia eta harri baliusak beno nahigarriago, eztia eta oraze eztiak beno eztiago dira.

12. Zure sehiak begiratzen beütü zure maniak, begiratze sari handi dikezü.

13. Nurk dakitza bere ogenak? Ükhüz nezazü gorderik dütüdanetarik, eta zure sehia begia ezazü arrotzen gaxtokeriatik.

14. Ene ogenek ezpanaie goithzen, thona gabe nükezü, ogen handietik ükhüzirik.

15. Ene elhiak ordian agradatüko zaitzü, eta ene bihotzeko gogua zurekila dükezü bethi.

16. Jauna, ene lagüntzalia, eta ene ar'eroslia.

GORANTZA XIX.

Bere tropeki gerlarat duaneko Erregeren othoitzia.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Entzün zitzala Jaunak eskarnioko egünian; Jakobén Jinkuaren ize-nak begira zitzala.

2. Sokhorri igor deizazüla bere lekhü saintütik, eta Sioneko menditik begira zitzala.

3. Ohart dadila egin diozün sakrifiziuaz, eta errerik eskentü deozüna agrada dakiola.

4. Eman deizazüla zure bihotzaren arabera, eta zure gogua oro berma ditzala.

5. Alageratüko gütüzü salbatü zielakoz, eta loriatüko ere Jaunaren izenian.

6. Galthatzen deitzotzünak oro eman ditzatzüla Jaunak. Orai ezagütü dit Jaunak bere Khristua salbatü diela.

7. Bere zelü saintütik behatüko zaio; bere beso azkharraz begiratüko dü.

8. Hoiiek orgen, eta hurak zamarien gañen salbatzen; gük, aldiz, gure Jinko Jaunaren izenari oihü egiten.

9. Zephuan trabatürük erori dirade, gü, aldiz, jaiki gira eta txüti gaude.

10. Jauna, errege salb'ezazü, eta beha zakiztkü oihü eginen deizügün egünian.

GORANTZA XX.

Erregeren eskerrak etsaiak garhaitü dütielakoz. Etsaien zorigaitza.

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Jauna, zure indarrarian boztüko düzü errege, hanitx ere alageratüko salbatü düzülakoz.

2. Nahi ziena eman derozü, haren ezpañen nahia eztüzü inganatü.

3. Aitzintü zitzaio eztizko beneditzionetan; bürü gañen ezarri derozü harri baliusko khorua.

4. Bizia galthatü zeizün, eta bethiko mendez mende lüzatü deiotzü bere egünak.

5. Loria handitan düzü, salbatü düzülakoz; loria eta edertarzün handi eman derozü gaña.

6. Mendez mende benedik'eraziko düzü; zure begithartiaz alager'era-ziko düzü.

7. Jaunian beütü esparantxa erregek, Gañgañkuaren ürrikaltarzünetik ezta igitüko.

8. Zure etsai güziek sendi dezela zure eskia; zure esküñak ediren bitza hügüntzen zütienak oro.

9. Labe gorri bezala ezarriko tüzü zure begitharteko sü-garren arruan; bere khexian Jaunak lots eraziko dütü, eta süiak janen.

10. Haien azia gal eraziko düzü lürretik, eta haien arraza gizonen artetik.

11. Gaizki egin beteizie; etziotzenak egin ahal goguan hartü tizie.

12. Gibelialat ütül eraziko dütüzü, müthürü ükhüziko deiezü bere undarretan.



13. Gora zite, Jauna, zure indarrarian; khantatüko tizügü arrapikotsez zure indarren gorantzak.

GORANTZA XXI.

Goizako sokhorria.

Dabiden ürhentzeko khantoria, goizako sokhorriaren gañen.

1. Jinkua, ene Jinkua, so gidazü. Zentako ützi naizü? Ene ogenen elhek hürrünt erazi ditazie salbamentia.
2. Ene Jinkua, egünaz oihü eginen deizüt, eta enaizü entzünen; gaiaz ere bai, eta enizie bürü-ments baten hartüren.
3. Zü güne saintian zaude, Israeleko loria.
4. Zütan ükhen dizie gure aitek esparantxa, ükhen dizie esparantxa, eta soltatü düttüzü.
5. Oihü egin deizie, eta salbatü tüzü; zütan ükhen dizie esparantxa, eta eztütüzü galdü.
6. Ni, aldiz, lür xixari nüzü, eta ez gizon, gizonen laidogarri eta populüko thügarri.
7. Ikhusten nündienek oro trüfatzen nindizien; ezpañez mintzo zütüzün eta bürria khordokatzen zizien.
8. Erraiten zielarik: Jaunian esparantxa ükhen beitä, solta dezala arren Jaunak; salba dezala, maite dienaz geroz.
9. Zük amaren sabeletik ideki naizü; ene esparantxa zütüt, amaren thitia nik ützig gerozti.
10. Sabeletik zure eskietara elkhi nüzü; amaren sabela nik ützig gerozti ene Jinkua zirade; etzitiela niganik hürrünt.
11. Eskarniua hüllan beita; eta ezpeitüt lagüntzale bat ere.
12. Ergi saldo batek üngüratü nizü, zezen gizenek setiatü nizie.
13. Ahua zabaltzen zizien ene iresteko lehu arrobari orrua giliak bezala.
14. Hura bezala ixuri nüzü, eta ene ezür güziak barreatü düttüzü.
15. Bihotza sabel barnian jarri zitazü, hurtzen den ezkoa bezala.
16. Teilla bezala idortü zitazüt indarra, eta mihia aho garaian lothü; herioko erhautsialano eraman naizü.

17. Txakür hanitxek üngüratü nizie; gaxtuen bilkhürak setiatü nizü.
18. Zilatü diztatzie eskiak eta zankhuak; khuntatü diztatzie ezür güziak.
19. Beha egon ziztatzü, eta begixtatü nizie; bere artian ene suñekuak phartitü tizie, eta ene arropak xorthian thiratü.
20. Zük hatik, Jauna, eztezadazüla berant zure lagüntgua; artha zite ne begiratzeko.
21. Jinkua, axkoratik begir'ezazü ene bizia, baita ere txakürraren ahaletik.
22. Lehuaren ahotik begira nezazü; adar bakoitxaren adarretarik begir'ezazü ene aphaltarzüna.
23. Ene anaier ezagüt eraziko diet zure izena, eta bilkhüra erdian laidatüko zütüt.
24. Jaunaren beldür zieienak, laidezazie Jauna, loriezazie, ziek orok, Jakoben azitik elkhi zienek.
25. Israelko azi güzia beldürretan egon dakiola, eztielakoz mesperetxatü, eta kasürük egin gabe ützi eskeliaren othoitzia.
26. Ezteitalakoz begithartia ützüli, eta behatü zaitalako herstatü nitzaionian.
27. Zuretako ene gorantza Bilkhüra handian; ene nahiküntiak erranen deitzot Jinkuari haren beldür dienen aitzinian.
28. Janen düte eskelek, eta aseko dira; eta Jauna laidatüko düte haren bilha dabilenek; haien bihotzak biziko dirade mendez mende.
29. Ohartüko dirade, eta Jauna ganat ützüliko lürreko bazter güziak.
30. Eta nazionen etxekuek oro haren aitzinian othoitze eginen düte.
31. Jaunaren beita nausigua, eta nazionen bürüzagia beitate.
32. Lürreko gizenek orok jan düte eta othoitü; lürriala eraisten dien güziak iralliko dirade haren aitzinian.
33. Eta ene arima biziko zaio, eta ene azia sehitüko.
34. Horra datien giz'elia salhatüko dü Jaunak, eta zeliak salhatüko düte haren jüstizia, Jaunak eginik, sorthü behar dükien populüari.

GORANTZA XXII.

Jinkua giz'elien artzañ; apairü handi emaiten deie, eta huntarzünez bethatzen tü.



Dabiden khantoria.

1. Jaunak lagüntzen nai; eta deus mentsik eztuket, bazkagia hunian ezarri benai.
2. Hazi nai hur indar emailiaren khantian, eta hatsa phitz erazi deit.
3. Lagüntü nai xüxenguako bidexketan, bere izena dela kausa.
4. Herioko itzal erdian ebilirik ere gaizkien axolik eztiket eneki beitzirate.
5. Zure zaharua eta zure makhila, ene aholkiak dütüzü.
6. Mahaña adelatü deitazüt aitzinian eskarniatzen naienen kuntra.
7. Olio üsafdünez berekatü deitazüt büria; eta ene xalhü ordirazlia züñen eder den!
8. Eta zure ürrikaltarzüna undoti diket ene biziko egün orotan.
9. Egon ahal nadin Jaunaren etxen egün hanitxez.

GORANTZA XXIII.

Bazter güzien nausiak, Jinkuak, bere egongia berhezi dü Sioneko mendian. Nur agertüko da harat Jaunaren aitziniala? Nulaz elizak eden ahal lio armaden bürüzagía?

Asteleheneko Dabiden khantoria.

1. Jaunarena da lürra eta edeiten dütienak oro; mündia eta hanko ekhoiliar güziak.
2. Itxasuz goitiago egin beitu, eta ibaiez goitiago adelatü.
3. Nur igaranen da Jaunaren mendiala? Edo nur baratüko da haren güne saintian?
4. Eskiak ogen gabe dütiena, eta bihotza xüxen; arima bano ükhen eztiena; zin falsürrik lagünari egin eztiena.
5. Jauna ganik hark ükhenen dü beneditzione, eta Jinko Salbazalia ganik ürrikaltarzün.
6. Holako da Jaunaren bilha ebilten dienen arraza, eta Jakoben Jinkuaren begithartia txerkhatzen diena.
7. Zien borthak zabalt zatzie, printziak; bethiko borthak zabalt zizteie, eta sarthüko da loriazko erregia.

8. Nur da loriazko errege hori? Jaun azkhar eta photeretsia, güdüka-ko azkhar den Jauna.

9. Zien borthak zabalt zatzie, printziak, bethiko borthak, zabalt zizteie, eta sarthüko da loriazko erregia.

10. Nur da loriazko errege hori? Indarren Jauna, loriazko erregia.

GORANTZA XXIV.

Bihotz-min dienaren othoitzia. Jaunaren egía eta ürrikaltarzüna etzaio faltatzen Jaunian esparantxa ükheiten dienari.

Ürhentzeko Dabiden khantoria.

1. Zure ganat, Jauna, altxatü dit ene arima; ene Jinkua, zuri fidatü beniz, enüzü ahalkegorritüko.

2. Etzaiztadala trüfa ene etsaiak; zure althe dienak ezpeitia ahalke gorritüko.

3. Gaxtokerian banoki ari dienak ahalke ditiela.

4. Zure bidiak erakhuts itzadatzü, Jauna; ikhas itzadatzü zure bidexkak.

5. Zure bidian lagünt eta eskola nezazü; zü beitzira Jinko ene Salbazalia, eta egün güzian ügüriki beitzütüt.

6. Ohart zite zure ürrikaltarzünez, Jauna, eta bethi danik dütüzün ürrikaltarzünez.

7. Ene gaztaroko ogenez etzitiela ohart, ez eta ere nik eztakidane-tzez.

8. Zure ürrikaltarzünaren arabera ohart zitzat, zure huntarzüna gatik, Jauna.

9. Ezti eta xüxen Jauna, hortakoz lege emanen deie bidian gaizkigiler.

10. Mantsuak lagüntüko tü bere xüxenguan, bere bidiak erakhutsiko deitze eztier.

11. Jaunaren bide güziak, ürrikaltarzüna eta egía, haren jakileguaren eta jakileguen bilha dabilzenen.

12. Zure izenaren amorekati, ene ogena pharkatüko deitazüt, Jauna, handi beita.



13. Jaunaren beldür den gizona zuñ da? Eta zuñi ere hartü dien bideko legia Jaunak eman deiona?
14. Bihotza hunki eginetan gozatüko zaio, eta haren aziak lürra ükhenen dü.
15. Jauna haren beldür dienen bermia; eta bere ordeña erakhutsiko deie.
16. Ene begiak bethi Jaunari soz; zephotik idokiko beteizat zankhuak.
17. Sogin ezadazü, eta ürrikalt zakitzat, nihau beniz, eta eskele.
18. Ene bihotzeko eskarniuk hanitxtü dütüzü, ene beharretarik idok nezazü.
19. Ene aphaltarzüna eta ene eskarniua ikhus etzatzü, eta phark'itzadatzü ene ogenak oro.
20. So gizü ene etsaier, hanitxtü beitira, eta hügüntü benaie ogenik gabe.
21. Begira zadazüt ene arima, eta solta nezazü; enüzü ahalketüko, zütan beitüt esparantxa ükhen.
22. Ogen gabe eta bihotzez xüxen dienak althe egon ziztadatzü, zure althe ninzalakoz.
23. Jinkua, solt ezazü Israel bere eskarnio güzietarik.

GORANTZA XXV.

*Bihotz xüxenak Jinkuari egiten deion othoitzia, gaxtuen artian
ütz eztezan.*

Dabiden ürhentzeko khantoria.

1. Jüja nezazü, Jauna, ogengabeguan ebili beniz, eta Jaunian esparantxa hartürrik ezpeniz flakatüko.
2. Boroga nezazü, Jauna, eta ikher; erra itzadatzü errañak eta bihotza.
3. Zure ürrikaltarzüna begien aitzinian beitüt, eta zure egian laket beniz.
4. Enüzü jarri ezdeuskeriako bilkhüran; gaizki giletarat enüzü sarthüko.
5. Gaxtuen bilkhüra hügün dit, eta enüzü jarriko sinhets gabekila.

6. Ogen gaben artian ükhüziko tit eskiak; eta zure altharia üngüratüko dit, Jauna.
7. Entzün ahal dezadan zure gorantzen botza, eta erran ditzadan zure miragarri güziak.
8. Jauna, maithatü dit zure etzeko edertarzüna eta zure egongiako loria.
9. Eztezazüla nahas ene arima sinhets gabeki, ene Jinkua, ez ere ene bizia gizon odolkhoieki.
10. Gaizki zikhintürrik ditizie eskiak, esküna aldiz dohañez betherik.
11. Ni ogengabeguan ebili nüzü; eros nezazü eta ürrikalt zakitzat.
12. Ene huña baratü düzü bide xüxenian; bilkhüretan laidatü zütüt, Jauna.

GORANTZA XXVI.

*Bihotzez xüxen denaren othoitzia eskarniatürrik denian. Jinkua-
ren eliza ikhusi nahi lüke*

Dabiden khantoria olioz berekatü züten beno lehen.

1. Jauna ene argia eta ene salbamentia; nuen beldür nizate?
2. Jaunak begiratzen deit bizia; nurk ikhar'eraiziko nai?
3. Gaizki giliak hüllantzen zaiztadanien ene aragien jatera.
4. Etsai eskarniatzen naiena flakatü dirade eta erori.
5. Armadak balia ere ene kuntra jüntatürrik, ene bihotza lotsa gabe lizate.
6. Joka ene kuntra has balia ere, hartan nik ükhen nio esparantxa orano.
7. Gaiza bat Jaunari galthatü deiot, eta bilhatüko dü: ene Jaunaren etxen egoitia ene biziko egünetan;
8. Haren huntarzünen ikhusteko, eta haren elizaren bisitatzeko.
9. Bere thoxan gorde benai; gaitzen egünian begiratü benai bere thoxako gordallian.
10. Botxü gañen ezarri nai, eta orai ene büria etsaiena beno goragotü dü.
11. Üngüratü dü altharia, eta bere thoxan erho deiot oihüzko aberia; khant arrapikotsez laidatüko dü Jauna.



12. Entzün ezazü, Jauna, egin deizüdan oiha; ürrikalt eta beha zakitzat.
13. Ene bihotzak erran deizü; ene begiek txerkhatü zütie; zure begihartiaren bilha ebiliko nüzü.
14. Eztehadazüla begithartia ütüz; khexian etzitiela hürrünt zure sehia ganik.
15. Lagüntzale egon zitzaizt; enezazüla üt, eta mesperetxa, Jinko ene salbazalia.
16. Aitak eta amak ützi benaie; Jaunak hatik hartü nai.
17. Eman ezadazü zure bidiairi jarraikitzeko legia, eta lagünt nezazü bidexka xüxenian, ene etsaiak diela kausa.
18. Enezazüla ni eman eskarniatzen naiener; jakile gaxtuak elkhi beirtira ene kuntra, eta haien gaxtokeria ber bera gezürstatü beita.
19. Uste dit ikhusten dütdala Jaunaren huntarzünak bizi dienen lürrian.
20. Ügürük ezazü, Jauna, azkharki ari zite, emozü bihotzari indar, eta arrima zite Jauna ganat.

GORANTZA XXVII.

Bihotz minetan dagnenaren othoitzia. Etsai gaxtuak galdüko dirade. Esker mila Jinkuari begiratü dielakoz khantore huntzalia.

Dabiden khantoria.

1. Oihü eginen deizüt, Jauna; etziztadala ixilt, ene Jinkua, ihardesten ezipalin badeitazüt üdüri benizate hobialat eraisten dienen.
2. Beha zite, Jauna, ene othoitzeko oihiari, zuri othoitzez naguenian, zure eliza saintialat eskiak eraikiten dütdanian.
3. Enezazüla herresta erabil ogen gileki, ez eta ere gal gaizki gileki;
4. Bakiaz mintzo beitia bere hüllaner eta gaxtokeria beittüte bihotzian.
5. Ordaria emezü bere egitaten arabera, eta bere gogoko gaxtokerien arabera.
6. Phak'itatzü bere eskü lanen arabera, eta emezü merexi düten saria.
7. Eztitizie Jaunaren lanak enthelegatü, eta haren eskü lanen gatik, zük xehekatüko tüzü eta ez ar'eginen.
8. Benedika dadila Jauna, ene othoitzeko oihiari behatü delakoz.

9. Jauna ene lagüntzale eta begirazale, ene bihotzak hartan esparan-txa ükhen, eta ni lagüntürük izan.
10. Eta ene aragia harzara lilitü; nik arren gogo hunez laidatüko Jauna.
11. Jauna bere popüliaren indarra, eta bere Khristoren salbamentien begirazalia.
12. Salb'ezazü, Jauna, zure popülia, eta benedika zure züzena; zaint itatzü eta altxa zurekila bethi artio.

GORANTZA XXVIII.

Tempestako itxura. Eüría igorri dielakoz, Jaunari eskerrak.

Dabiden khantoria Tabernaklia ürhentü zenian.

1. Ekhartzatzie Jaunari, Jinkuaren haurrak, ekhart itzotzie ahazartz hümiak.
2. Ekhart etzotzie Jaunari loria eta uhure; bere izeneko loria ekhar ezozie Jaunari; othoit zazie Jauna bere heupe saintian.
3. Jaunaren oiha hur gañetan; Jinko handiak ühülgü; Jauna üholdien gañen.
4. Jaunaren botza indarrian; Jaunaren botza handitarzünian.
5. Jaunaren botzak karraskatzen zühañak, Jaunaren botzak karraske-raziko Libaneko izeiak.
6. Xehekatüko dütü Libaneko xahala bezala, edo adar bakoitzaren hümia bezala.
7. Jaunaren botzak erdiratzen sü-garrak; Jaunaren botzak khordokatzzen desertia, eta ikhar'ereziko Kadesekeo desertia.
8. Jaunaren botzak adelatzen orkhatzak, eta argitzen thartasiak; eta haren elizan orok erranen haren loria.
9. Jaunak üholdia lürrian geldir'azten, eta Errege Jauna jarriko sekü-lakoz.
10. Jaunak bere popüliari indar emanen; Jaunak bere popülia bakian benedikatüko.



GORANTZA XXIX.

Dabidek mila esker Jaunari osagarria eman deiolako.

Dabiden khantoria bere etxia egin zieneko.

1. Laidatüko zütüt, Jauna, begiratü naizülakoz, eta ene etsaiak eztütüzülakoz ützi nitzaz alageratzera.
2. Ene Jinko Jauna, oihü egin deizüt, eta sendotü naizü.
3. Jauna, ifernütik idoki düzü ene arima; hobialat zuaztanen artetik salbatü naizü.
4. Sonü egiozie Jaunari haren saintiek, eta laid'ezazie haren saintütarzünaren orhitzpena.
5. Haren khexian zaflak, eta haren nahiküntian bizia.
6. Arratsa nigarretan, eta goiza boztarian.
7. Nik hatik, enielarik mentsik, erran dü; eniz seküla igitüko.
8. Jauna, zure huntarüzünaz eman zineitan nik düdan ahal güzia.
9. Zure begithartia baztertü deitazü, eta beldürrak hartü nizü.
10. Oihü eginen deizüt, Jauna; eta ene Jinkua othoitüko dit.
11. Ene hiltzetik zer probetxü date, hirotzera nuatekienian?
12. Erhauptsak ahal zütükia laida, edo erranen dia zure egia?
13. Jaunak entzün nai, eta ürrikaltü zait; Jauna lagüntzera jin zait.
14. Ene marraska boztariuala khanbiatü deitazü; jauntsi nien zakia ürратü deitazü, eta boztarioz üngüratü naizü.
15. Ene lorian khant'arrapika zitzadan, bihotz min gabe; ene Jinko Jauna laidatüko zütüt mendez mende.

GORANTZA XXX.

Adixkidek ützirik gabezia denaren othoitzia.

Dabiden khantoria.

1. Jauna, zütan ükhen dit esparantxa, enadila gal seküla; begira nezazü zure jüstiziaren arabera.
2. Aphal ezazü ene ganat zure beharria; lehia zite ene hebentik idokitzera.

3. Izan zite ene Jinko begirazalia eta ihes lekhia, salba nadin.
4. Ene indarra eta ene ihes lekhia beitzira zü; eta zure izena dela kausa lagüntüko eta haziko naizü.
5. Idokiko naizü gordallian hedatü deitaden zepho huntarik, ene begirazalia beitzirade.
6. Zure eskietan ezarten dit ene hatsa, erosi benaizü, Jauna, egiazko Jinkua.
7. Hügüntzen dütüzü probetxü gabe ezdeuskerier beha dienak.
8. Nik hatik esparantxa ükhen dit Jaunian; boztariotüko nüzü eta alageratüko zure ürrikaltarzünian.
9. Ikhusi beitzü ene aphaltarzüna, beharretarik salbatü düzü ene arima.
10. Enaizü urthuki ene etsaien eskietara, ene zankhuak ezarri tüzü güne larguan.
11. Ürrikalt zakitzat, Jauna, eskarniuan beniz; khexian begia, arima eta sabela izitü ziztatzü.
12. Herten beitzait bihotz minetan bizia, herten beitzaitat urthiak marrasketan.
13. Gabeziak flakatü ditazüt indarra, eta ezürrak thüstotü.
14. Laidogarritü nüzü ene etsai güzien artian eta ene aizuen artian ere; ene ezagünak izitzen ditit.
15. Ene ikhusliak ihes zuatzün nitarik; ahatzirik niagozü haien bihoztian hilik bezala banintz.
16. Untzi phorrokatü bat bezalakotü nüzü; khantian nütienek egiten zeitaden mehatxia entzün beität.
17. Ene kuntra algarganatü zienian, hitz hartü zizien bizia idoki behar zeitadela.
18. Nik, aldiz, zütan esparantxa ükhen dit, Jauna. Erran dit: Zü ene Jinkua zirade; ene gora beherak zure eskietan tüzü.
19. Idek nezazü ene etsaien eskietarik, eta lasterkatzen naienetarik.
20. Zure begithartia argi zazü zure sehiaren gaña; salba nezazü zure ürrikaltarzünian. Jauna, enadila gal zuri hersatü beniz.
21. Sinhets gabiak ahalke ditiela eta eraman ifernalat; ezpañ falsiak mütü ditiela.
22. Gaxtokeriaz mintzo beitra jüsto denaren kuntra bere ürgüllü mesperetxazalian.
23. Zuñen handi den, Jauna, zure eztitarzünezko üthürria, beldür zaitzüentako gorde eta begiraten düzüna!



24. Zorhitü düzü zütan esparantxa diententako, gizon semen aitzinian.
25. Gordeko düütüzü zure begitharteko gordallian, gizonnek thürbüst eztezen.
26. Begiratüko tüzü zure tabernaklian mihi kolpü gaxtuetarik.
27. Benedika bedi Jauna, agertü beütü enetako dien ürrikaltarzün miragarria ene hiri azkhar batetan sar eraztez.
28. Nik hatik erran nien ene gogo lehian: Jaunak enai ikhusi nahi.
29. Hortakoz behatü zia ene othoitze-oihiari, oihü egin deizüdanian.
30. Maith'ezazie Jauna, haren saintü güziek, egia txerkatzen beütü Jaunak, eta merexi dien saria emanen beütü ürgüllütsier.
31. Azkharki ari zizte, bihotz hun har zazie, Jaunian esparantxa düzien güziek.

GORANTZA XXXI.

Ogen gabe denaren dohatsütarzüna; Jaunak ikhasiko beteitzo bere egin bidiak, eta zori gaitzetik begiratüko beütü.

Eskolatzeko Dabiden khantoria.

1. Dohatsü dira gaizkiak pharkatürik dütienak, eta ogenak estalirik dütienak.
2. Dohatsü Jaunak ogenik eman ezteion gizona, eta falsükeriarik goguan eztieta.
3. Ixiltü beniz, xuritü zaitzat ezürrak oihüz ari nintzalarik egün orotan.
4. Gaiaz eta egünaz zure eskia gogortü beita nitan gaña, ützüli nüzü ene dolorian, ilhorriak txistatürik.
5. Ezagüt erazi deizüt ene ogena, eta ene gaizkia eztit gorde.
6. Erran dit: Nihauren kuntra Jaunari aithortüko derot ene gaizkia. Eta zük pharkatü deitazüt ene gaxtokeriazko ogena.
7. Hortakoz saintü den nur nahik othoitze eginen deizü behar bezalako tenorian.
8. Eta ühaldi handiak, hedatzen diatienian, ezütüzü haren ganat hüllantüren.

9. Zü zirade ene ihes lekha üngüratürik nizan eskarniuan; zük, ene boztariua, idek nezazü üngürian dütüdan etsaien artetik.
10. Emanen deizüt enthelegia, eta erakhutsiko ebili behar dükezün bidia; ene begiak etxekiko diti zütan gañen.
11. Etzizteuela izan ezagützerik ezütüen zamaria eta mandua bezala;
12. Kabastüriaz eta xarrantxaz tink ezezü mathela, eta etzaitzü hüllantüko.
13. Ogen giliarentako azote kolpü franko; Jaunian esparantxa dükiena, aldiz, ürrikaltarzünez üngüratürik.
14. Botz zizte Jaunian, eta alagera ziek jüstuak; eta loria zizte bihotzez xüxen zireien güziak.

GORANTZA XXXII.

Khantazaliak khümitatzen tü jüstuak Jinkuaren laidatzea, ahal eta huntarzün handi dielakoz.

1. Jüstuak, boztario zizteie Jaunian, haizü beita bihotzez xüxen die-nek laida ezen.
2. Sonüz laidezazie Jauna; khant arrapikotsez ari zitzoie hamar hede-zko soniareki.
3. Khant ezozie khantore berri, untsa egiozie sonü botza eztitürik.
4. Jaunaren elhia xüxen beita, eta haren obra güziak fidel beitera.
5. Maite tü ürrikaltarzüna eta jüstizia; Jaunaren ürrikaltarzünak lür güzia bethe.
6. Jaunaren hitziala bermatü zeliak, haren ahoko phütza haien indar güzia.
7. Jaunak biltzen itxasoko hurrak xahakuan bezala, eta bere huntarzünetan ezarten osinak.
8. Jaunaren beldürt dadila lür güzia, hanko ekhoiliar güziak latz ditie-la.
9. Mintzatü beita, eta gaizak egin beitia; manhatü beütü, eta ezdeuse-tarik zerbaitü beitia.
10. Jaunak barreiatzen nazionen goguak; ezdeuserazten aldiz popü-lien phensamentiak, ezdeus erazten ere Printzien goguak.
11. Jaunaren goguak aldiz mügarik ez; haren bihotzeko goguak arrazatik arrazala igaraiten.



12. Dohatsü Jauna Jinkotako dien nazonia; eta bere huntarzun phar-tetako berhezi dien popülia!
13. Jaunak zelütik so gin, eta ikhusi gizonen seme güziak.
14. Beretako adelatü dien egongiatik so gin dü lürreko ekhoiliar güzien gaña.
15. Bater bester ere bihotza ekheitü deie, eta ezagützen dütü haien obrak oro.
16. Bere indar handiak eztü salbatzen errege, bere indar borthitzak eztü salbatüko jiganta.
17. Gizonaren salbatzeko zaldia mendregi; huner indar handia salbatzeko eskaz.
18. Bere begiak Jaunak beldürt zaitzonen gañen, eta haren ürrikal-tarzunari beha diaguenen gañen.
19. Heriotzetik idok ditzan haien arimak, eta haz ditzan gose dienian.
20. Gure arima Jaunaren erphai, gure lagüntzalia eta begirazalia delakoz.
21. Gure bihotza hartan alageratüko delakoz, eta haren izen saintian esparantxa dükegüalakoz.
22. Jauna, zure ürrikaltarzüna gütan gaña ager bedi, zütan esparantxa ükhen dügün bezala.

GORANTZA XXXIII.

Dabidek Jinkuari esker emaiten Jetheko erregjaren eskietarik salbatü dielakoz.

Dabidi, begithartia Abimelekhen aitzinian khanbiatü zienian, eta Abimelekhek juaitea ützi zienian.

1. Ordü oroz benedikatüko düüt Jauna, haren laidoriaua bethi düket ahuan.
2. Jaunian loriatüko ene arima; entzün nezela mantsuek eta boztario ditiela.
3. Errazie eneki Jaunaren handitarzüna, eta khanta dezagün goraki haren izena.
4. Jauna txerkatü düüt, eta behatü zait, eta ideki nai ene eskarnio güzietarik.

5. Haren ganat hüllant zizte, eta argi; zien begithartiak eztrade ahal-kez gorritüko.
6. Eskele hunek oihü egin dü eta Jaunak entzün eta salbatü eskarnio orotarik.
7. Jaunaren Aingüriak üngüratüko beldür zaitzonak, bai eta laxatüko.
8. Txest'ezazie eta ikhus zuñ ezti den Jauna; dohatsü hartan esparantxa dien gizona.
9. Jaunaren beldür egon zizteie haren saintü güziak, ezpeitüte deus mentsik haren beldür dienek.
10. Aberatsak eskeletü eta gosetü, Jaunaren bilha dabilzaner aldiz ez aphürtüko huntarzüna.
11. Tziauste haurrak, beha zakiztade, erakhutsiko deiziet Jaunaren beldürra.
12. Zuñ da bizia eta egün hunak nahi dütien gizona?
13. Gaitzetik begira zure mihia, zure ezpañetarik eztadila elkhi falsükeriarik.
14. Gaitzetik hürrünt eta hunki egizü, txerkhezazü bakia eta hari jarraik zite.
15. Jaunaren begiak jüstuer, eta haren beharriak haien othoitzer beha.
16. Jaunaren beltzuriak aldiz gaizki gilen; haien ohizpena gal eraz dezan lür gañetik.
17. Jüstuek oihü egin, eta Jaunak hurak entzün, eta bere eskarnio güzietarik soltatü.
18. Bihotzetik eskarniatürük dienen unduan Jauna; eta izpiritüz apha dienak salbatüko dütü.
19. Jüstuen eskarniuak hanitx; Jaunak haietarik orotarik salbatüko dütü.
20. Haien ezürak oro begiratzen Jaunak; ezür bat ere ezpeitzaie hautsiko.
21. Ogen gilen heriotzia gaxto gaxtuena; eta jüstua hügün dütenak ogen gile dirate.
22. Jaunak erosiko bere mañaten arimak; eta Jaunian esparantxa dütenek ez eginen ogenik.

GORANTZA XXXIV.

Dabiden othoitzia eskarniatzen dütelarik.



Dabidi.

1. Jüj'itzatzü, Jauna, eni ogen egiliak, armak khent zetzü ene kuntra güdükazaler.
2. Hart zatzü armak eta esküta, eta lagüntzera jin zakitzat.
3. Zure ezpata llabürra idek ezazü kopatik, eta üngüra itzatzü ene lasterkerazliak. Ene arimari errozü: Hire salbazalia nük ni.
4. Ahalkez gorri ditiela bizia ideki nahi deitadenak.
5. Irall ditiela eta ahalkez gorri, ene kuntra gogo gaxtuetan horra die-nak.
6. Izan ditiela aiziak dabilan erhautsa bezala; eta Jaunaren aingüriak urixki ditzala.
7. Ülhünt eta lein dadila haien bidia; eta Jaunaren aingüriak lasterka ditzala.
8. Ogen gabe gorde beteite bere zephua ene hil erazteko, baita ere laidogarrütü ene arima.
9. Uste eztién zepho bat hel dakiola, eta enetako gorde dien hartan atzaman dadila, eta eror dadila ber zephuala.
10. Ene arima hatik boztariotüko Jaunian, eta gozatüko bere Salbazalian.
11. Ene ezürrek orok erranen: Jauna, nur da zure üdüri?
12. Eskelia idekiten düzü hura beno azkharrago dien etsaien eskieta-rik; emütsa eta praubia ere arrogatzen dütiénetarik.
13. Jakile gaxtuek jaikirik enakitzanak galthatzen ziztatzién.
14. Hunkien ordari gaizki egiten zitazien, bizia ideki nahi betzeitaden.
15. Nik hatik gaizkiz ari zeiztalarik zakia jaunsten nizün;
16. Baruan ematzen nizün ene arima, eta ene othoitziaz ihiztatzen bihotza.
17. Aizuari eta anaieri bezala plazer egin nahi niezün, eta aphaltzen nündüzün phenetan eta doloretan bezala.
18. Eta boztariotürik ene kuntra algarganatü tüzü; azotatü nizie nik jakin gabe zentako.
19. Barreiatü dütüzü, eta ez dolütü; therriatü nizie baita ere borogatü; ihikixtatü nizie, eta hortzak karraskaz erabili tizie.
20. Jauna, nuiz zabaltüko tüzü begiak? Haien gaxtokeriatic idek eza-dazü bizia, lehu hetarik idek ezazü ene bizi bakhoitxa.
21. Aithortüko zütüt bilkhüra handian, popülü salduaren artian lai-datüko zütüt.

22. Ene gatik eztiela alagera, ogen gabe kuntra dütüdanak, ogen gabe hügüntzen nütenak, eta adixkideguako kheñü egiten deitenak.
23. Bakian mintzatzen ziztadatzün bai, bena bere khexian lürrari mintzo zienian, falsükeria zizien goguan.
24. Ahua zabaltü dizie ene kuntra, eta erran: Bihotz hun, bihotz hun, gure begiek ikhusi beitie.
25. Ikhusi beitätü, Jauna, etzitiela ixilt. Jauna, ez hürrünt nitarik.
26. Jaiki zite eta loth ene jüjamentiari; ene Jinkua eta ene Jauna, debek'ezazü ene egitekua.
27. Jüja nezazü zure jüstiziaren arabera, ene Jinko Jauna, eztiela alagera ni goithürik.
28. Bere bihotzian eztezela erran: Hots, hots, boztario gitien. Eztezela erran: Hura iretsi dügü.
29. Ene gaitzez alageratzen dienak, ahalkez gorri ditiela.
30. Ene kuntra gaizki mintzo dienak ahalkez gorri ditiela.
31. Boztario eta alagera ditiela ene jüstizia nahi dütiének, eta bethi erran dezela: Loria dadila Jauna, haren sheiaren bake nahi dütiének.
32. Eta ene mihiak iaurriko dizü zure jüstiziaren berria, eta zure gorantza egün oroz.

GORANTZA XXXV.

Gaxtuen sinhets gabegua. Jinkuaren egia eta ürrikaltarzüna.

Ürhentzeko Dabidi, Jinkuaren sheiari.

1. Jüsto eztenak bere goguan erran dü ogen egin nahi diela. Jinkua-ren beldürrik eztü begien aitzinian.
2. Haren eretzian falsüki ari izan da, hala nula bere gaxtokeriak hügünt erazi beitie.
3. Haren ahoko elhiak gaxtokeria eta falsükeria; hunki egiten eztü nahi ükhen ikhasi.
4. Bere ohian gaizkiari gogoz zaguen, bide gaxto güzietan baratü da, eta malezia eztü hügüntü.
5. Zelian, Jauna, zure ürrikaltarzüna, eta zure egia odeien gañen.
6. Zure jüstizia Jinkuaren mendiak bezala, zure jüjamentiak osina bezañ barna.



7. Jauna salbatuko tüzü gizonak eta aberiak, hanixtü düzün bezala zure ürrikaltarzüna, ene Jinkua.
8. Gizonen hurrek esparantxa dikezie zure hegalen atherbian.
9. Orditüko tüzü zure etxenko ekhoitzpenian; edatera emanen dereizü zure gozagarriko ühaitzetik.
10. Zütan delakoz biziko üthürria, eta zure argian ikhusiren dügüla-koz argia.
11. Hed'ezazü zure ürrikaltarzüna ezagützen zütenetara, eta zure jüstizia bihotzez xüxen dienetara.
12. Ürgüllüsiaren zankhua etzakitala helt; eta enezala igi ogengiliaren eskiak.
13. Han erori tüzü gaizki ari zienak; ohiltü tizie, eta txüti eztütüzü egon ahal izan.

GORANTZA XXXVI.

Erakhutspen zorigaitzian dienantako

Dabiden khantoria.

1. Etzitiela gaxtuen dohatsütarzünaren bekhaitz izan; etzitiela gaizki gilen bekhaitz izan.
2. Idortüko beitira belharra bezañ bertan, baita eihartüko ere baratzeko lanthariak bezañ bertan.
3. Esparantxa ükhazü Jaunian, eta hunki egizü; eta egon zite lürrian, eta hanko huntarzünez haziko zirade.
4. Goza zite Jaunian, eta emanen deitzü zure bihotzak galthatzen deitzonak.
5. Jaunari agert ezozü zure bidia, eta hartan esparantxa ükhazü eta behar düzüna eginen deizü.
6. Eta argia bezañ xuri ekhitatüko dizü zure jüstizia, eta zure jüjümentia ügerdiko ekhia bezala.
7. Zaude Jaunaren eskü pian, eta othoitze egiozü. Etzitiela bekhaitz gizon gaizki egiliari, bere bidian zorihun dielakoz.
8. Begira zite khexatzetik, eta khexügua üt ezazü; bekhaitz etzitiela gaxtotü nahiz.

9. Gaizki giliak arrabaskatürik izanen beitira, Jaunaren althe dienek, aldiz, lürra dikezie bere phartetako.
10. Orano aphürtto bat, eta gaizki gilia galdüko; haren egongia txerkatüko düzü, eta ez edirenen.
11. Mantsuek aldiz lürra dikezie bere phartetako eta gozatüko tüzü bake handian.
12. Ogen gilia beha daukezü jüstuari, eta haren kontra karraskatüko tizü hortzak.
13. Jaunak aldiz erri eginen diozü, ikhusi beitü haren egüna heltüko dela.
14. Kopatik ogen gilek ideki ezpata; hedatü bere üztea.
15. Eskeliaren eta emütsaren egoxteko, bihotzez xüxen dienen erhaiteko.
16. Berer ezpata bihotzian sarth zakioiela eta haien üztea phorroka dadila.
17. Jüstuak hobiago dü güti ükheitia, ezi ez ogen gilen huntarzün handiak.
18. Ogen gilen besuak phorrokatüko beitirade; Jaunak aldiz bermatüko jüstuak.
19. Badakitza Jaunak thona gabe dienen egünak, eta haien huntarzün phartiak mendez mende irañen.
20. Aro gaitzian eztirade galdüko, eta gosetezko egünetan aseren dirade.
21. Ogen giliak galdüko beitira. Jaunaren etsaiak, aldiz, uhuretan goratü bezañ sarri eroriko dirade eta khia bezala hurtüko.
22. Jesanen dü ogen giliak, eta eztü phakatüko zorra; jüstuak, aldiz, ürrikaltürik karitatia egiten.
23. Jauna hunetsiten dütenek lürra düke huntarzüntako, gaitzetsiten dütenak, aldiz, galdüko dirade.
24. Jaunak lagüntüko gizonaren ürhotsak, haren bidia agradatüko betzaio.
25. Erorten datienian ezta phorrokatüko, Jaunak besapetik etxekitzen beitü.
26. Gazte izanik, zahartü niz; eta eztüt ikhusi jüstua thüstatürik, ez ere haren hurrak ogi galtho.
27. Egün oroz karitate egiten eta pherestatzen ari da; haren azia hunetsitürik date.
28. Gaizkitik begira zite, eta hunki egizü, eta egon zite mendez mende.



29. Jaunak xüentarzüna maite beütü, eta bere saintiak ezpeütü ützi-ko; begiratüko beütü bethiko.

30. Jüsto eztienak kastigatürik dirate, eta sinhets gaben azia galdüko da.

31. Jüstuek aldiz ükhenen düte lürra bere huntarzüntako, eta hartan gañen egonen dirade mendez mende.

32. Jüstuaren ahotik zühürtzia, haren mihitik xüengua.

33. Bere Jinkuaren legia bihotzian dü; ebiltian ezta behatztopatüko.

34. Ogen gilia beha dago jüstuari, haren hil eraz nahiz.

35. Jaunak hatik eztü haren eskietan ützi, ezteio ere ogenik emanen, gaizkigilia jüjatzen dükienian.

36. Ügürük ezazü, Jauna, eta haren bidia begira, altxatüko zütü ükhen ahal dezazün lürra huntarzüntako, hori ikhusiko düzü ogen giliak galdü diatienian.

37. Handi handitürik ikhusi dit sinhets gabia Libaneko zühañak bezañ lüze.

38. Igaran nüzü, eta hurtü zitazü, txerkhatü dit eta zen lekhia ezti ediren.

39. Xahü egon, eta xüenguari jarraik zite, bakezko gizonak beütüzke undoriuak.

40. Jüsto eztienak, aldiz, batetan galdüko dütüzü, eta undoriuak hilen zitzetzü.

41. Jüstuen osagarria hatik Jauna ganik, haien begirazalia beita eskar-nioko aruan.

42. Jaunak lagüntüko eta soltatüko tü; ogengiletarik idokiko tü eta salbatüko, hartan esparantxa ükhen dütelakoz.

GORANTZA XXXVII.

Egin dütien ogenen pharkamentia galthatzen dü Dabidek.

Dabiden orhitzpenezko khantoria, nesken egüneko.

1. Jauna, enezazüla hez zure fürian, ez eta ere kaztiga zure khexian.

2. Zure flexek txistatü benaie, eta zure eskia nitan gaña phezatü beita.

3. Zure khexiaren aitzinian aragia osagarri gabe dit; ene ogenen ikhustian ene ezürrek bakerik eztizie.

4. Ene gaizkiek büria gaintitü beteidade, eta ezin egar diodan haxe batek bezala lehertzen benaie.

5. Hirotü eta ürrinstatü ziztatzü ene zauriak, ene ertzokeria dela kausa.

6. Miseriaz bethe nüzü, eta lürrialat künkürtü; bihotz min handitan nabilazü egün orotan.

7. Ene errañak gezürrezko gogoz bethe beitera, sendo den larrü buxirik ezpeütü.

8. Samintürik eta ethenik nüdüzü; ene bihotzoko heiagorak orrua egin erazten betzeitan.

9. Jauna, ene nahiküntia oro zure aitzinian; eta ene heiagora etzaizü gorderik.

10. Bihotza phanpaz ari zitazü; indarra galdü dit, begien argia ere bai, ezpeita haboro enekila.

11. Ene adixkidiak eta ene askaziak hüllantü tüzü, eta ene kuntra txütitü.

12. Ene khantian zienak, aldiz, hürrüntü dütüzü, eta bizia ideki nahi zeitaneke bortxatzen nindizien.

13. Eta ni galdü nahi nüdienek orok ezdeuskeriak ziotzieren, eta egün orotan falsükerietan zizien bere gogua.

14. Nik hatik enitizün entzüten, gor banintz bezala, enizün ere ahua zabaltzen, mütü banintz bezala.

15. Eta jin nüzü entzüten eztien gizon bat bezala, eta ihardesteko ahuan mihik eztieta bezala.

16. Zütan esparantxa ükhen beütü, Jauna, behatüko zitzaitat, ene Jinko Jauna.

17. Erran beütü: Nitän gañen eztiela alagera ene etsaiak, ene zankhuak ikhara zielakoz, sobera mintzatü beitera nitzaz.

18. Ni azote khaldientako prest beniz, eta ene bihotz mina aitzinian beütü bethi.

19. Aithortüko beütü ene gaizkia, eta goguan beütüket bethi ene ogena.

20. Ene etsaiak hatik bizi tüzü, eta ene kuntra azkhartü, eta ogen gabe hügüntzen naitenak hanitxtü dütüzü.

21. Gaizkiak hunkien ordari emaiten dütenek phorrokatzen nindizien hunki egiten ari nintzalakoz.

22. Enezazüla üt, ene Jinko Jauna, etzitiela hürrünt eneganik.



23. Ene lagüntzea lehia zite, Jauna, Jinko ene salbazalia.

GORANTZA XXXVIII.

Zunbat llabür den bizia.

Ürhentzeko, Dabidek Idithüni hunto zeion khantoria.

1. Erran düt: Begiratüko dütüt ene bidiak, mihiaz ogenik egin eztezadan.
2. Xarranxa bat ene ahuari ezarri deiot ene kuntra jaikiten zelarik ogen gilia.
3. Ixiltü niz eta lürrialat aphaltü; ixiltü niz hitz hunen erraitetik ere, eta ene bihotz mina ara berritü da.
4. Barnian berotü zait bihotza, eta gogokan ari nintzalarik süia gartü zait.
5. Eta erabili düt ene mihia erraiteko: Erakhuts ezadazü, Jauna, ene ürhentzia.
6. Ene egünen saldua nulako den, jakin dezadan zunbait dütüdan orano bizitzeko.
7. Zük izartü beitütüzü ene egünak, eta haien lüzetarzüna ezdeus bezala beita zure aitzinian.
8. Gizon bizi dena ezdeuseria bat beita.
9. Egiazki itzala bezala beitia gizona, eta probetxü gaberik eskarniatzen beita.
10. Diharü athetzen ari da, eta eztaki nurentako athetzen dütien.
11. Eta orai zer da nik ügürikitzekea? Eza ene Jauna? Ene huntarzüin güzia zütan düzü.
12. Solta nezazü ene ogen orotarik, laidogarritü benaizü ertzuaren aitzinian.
13. Ixiltü nüzü, eztit ahua zabaltü ere, hori zük egin düzülakoz. Eztezadazüla haboro eman azote khaldürük.
14. Engoxatü nüzü zure eskü zaparten indar pian. Gizona zaflatü düzü bere gaxtokeriaren gatik.
15. Haren arima eiharterazi düzü añharba bezala. Zinzinki probetxü gabe eskarniatzen düzü gizona.

16. Beha zite, Jauna, ene othoitzari eta heiagorari; entzün itzatzü ene nigar zipak.

17. Etzitiela ixilt, zure aitzinian arrotz eta bidejant baniz ere, ene aita güziak izan dien bezala.

18. Thai eman ezadazü, freska nadin, hebentik juan beno lehen sekülakoz.

GORANTZA XXXIX.

Profetaren eskerrak Jinkuari, langer handi batetarik ideki dielakoz.

Ürhentzeko khantoria Dabidek Dabidi.

1. Debeiatü gabe ügürüki düt Jauna, eta behatü zait.
2. Eta entzün tü ene othoitziak, eta ideki nai miseriako mala zilotik.
3. Zankhuak zenda gañen ezarri deitzat, eta lagüntü tü ene ürhatsak.
4. Eta ahuan ezarri deit khantore berri bat, ene Jinkuari khantatzeko.
5. Hanitxek hori ikhusiko, eta beldürtürük Jaunian esparantxa hartüko.
6. Dohatsü Jaunaren izenian esparantxa dien gizona, ezdeuserier eta falsükeria ertzuer behatü eztena.
7. Miragarri hanitx egin tüzü zük, ene Jinko Jauna, zure goguen parerik ezpeita,
8. Erran ditit bai, eta haiez ere mintzatü nüzü, bena hanitxegitü dütüzü.
9. Dohañak eskent zeitziñ ezütüzü nahi ükhen; beharriak hatik huntü deiztadatzü.
10. Abere errerik ezteitazü galthatü ene ogenaren sari. Erran dit arren ordian: Soizü, nihau horra nitzaizü.
11. Libriaren thinian izkiribatürük düzü, zure nahiküntia egin behar düdala. Hori egin nahi dit, ene Jinkua, eta zure legia bihotz erdian dit.
12. Zure xüxentarzünaren berri eman dit bilkhüra handitan; eztitit ezpañak zerratüko; hori zük badakizü, Jauna.
13. Zure xüxengua eztit gorde, Jauna, ene bihotz barnen; zure egia eta zure ürrikaltarzün huna barreatü ditit kanpuan.
14. Zure ürrikaltarzüna eta zure egia eztitit gorde jente salduer.



15. Zük hatik, Jauna, ezteztatzüla nitarik hürrünt zure ürrikaltarzü-nak; zure ürrikaltarzüna eta zure egia bethi zürkhaitz egon betzaitzat.
16. Gaitz khunt' ahal ezti en eli batek üngüratü nizie; ene gaizkiek atzaman nizie, eta eztitit ikhusi ahal ükhen.
17. Ene bürüko bilhuak beno hanitxagotü düütüzü, eta bihotza galdü dit.
18. Ene soltatzia plazer dakizüla, Jauna; sogidazü, Jauna, eta lagünt nezazü.
19. Nahas ditiela eta ahalkez gorri ene biziaren bilha dabiltzanak, haren ideki nahiz.
20. Gibelialat ütüzül ditiela, eta ahalkez gorri gaitz nahi deiztadenak oro.
21. Behala ahalkez gorri ditiela ene trüfatzeko erraiten deitenak: Hots, hots.
22. Boztario eta alagera ditiela zure bilha dabiltzanak oro eta erran dezela bethi: Handi dadila Jinkua, zütarik horra den salbamentia maite dütenek.
23. Ni hatik eskele eta emüts nüzü; Jaunak arthatzen nizü.
24. Ene lagüntzalia eta ene begirazalia zü zirade. Ene Jinkua etzitiela berant jin.

GORANTZA XL.

Dohatsü dira aholkazaliak eta erien ikhustera juailiak.

Ürhentzeko khantoria Dabidek Dabidi.

1. Dohatsü eskeliaren eta emütsaren beharrak enthelegatzen tien gizona! Egün gaitzian Jaunak begiratüko dü.
2. Begira dezala Jaunak eta lüzaz bizi eraz, eta lürrian dohatsü eraz, eta eztezala ützi bere etsaien nahiala erortea.
3. Jaunak eman dizola sokhorri bere etzangia dolozekuan; ohia egin derozü, Jauna, eri zuguen denboran.
4. Nik, aldiz, erran dit: Ürrikalt zakitzat, Jauna, sendo ezadazüt arima, ogen egin beüt.
5. Ene etsaiek gaizkiz xahatü nizie ziuelarik: Nuiz hilen da eta galdüko haren arima?

6. Eta nurbait ikhustera jiten bazeitan, ezdeuskeriaz mintzo zita-dazün, haren bihotzian gaxtokeria franko athetü beita.
7. Kanporat elkhi unduan ber gisan ere mintzo zütüzün.
8. Ene kuntra koxelüka mintzo zütüzün ene etsai güziak, eni gaizki egiteko gogo beitzüten.
9. Solaz txar bat ene kuntra iaurri dizie: Lo daguena ezteitia iratzar eta araphitz.
10. Eneki bakian bizi zen gizonak, züni ere fida benintzan, ene ogia jaten zienak, bere traidorekeria agert erazi ditazü.
11. Ürrikalt zakitzat, arren Jauna, eta ara phitz eraz nezazü, eta ordaria emanen diet.
12. Ezagütü dit maite naizüla, ene etsaia nigatik eztekeloz alageratüko.
13. Ogen gabe nizalako, hartü naizü zure estalgi pian, baita ere bet-hiko bermatü zure aitzinian.
14. Benedika dadila, Jauna, Israeleko Jinkua, mendez mende. Hala-biz, halabiz.

Khantoren bigarren libria.

GORANTZA XLI.

Khantore huntzaliak Jaunaren eliza ikhusi nahi lüke. Elüke nahi galtha dezen, nun da zure Jinkua.

Ürhentzeko Khoreen semen erakhutspena.

1. Nula ere orkhatzak hasperen egiten beütü üthürriko huretara, hala hala ene bihotzak zure gana, Jauna.
2. Jinko azkhar eta bizi denaz ene arima egarri. Nuiz heltüko niz eta agertüko Jinkuaren aitziniala?
3. Gaiaz eta egünaz nik nigarrak hazkürritako, erraiten deitenian, nun da zure Jinkua.
4. Hoiez ohartürük engoxatü nüzü; igaranen beniz thoxa ederra den güne gainti Jinkuaren etxer'artino;
5. Boztariuan khantalotsez uhatxez eta sonüz barazkaitan ari dienen khantütik.
6. Ene arima, zentako zirade bihotz minetan? Zentako latzten naizü?



7. Jinkuan esparantxa ükhazü orano ere laidatüko beitüt ene ikhugarri salbazalia eta ene Jinkua bezala.
8. Nitán ene arima latztü; hortakoz arren zützaz ohartüko nüzü Jordaneko aldian, Hermoniimeko mendixkan.
9. Osinak osina deithzen zure ühaldien herotsian.
10. Hurrak goratü, eta zure üharriak nitan gainti igaran.
11. Egünaz Jaunak bere ürrikaltarzüna igorri, eta nik gaiaz khantore eginen;
12. Bizia eman deitan Jinkuari nik othoitzez erranen: Ene begirazalia zü zirade.
13. Zentako ahatzü naizü? Zentako nabila bihotza beltztürük, etsaiak eskarniatzen naielarik?
14. Ezürrak phorrokutzen zeiztelarik, gaizkiz xahatzen nindizien eskarniatzen naien etsaiak.
15. Egün oroz erraiten zitazien: Nun da hire Jinkua? Ene arima, zentako zirade bihotz minetan, eta zentako latzten naizü?
16. Jinkuan esparantxa har ezazü, orano ere laidatüko beitüt ene ikhugarri Salbazalia eta ene Jinkua bezala.

GORANTZA XLII.

Khueinta eta othoitze Jaunari.

Dabiden khantoria.

1. Jüja nezazü, Jinkua, eta berhez ezazü ene egitekua nazione saintü eztenaren artetik, idek nezazü gizon gaxto eta falsü denaren eskütik.
2. Zü ene indarra izan eta, Jinkua, zentako ohiltü naizü? Eta zentako bihotza beltzik ebiltzen niz, ene etsaiak eskarniatzen naielarik?
3. Zure argia eta zure egia igor itzadatzü, lagüntüko benaie eta eramanen zure mendi saintiala eta zure thoxetar'ano.
4. Eta heltüko nüzü Jinkuaren altharial'ano ene gaztarua alageratzen dien Jinkual'ano.
5. Arabitareki laidatüko zütüt, Jinkua, ene Jinkua. Ene arima, zentako zirade bihotz minetan? Eta zentako latzten naizü?
6. Jinkuan esparantxa ükhazü, orano ere laidatüko beitüt ene ikhugarri Salbazalia eta Jinkua bezala.

GORANTZA XLIII.

Khantore huntzalia mintzo da lehenago Jinkuak egin düiten gaiza miragarriez.

Ürhentzeko, Koreen semer enthelega ahal ezen.

1. Jauna, gure beharriez entzün tizügü, gure aitek erran dizkützie,
2. Haien denboran eta lehenagoko denboran egin dütüzünak.
3. Zure eskiak arrabaskatü tizü eta zük beren günetan ezarri tüzü nazioniak; zaflatü eta ohiltü tüzü popüliak.
4. Beren ezpataz ezpeitüte lür hau irabazi, eta beren besuak ezpeitütü salbatü,
5. Bena bai zure esküñak eta zure besuak eta zure begitharteko argiak, maithatü nahi ükhen tüzülakoz.
6. Zü zihau zirade ene erregia eta ene Jinkua; manha zazü salba dadin Jakob.
7. Zure medioz tütez aizatüko tizigü gure etsaiak, eta zure izenian eztikezügü gure kontra jaikiten direnen axolik.
8. Eztiket ja esparantxarik ene üzteian, eta enizü ene ezpatak salbatüko.
9. Gure eskarniazaletarik salbatü gütüzü, gure hügüntzaliak ere ahalkerazi dütüzü.
10. Egün oroz loriatüko gütüzü Jinkuan, eta laidatüko dizügü bethi zure izena.
11. Orai hatik ohiltü eta ahalk'erazi gütüzü; eta gure indarreki etzira-de haboro ebili nahi, Jinkua.
12. Gure etsaien aitzinetik laster egin erazi deiküzü, eta hügüntzen güntienen janhari izan gütüzü.
13. Eman gütüzü artzarrak bezala, eta barreatü gütüzü nazionen artian.
14. Dohañ saldü düzü zure popülia, erosliak merke merkia ükhen beitü.
15. Gure aizuen laidogarritü gütüzü, gure aldian direnak erriz trüfatzten ari zizkützü.



16. Nazionen artian khürsuak bezala ezarri gütüzü, büria khordokatzen dizie gure ikhustian.
17. Ahalkia begietan dit egün oroz; ene begiharteko ahalkiak estaltzen nizü.
18. Entzütän düdanian gaizki erraiten deitanaren mintzua, eta ikhustän düdanian ene etsai eskarniazalia.
19. Gaña jin zizkützü gaitz hoiak oro, eta ahatze etzütügü, eta zure ordeñiari eztizügü mentsik egin.
20. Eta gure bihotza etzeizü gibeltü, eta gure ürhotsak eztütüzü zure bidetik okhertü.
21. Zük aphalt erazi gütüzü bihotz mineko lekhian, eta üngüratü gitizü herioko itzalak.
22. Ahatze badügü gure Jinkuaren izena, hedatü badütügü gure eskiak Jinko arrotz baten ganat,
23. Ezteikia Jinkuak berri galthatüko? Harek beitakitza bihotzeko berriak.
24. Zure gatik hiltzen beikira egün oroz, eta igaraiten ere erhorik izan behar dien artzar eli batentako.
25. Jaiki zite, zentako lo zaude, Jauna? Jaiki zite, eta bethi ere ezkitatzüla zure ganik ohilt.
26. Zentako bazterrialat ützültzen deiküzü zure begihartia, eta zentako ahazten düzü gure emütsgua eta gure eskarniua?
27. Gure arima erhautsian herresta diagozü, eta gure sabela lürrari josirik düzü.
28. Jaiki zite, Jauna, lagünt gitzatzü, eta zure izenaren amorekatik eros gitzatzü.

GORANTZA XLIV.

Ezteietako khantoria. Züñen eder eta balius diren ezkunt goien hatiak.

Ürhentzeko, khanbiatüko direnen; Khoreen semek khantatzeko; maitenaren khantoria.

1. Ene bihotzak huntü dü elhe hun. Erregeri diotzat egin dütüdanak.
2. Ene mihia zalhüki izkiribatzen dienaren lüma.

3. Gizon semen ederrena! Ezpañetan düttüzü edergalliak, hortakoz bethiko hunetsi zütü Jinkuak.
4. Ahal handiko gizona, zure azpiari jünto ezar ezazü ezpata.
5. Zure itxura ederrareki, hed'ezazü ützeia, dohatsüki ebil zite, eta bazterrez nausi zite.
6. Egian, ürrikaltarzünian eta jüstizian; eta miragarriki lagüntüko zütü zure esküñak.
7. Zure tragoza zorrotzek pialatüko deitzie popüliak, eta sarthüko düttüzü erregeren etsaien bihotzia lano.
8. Jinkua, zure jargia mendez mende egonen düzü; zure bürüzagi-guako zaharua, zaharo lerdena beita.
9. Maithatü düzü jüstizia, eta hügüntü gaxtokeria; hortakoz Jinkuak, zure Jinkuak, berekatü zütü boztariozko oliuaz zure khiden artian.
10. Mirha eta inseñsü eta kanela üsañ iaurtzen dizie zure arroppek eta zure bolizko etxek, gozatzerä eman beteitzie erregeren alhabek.
11. Ürhezko arropak jauntsirik erregeña zure esküñian diagozü edergallüz üngüratürik.
12. Beha zite, ene alhaba, soizü eta zabalt ezazü zure beharria; ahatz etzatzü zure herritarrak eta zure aitaren etxia.
13. Eta erregek maithatüko dizü zure edertarzüna, zure Jinko Jauna beita, eta othoitüko dizie jentek.
14. Tirreko neskatilek dohañak ekharriko deitzie, eta popülüko abertsek othoitüko zütie.
15. Erregeren alhabaren loria oro barnian, ürhezko bilbetan eta jauntsteko edergallietan.
16. Hartarik landan neskatila gazte eramanen erregeri, eta haren askazi hüllanenak eskentüko deitzie.
17. Boztariuan eta alagranzian ekharriko tizie, baita ere eramanen erregeren palaziuat.
18. Zure aiten ordari sorthü zaitzü semiak, ezarriko beittütüzü lür güziaren bürüzagi.
19. Zure izenaz ohartüko tüzü undoriotik undoriuala.
20. Hortakoz popüliek laidatüko zütie bethi eta mendez mende.

GORANTZA XLV.

Gerlako langeretarik elkhi delakoz eskerrak emaiten tü.



Ürhentzeko, Koreen semer, koxelientako.

1. Jinkua gure ihes lekhia eta indarra, soberazko heltü zaizkün eskar-nio gaxtuetan gure lagüntzalia.
2. Hortakoz ezkirade izitüko lürra erroz gora baledi ere, eta mendiak itxas barniala lürtürük ere.
3. Hurrek herots handi eta builta egin düte; mendiak iralli tü haren indarrak.
4. Ibaieko builta handiak alageratzen Jinkuaren hiria. Gañgañkuak xahatü bere egongia.
5. Hiri erdian beitago Jinkua, ezta khordokatüko; Jinkuak sokhorritüko beitü argi hastetik.
6. Nazioniak harritü dira, eta erresumak iralli; mintzatü da, eta lürra ikharatü.
7. Indarren Jauna gurekila; Jakoben Jinkua gure begirazale.
8. Tziauste, eta ikhus etzatzie Jaunak eginik lür gañen ezarri dütien gaiza miragarriak; ükhüz'azten tielarik gerlak mündü bazterretik bazterriala.
9. Hautsiko dü üztea, eta phorrokatüko tü armak baita eskütak süian ezarriko.
10. Egon zizteie ükhürü, eta ikhus ezazie ni Jinkua nizala: Goratüko niz nazionen artian eta goratüko niz lürrian.
11. Indarren Jauna gurekila; Jakoben Jinkua gure begirazale.

GORANTZA XLVI.

Khantore huntzaliak khümitatzen tü nazioniak Jaunaren laidorriuen khantatzea.

Ürhentzeko, Koreen semen khantore huntia.

1. Nazioniak, eskü zapartotsez khant'ezazie Jinkuaren loria alagran-ziako botzian.
2. Jauna gora eta lotsagarri beita; Errege handia lür güzian.
3. Eskü pian ezarri deizkü popüliak, zankho petan aldiz nazioniak.

4. Berhezi deikü behar günien lekhia, Jakob maithatü dienaren edergallia.
5. Goiti igaran da Jinkua uhatsez, eta Jauna tütotsez.
6. Obeta egiozie gure Jinkuari, obeta egiozie; obeta egiozie gure Erregeri, obeta egiozie.
7. Lür güziko errege beita Jinkua, obeta egiozie zühürki.
8. Jinkua erregeguan date nazionen gañen; Jinkua jarriko da bere hoki saintian.
9. Popülien aitzindariak Abrahamen Jinkuari jüntatü dira, lürreko Jinko azkharrak hanitxegi goratü dielakoz.

GORANTZA XLVII.

Jaunak erakhutsten dü bere photeria bere egongian eta Jerusalemen, eta agert erazten ere bere loria mündü bazterrialana.

Koreen semen khantoria, asteharteko.

1. Jauna handi da, eta gorantzagarri, gure Jinkuaren hirian, bere mendi saintian.
2. Sioneko mendiak, errege handiaren hiriak, heguaren aldiand zimentiak, lür güziaren boztariotako.
3. Hanko etxetan ezagütüren Jinkua, jarten zeikenian althe.
4. Lürreko erregek bilkhüra egin beitüte, eta jüntatü beitira hiriaren kuntra.
5. Hiria ikhusi unduan, espantatü dirade, latztü eta harritü, eta ikharatü.
6. Han saminak eta haurminak. Zure heguan phorrokatü tüzü Tharseko untziak.
7. Entzün dütügün bezala, ikhusi ditzügü hoiek. Indarrezko Jauna hirian, gure Jinkuaren hirian, bethiko Jinkuak zimentatü dianian.
8. Heltü ziküzü, Jinkua, zure ürrikaltarzüna zure egongia erdian.
9. Jinkua, zure loria, zure izenaren arabera, hedatzen düzü lür bazterretara; ahür esküña jüstiziaz betherik düzü.
10. Goza dadila Sioneko mendia, eta alagera ditiela Jüdako neskatilak, zure jüjamentien gatik, Jauna.



11. Üngür'ezazie eta besarka Sion; iaur etzatzie berri hoiek hanko thorre gañetarik.

12. Zien bihotzak ezartzie haren indar gañen, eta hanko etxiak khuntetzatzie, zunbat diren erraiteko zien undokuer.

13. Hau beita Jinkua, gure bethiko Jinkua, eta mendez mendekua, eta hunek bethi ernatüko beikütü.

GORANTZA XLVIII.

*Aberatstarzünen ezdeuseria; ezpeitiote begira ez eman bizia.
Heriua ooren bürüzagi eta bardinzale.*

Ürhentzeko, Koreen semen Dabidek huntü khantoria.

1. Beha ziteie, jentia; ern'itzatzie beharriak, lürreko ekhoiliarek orok;

2. Lür lanthzalek eta aitun semek, aberatsek eta emütsek.

3. Ene ahua; erakatsiko dü zühürtzia, ene bihotzeko gogokak aldiz, eginbidia.

4. Ene beharria aphaltüko dü ikhasi düdania; sonian edirenen dü erran behar dükedana.

5. Zentako beldürtüren niz egün gaitzian? Ene aztaleko gaxtokeriak üngüratzen nai.

6. Bere indarrer fida dienak, eta bere huntarzün handiez loriatzen direnak, beha bite.

7. Anaiak anaia eztü erosten, aurhide eztenak erosiko dia? Jinkuaren balakatzeko deusik eztü emaiten,

8. Bere biziaren eros sari; eta bethi eskarniuan dago, eta halarik ere ürhentzialano biziko da.

9. Eztü ikhusiko heriua, zühürak hiltzen ikhusten düzkienian. Bürü mentsa eta ertzua bardin dirade galdüko;

10. Eta arrotzer ützi dützte bere huntarzünak mendez mende hobiak beitzükete etxetako;

11. Eta egongiatako undoriuetarik undoriuetarano, nahi bada bere izenak ützi dützten bere lürren.

12. Eta gizonak laidoriuetan zelarik eztü enthelegatü, abere enthelegü gaben bardintü beita, eta haien üdüri jarri.

13. Hau da haien bide behatztopeazlia, eta halarik huntaz mintzatzeko gozo dütü.

14. Ardiak bezala ifernian sarthü dira, eta heriuak jan dütü.

15. Goizik goithüko dützte jüstuek, eta bere loriaz pikarraitü diatienian, ifernian thüstotüko zaie bere lagüntzalia.

16. Jinkuak hatik idekiko dü ene bizia ifernüko aztaparretik, bere estalgi pian hartüko naenian.

17. Ez beldürt gizon bat aberatstü datenian, eta etxia loriaz mükhürri dükienian.

18. Hiltzen datienian ezpeitütü oro eramanen, eta haren loria ezpeita harekila eraitsiren.

19. Bizi deno hunetsirik date haren arima. Laidatüko zütü hunki egiten baderozü.

20. Sarthüko düzü bere aita zaharren egongian, eta mendez mende eztizü haboro argia ikhusiko.

21. Gizonak laidoriuetan zelarik eztü enthelegatü, abere enthelegü gaben bardintü beita, eta haien üdüri jarri.

GORANTZA XLIX.

Jüje gehienak, bere aitziniala deithü unduan popüliak, aphezak eta jüjiak, mehatxü egiten deie beren falsükieren, gaizkien eta gaxtokieren gañen.

Asafen khantoria.

1. Jinkuen Jinkua, Jauna mintzatü da, eta lürri oihü egin deio.

2. Ekhi jalkhigiatik etzangialano. Sionetik horra da bere edertarzünian.

3. Ageririk jinen da Jinkua, gure Jinkua, eta ezta ixiltüko.

4. Sü-garrak aitzinian dütüke eta arogaitzak üngürían.

5. Zeliak behera eta lürra gora deithüko dütü, behez ezen haren popülia.

6. Bil itzotzie bere saintiak, eta hari sakrifizio egiteko hitz hartü tienak oro.



7. Eta zeliak erranen düte haren xüengua, Jinkua xüxen beita.
8. Behadi, ene popülia, eta mintzatüko nük; Behadi, Israel, eta zin-zinki erranen deiat: Ni nük Jinkua, hire Jinkua.
9. Enitzaik hire sakrifiziuen gatik khexatüko, hik errerik eskentzen deitztadanak bethi beitütüt aitzinian.
10. Hire etxetik eztiat xahalik hartüko, ez eta ere hire arresetarik akherrik.
11. Eniak beitrade bortietako basa ihiziak oro, mendietako bohorrak eta idiak.
12. Zelietako hegaltariak oro ezagützen ditiat; alhorretako edertarzüna nitarik horra dük.
13. Gose baniz, ezteiat erranen gose nizala, enia delakoz lür güzia eta edeiten diena.
14. Janen düta zezen aragitik? Edo edanen akher odoletik?
15. Eskent ezok Jaunari laidoriozko sakrifizio, eta Gañgañkuari etxek itzok hitzemanak.
16. Oihü egin hizadak eskarnioko egünian. Nik soltatüko hait, eta laidatüko naik.
17. Ogen giliari, aldiz, Jinkuak erran deio: Zentako mintzo hiz ene xüenguaz? Eta zentako dabilzak ene elhiak hire ahuan?
18. Hik hezkola hügüntü dük, eta bazterrialat urthuki tük ene hitzak.
19. Uhuña ikhusten bahien, hareki juaiten hintzan, ohaiden pharteliant izaten hinzan.
20. Maleziaz betherik hien ahua, eta mihia falsükeria bilha erabilten hien.
21. Jarri unduan, hire anaieren kuntra mintzo hintzan, eta behatztopagia egiten heion hire amaren semiar. Hola ar'izan hiz, eta ixilik egon nük.
22. Gaxto txarra, uste ükhen dük hire üdüri nintzatiela; arranküratüko nitzatik bai, eta hiauren aitzinian ezarriko hait.
23. Hori entheleg'ezazie, Jinkua ahatzten düzienek, eramanik izan etzizteien, eta soltazale gabe egon etzizteien.
24. Laidoriozko sakrifiziak ni laidatüko; hor da erakhatsiko düdan bidia Jinkuaren salbamentiala heltzeko.

GORANTZA L.

Dolütan den arima baten othoitzia. Jinkuak nahiago düti bihotz-minak eziez errerik eskentzen zaitzon aberiak. Aberiak eskentüren deitze Jaunari Jerüsalemeko harrisiak ara egten diatienian.

Ürhentzeko Dabidek huntü zien khantoria profeta Natan jin zeionian mehatxü egitera, gaizki egin zielakoz Bethsabeeareki.

1. Ürrikalt zakitzat, Jinkua, zure ürrikaltarzü handiaren arabera.
2. Eta zure huntarzü handiaren arabera xahezazü ene gaizkia.
3. Ükhüz eta ara ükhüz nezazü ene gaizkitik, eta xuri nezazü ene ogenetik.
4. Egin düdan gaizkia ezagützen beitüt, eta ene ogena ene kuntra beitüt bethi.
5. Zuri zihauri ogen egin deizüt, eta gaizki egiten ari izan nüzü zure aitzinian; hori aithortzen dit zure hitzak xuri ahal ditién, eta erraiteko gabe zirela jakin dezen jüjatzen zütienek.
6. Badakizü gaizkian eginik izan nizala, eta ogenetan sorthü naiela ene amak.
7. Zük egia maite ükhen beitüzü; agertü deiztatzü zure zühürtarzüneko bidexkak eta gordalliak.
8. Isopuaz ihizatüko naizü, eta xuritüko nüzü; ükhüziko naizü, eta elhürra beno xuriagotüko nüzü.
9. Ene beharrier entzün eraziko derezü alagranziazko eta boztariozko hitz eli bat; eta ene ezür phorrokatia jautzeka ariko tüzü.
10. Ene ogenetarik bazter ezazü zure begithartia; eta xaha itzatzü ene gaizki güziak.
11. Bihotz xahü bat nitan ezar ezazü, eta izpiritü xüxen bat nitan barren berri ezazü.
12. Enezazüla ohilt zure aitzinetik; eztezadazüla idok zure izpiritü saintia.
13. Emadatzü boztariua eta salbamentia, eta zürkhaitz nezazü zure izpiritüaren indarraz.
14. Gaxtuer erakhatsiko tit zure bidiak, eta sinhets gabiak zure ganat ützüliko tüzü.



15. Solta nezazü, Jinkua, ene salbamentüko, Jinkua, ixuri düdan odolatik, eta ene mihia alageratüko düzü zure jüstizian.

16. Jauna, zabaltüko tüzü ene ezpañak, eta ene ahuak barreiatüko tizü zure laidoriuak.

17. Sakrifizio, nahi ükhen bazünüzün, egin neikezün; bena errerik eskentia etzeitzü agrada.

18. Izpiritü phorrokatia Jinkuaren sakrifiziorik agradena; Jinkua, eztüzü bazterrialat ützioko samintürük eta phorrokaturük den bihotza.

19. Zure huntarzünian, hunki egiozü, Jauna, Sioneri, altxa ahal ditien Jerüsalemeko harrisiak.

20. Ordian agradatüko zaitzü jüstiziazko sakrifiziua, oberendak eta errerik eskentzen zaitzün aberiak; ordian althare gañen ezarriko deitzie xahalak.

GORANTZA LI.

Doeg Idümearrari Dabidek egin zeitzon mehatxiak, Jaunaren aphezak Saulek erho zütuelakoz.

Ürhentzeko, Dabidek enthelegatü dü Doeg Idümearrak Sauli salhatü diela nula jin den Akhimelekhen etxera.

1. Zentako malezian loriatzen zirade, gaizki egile azkharra?
2. Egün orotan gaizkiari gogoz ari izan düzü zure mihia, bizar nabe-la zorrotzak bezala, falsükeria egin düzü.
3. Hunki egitia beno maitiako ükhen düzü malezia; gaxtokeria xüxenguan beno laketago izan zira.
4. Mihi lüze falsia, laketü zirade solaz galgarri güzietan.
5. Hortakoz, arren, Jaunak galdüko zütü; khentüko zütü eta zure etxanotik kanpo igorriko; eta bizien artetik erroz gora ezarriko zütü.
6. Jüstuek ikhusiko dizie, eta ikharatüko tüzü, erri egitez dioielarik,
7. Hau düziela Jinkua lagüntzala hartü eztien gizona, bere aberats-tarzün handietan esparantxa ezarri diena, eta bere handiguan hantü dena.
8. Ni, aldiz, oliotze frütüz lehertia bezala niz, Jinkuaren etxen Jinkuaren ürrikaltarzünian ezarri dü ene esparantxa sekülakoz, mendez mende.

9. Bethi laidatüko zütüt hola egin deitazülakoz; eta ügürükiko dit zure izena; hun delakoz zure saintü güzien aitzinian.

GORANTZA LII.

Gaxtuen sinhets gabegua. Harritürük eta ahalketürük daude. Bahi daguen ginetik Jaunak idekiko dü bere popülia.

Ürhentzeko; Dabidek huntü khantoria, Maeleten eskolatzeko.

1. Ergelak bere bihotzian erran dü: Ezta Jinkorik.
2. Hirotü eta hügüntgarritü dirade bere gaxtokeria; ezpeita bat ere hunki egiten dienik.
3. Zelü gañetik Jinkuak gizon semer sogin dee, ikhusteko eia haietan badenez enthelegedünik, eta Jinkuaren bilha dabilanik.
4. Bide hunetik oro baztertü dirade eta banotü, haietan hunki egiten dienik ezpeita bat ere.
5. Enaieia ezagütüko gaizki egilek, ene popülia, ogia bezala, jaten diren haiek?
6. Eztüte oihürük Jinkuari egin; beldürrez ikharatü dirade, beldürrik etzen lekhian;
7. Gizoner plaser egilen ezürak barreiatü tielakoz Jinkuak; ahalketü dirade Jinkuak mesperetxatü dütielakoz.
8. Sionetik nurk emanen dü Israeleko salbamentia? Jinkuak akab'e-razi dükienian bere popüliaren bahigua, Jakob boztariotüko da, eta Israel alageratüko.

GORANTZA LIII.

Bere etsaien kontra Dabidek Jinkuari galthatzen deio sokhorri; eta goithüko dütiela esparantxa dü.

Ürhentzeko; khantoren gañen Dabiden erakhutspe-na Ziftarrak jin zirenian Sauli erraitera: Dabid ezta-gua gure artian gorderik?



1. Jinkua, zure izenian salba nezazü, eta zure indarrian ene althe jar zite.
2. Jinkua, beha zite ene othoitziari, eta beharriak hed'itzatzü ene ahoko hitzetara.
3. Arrotzak ene kontra jaiki beitirade, eta azkarrek bizia ideki nahi ükhen beteite, eta ezpeitüte Jinkuari kasürik egin.
4. Jinkuak hatik ni lagüntzen nai, eta Jaunak begiratzen deit bizia.
5. Ene etsaier igor itzetzü gaizki egin nahi deiztadenak, eta zure egia- ren arabera arrabaska itzatzü.
6. Gogo hunez eskentüko deizüt oberenda, laidatüko ere dit zure izena, hun delakoz, Jauna.
7. Soltatü benaizü eskarnio orotarik; eta ene begiak ene etsaien axo- lik ezpeitü ükhen.

GORANTZA LIV.

Dabiden othoitzia langer handi batetan. Mintzo da bere etsaien gaxtokeriaz. Jinkuari fida beita hari ogen egliak galdüko direla dia.

Ürhentzeko. Khantoren gañen. Dabiden enthelegia.

1. Entzün ezazü, Jinkua, ene othoitzia, eta eztezazüla mesperetxa ene heiagora; eztiki sogidazü, eta beha zakitzat.
2. Bihotza belz dit othoitzen aritzian; büria nahasirik dit, ene etsaia- ren oiha eta ene ogengiliaren eskarniua dela kausa.
3. Bizkarriala ezarri diztatzie ogen eli bat, eta bere khexian samintü nizie.
4. Bihotza phanpaz hasi zitazüt barnen, eta herioko lotsak garhaitü nüzü.
5. Beldürra eta ikhara gaña jin ziztatzü, eta ülhünpiak estali nüzü.
6. Eta erran dit: Nurk emanen deiztat hegalak ürzuari bezala, hegal- ta eta phausa nadin?
7. Ihes juaitez hürrüntü nüzü, eta desertian egon,
8. Bihotzaren galzetik eta aro gaitzetik begiratü naienaren haidürü.

9. Arrabask'itzatzü, Jauna, eta mihiak barreia itzetzü; hiria ikhusi beität gaxtokeriaz, eta bai-ez-keriaz betherik.

10. Gaiaz eta egünaz hanko harrisi üngürrien gañen diagozü gaxtoke- ria, erdian dielarik lana eta okherkeria.

11. Hanko plazetan uhuñkeria eta falsükeria franko badüzü.

12. Ene etsaiak gaitzetsitü banündü, enizün hitzik ere erranen.

13. Eta hügüntzen nündienak nitzaz gaizki handi erran balü, behar bada gorde nüdükezün harenganik.

14. Bena inganatü naizü zük, ene khidia, ene aitzindaria eta ezagüna,

15. Eneki gaiza hun jalia, eta Jinkuaren etxera juailia.

16. Holakuer heriua hel dakiela, eta bizirik ifernalat eraits ditiela.

17. Egongiak eta beren barnia gaxtokeriaz betherik beitätzte.

18. Nik hatik oihü egin Jaunari, eta Jaunak ni begiratüko.

19. Arratsen, goizan eta ügerditan nik Jaunaren ürrikaltarzüna erra- nen eta laidatüko, eta Jauna eni behatüko.

20. Bakian ene bizia erosiko deie ene ganat hüllantzen diener hanitx beitirade ene kontra.

21. Jinkua eni behatüko, ene etsaiak aldiz egotxiko, menden aitzine- tik beita.

22. Ezpeitirade khanbiatzen eta Jinkuaren beldürrik ezpeitüte. Hedatü dü bere besua haier ordariaren emaiteko.

23. Theiütü düte haren adixkidegua; haren begitharteko khexiak barreatü dütü, eta haren bihotzak güdükatü.

24. Haren solazak oliua beno eztiago, bena zorrotz.

25. Ützazü Jaunari zure artha, eta haziko zütü; xüxen dena sekülan eztü bere gora-beheretan ützi.

26. Zük hatik, Jauna, gaxtuak eramanen tüzü herioko zilualat.

27. Gizon odolkhoiak eta falsiak ezpeitira heltüko bere biziko egün erdietara; nik hatik zütan ezarriko dit, Jauna, ene esparantxa.

GORANTZA LV.

Bere etsaien artian bihotz minetan den gizon baten othoitzia. Jau- nari emaiten deitzo eskerrak salbatü dielakoz.

Ürhentzeko; gaiza xahietarik hürrüntü den popülia- ren gañen. Hitz hoiek izkiribatü zütien Dabidek



**harri batetan, Jetheko günian Filistinek
baratü zütenian.**

1. Ürrikalt zakitzat, Jinkua, gizonak zankho petan erabili benai; egün orotan zaflaka ari izan betzait, eta eskarniatü benai.
2. Egün orotan zankho petan etsaiek erabili nizie, eni gerla egiliak hanitx beitirade.
3. Ügerditan ere beldür nükezü, bena zütan diket esparantxa.
4. Jinkuan laidatüko tüt erran deitzadanak, Jinkuan beität esparantxa; eniz beldür izanen zerbait egin dizaden gizonek.
5. Egün orotan ene elhiak hastiatzen zütüzten; eni gaitzki egiteko züten gogua.
6. Algarganatüko dira, eta gorderen, eta ene ebilketen erphai egonen.
7. Bizia ideki nahi beiteitade, deusentako ere eztütüzü zük salbatüko, zure khexian phorrokatüko tüzü popüliak.
8. Eman deizüt, Jinkua, ene biziaren berri; ene nigarrak ezarri tüzü zük zure aitzinian.
9. Hitzaman deitadazün bezala, ütüzül ditiela ene etsaiak gjbelialat.
10. Zuñ nahi egünez oihü zuri eginik ere, ezagützen dit ene Jinkua zirela.
11. Jinkuan laidatüko dit hitza, Jaunian laidatüko dit solaza; Jinkuan esparantxa hartü beität, enüzü lotsa deusik egin deizaden gizonek.
12. Nitän ditit, Jinkua, hitzaman deitzüdanak, eta zor deitzüdan laidoriuak.
13. Heriotik salbatü beitätü ene bizia, eta lezetik ene zankhua, ni agrada ahal nadin Jinkuari bizi dienen argian.

GORANTZA LVI.

Bere bihotz min handian Jinkuari sokhorri galthatzen deio Dabidek, hitzamaiten ere laidoriuak bazter orotan barreiatüko deitzola.

Ürhentzeko. Ez gal. Bi hitz hoiek Dabidek izkiribatü zütien, kharbe batetan sarthü zenian, Saulen ihes zuelarik.

1. Ürrikalt zakitzat, Jinkua, ürrikalt zakitzat, ene arima zuri fida beita.
2. Eta zure hegalen itzalpian esparantxa diket, gaizkia igaran artio.
3. Oihü eginen düt Gañgañko Jinkuari, hunki egin deitadan Jinkuari.
4. Zelütik igorri dü, eta soltatü nai; ahalkez gorri erazitü ene ostikazaliak.
5. Jaunak igorri bere ürrikaltarzüna eta bere egia, eta ene bizia idoki lehu hümen ahotik. Lotsan lo egin düt.
6. Gizon semen hortzak armak eta flexak bezañ zorrotz; eta haien mihia ezpata zorrotza.
7. Zeliak beno gorago altxa zite, Jinkua, eta zure loria argi dadila lür orotara.
8. Zephua adelatü dizie ene zankhuentako, eta künkürtü ditazie arima.
9. Ene begien aitzinian egin dizie zilo bat, eta hartara erori tüzü.
10. Adelatürik düzü ene bihotza; Jinkua, adelatürik düzü ene bihotza, khantatüko dit, eta arrapikotsez ariko nüzü.
11. Jaiki adi, ene loria; iratzar zizte, ene sonia eta arrabita, goizik jaikiko beniz.
12. Laidatüko zütüt, Jauna, popülien artian eta nazionen artian khantarrapikotsez ariko nitzazü.
13. Zure ürrikaltarzüna handitü delakoz zeliatarano, eta zure egia odeietarano.
14. Zeliak beno gorago altxa zite, Jinkua, eta zure loria argi dadila lür orotara.

GORANTZA LVII.

Aholkari gaxtuer mehatxü Dabiden kuntra khex erazten zütela-köz Saul.

Ürhentzeko. Ez ni gal. Hitz hoiek izkiribatü zütien Dabidek harri baten gañen.

1. Egiatzki mintzo bazireie, jüstiziaren arabera xüxenki jüj'ezazie, gizon semiak.
2. Bena bihotzian gaxtokeria huntzen ari zizte; eta gaizki baizik eztütien zien eskiek egiten lürrian,



3. Sorthüz geroztü xüenguari gibeltü dira ogengiliak, amaren sabele-tik elkiz geroztü herratü dirade eta gezürrez mintzatü.
4. Sügia bezala oldartürük, süsker beharriak thapatzen dütiäna beza-la gortürük,
5. Inkantazalen mintzuaren, eta egerki inkantazale sorginarenaren ez entzütöko.
6. Jinkuak hautsiko deitze hortzak ahuan; Jaunak erhautstüko dütü lehuen haginak.
7. Ezdeustüko dirade igaraiten den üharria bezala; hedatü dü bere üztea egotx ditien artio.
8. Hurtzen den ezkoa bezala, eramanik dirate, gaña eroriko zaie inñha-zia, eta eztüte ekhirik ikhusiko.
9. Haien ilhorriak adartü beno lehen, bere khexian iretsiko tü bizirik bezala.
10. Gizon xüena boztariotüko mendekiaren ikhustian, bere eskiak ükhüziko tü ogengiliaren odolian.
11. Eta gizonak erranen dü: Probetxü dienaz geroz xüenak, bada arauz lürrian gizon jüjazale Jinko bat.

GORANTZA LVIII.

Langer handian etsaiez üngüratürük denaren othoitzia. Jauna ürri-kaltzen zaio.

Ürhentzeko. Ez ni gal. Hitz hoiek izkiribatü zütien Dabidek, Saulek igorri zeitzonian jentiak, bere etxen begira eta erho lezen.

1. Idek nezazü ene etsaien eskietarik, ene Jinkua, eta solta nezazü ene kuntra jaikiten direnetarik.
2. Idek nezazü gaitzki egilen artetik, eta salba nezazü odolkhoi diren gizonetarik.
3. Atzaman beteite bizia, gizon azkarrak gaña erori betzaiztat.
4. Gaizkirik ez eta ere ogenik eniezün egin, Jauna; laster egin dit, eta ebili nüzü ogen gabe.
5. Jaiki zite nitara heltzeko, eta soizü zük, Jauna, indarren Jinkua, Israeleko Jinkua.

6. Abia zite nazione güzien ikhustera juaiteko, eta gaizki egiler etzi-tzaitzela batere ürrikalt.
7. Arratsen ütülükö tüzü, txakürrek bezala gosetürük, eta hiri üngü-rian ebilükö tüzü.
8. Elhe diokezü haien ahuak, ezpañetarik txilintxau dizie ezpata bat, dioielarik: Nurk entzün gütü?
9. Eta zü, Jauna, haiez trüfatükö zirade; ezdeustükö tüzü nazioniak oro.
10. Ene indar güzia begiratükö deizüt, zü zielakoz, Jinkua, ene begi-razale.
11. Ene Jinkuaren ürrikaltarzüna ixil ixila enegatükö.
12. Jinkuak ikhasiko deit zer egin nahi dien ene etsaier; eztetzatzüla erho, ahatz eztezen ene popülia.
13. Zure indarraz barreia itzatzü, eta lürrialat eror eraz ene begiraza-le Jinkua;
14. Haien ahoko gaizkia, eta ezpañetako solazak diela kausa; eta bere harroguan atzaman ditiela.
15. Eta erranik daite, galtzeko aruan, hügüntgarritü eta gezürtitü zire-la, Jaunaren khexiak iretsirik, hurtü diratienian.
16. Eta badakike nula den Jinkua Jakoben eta lürreko bazterren bürü-zagia.
17. Arratsen ütülükö tüzü, txakhürrek bezala gosetürük, eta hiri üngü-rian ebilükö tüzü.
18. Hazkürri bilha barreiatükö tüzü, eta arranküratükö ere, asetzen ezpalinbadia.
19. Nik, aldiz, khantatükö dit zure indarra, eta goizan goizetik lai-datükö zure ürrikaltarzüna.
20. Ene begirazalia, eta ene ihes lekhia zirelakoz, eskarnioko egünian.
21. Khant arrapikotsez ariko nitzaizü, ene lagüntzalia zirelakoz, ene begirazale Jinkua; ene Jinkua ürrikaltü betzait.

GORANTZA LIX.

Khantore huntzaliaren khueintak, Jinkuak zeren zaflatü dien bere popülia. Othoitzen dü Jinkua solta dezan eta beha dakion. Hitzamaiten dü goithükö dütiela Sikhentarrak, Galaadtarrak,



*Manasetarrak, Efraimtararak, Moabetarrak, Idümeatararak eta
Filistinak.*

**Ürhentzeko. Khanbiatürik diatenen. Bere khantoria-
ren aitzin begi hitz hoiak izkiribatü zütien Dabidek,
erre zütienian Siriako Mesopotamia eta Sobaleko
aldia, eta Joabek zaphatü zienian Idümea, Gatzüthü-
riko ibarrian, hamabi mila gizon ohilt erazirik.**

1. Jauna, zük ohiltü eta phorrokatü gütüzü; khexatü zitzaizkü, eta ürrikaltü.
2. Khordokatü düzü lürra, eta ikhar'erazi; sendotzotzü bere minak khordokatü delakoz.
3. Garatz izan zira zure popüliaren; edan erazi deiküzü dolümeneko arduetik.
4. Zure beldür diener kheñü egin derezü, elkh litien zure üzteiaren eretzetik;
5. Zük maite tüzünak solta litien; salba nezazü zure esküñaz, eta beha zakitzat.
6. Jinkua mintzatü da bere saintiaz: Boztüko niz eta zathikatüko dü Sikhem, eta izartüko oihal-olhetako ibarra.
7. Enia da Galaad, enia da Manases, eta Efraim ene bürüko indarra.
8. Jüda ene errege, Moab aldiz ene esparantxa untzia.
9. Ene ürhatsak hedatüko tüt Idümealano; atzeak esküpien düüt.
10. Nurk eramanen nai azkhar den hiriala? Nurk eramanen nai Idümeala?
11. Eza zük, Jinkua, nahi bada ohiltü gütüzün? Etziradia, Jinkua, gure indarren aitzinian ebiliko?
12. Emagüzü lagüntza eskarniotik elkitzeko, gizonak ezpeikiotze salba.
13. Jinkuareki eginen dügü indarkeria, eta harek ezdeüstüren dütü gure eskarniazaliak.

GORANTZA LX.

*Lür bazterriala ohiltürik den popüliaren othoitzia. Jinkua beha-
tzen zaio, eta bere züzenezko lekhian ezarten dü.*

Ürhentzeko. Dabiden khantoren gañen.

1. Egizü, Jauna, galthatzen deizüdana; beha zite ene othoitziari.
2. Lür bazterretarik oihü egin deizüt; bihotza beltzik nielarik botxü gañen ezarri naizü.
3. Lagüntü naizü zütan esparantxa benien; ene etsaien kuntra thorre azkhar bat izan zirade.
4. Bethi egonen nüzü zure oihal-olhan; begiratüko ere zure hegalen atherbian.
5. Zük, ene Jinkua, entzün beitüzü ene othoitzia; züzen phartia eman derezü zure izenaren beldür diener;
6. Egünak egünen gañen eta urthiak urthen gañen ezortzü erregeri undoriotik undoriuetarano.
7. Bethi irañen dizü Jaunaren aitzinian; haren ürrikaltarzünaren eta egiaren bilha nur ariko da?
8. Hola khant'arrapikotsez ariko nitzazü mendez mende, egünetik egüniala ene hitzamanen egiteko.

GORANTZA LXI.

Langer handi batetan Dabid fidatzen Jinkuaren ürrikaltarzünian.

**Ürhentzeko: Idithüentako Dabidek huntü zien
khantoria.**

1. Eztatekia ene arima Jinkuaren eskü pian? Haren ganik beitüket ene salbamentia.
2. Hura delakoz ene Jinkua eta ene Salbazalia; hura delakoz ene begirazalia, eniz ni haboro khordokatüko.
3. Nuiz artio jinen zizteie gizon baten kuntra? Nuiz artio, soldotü unduan haren erhaiteko, ariko zitzeioe thiraka harrisi okher eta khordoka den bati bezala?
4. Goguan zütien ene gizaguatik pikarraitzia; laster egin dü egarritürik. Ahoz hunetsten nündien bihotzez aldiz gaitzesten.
5. Ene arima hatik Jinkuaren eskü pian, haren ganik beitüt ene pazenzia.



6. Ene Jinkua eta ene Salbazalia beita; ene lagüntzaliaren khantütik eniz igitüko.

7. Jinkuan düten ene salbamentia eta ene loria; Jinkua ganik ere sokhorrria, eta Jinkuan ene esparantxa.

8. Jinkuan esparantxa ükhazie haren popülükö bilkhürakuek orok; haren aitzinian hüts etzatzie ziren bihotzak, sekülakoz beitate gure begirazole.

9. Gizon semiak hatik espantox, gizon semiak bere izarietan gezürti; ürgüllüz nahiküntü bera beitätie inganatzeko.

10. Gaizkian ez esparantxa ükhen; uhuñkerier ez jarraik; turrustaz huntarzünak horra batzaitzie, ez haier jos zien bihotza.

11. Mintzatü da behin Jinkua, eta bi hitz hoiek entzün tüt: Shoteria Jinkuarena da, eta ürrikaltarzüna Jaunarena, zük bakoitxari emaiten beite-rozü bere lan-saria.

GORANTZA LXII.

Profeta mintzo da oihal-olharen ikhusteko dien nahiküntü handiaz.

Dabiden khantoria Idümeako desertian zelarik.

1. Jinkua, ene Jinkua, argi ürratzetik iratzartzen nitzaizü.
2. Ene arima zütaz egarri düzü, ene aragia ere zunbat alditan ezta zütaz askor?
3. Basa lür, bide eta hur gabe den huntan aitziniala jin nitzaizü, güne saintü batetara bezala, zure ahalaren eta loriaren ikhustera.
4. Nula zure ürrikaltarzüna bizi güziak beno hobiago beita, ene ezpañak zure laidatzen ariko tüzü.
5. Bizi nizano arren hunetsiko zütüt, eta zure izenari oihüz eskiak zelialat altxatükö tit.
6. Nula ene arima aserik eta gizentürik beitate, ene ahua botzik laidatükö zütü.
7. Zütaz ohartzen baniz ene ohe gañen, goizan goizik zurekila diket gogua, ene begirazalia zirelakoz.
8. Eta alageratükö nüzü zure hegale itzal pian; ene arima zuri lothürrik beita, eta zure esküñak zürkhaitztü benai.

9. Haiek hatik, ahal gabe, ideki nahi ükhen ditazie bizia. Lür barnialat sarthükö tüzü, ezpata ahuetara eroriko tüzü, eta haxeriek janen ditazie.

10. Errege aldiz alageratükö düzü Jinkuan; laidatürik dütükezü haren izenian zin egiten dütükienak oro; gaizki errailen ahua thapatürik beita.

GORANTZA LXIII.

Bere etsaien gaxtokeriatik begira dezan Profetak galthatzen Jinkuari. Gaitz heltükö zaiela beitia.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria.

1. Egizü galthatzen deizüdana, Jinkua, nik othoitzen zütüdanian, etsaiaren beldürretik solt'ezazü ene arima.
2. Begiratü naizü gaxtuen bilkhüratik eta gaizkigilen saldotik.
3. Ezpata bezala zorroztü düzelakoz bere mihiak, saminki hedatü beitätie üztea ogen gabiaren txistatzeko gorallian.
4. Txistatükö dizie batetan, eta eztütüzü lotsatükö; bere gaxtokeriazko nahiküntian bermatü beitirade.
5. Zephuen gordatzeko hitz hartü beitätie, erraiten zütelarik: Nurk ikhusiko dütü?
6. Ogen bilha ebili beitirade, eta untsa akhitü unduan batere ezpeitüte ediren.
7. Gizona handiguala hüllantükö da, bena Jinkua bethi date hanitzez gorago.
8. Haur ñimiñiek egiten düzten txistak bezala dirade haiek egin zau-riak, eta mihiak mendretü zaitze bere kuntra ützültzian.
9. Haien ikhusiak oro harritü dirade eta gizon dena beldürtü da.
10. Eta Jinkuak egin dütien gaizen berria iaurri düte, eta haren eginak enthelegatü.
11. Jauna gañen alageratükö da jüstua, eta hartan esparantxa düke; eta bihotzez xüxen direnak oro laidatürik dirateke.



GORANTZA LXIV.

Profetaren eskerrak euria ari izan delakoz idorte handi baten undotik.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria. Jeremiaren eta Ezekhielen khantoria, popülia zuelarik bere herritik herri atzetara.

1. Sori düzü, Jinkua, zuri khantore egitia Sionen; sori düzü zuri hitz emaitia Jerüsalem.
2. Beha zite ene othoitzari, aragi güzia zure ganatüko düzü.
3. Gaxtuen elhek goithü gitizie; pharkatüko deizkützü zük gure gaizkiak.
4. Dohatsü berhezi eta sehitako hartü düzüna, egonen beita zure etxen.
5. Zure etxenko huntarzünez betheko gütüzü; saintü düzü zure eliza, eta miragarri bere xüenguan.
6. Beha zakizkü, Jinkua, gure Salbazalia, bazter güzien eta itxas barneko esparantxa.
7. Zure indarraz zürkhaitzen tüzü mendiak, photerez üngüratürük beitzira, nahasten düzü itxas barnia, eta azantz egin erazten hanko holler.
8. Harritüko tüzü jentiak, eta lür bazterretan daudenak beldürtüko zure kheñian ikhustez. Ekhi jalkigiatik itzalgalano güzier boztario eman derezü.
9. Lürarren ikhustera jin zirade, eta ordi erazi düzü, hanitxtü deitzotzü huntarzünak.
10. Jinkuaren ibaia hurrez bethe; hazkürria adelatü deiezü; haz ahal ditien adelatü deiezü lürra.
11. Hanko errekek ordi eraz itzatzü hurrez, eta hanitx eraz itzatzü lanthariak; lantharia gozatüko beita hanko itxiletan.
12. Benedikatüko düzü aurthen zure ürrikaltarzüneko bidia, eta zure alhorraz ekhoitzpenez mükhürritüko tüzü.
13. Bortietako bazkagia ederrak gizontüko tüzü, eta mendixkak laketgarritüko.
14. Ahazartzak ardi salduen artian, eta ibarrak ogiz mükhürritürük oihüz eta kant'arrapikotsez ariko tüzü.

GORANTZA LXV.

Jaunari zor zaitzon laidoriuak, gaiza miragarriak egin dütielakoz. Eskerrak behar zaitzo bere popülia ideki dielakoz Babiloneko bahiguatik.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria.

1. Lürreko ekhoiliar güziek, uhatx egizie Jinkuari; khant' arrapikotsez ari zizteie haren izenari, laidatzez emozie zor zaikon loria.
2. Errozie Jinkuari: Zuñen harrigarri dien egin dütüzünak, Jauna! Zure ahal handiak gezürstatüko tizü zure etsaiak.
3. Lür güzia othoiez ariko zaizü, eta khant' arrapikotsez; khanta beza khantore zure izenaren laidatzeko.
4. Tziauste, eta ikhus etzatzie Jinkuaren lanak, izigarri beitirade gizon semen gañen dütien goguak.
5. Itxasua leihortü beitü; zankhuak busti gabe igaran erazi beteie ibaia; han alageratüko girade.
6. Bere ahalgua bethiko beitü, begiak zabalik beitütü nazionen gaña; eztitela hant haren khez' erazliak.
7. Nazione atziak, benedika ezazie gure Jinkua, eta entzün eraz ezazie haren laidoriuen azantza.
8. Harek begiratü deit ene bizia, eta eztütü ene zankhuak ikharatze-
ra ützi.
9. Borogatü beikütüzü, Jinkua, borogatü beikütüzü süian, diharia borogatzen den bezala.
10. Zephuala eror erazi gütüzü, bizkarriala ezarri deizkützü eskarniuak, eta bürü gaña gizon haxiak.
11. Igaran gütüzü süiaren eta hurraren gainti; eta eruan gütüzü zük freskagiala.
12. Sarthüko nüzü zure etxen abere erriak eskietan; hitzamanak eginen deitzüt, ene ezpañek erran bezala,
13. Eta ene ahua mintzatü zen bezala eskarnioko aruan.
14. Abere gizenak errerik eskentüko deitzüt ahazatzen khiareki; eskentüko deitzüt idiak akherrekila.
15. Tziauste, entzün ezazie eta erranen deiziet Jinkuaren beldür zien güzier, zunbat gaiza egin dütien ene arimarentako.



16. Ahua zabaltü düt eta oihü egin derot, eta ene mihiaz goratü düt haren handitarzüna.

17. Gaxtokeriarik ikhusi badüt ene bihotzian, Jaunak enai hunetsiko.

18. Hortakoz hunetsi nai Jinkuak, eta behatü da ene othoitzettuaren azantzari.

19. Benedika dadila Jinkua, ene othoitzia eztielakoz bere ganik hürrüntü, eta ürrikaltü zaitalakoz.

GORANTZA LXVI.

Profetak othoitzen Jinkua benedika dezan bere popülia. Nahi lüke güziek ezagüt eta laida dezan Jauna. Eskerrak emaiten deitzo lürra ekhoitzpentü delakoz.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria khantoren gañen.

1. Ürrikalt dakigüla Jinkua, eta benedika gitzala; argi dizagüla bere begightharta, eta ürrikalt dakigüla.

2. Zure bidia ezagüt dezagün lürrian, Jauna, eta zure salbamentia nazione güzietan.

3. Laida zitzela popüliek, Jinkua; aithort eta laida zitzela gizeli güziek.

4. Boztario eta alagera ditiela nazioniak; xüxenguan jüjätzen beitätüzü, baita lürrian lagüntzen haien giz'eliak.

5. Jinkua, laida zitzela popüliek, aithort zitzela popülü güziek, lürrak eman beitätü bere ekhoitzpena.

6. Benedika gitzala Jinkuak, gure Jinkuak; benedika gitzala Jinkuak; eta lürreko bazter güziak oro haren beldürt ditiela.

GORANTZA LXVII.

Profetak Jaunari galthatzen deio agert dadin bere popüliaren aitziniala, eta barreia ditzan hanko etsaiak. Jaunaren eбилte ederraz mintzo da, eta desertian egin dütien gaiza miragarriez.

Ürhentzeko. Dabidi huntü zeioen khantoria.

1. Jaiki dadila Jinkua, eta haren etsaiak barreia ditiela; eta haren aitzinetik ihes duatzala haren hügüntzaliak.

2. Itzal ditiela, khia itzaltzen den bezala; nula ere ezkoa hurtzen beita süian, hala hala ogengiliak hurt ditiela Jinkuaren aitzinian.

3. Xüxenak aldiz barazkalt eta botz ditiela Jinkuaren aitzinian, eta boztarioz goza ditiela.

4. Khant' arrapikotsez ari zizteie Jinkuari; khant' ezazie haren izena; bidia zabalt izozie ekhi itzalgialat igaran denari; Jauna deitzen beita.

5. Haren aitzinian alagera zizteie; etsaiak izitüko beitära haur zürtzen eta alhargüntsen aitarek khustian.

6. Jinkua bere lekhü saintian dago. Jinkuak bereki egon erazten tü ber gogokuak dienak.

7. Bere ahalaz laxatzen tü estekan dienak, laxatü dütien bezala bere khex' erazliak, eta hobian daudenak.

8. Jinkua, zure popüliaren aitzinian zabiltzarian, desertütik igaraiten zinenian,

9. Lürra ikharatü züzün, eta zeliak hurtü zütüzün Sinaiko Jinkuaren aitzinian, Israeleko Jinkuaren aitzinian.

10. Zuretako berhezi züntien popülier igorri derezü nahi zünien euria, eta flakatü direnian hartü tüzü zure estalgi piala.

11. Han biziko tüzü zure aberiak; Jinkua, zure eztitarüzinian emütsari adelatü derozü hazkürria.

12. Jaunak bere hitzaz betheko haren berri emailiak, azkharki mintza ahal ditien.

13. Indarrezko erregia goithüko dü Jinkuaren maitiak, eta haren arropuz edertüko dü etxia.

14. Lo egonik ere ziren ibar unduetan, ürzo zilharstatiak, eta ürhezko zaiaz bezitütirik direnak bezalakatüko zireie.

15. Zelükuak kanporatzen dütielarik erregiak gure lürretik, Selmoneko elhürra bezañ xuritüko dirade. Jinkuaren mendia, mendi gizena.

16. Mendi ekhoitz düna, mendi gizena. Bena zentako beha zaudeie mendi ekhoitz düner?

17. Mendi hartan laketü da Jinkua; han ja egon da Jauna ürhentzialano.

18. Jinkuaren orga hamar milaz üngüratütirik; milaka han alagranzian; Jauna han bere egongian, Sinain bezala.

19. Goiti igaran zirade, eta bahiguatik erruan dütüzü; hartü tüzü gizonen dohañak.

20. Hezi dütüzü Jinko Jauna han zaguela sinhetsten etzütenak.



21. Benedika dadila Jauna bethiko egünetan; bide huna zabaltüko beteikü Jinko gure Salbazaliak.
22. Gure Jinkua, Jinko salbazalia; Jauna heriotzetik begiratzeko nausi.
23. Jinkuak hautsiko bere etsaien büriak, bere gaizkietan garkotxa gora ebiltan direnenak.
24. Jaunak erran dü: Khentüko zütiet Basanetik, khentüko zütiet itxas barnetik.
25. Zure huña etsaien odolian gorri dadin, eta zure horen mihia ere han ase dadin.
26. Ikhusi ditizie zure ürhotsak, Jinkua; ene errege Jinkuaren, bere egongian daguenaren ürhotsak.
27. Aitziniala horra zeitzon Printziak, khantazaler jüntatürük, atabalotsez ari zien neskatilen artian.
28. Bilkhüretan benedik' ezazie Jinkua, Israeleko üthürri unduetarik elkhi zirenek.
29. Han dago Benjamin gazteñia boztario handitan.
30. Han dagotza bere aitzindarieki Jüdako printziak; Zabüloneko printziak, Nefaliko printziak.
31. Manhezazü, Jinkua, zure indarra, eta berm' ezazü gütan egin düzüna,
32. Zure Jerüsalemeko eliza erditik, erregek eskentüko deitzie dohañak.
33. Hez itzatzü kanabera artetan dauden basa abereriak, behi saldo artetan dauden zezen saldo hoiek, dihari bezala borogatürük dienak ohiltü nahi betüzte.
34. Barreia itzatzü gerlakhoi dien giz' eliak. Mezügiliak Ejiptotik jinen tüzü; Ethiopiak lehenenik hedatüko tizü besuak Jinkua ganat.
35. Lürreko erresumak, khant' ezazie Jinkuari, khant' arrapikotsez ari zizteie Jaunari, zelien gaña igaran beita ekhijaikigiako aldialat.
36. Bere botzari emanen dü azantz indarrezko bat. Laid' ezazie Jinkua Israelen gainti. Haren handitarzüna eta ahalgua odeietan.
37. Miragarri Jinkua bere Saintietan. Bere popüliari indar handi Jinkuak emanen. Benedika dadila Jinkua.

GORANTZA LXVIII.

Etsai gaxtuek zankho petan dabilen jüsto baten othoitzia. Jinkua jakiletako hartzen dü, eta helt dakion othoitzen, bere loriaren amorekatik. Gaxtuen zori gaitza. Jerüsalemekua eta Jüdeako hiriak ara eraikiko diela dio.

Ürhentzeko: khanbiatzen dientako Dabiden khandoria.

1. Salba nezazü, Jinkua, hurrak sarthü betzaizat arima barnialano.
2. Mala ziluan nüzü, eta zolarik eztizü.
3. Itxas gañen nabilazün, eta arogaitzak hurpialatü nizü.
4. Oihüz eskarniatü nüzü, eta marhallotü zitazü tzüntzürra; begiak askortü ziztatzü ene Jinkuaren haidürü nindaguelarik.
5. Ogenik gabe ni hastiatzen nündienak, ene bürüko bilhuak beno haboroagotü düütüzü.
6. Ogenik gabe lasterkatzen naiten etsaiak azkhartü düütüzü ene kuntra, eta hartü eniena phakatü dit.
7. Ezagützen düzü zük, Jinkua, ene ertzokeria, eta ene ogenak etzaitzü gordatzen.
8. Jaunak, indarren Jauna, ene gatik eztitela ahalke zure ügürikizaliak.
9. Ene gatik eztitela gal zure bilha dabilzanak, Israeleko Jinkua.
10. Zure amorekati sofritü beitu laid franko, eta ene begithartia ahalkez gorritü beita.
11. Arrotz bezalakotü nüzü ene anaientako, eta atzetü ene amaren haurrentako.
12. Zure etxenko amodiak erre naielakoz, zure ihikixtazalen ihikiak nitara erori tüzü.
13. Eta barur egitez lürrialatü dit ene arima, eta hortakoz ere laidogarritü nizie.
14. Eta zakü bat arropatako jauntsi dit, eta trüfatü nizie.
15. Hiriko portaletan zaudenak ene kuntra mintzo zütüzün, eta ardu edaten zütenek bere khantoretan trüfatzen nindizien.
16. Nik hatik ene othoizta zure ganat, Jauna; ordü beita erakhuts dezazün zure huntarzüna.



17. Beha zakitzat, zure ürrikaltarzün handiaren arabera, eta salbatüko naizüla erran düzün egiaeren arabera.
18. Idok nezazü lohitik barnen egon enadin; khent nezazü hügün-tzen naienatarik eta hur petik.
19. Tenpestak enezala suntsi, ez eta ere hosinak irets, eta zilua eztezala nitan gaña bere ahua zerra.
20. Beha zakitzat, Jauna, hun delakoz zure ürrikaltarzüna; sogidazü zure ürrikaltarzün handiaren arabera.
21. Ez baztert zure begithartia sehiaren gañetik; bihotz minetan benago, beha zakitzat berantü gabe.
22. Ene arimari beha zite, eta solt' ezazü; salba nezazü ene etsaiak diela kausa.
23. Ezagützen tüzü zük ene laidua, eta ene ahalkia, eta ene ahalke-tarzüna.
24. Ene lasterk'eraziak zure begien aitzinian tüzü; ene bihotza laidozko txirtxileria orotara pharatürik düzü.
25. Beha egon nüzü eia nurbaitek ene eskarniuaz bihotza minberatü-rik zükienez, eta eztüzü izan nihur ere; eia aholkatüko nüdienez, eta nihur ere ezit ediren.
26. Eta hazkürritako eman ditazie gatzagi, eta ene egarrían ozpin eman ditazie edateko.
27. Beren mahaña izan dakiela zepho, ordari emaile, eta harri behatz-topezle.
28. Ülhünt zaitzela begiak, ikhus eztezen, eta zük künkürt eraz ezezü bizkarra.
29. Gaña iaur ezezü zure khexia, eta zure khexüko oldarrak eruan ditzala.
30. Haien egongiak ekhoiliar gabe ditiela, eta nihur ere eztatila egon haien oiha-olhetan.
31. Zük jo düzüna lasterkatü dütelakoz, eta ene zauri sümintier zauri berri egin dütelakoz.
32. Ütz etzatzü gaxtokeria gaxtokerien gaña ezartera, eta eztitiela zure xüenguan sar.
33. Khent ditiela bizi dienen librütik, eta xüxenen lerruan eztitiela izkiriba.
34. Ni emüts nüzü eta bihotz minetan; zure ahalak, Jauna salbatü nizü.
35. Khantorez laidatüko dit Jinkuaren izena, eta altxatüko Jinkua ene gorantzaz.

36. Adarrak eta ahazküliak sortzen ari zaitzon xahala beno hau agradagotüko betzaio Jinkuari.
37. Ikhus dezela hau emütsek, eta alagera ditiela. Jinkuaren bilha ebil zizteie, eta ziren arima biziko da.
38. Emütser behatü beita Jinkua, eta estekan zaudenak ezpeitütü kasürük egin gabe ützi.
39. Laida dezela Jinkua zeliak eta lürrak, itxasuak, eta han herrestaz dabilzanek orok.
40. Jinkuak salbatüko beitü Sion, eta Jüdako hiriak ara eraikiko beiti-rade.
41. Eta han egonen dira, güne hua dükenian züzen phartetako.
42. Eta haren sehien undokuek ükhenen düte güne hua, eta haren izena maite dütenak, han egonen dirade.

GORANTZA LXIX.

Profeta jadanik zahartürik bere etsaien kuntra Jaunari sokhorri galthoz ari da.

Dabiden khantoria, Jinkuak salbatü diela orhitzeko.

1. Hel zakitzat, Jinkua; hel zakitzat behala, Jauna, sokhorri emaitera.
2. Nahas ditiela eta ahalkez gorri, bizia idoki nahi deitadenak.
3. Duatzala gibelialat, eta ahalke ditiela gaizki egin nahi deitadenak.
4. Ahalketürik egotx ditiela erraiten deitadenak: Hots, hots.
5. Zütan boztario eta alagera ditiela zure bilha dabilzanan oro, eta zure salbamentia maite dütenek erran dezela bethi: Loria dadila Jauna.
6. Ni, aldiz, emüts eta eskele nüzü; Jinkua, lagüntzera hel zakitzat.
7. Ene lagüntzalia eta soltazalia zirade zü. Jauna etzitiela berant.

GORANTZA LXX.

Bere etsaien kuntra Profetak Jaunari galthatzen deio sokhorri, eta erraiten, hartan dielakoz bere esparantxa, khantatüko deitzola laidoriuak.



Ürhentzeko. Dabiden khantoria, Jonadaben haurren eta bahi zaudenen gañen.

1. Zütan, Jauna, esparantxa ükhen dit, enadila seküla gal; zure xüxenguan solta nezazü eta salba.
2. Ene ganat apha ezazü zure beharria, eta salba nezazü.
3. Izan zite enetako begirazole Jinko bat eta gordallü bat, salba nezazün.
4. Ene indarra eta ihes lekhia beitzirade.
5. Ene Jinkua, eruan nezazü ogengiliaren eskütik, zure begiaren kontra ari denarenetik, eta gaizkigiliarenarenetik,
6. Zü beitzirade, Jauna, ene pazenzia; zü beitzirade, Jauna, haurzaroti geroztü ene esparantxa.
7. Zütan bermatürük nüdüzün, sorthü beno lehen; ene amaren sabeletik elkhi nizan bezañ sarri zük zaintü naizü.
8. Ene khantoriak bethi nitizün zuretako, hanitxer espantagarritü nitzezü; bena zü zirade ene lagüntzale azkharra.
9. Gorantzaz betha dadila ene ahua, zure loria khanta dezadan, eta barreia dezadan egün oroz zure handitarzünaren berria.
10. Enezazüla ützi ene zarhatzaruan; idarraren galtzera nuakienian enezazüla ützi.
11. Ene etsaiek erran beteidade, eta ene arimaren erphai zaudenek algarreki hitzhartü beituete,
12. Zioielarik: Jinkuak ützi dü. Jarraiki zeitzoie, eta atzaman ezazie, nihurk ere eztezie eruanen.
13. Jinkua, etzitiela ene ganik hürrünt. Ene Jinkua, tziauri ene lagüntzera.
14. Nahas eta gal ditiela nitzaz gaizki errailiak; ahalkez gorri ditiela ogen egin nahi deitadenak.
15. Nik bethi esparantxa badiket, eta eginen deizüt gorantza berri.
16. Ene ahua emanen dizü zure xüxenguaren berri, baita ere egün oroz zure salbamentiare berri.
17. Ederki mintzatzen ezpeitakit, Jaunaren ahalguaz elhestatüko nüzü; bethi orhitüko nüzü Jauna, zure xüxentarzünaz.
18. Jinkua, gaztedanik eskolatü naizü; eta oraiartino egin dütüzün gaiza ikhusgarriak erran ditit.
19. Ene zahartarzünian eta adin handian enezazüla arren ützi, Jinkua,
20. Nik heltüko dien undokuer erran artio nulako den zure besoko indarra,

21. Zure ahala, zure xüxentarzüna gañ gañetarano egin dütüzün lan ederretan, Jinkua. Jinkua, nur da zure üdüri?

22. Zunbat eskarnio eta zunbat gaitz, ezteitadzü borog' erazi! Eta nitarat ützüli unduan araphiztü deitazü bizia, eta idoki naizü lürreko leze barnetarik.

23. Hanitxtü düzü zure handitarzüna, eta eneganat ützülerik, aholkatü naizü.

24. Nik ere aithortüko dit zure egia sonüzko añañetan: Jinkua, khant' arrapikotzez ariko nitzaizü sonian, Israeleko Saintia.

25. Boztariotüko tüzü ene ezpañak ahaidien khantatzian eta ene erosi deitazün arima ere boztariotüko düzü.

26. Ene mihia egün oroz ariko düzü zure xüxentarzünaz berri emaiten, eni gaitz egin nahi deitadenak ahalkez gorritürük daudelarik.

GORANTZA LXXI.

Dabidek othoitzen dü Jauna Salamuni eman ditzon bere argiak eta huntarzünak.

Khantoria, Salamumentako.

1. Jinkua, erregeri emozü zure argia, eta erregeren semiari zure xüxentarzüna,
2. Jüja ditzan, zure xüxenguaren arabera, zure popülia eta zure eskeliak.
3. Mendiek ükhen dezela bakia popüliarentako, eta mendixkek ere xüxengua.
4. Jüjatüko tü popüluko eskeliak, eta salbatüko eskelen haurrak, eta lürrialatüko gezürrez gaizki erraiten ari dienak.
5. Eta egonen da ekhia eta argizagia bezañ lüzaz undoriotik undoriuala.
6. Eraitsiko da, euria ilhe gaña erorten den bezala, eta ithax hura lürriala erorten den bezala.
7. Haren egünetan agertüko da xüxengua bakezko ekhoitzpenareki, argizagia eror artino.
8. Eta itxasotik itxasuala, eta ibaietik lür bazterretarano bürüzagi dateke.



9. Haren aitzinian belharikatüko dira Ethiopetarrak, eta haren etsaiek millikatüko düte lürra.

10. Tharsiseko erregek eta ühartek eskentüko deitzoe dohañak; Arabiako eta Sabako erregek ekharriko deitzoe dohañak.

11. Eta lürreko erregiak oro othoiez ariko zaitzo, eta nazione güzieren bürüzagi date;

12. Emütsa idekiko dielakoz photeretsiaren petik, lagüntzalerik ezpeitzien emütsak.

13. Pharkatüko dü emütsari eta eskeliari, eta salbatüko tü emütsen arimak.

14. Zor zaien beno haboruago hartzen dütenetarik eta gaizkitik erosi-ko tü haien arimak, eta haien izena uhuregarritüko da haren aitzinian.

15. Eta biziko da, eta Arabiako ürhetik emanen zaio, eta othoitzez eta hunetsiz ariko zaitzo thai gabe.

16. Eta ogi bihia ereñen da lürrian, mendi thinietan, eta ogi ekhoitz-pena Liban beno goragotüko da; eta hiritik sorthüko dirade giz' eliak lürreko belharra bezala.

17. Benedika dadila haren izena mendez mende, ekhia beno lehenago beita haren izena.

18. Eta benedika ditiela hartan lürreko giz' eliak oro, nazione güziek loriatüko beituete.

19. Israeleko Jinko Jauna benedika dadila, gaiza miragarriak egin beitätü.

20. Eta haren handitarzüneko izena benedika dadila bethikoz, eta haren handitarzünaz betha dadila lürra. Halabiz, halabiz.

21. Dabiden, Jesen semiaren, khantoriak heben akabi.

Khantoren III gerren Libria.

GORANTZA LXXII.

Gaxtuen zorihunaren ez izan bekhaitz bere gora beherak beitätü.

Asafen khantoria.

1. Jinkua zuñen hun den Israelentako eta bihotza xüxen diententako!

2. Zankhuak hatik abanzüni lerratü zaitzat; eta ürhots herexa abanzüni galdü dü,

3. Gaxtuen bekhaitz izan beniz ogengilen bakian ikhustez.

4. Hiltzial' artino zorigaitzik ezpeitüte eta dispost beitaude,

5. Gizonen eskarniuetarik soltik, ezpeitirade gizonak bezala zaflatürik.

6. Ürgüllüko estekan daude gaxtokeriaz eta sinhetsgabeguaz estalirik.

7. Gizen eta lodi dielakoz bürütik elkhitzen zaitze begiak, eta bihotza gaintitzen zaie.

8. Gaxtokeria goguan eta ahuan beituete, banbaz mintzo dirade.

9. Zeliari axütez ari zaie ahua, eta lürrian dabile mihia.

10. Hortakoz ene popülia hunat ütülüko da, eta zorihunezko egünak edirenentü.

11. Eta erranen dü: Nula daki Jinkuak, eta zer daki Gañgañkuak?

12. Ogengile hoiek bethi daude igerika huntarzünetan eta aberats-tarzünetan.

13. Eta erran dü: Probetxü gabe, arren, xahatü ene bihotza, eta ogen gaben artian ükhüzi tüte ene eskiak.

14. Egün orotan zaflatü naienez geroz, goizan zehatü unduan.

15. Hola mintzatü banintz laidogarritü nitikezü zure haurren undo-kuak.

16. Gordallü hori ikhertü nahi nizün, bena lan handia hartü dit.

17. Jinkuaren etxen sar artio, eta entheleg'artio nula ürhentüko diren gaxtuak.

18. Xederak arauz hedatü deretzü, eta goratzen zielarik eror erazi dütüzü.

19. Zuñ bertan erori dien bihotz minetara! Nula galdü dütien beren gaxtokeriak!

20. Jauna, zure hirian ezdeustüko düzü haien itxura, iratzartzen dienen ametsa bezala.

21. Bihotza herakitzen zeitadan eta errañak sütan nütien; ezdeüstü niz eta sohaiotü.

22. Zuretako aberia bezalakotü nüzü, eta egon nüzü bethi zureki;

23. Eskü esküña etxeki deitazü, eta zure nahiküntiaren arabera lagüntü naizü, eta zure ganat loriaz hartü.

24. Zer düte arren nik zelian? Eta zützaz besterik zer nahi ükhen düte lürrian?

25. Eni hertürük ere aragia eta bihotza, ene bihotzeko Jinkua, ene sekülako Jinko indarrezkua zinate.



26. Zütarik hurrüntzen direnak galdüko tüzü, galtzen beittütüzü lik-hizkerier lothzen direnak.
27. Jaunari lothzia, Jinko Jaunian ene esparantxaren ezartia enetako zorihun.
28. Zure laidoriuk khanta detzadan Sioneko alhabaren portalian.

GORANTZA LXXIII.

Bihotz minetan den popüliaren othoitzia, etsaiak erre eta theiütü unduan eliza.

Asafen erakhutspena.

1. Zentako, Jauna, ohiltü gütüzü bethiko? Zentako heraki dago zure khexia zure bazkagiako ardien kuntra?
2. Ohart zite hatsarretik ükhen düzün salduaz.
3. Erosi zünien, zure aberatstarzün phartetako, egoiten zien Sioneko mendi hori.
4. Altx' etzatzü zure eskiak, sekülakoz egotx dezazün haien mithirigua. Elizan zer gaitzkiak ezteitzü egin etsaiak?
5. Zure hügüntzaliak harrotü tüzü zure eliza besta handian.
6. Etzakitelarik zer ari zien, ezarri tizie bere banderak eliza thinian eta jalkhigian.
7. Hanko borthak egotxi tizie, oihaneko zühañak bezala axkoraz; martellü eta axkora khaldüz hautsi tizie.
8. Süz erre dizie zure egongia saintia; zikhintü dizie zure izeneko oiha-olha.
9. Haien undokuek erran dizie bere bihotzian: Xaha detzagün lürretik Jinkuaren eliza bestak oro.
10. Gure banderak eta profetak eztirade ageri; Jinkuak ezkütü haboro ezagützen.
11. Jinkua, nuiz artio etsaiak gaizkiz xahatüko zütü? Nuiz artio burhauz therritatüko dü zure izena?
12. Zentako gibelten düzü zure eskia; zentako bethi etxekitzen düzü kolkuan zure besua?
13. Gure Jinko Errege bethidanik denak salbamentü egin dü lürrian;

14. Zure indarrak heraki erazten düzü itxasua; heren sügiari lehertü derozü büria.

15. Heren sügiari zaphthü derotzü büriak; jan lezen eman derezü Ethiopiako popülier.

16. Jauz erazi tüzü üthürriak eta ühaitzak, eta idort erazi ibai handiak.

17. Zuria düzü egüna, zuria düzü gaia, zük egin tüzü izarrak eta ekhia.

18. Zük egin tüzü lürreko bazterrak, bai eta antolatü negia eta üda.

19. Ohart zite etsaiak gaizki xahatü diela Jauna, eta popülü ertzuaq burhauztatü diela zure izena.

20. Ez basa ihizier jatera eman zure tortollaren arima, eta ez ahatz zure eskelen arimak.

21. Beha zite zure hitzamaner; lürreko tzirtzil tzar eli batek hartü dizkützie gure etxiak.

22. Lürrian egotxirik dagueña eztadila juan ahalketürük; eskelek eta emütsek laidatüko dizie zure izena.

23. Jaiki zite, Jauna; jüj' ezazü zure egitekua; egün oroz ertzua ganik horra zaitzün burhauz ohart zite.

24. Ez ahatz zure etsaien oihiak, hügüntzen zütienen ürgüllia bethi beitua handiagotzez.

GORANTZA LXXIV.

Jüstuek laidatzen düte Jauna, Jinkuak izartüko tü harro dienak.

Ürhentzeko. Ez arrabaska. Asafen khantoria.

1. Laidatüko zütügü, Jinkua, laidatüko zütügü, eta zure izenari oihiu eginen dizügü.

2. Erranen tizügü egin düütüzün lan ederrak. Asina dükedanio, dio Jaunak, xüxenti jüjatüko dü.

3. Hurtü da lürra bere ekhoiliar güzieki; nik zalltü deitzot zimentiak.

4. Gaxtuer erran deiet: Etziteiela gaizki ari; eta ogengiler: Etezazie-la büria gora;

5. Eztitzatziela gora zien büriak; etziteiela gaizkiz mintza Jinkuaren kuntra.

6. Ezpeitzaitzie ekhijalkigiatik, ez itzalgiatik, ez eta desertüko mendietarik sokhorri heltüko, Jinkua beita zien jüjia.



7. Bata aphaltzen dü eta bestia goratzen; ardu mingarrez errada dago xalhia Jaunaren eskian; hütstüko da eta lürreko ogengilek orok edanen düte.

8. Nik, aldiz, khantatüko tüt, eta barreatüko bethi Jakoben Jinkua- ren laidoriuak.

9. Erran beiti: Phorrokatüko düit ogengilen indarra, eta handi erazi- ko jüstuen ahala.

GORANTZA LXXV.

*Eskerrak Jinkuari zeren goithürük izan den Asiritarren armada.
Izigarri da Jinkua, printzen biziaren eta heriuaren nausi beita.*

Asiritarren khantoria.

1. Jinkua ezagützen düte Jüdean; izena handi dü Israelen.
2. Bere bake lekhütako hartü dü Salem, eta bere egongiatako Sion.
3. Han phorrokatü tü üzteieko flexak, eskütak, ezpatak eta gerlako tresnak.
4. Izigarri beitzirade, Jinkua, zure bethiko mendietan, bürü mentsak oro harri erazi dütüzü.
5. Luak hartü zitizün eta huntarzünetako gizonek deusik bere eskie- tan eztizie ediren.
6. Jakobean Jinkua, zure mintzo borthitzak lo erazi tizü zamaldün harruak.
7. Zü harrigarri zirade; zuri nur oldar ahal daite, khexü zirenian?
8. Zelü gañetik entzün erazten düzü zure jüjamentia; lürra ikharatzen düzü eta ixiltzen,
9. Jinkua txütitzen denian jüjatzeko, ükhürü ükhürüa egoiten dienen salbatzeko.
10. Gizonaren khexiak laidatzen zütü, zure khexü undarra jauntsten düzünian.
11. Hitzak emotzie, eta hitzamanak egiotzie zien Jinko Jaunari, üngü- rian dohañak eskentzen deitzotzünek orok,
12. Izigarri beita, printzer eruaiten beteie bizia; lürreko erregen izi- garri beita.

GORANTZA LXXVI.

Bihotz minetako othoitzia. Jaunaren ürrikaltarzüna eta garratz- tarzüna.

Ürhentzeko. Idilhunentako; Asafen khantoria.

1. Oihü egin deiot Jaunari; oihü egin deiot Jaunari, eta behatü zait.
2. Ene eskarnioko egünian Jinkuaren bilha ebili niz; gaiaz haren ganat eskiak hedatü tüt, eta eniz inganatü.
3. Aholkürük eztü nahi ükhen ene arimak; Jinkuaz ohartü niz eta botztü niz; gogokan ari izan niz, eta hertü zait izpiritia.
4. Gaiaz zabalik nüntien begiak; oro nahasirik nintzan, eta enindio- dan mintza.
5. Ene gogua leheneko egünetan, eta ene izpiritia bethiko urthetan zabiln.
6. Ene izpiritütik goguak gogua xahatzen zielarik, gaiaz bihotzian gogokan ari nintzan, eia,
7. Jinkua bethiko khexü gүнүkienez, ala orano ematüko zeikünez hunki-jin egiteko?
8. Ala bere ürrikaltarzüna khentü zeikünez undoriuetarik undoriue- tarano?
9. Ala ahatze zienez Jinkuak ürrikaltzia? Ala bere khexian edenen zütienez bere ürrikaltarzünak?
10. Eta erran düit: Orai hasten niz ikhasten ene zauria Gañgañkuak sendo diuela.
11. Ohartü niz Jaunaren eginez; eta ohartü nüzü hastetik egin dütüzün lan miragarriez.
12. Eta gogo eman dit zure lan güzier; beha egon nüzü zure ikhus- garriko laner.
13. Jinkua, saintü dütüzü zure eginbidiak. Zuñ Jinko da gure Jinkua bezañ handi denik? Zü zirade miragarrien egile Jinkua.
14. Popülien artian ezagüt erazi düzü zure indarra zure besuaz erosi zünien zure popülia, Jakobean eta Josefen haurrak.
15. Ühaldiek ikhusi züntien, Jinkua; ühaldiek ikhusi züntien, eta lotsatü züntüzün, eta osinak thürbüstü.
16. Hur turrustek azanz, eta odeiek orrua egin zizien.



17. Zure inhaziak bazuatzün, eta zure ühülgia karrankotsez ari züzün.
18. Zure inhaziak argitü zitizien bazter güziak; lürra harritü züzün eta ikharatü.
19. Zure bidia itxasuan, eta zure bidexkak hur handietan zütüzün; eta zure ürhats herexak etzütüzün ezagün.
20. Ardiak bezala, hotseman düzü zure popülia Moisen eta Aarunen aitzinian.

GORANTZA LXXVII.

*Jinkuak bere popüliarentako egin dütienetan gañen, Ejiptotik elk-
hiz gerozti Dabid erregetü artio.*

Asafen erakhutspena.

1. Ene popülia, beha zite ene begiari, ern' itzatzü zure beharriak, mintzatzera nuazü.
2. Alegietan ahua zabaltüko dit; lehenago heltü dien gaizak erranen deitziet,
3. Entzün eta ezagütü dütügünak, eta gure aitek erran deizkienak;
4. Beren haurrer eta undokuere gorde eztützenak.
5. Erran deizkie Jaunaren laidoriuak eta ahala, eta egin dütien gaiza ederrak.
6. Manhatü beitzien Jakobi, eta mania eman Israeli;
8. Manhatü beitzien gure aiter hoierraitetz bere haurrer, undokuere jakin letzen.
8. Sorthzen eta handitzen dien haurrek beren semer erranen dütüzte.
9. Jinkuan ezar ahal ezen beren esparantxa, eta Jinkuaren eginak ahatz eztetzen, eta haren maniak begira detzen.
10. Beren aitak bezala, arraza gaxto eta mithiri eztitien izan.
11. Bihotz bühürreko arraza, Jinkuan sinheste gabeko bat.
12. Efraimen semek, üztei hedazale eta thirazale hunek, güdükako egünian aztalak erakhutsi zützen,
13. Ezpeitzüten begiratü Jinkuaren adiskidegua; haren manier ezpeitzüten jarraiki nahi ükhen;

14. Ahatze zützen haren hunki eginak, eta miragarrizko erakhutsi zützen gaizak.
15. Haien aitasuen aitzinian miraküliak egin zütien Ejiptoko lürrian, Taniseko ordokian.
16. Arrailtatü zien itxasua, eta igaran erazi zeien, eta athetü zütien hurrak.
17. Lagüntzale eman zeien odei bat egüneko, eta sü bola bat gaieko.
18. Desertian zapart erazi zien botxü bat, eta hurrez ase erazi zütien, ühaitz handian bezala.
19. Botxütik jauz erazi zütien hurrak, eta ibaiak bezala eraits erazi.
20. Eta gaizki egitetik etziren baratü halere, eta khex' erazi zütien Gañkua, hur gabeko günian.
21. Eta beren bihotzian therritatü züten Jinkua, galthatzen zioielarik eman lizen hazkürri bizitzeko.
22. Eta marmallaz zioien: Ahal lükia Jinkuak mahañ bat adela desertian?
23. Botxia jo dü, hurra jauzi da, ibaiak hurstatü düte lürra;
24. Bena ogi eman ahal liokia? Bere popüliarentako salsa antola ahal liua?
25. Jaunak entzün zütien, eta etzen lehiatü: Khexüz gartü zen Jakobben kuntra, eta fürian jarri Israelen kuntra,
26. Jinkuan etzütelakoz ükhen sinhesterik, ez eta ere esparantxarik haren salbamentian,
27. Nahi bada gañeko odeier maniak eman zeitzen, eta zelüko borthak zabaltü zütien,
28. Eta hazkürritako eror erazi zeien manna, eta eman zelüko ogia;
29. Nahi bada gizona Aingürrien ogiz ase zen, eta zer jan franko Jinkuak igorri zeien.
30. Hortakoz arren ipharra khentü zien zelütik, eta bere indarrarian hegua igorri zien buhatzera.
31. Erhaults bezalako aragi erauntsiak, eta itxas bazterreko hariñak bezalako txori parrastak igorri zeitzen.
32. Eta erori zien herri erdiala, oiha-olhen unduetara.
33. Nahi züten bezañ beste jan züten, eta ase zien; nahi zütena eman beitzeien Jinkuak.
34. Ahützetaka jaten ari zielarik Jinkuaren khexia gaña erori zeien.
35. Gizenenak erho zütien, eta Israeleko handienak egotxi zütien.
36. Halarik ere gaizki egiten ari zien, sinhesterik etzütelakoz haren miragarrizko eginetan.



37. Eta igaran zützen egünak ezdeuskerietan, eta urthiak juan zeitzen itzala bezala.
38. Hil erazten zütienian, haren bilha zabiltzan; eta harenganutzen zien, goizan goizik othoitzzen zütelarik;
39. Eta ohartzen zien Jinkua zütela ihes lekhütako, eta Jinko Gañkua Salbazaletako.
40. Ahoz maithatzen züten Jinkua, eta mihiz, aldiz, gezürrez ari zeitzon.
41. Bihotzez etzien harekila; etziradien tinki haren adixkideguari jarraikiten.
42. Bena ürrikaldün zelakoz, ogenak pharkatzen zeitzen, eta etzütien arrabaskatzen.
43. Bere kolera etxekiten zien estekan, eta etzien phizten bere khe-xia.
44. Ohartzen beitzen aragi direla, eta haien bizia hats juaiten eta ützültzen ezten bat dela.
45. Zunbatetan eztüte khex' erazi desertian? Zunbat aldiz estüte (sic) khex' erazi lekhü idor eta hur gabian?
46. Berriz therritatzen züten Jinkua, eta khex' erazten Israeleko saintia.
47. Etziradien ohartzen haren ahalaz, ez eta ere eskarniuetarik salbatü zütien egünaz,
48. Miraküllüz bethe zienian Taniseko ordokia;
48. Odoletara khanbiatü zeitzenian ibaiak eta errekek, etzezen edan ahal;
50. Multzoka igorri zeitzenian eltxuak, itho litzen, eta igelak arrabaska litzen;
51. Erdollari jatera eman zütienian haien ekhoitzpenak, eta llarhoter haien lan sariak;
52. Harri errauntsiez arrabaskatü zütienian haien miñatziak, eta izotzaz haien marhügetziak;
53. Harri errauntsien pian ützi zütienian haien aberiak, eta zelüko süien pian haien hatiak;
54. Haien kuntra laxatü zütienian bere khexüko garrak, bere füria eta gaitz eskarniazaliak oro;
55. Bere kolerari zabaltü zeionian bidia, eta hiltzetik etzütienian begiratü haien arimak, eta haien aberiak heriuaz estali zütienian;
56. Zaflatü zütienian Ejiptoko lehen sorthiak, eta Khamen oihal-olhako gizon baliusenak;

57. Ardiak bezala, eruan zienian bere popülia, eta abere saldo bat bezala, desertialat hotsaman zienian,
58. Esparantxa handitan, beldürretarik soltik; haien etsaiak itxasuan galdürrik;
59. Bere mendi saintiala, bere ahalaz ükhen zien mendiala, eruan zütienian;
60. Haien aitzinetik ohiltü zütienian nazioniak; eta xorthiala lürrak phartitü zeitzenian, khordaz izartü unduan;
61. Eta nazionen oihal-olhetan ezarri zütienian Israeleko giz' eliak.
62. Eta orano ere therritatü eta khex' erazi züten Jinkua, eta haren maniak etzüzten begiratü.
63. Haren ganik gibeltü ziradien, hitzamanak etzeitzen etxeki; eta, bere aitasuen üdüri, üztei okherra bezalakotü zien.
64. Beren mendixketan khex' erazi züten Jinkua, desafiatzen beitzü-ten egin zütüzten jinkaüzinez.
65. Burhauz ari ziela entzünik Jinkuak, khexia zapartatü zeion, eta Israel hügüntü zien.
66. Hürrüntü zen Siloko aldetik, gizoneki egoiteko egin zien oihal-olha ützirik.
67. Eta etsaien eskiez bahitzera ützi zien arkha; zuñtan beitzüten beren indarra eta edertarzüna.
68. Eta ezpata txistaz kolpatzera ützi zien bere popülia, kasürük bate-re egin gabe bere züzen phartiari.
69. Süiak erre zütien haien murrüña, eta neskatilek nigarrük etzüten egin;
70. Ezpata khaldüz egotxirik izan ziren hanko aphezak, eta aphez alhargüntsek nigarrük etzüten egin.
71. Lotarik bezala iratzarri zen Jauna, arduz aserük jaikiten den gizona bezala;
72. Gibeletik zaflatü zütien bere etsaiak eta sekülakoz ahalkez estali zütien.
73. Eta Josefén oihal-olha etzien nahi ükhen hartü; ez eta ere Efraimen giz'elia berhezi.
74. Bena berhezi zien Jüdaen giz'elia, Sioneko bere mendi maitia.
75. Eta bere egongia saintia egin zien lürrian, eta sekülakoz zimentatü zien, zeliak zimentatü zütien bezala.
76. Eta berhezi zien Dabid bere sehia; ardi korraletan hartü zien, aitarenen ardien zañ zelarük,
77. Bazka lezan Jakob, bere popülia; eta Israel, bere züzen phartia.



78. Eta alha erazi zütien ogenik egin gabe, eta hotseman zütien trebeki.

GORANTZA LXXVIII.

Khantore huntzaliaren khueintak Babilonetarren gaxtokeriaren gañen.

Othoitziak Babilonen bahi daguen popüliarentako. Asafen kantoria.

1. Jinkua, nazioniak sarthü dütüzü zure lürretan, theiütü dizie zure eliza saintia; arrabaskatü dizie Jerüsaleme.
2. Zelüko txorier jatera eman ditizie zure sehien khorpitzak, eta lürreko basa ihizier zure saintien alderdiak.
3. Hurra bezala, haien odola ixuri dizie Jerüsalemeko üngürietan; eta ehortzalerik etzüün batere.
4. Laidogarritü gütüzü gure aizuen; gure khantükuak trüfatü zizkützü, eta erri egin diküzie.
5. Nuiz artio, Jauna, khexü egongei düzü? Nuiz artio, garra bezala, goratüko da zure füría?
6. Ixur ezazü zure khexia ezagützen etzüten nazionen gaña, eta zure izenari helik egiten eztüten erresumen gaña.
7. Jakob jan beitüte, arrabaskatü beitüte haren egongia.
8. Etzitiela ohart gure leheneko gaizkiez; zure ürrikaltarzünak laster hel zaitzküla, emüts emütstürük beikirade.
9. Jinko gure Salbazalia, lagünt gitzatzü; zure izenaren loria dela kausa solta gitzatzü, Jauna; estal itzagützü gure ogenak zure amodiua, z,
10. Nazionen artian eztezen erran: Nun da hoién Jinkua? Argiala emazü, ikhus dezagün nazionen kuntra.
11. Nula mendekatzen düzün zure sehien ixuri düten odola; zure ganat hel ditiela bahi daudenen heiagorak.
12. Zure besuaren indar handiaz begira itzatzü herioko haurrak.
13. Jauna, gure aizuer, zazpitan doblatzez, kholkuala emetzü ordari egin deitzien ihikin laidogarriak.
14. Gük aldiz, zure popülia eta zure bazkagiako ardiak beikirade, bethi laidatüko zütügü.

15. Undoriotik undoruala barreiatüko tizügü zure laidoriuak.

GORANTZA LXXIX.

Babilonen bahi dienen othoitzia, libertatiaren ükhen nahiz. Khantore huntzaliak dio popülia aihena bezala dela, eta begratü behar dela.

Ürhentzeko. Khanbiatürük diatenentako. Asafen erakhutspena.

1. Israeleko artzaña, beha zite; ardiak bezala hotsemaiten düzü Josef.
2. Kherübimen gañen jarririk zaudena, agert zite zabal zabala Efraimi, Benjamini eta Manasei.
3. Iharras ezazü zure ahala, eta tziari gure salbatzera.
4. Jinkua, ützü eraz gitzatzü gure bahiguatik, agert ezagüzü zure begithartia, eta salbatürük gütükezü.
5. Indarren Jinko Jauna, nuiz artio khexü zirate zure sehien othoitzen?
6. Nuiz artio haziko gütüzü nigarren ogiaz? Nuiz artio edatera emanen deikützü nigarrak?
7. Gure aizuen ahara erazle ezarri gütüzü; eta gure etsaiak trüfatzen zizkützü.
8. Indarren Jinkua, ützü eraz gitzatzü gure bahiguatik; agert ezagüzü zure begithartia, eta salbatürük gütükezü.
9. Zure miñatzia Ejiptotik idoki düzü; ohiltü tüzü nazioniak, eta haien lekhian lanthatü düzü zure miñatzia.
10. Aitzinian jua zitzao, bidiaren erakusteko, eta erruak loth erazi derozü, eta lürra bethe dizü.
11. Haren itzalak gorde tizü mendiak, eta haren laiak Jinkuaren izeiak.
12. Itxasualano hedatü tizü bere adarrak, eta bere adarxkak ibaietaranon.
13. Zentako hautsi derozü zerrallia? Zentako bidetik duatzanek orok jaten derotze mahatsak?
14. Bas'urdiak musurkatü dizü, bas'urdiak phorrokatü dizü.



15. Indarren Jinkua, ema zite; zelütik sogizü, ikhus ezazü eta tziari zure miñatziaren ikhustera.

16. Zürkhaista ezazü zure esküñak lanthatü dien miñatzia; beha egizü zuretako gothor erazi düzün haurrari.

17. Süiak ererrik, erroz gora düzü; zure khexiak eihartü beitü.

18. Phausa ezazü eskia zure esküñeko gizon gañen zuretako zürkhaistatü düzün gizon semiaren gañen;

19. Ezkütüzü haboro zütarik hürrüntüko; ar' emagüzü bizia, eta zure izenari oihü eginen dizügü.

20. Indarren Jinko Jauna, bahiguatik ütül eraz gitzatzü; agert ezagüzü zure begithartia, eta salbatürrik gütükezü.

GORANTZA LXXX.

Khantore huntzaliak nahi dü popüliak khanta dezan urthatseko egünian, edo tüten bestan. Besta hunen hatsarriaz mintzo da.

Ürhentzeko. Asafen kantoria lakuen gañen.

1. Khantalotsez ari zizteie Jinko gure begirazaliari, Zinkhaz ari zizteie Jakobon Jinkuari.

2. Sonü egizie, jo zazie atabala; hart zatzie gozagarriko sonia eta arrabita.

3. Tütez ari zizteie argizagia berri berri denian, eta bethe denian, zien besta handietako egünetan.

4. Hola aritez manhatürrik izan beita Israelen, eta Jakobon Jinkuak manhatü beitü.

5. Kostüma hori Josefi manhatü beitzeion, ohart ledin Ejiptoko lürretik idoki ziela, eta ezagützen etzien botz bat entzün ziela erraiten:

6. Haxia idoki deiat bizkarretik, eta eskietan eztütük haboro zariak erabilten.

7. Eskarniuan oihü egin deitak, eta soltatü hait; behatü nitzai arogaitzeko gordallian; borogatü hait aharrako hurtian.

8. Behadi, ene popülia, erranen deiat ene nahiküntia zer düdan; behatzen bahitzait, hitan eztükek Jinko berririk, eta eztük othoitüko Jinko atzerik.

9. Ni beniz hire Jinko Jauna, Ejiptoko lürretik idoki aiena. Zabalt ezak ahua, eta betheko deiat.

10. Bena ene popüliak eztü entzün ene mintzua, eta Israel etzait behatü.

11. Ützi dü, arren, bere nahiküntietara, eta bere goguala ari izan da.

12. Ene popülia behatü bazeitan, Israel ebili izan baliz ene bidetan,

13. Egotx nitzake bertan haren etsaiak, eta ene besua ütül laite eskarniatzen dütenen kontra.

14. Jaunaren etsaiak hitza jan beteoie, hen zorigaitzak irañen dü bethi.

15. Ogi irinez hazi zütien, eta zendako eztiz ase erazi.

GORANTZA LXXXI.

Jüje gaxtuak garrazki mehatxatzen tü Jinkuak.

Asafen kantoria.

1. Jinkua jarri da jinkoen bilkhüran, eta hen artian daguelarik, jüjatzten tü Jinkuak.

2. Nuiz artio gaizki jüjatüko düzie, eta begitharte hun eginen düzie gaxtuer?

3. Jüj' ezazie emütsa eta zürtza, bere züzena emozie; eta jente xehia eraik ezazie, zaphatü gabe.

4. Eraik ezazie emütsa, eta khent ezazie eskelia ogengilen eskietarik.

5. Eztakite deusik; eztüte deusik enthelegatzen; ülhünpian dabilta; lürreko zimentiak oro ikharatürrik daude.

6. Nik erran dü: Jinkuak zireie, eta oro Gañkuaren haurrak.

7. Nahi bada ere, gizonak bezala hilen zireie, eta aitzindariak bezala, erorien.

8. Jaiki zite, Jinkua; jüj' ezazü lürra, zure bürüzagigua hedatzen beita nazione güzien gaña.



GORANTZA LXXXII.

*Asafek othoitzen dü Jauna hel dadin, parrastaka Jüdeala jin diren
etsaien ohiltzeko.*

Asafen khantoria.

1. Jinkua, nur date zure üdüri? Etzitiela egon ixil ixila; etzitiela egon auher.
2. Zure etsaiak burrunbaz ari tüzü; hügüntzen zütienek alxtatü dizie büria.
3. Ixil ixila zure popüliaren kuntra aholkatzen düütüzü, eta gogo gaxtuak ditizie zure atherbian dienen kuntra.
4. Erran dizie: tziauste, arrabaska ditzagün nazionen artetik: eta hebentik harat ahatz dadila Israelen izena.
5. Algarreki hitz hartü dizie, eta zure kuntra algarri jüntatü tüzü Idümeako eta Ismaeleko oihaal-olhatarrak;
6. Moab eta Agar, Jebal eta Amon, eta Amalek; atziak eta Tireko hiri-tarrak;
7. Asür ere horra düzü haiekila Lothen semen lagüntzera.
8. Egin ezezü, Madiani eta Sisarari egin zineien bezala; Jabini egin zineion bezala Zisoneko ühaitzian.
9. Hil zütüzün Endorren, eta alhor gizengarritü.
10. Ezartzü haien aitzindariak Oreb, eta Zeb eta Zebee, eta Salmana bezala.
11. Hala hala egiezü aitzindari erran dütien güzier; nausi gitien Jinkuaren elizaz.
12. Ene Jinkua, ezartzü errota üngürazalia bezala, heguak eramaiten dien lastua bezala.
13. Nula ere süiak erratzen beitü oiñana, eta garrak mendia,
14. Hala hala zure arogaitzian lasterk itzatzü, eta zure khexian nahas ezezü büria.
15. Begithartia ahalkez estal ezezü, ebil ditien, Jauna, zure izenaren bilha.
16. Ahalke ditiela, eta sekülakoz lotsa; nahas ditiela eta gal.
17. Jakin dezela Jauna deithzen zirela; Zü zihau Gañgañkua zirela lür orotan.

GORANTZA LXXXIII.

*Jinkuaren egongiaren ikhusteko nahiküntia. Hobiago da han egotia
ezi ez eta ogengilen oihaal-olhetan.*

Ürhentzeko. Lakuentako, Koreen semer igorri khantoria.

1. Indarren Jauna, zuñen maithagarri dien zure egongiak! Ene arima engoxatürik dago Jaunaren etxe heupian sarthü nahiz.
2. Ene aragia eta ene bihotza boztariotzen dirade bizi den Jaunian.
3. Txoriak edireiten dü bere etxia, eta tortollak bere habia, hümen han üzteko.
4. Zure althariak..., indarren Jauna, ene Erregia, eta ene Jinkua.
5. Dohatsü, Jauna, zure etxen daudenak, mendez mende laidatüko beitzüte!
6. Dohatsü lagüntza zütarik ügürükitzen dien gizona, eta nigarrezko ibar huntarik zure ganat igaraiteko bidia hartzen diena!
7. Legegiliak benedikatürik, berthütetik berthütialatüko da, eta Sionen ikhusiko dü Jinkuen Jinkua.
8. Indarren Jinko Jauna, beha zite ene othoiztari, zure beharria zabalt ezozü, Jakoben Jinkua.
9. Gure begirazale Jinkua, sogin ezagüzü, eta sogizü zure Khristuaren begithartari.
10. Zure etxe heupeko egün bat, mila egün beno hobiago düzü.
11. Nahiago dit egon Jinkuaren athalazian, ezi ez ogengilen oihaal-olha barnen.
12. Jinkuak maite dütü ürrikaltarzüna eta egia; Jaunak emaiten tü grazia eta loria.
13. Ogen gabe dabiltzanak eztütü zorihunetik hürrüntzen. Indarren Jauna, dohatsü zütan esparantxa dien gizona!

GORANTZA LXXXIV.

Jinkuari esker emanak bahiguatik ütüzültzian.

Ürhentzeko. Koreen semer igorri khantoria.



1. Benedikatü düzü, Jauna, zure lürra, bahiguatik ideki düzü Jakob.
2. Ükhüzi düzü zure popüliaren gaizkia, eta estali tüzü haren ogenak.
3. Ematü düzü zure khexü güzia, eta baratü zure kolera handia.
4. Gure ganat ütüzül zite, gure Salbazale Jinkua, gütarik baztert ezazü zure khexia.
5. Khexü ziratia bethi gure kuntra? Hedatüko düzia zure kolera undoriotik undoriuala?
6. Jinkua, ütüzül zitzaizkula bizi gitien; zütan botz dadin zure popülia.
7. Erakhuts ezagüzü Jauna, zure ürrikaltarzüna, eta eman ezagüzü zure lagüntze huna.
8. Jinko Jaunaren elher beha nago; bakiaz mintzo beita bere popüliari,
9. Bere saintier, eta bihotz hunez haren ganat ütüzülzen diener.
10. Beldür zaitzonak salbatüko tü; eta haren loria gure herrian egonen da.
11. Ürrikaltarzünak eta egiak algarreki bürü egin düte, xüxengua eta bakia besarkatü dia.
12. Egia lürretik sorthü da, eta xüxenguak zelütik sogin dü.
13. Jaunak iaurtzen tü bere huntarzünak, eta gure lürak ekhoitzpen emanen dü.
14. Xüxengua haren aitzinian juanen da, eta jarraikiko zaio bidexkan.

GORANTZA LXXXV.

Gizon xüxenaren othoitzia, bihotz minetan denian. Handi da Jinkua. Nazione güziak ezagützen düte haren handitarzüna.

Dabiden othoitzia.

1. Jauna, aphal ezazü zure beharria, eta beha zakitzat, emüts eta eskele beniz.
2. Begira ezazü ene arima, jarraikiten nitzaizülakoz; ene Jinkua, salb'ezazü zure sehia, zütan beitu esparantxa.
3. Ürrikalt zakitzat, Jauna; egün orotan helez ari nitzaizü; botz ezazü zure sehiaeren arima, zure ganat, Jauna, eraikiten beität ene izpiritia.

4. Jaun hun eta ezti beitzira; ürrikaltarzün hanitx beitätü helez ari zaitzünentako.
5. Zure beharriak zabalt etzatzü, Jauna, ene othoitzari; beha zite ene othoitzettuari.
6. Ene eskarnioko egünian oihü egiten deizüt, behatzen zitzaiztadalakoz.
7. Eztüzü ez, Jauna, jinkuetan zü bezalakorik; zure lanak bezalakorik egiten dienik.
8. Egin dütüzün nazioniak oro aitziniala jinen zaitzü othoitzera, Jauna; eta loriatüko dizie zure izena;
9. Handi, miragarri egile, eta Jinko bakotxa zirelakoz.
10. Erakhuts ezadazü, Jauna, zure bidia, eta ebiliko nüzü zure egian; botz eta zure izenaren beldürt dadila ene bihotza.
11. Ene Jinko Jauna, laidatüko zütüt ene bihotz oroz, eta loriatüko dit bethi zure izena,
12. Enetako düzün ürrikaltarzüna handi delakoz, eta arima idoki deitazülakoz leze barnetik.
13. Jinkua, gaizkigiliak ene kuntra jaiki tüzü, eta ehelegatü eli batek bizia ideki nahi ditazie; ezpeitzüte beren aitzinian ezarri.
14. Bena zü zirade Jinko Jaun ürrikaltsü, bihotz bera, lüzakor, ürrikaltarzün handiko eta egiatsü bat.
15. Beha eta ürrikalt zakitzat; zure indarra emozü zure sehia, eta salb' ezazü zure gelhariaren semia.
16. Nitán ezarzü zure huntarzüneko kheñü bat, ene hügüntzalek ikhus dezen, ahalketürik, zük Jauna, lagüntü eta aholkatü naizüla.

GORANTZA LXXXVI.

Zuñen eder den Jerüsalemeko hiria.

Koreen sementako, khantoria.

1. Mendi saintietan dütü bere zimentiak. Jakobén olha güziak beno maitiägo tü Jaunak Sioneko portaliak.
2. Zütaz diotzie gaiza miragarriak, Jinkuaren hiria.
3. Orhit nizate Errahabez eta Babilonez, ezagützen benaie.
4. Han atziak, Tireko eta Ethiopiako popüliak sorthüko dirade.



5. Sionez mintzatzian eztütea erranen: Han sorthü da hanitx gizon; Gañgañkuak berak egin dü?
6. Jaunak izkiribüz ezarriko dü han egon dien popülien eta aitzindarien zunbata.
7. Zütan egoiten direnak oro boztariuan dütüzü.

GORANTZA LXXXVII.

Bere ezagünek eta askaziek ützi dütenaren othoitzia.

Koreen semen khantoria ürhentzeko, aldizka khanta lezen. Eman Ezraiten erakhutspena.

1. Jauna, ene salbamentüko Jinkua, gaiaz eta egünaz oihü egin deizüt.
2. Zure gana hel dadila ene othoitzia; ene khueintala apha ezazü zure beharria.
3. Gaizkiz betherik beitüt arima, eta ene bizia heriuaren hüllan beita.
4. Hobialat duatzanen herrokan niagozü; lagüntzale gabe den gizona bezala nüzü, hilen artian soltik.
5. Ezpata txistaz kolpatürük, hobian lotan ahazterik daudenak bezala nüzü, lagüntü eztütüzün huak bezala.
6. Ezarri nizie zilo barnan, ülhünpetan, heriuaren itzal pian.
7. Zure khexia nitan gaña gogortü düzü, eta süntsitü naizü zure arogaitzian.
8. Hürrüntü deiztadzütü ene ezagünak eta haiez hastia erazi naizü.
9. Bazter orotarik zerratürük niagozü, ezpenainteke elkhi; eta minez eihartü ziztatzü begiak.
10. Egün oroz oihüz ari nitzazü, eskiak zure ganat eraikiten ditit.
11. Hilentako eginen düzia miraküllürük? Araphiztükü direia zure laidatzeko?
12. Nihurk ere iaurriko dia zure ürrikaltarzünaren berria hobian, eta zure egia hil ziluan?
13. Agertükü direia zure mirakülliak ülhünpian, eta zure xüxengua ahatzguako herrian?
14. Ni hatik helez ari nitzazü, Jauna, eta goizan goizik othoitze egiten deizüt.

15. Zentako, Jauna, bazterrialatzen düzü ene othoitzia; zentako goratzen deitazü zure begithartia?
16. Emüts nüzü eta gaztaroti danik eskarniuetan; goratü unduan aphaltü nüzü eta ahalketü.
17. Gañetik igaraiten ziztatzüt zure khexiak, eta zure beldürrak ezdeustü nizü.
18. Egün orotan hurrek bezala, üngüratzen nizie, batetan üngüratzen benaie.
19. Hürrüntü deiztatzü adixkidiak eta askaziak, eta ülhünpiak ditit lagüntako.

GORANTZA LXXXVIII.

Jaunaren ürrikaltarzüna Dabiden etxenkuentako. Ethanen khueintak Jüdeako Erresumari heltü zaitzon zorigaitzen gatik.

Ethan-Ezraitaren erakhutspena.

1. Bethi khantatükü tüt Jaunaren ürrikaltarzünak.
2. Ene ahuak laidatükü dizü zure egia undoriotik undoruala.
3. Erran beitüzü: Bethikoz zimentatürük da zelieta Jaunaren ürrikaltarzüna, han zürkhaitstatü düzü zure egia.
4. Adixkidegua egin dü berhezi düdanarekila; Dabid ene sehiari zin egin deiot: Hire azia bethi irañ eraziko diat,
5. Eta hire jargia lanthüko diat undoriotik undoruala.
6. Zelik bethi erranen ditizie, Jauna, zure miragarritzko eginak; laidatükü dizie zure egia Saintien bilkhüran.
7. Odeietan nur da Jinkuaren bardin? Gizon semetan nur da Jinkua bezalako?
8. Jinkua izigarri da Saintien bilkhüran, eta harrigarri üngüratzen die-mentako.
9. Indarren Jinko Jauna, nur da zü bezalako? Jinko azkharra zirade, eta egiak üngüratzen zütü.
10. Indarra hezten derozü itxasuari, eta ematen derotzü bere hurren builtak.
11. Gizon kolpatia bezala, egotxi düzü Errahab; zure besoko indarrak barreiatü tüzü etsaiak.



12. Zuriak dütüzü zeliak, zuria düzü lürra; mündia eta edeiten dütie-nak zimentatü tüzü; egin dütüzü hegua eta itxasua.
13. Thabor eta Hermon jauztekan ari tüzü zure izenaren entzütian; indarra zure besuan diagozü.
14. Gothor düzü eskia, eta gora besua. Zure jargiako zürkhaitzak, xüxengua eta jüjamentia tüzü;
15. Ürrikaltarzüna eta egia zure begitharte aitzinian duatzü. Dohatsü tütotsez aritzen dakien popülia!
16. Ebiliko beita zure begithartiaz argitürrik, eta egün oroz alageratüko beita zure izenian eta zure xüxenguan.
17. Zü beitzira haren indarreko loria; zure huntarzünak büria altx' eraziko diküzü.
18. Jauna da gure begirazalia, eta Israeleko Saintia gure erregia.
19. Zure saintiari ametsetan mintzatü zaitzo, eta erran derozü: Ahaldüna lagüntü diat, eta popülü xehetik goiti eraiki diat berhezi niena.
20. Dabid ene sehia ediren diat, eta berekatü diat ene olio Saintiaz.
21. Ene besuak lagüntüko dik, eta ene esküna zürkhaitz dikek.
22. Haren kuntra etsaiak eztioket deusik egin, gaizkigiliaren semiak eztiok gaitzik eginen.
23. Begien aitzinetik arrabaskatüko diotzat etsaiak, eta ohiltüko hügüntzaliak.
24. Ene egia eta ene ürrikaltarzüna harekila tükek, eta ene izenian goratüko dik büria.
25. Hedatüko dioat eskia itxasuala, eta esküna ibaietara.
26. Erranen ditak oihüz: Zü zia ene aita, ene Jinkua, ene salba-mentüko zenda.
27. Eta nik primütüko diat, eta lürreko erregen bürüzagi ezarriko.
28. Sekülakoz begiratüko dioat ene ürrikaltarzüna, eta egin diodan adixkidegua eztiat hautsiko.
29. Eta mendez mende irañ eraziko dioat bere azia, eta zeliak bezañ beste bere jargia.
30. Bena haren haurrek ützen badüte ene legia, eta ene xüxenguan ezpalinbadia ebiltan;
31. Ene maniak egiten ezpatie, ene erakhutspena ezpadie begiratzen,
32. Zaharua eskian haien gaizkien ikhustera juanen nük, eta beren ogenak zaflatüko dietzat.
33. Eztieiat hatik eruanen ene ürrikaltarzüna, ez eta ere ene hitza janen.

34. Eztiat hautsiko ene adixkidegua; ene ezpañetarik elkhi dien hitzak eztiat borratüko.
35. Behin zin egin dioiat Dabidi, eztiotat gezürrik erran, haren azia mendez mende biziko dela;
36. Haren jargiak ene aitzinian, ekhiak bezañ lüzez eta argizagiak bezañ lüzez, irañen diela; jakile huna zelian dük.
37. Zük, hatik, bazterrialat ützi düzü, eta mesperetxatü düzü; berantü derozü zure Khristua.
38. Zure sehieren adixkidegua iralli düzü eta lürrian herestatü derozü khorua.
39. Phorrokatü derotzü üngürüko zerralliak, eta lotseria iaurri derozü bere fortalezetan.
40. Bidetik juaile güziek arrogatü dizie, bere aizuen trüfagarritü düzü.
41. Haren zaflarier altxatü derezü besua, alagerazi dütüzü haren etsai güziak.
42. Ezpata lanphüstü derozü, eta gerlan eztüzü lagüntü.
43. Bere handiguatik pikarraitü düzü, eta lohistatü derozü jargia.
44. Aphürtü derotzü gaztaroko egünak, eta ahalkez bethe düzü.
45. Nuiz artio zaudeke gorderik, Jauna? Nuiz artio süia bezañ gartüko da zure khexia?
46. Ohart zite zuñen flakü nizan, eta ez deus. Eztütüzia gizonen haurrak oro hautskor egin?
47. Nur bizi ahal daite heriua ikhusi gabe? Nurk eruan ahal lio bere bizia hobi zolatik?
48. Nun dia leheneko Dabidi zinzinez hitzaman zineitzon ürrikal-tarzün huak?
49. Ohart zite, Jauna, zure sehier nazionek egin deitzen laiduez; nik bihotz barnen ditit.
50. Zure etsaiak mehatxüz ari zizkützü, dioielarik: Khanbierazi zütügüla zure Khristuarentako.
51. Sekülakoz benedika dadila, Jauna. Halabiz, halabiz.

Laugarren Libria.



GORANTZA LXXXIX.

Bethiko Jinko Jauna da bere popüliaren lagüntzalia. Gizonaren bizi llabürra.

Moise Jinkotiararen (sic) othoitzia.

1. Jauna, gure ihes lekhü izan zirade undoriotik undoriuala.
2. Mendiak sorthü beno lehen, lürra eta mündia muldatü zien beno lehen, bethi danik Jinko zinen.
3. Erhauts erazten düzü gizona, eta erraiten derozü: Ez deus hadila.
4. Zure begientako mila urthe, atzo igaran den egüna bezala dütüzü,
5. Eta bardako gaia bezala; haien urthiak ez deus balia bezala dütükezü.
6. Baduazü gizona, goizan sorthü eta lilitü den belharra bezala; arratsen ebakirik eihartzen eta idortzen düzü.
7. Zure khexian engoxatzen gütüzü, eta zure fürian ezdeusetarutzen.
8. Gure gaizkiak ezarri tüzü zure begien aitzinian, eta gure bizi güzia zure begiharteko argian.
9. Gure egünak oro juaiten dütüzü; gihau ere baguatzü zure khexiaren aitzinian.
10. Gure egünak baduatzü añharbarenak bezala; gure biziko egün güziek hirurtan hogeita-hamar urthe egiten dizie.
11. Lautan hogeietara heltzen tüzü zallenentako; haboruago bizitzia eskarnio eta bihotz min beita.
12. Laster igaraiten gütüzü eta hegaltatzen.
13. Nurk daki zure khexiaren indarra, eta zure koleran emaiten deiküzün lotseria.
14. Erakhuts ezagüzü zunbat egünez bizi behar dügün, gure bihotzer zühürtzen ikhas dezegün.
15. Gure ganat ütüzül zite, Jauna; nuiz artio zure sehien khexü zirate?
16. Goizan goizik ase gitzatzü zure ürrikaltarzünez, eta boztariotüko gütüzü eta gozatüko gure biziko egün güziez.
17. Boztario eraz gitzatzü zaflatü gütüüzün bezañ beste egünez, eta bihotz min ükhen dügün bezañ beste urthez.
18. Zure lana agert dadila zure sehietan, eta zure loria haien haurretan.

19. Gure Jinko Jaunaren argia hel dadila gütara; lagünt gitzala gure lanetan, eta zürkhaitz ditzala gure eginak.

GORANTZA XC.

Jaunian esparantxa dütenen zorihuna. Etsaiek ezteie gaitzik eginen, eta lüzaz biziko dia.

Dabiden khantoria.

1. Gañgañkuaren gordallian daguena deskansatüko da Jinkuaren itzal pian.
2. Jaunari erranen deio: Ene begirazalia eta ihes lekhia zirade. Ene Jinkua, zütan esparantxa diket.
3. Soltatüko zütü ihizlariaren xederatik eta gaizkiko elhetik.
4. Bere sorbaldez itzaliko zütü, eta haren hegalpetan esparantxa dükezü.
5. Haren egiak üngüratüko zütü; eta gaiezko lotserien beldürrik eztükezü,
6. Ez eta ere egünezko flex hegaltarien, ülhünpetan dabiltzan gaizkien, eta ügerdiko debriaren.
7. Zure eixkerrialat mila, eta zure esküñialat hamar mila eroriko tüzü; batek ere etzütü hunkiko.
8. Zure begiez ikhusiko tüzü gaizkigiliak zaflatzen;
9. Erran düzülakoz: Zü zirade, Jauna, ene ihes lekhia; eta Gañgañkua düzülakoz atherbe.
10. Gaitzik etzaizü heltüko, eta zauriak zure oihal-olhalat eztütüzü hüllantüren.
11. Bere Aingürier manhatü beitä, begira zitzen bidian,
12. Eskü-jargia gañen ekharriko zütie, harri zunbaiti behatztopa etzitian.
13. Ebiliko zira sügiaren eta süskerraren gañen. Zure zankhuez urixkiko dütüzü lehua eta heren-sügia.
14. Jaunak erran beitä: Salbatüko düit nitan esparantxa dielakoz; begiratüko düit, ene izena ezagütü dielakoz.
15. Oihü eginen deit, eta behatüko nitzai; harekila nago eskarniuan denian, eta loriatüko düit.



16. Egün lüzez as'eraiziko düt, eta erakhutsiko deiot ene salbamentia.

GORANTZA XCI.

Khantore huntzaliak laidatzentü Jaunaren ürrikaltarzüna eta egja. Jinkuaren egin ederrak. Xüxenen zorihuna; Gaxtuen zorigaitza.

Neskenegüneko kantoria.

1. Hun da Jaunaren laidatzia, eta khantarrapikotsez zure izenari ari-tzia, Gañgañkua?
2. Goizan zure ürrikaltarzünaren, eta gaien zure egiaren berri emaitia,
3. Hamar khordetako sonian, khantatzez zitharan.
4. Zük egin dütüzünetan alagera erazten naizü, Jauna, khantatzen ditit zure obra ederrak.
5. Zuñen eder dien, Jauna, zure obrak! Zuñ barna diren zure goguak!
6. Ertzuak eztakitzü nulako diren, eta ergelak eztiotzü enthelega.
7. Belharra bezala, sorthzen badira ogengiliak, gaizkigile güziak lilitzen badira ere,
8. Mendez mende galtzekuak dütüzü; zü, aldiz, Gañgañkua, seküla-koz zirade.
9. Soizü, soizü, Jauna; zure etsaiak galtzen ari tüzü eta gaizkigiliak oro barreiatzen.
10. Büria goratüko deitazü adar bakoitxak adarra goratzen dien bezala, eta ene zahartazüna ürrikaltarzünez betheko deitazü.
11. Ene begiak ikhusiko tizü kukuxkan ari zaitzanak, ene beharriek entzünen tizie gaizkigilen orruak.
12. Xüxen dena lilitüko düzü zühaña bezala, eta handitüko Libaneko izeia bezala.
13. Jaunaren etxen lanthatürik, lilitüko düzü Jinkuaren etxe-heupian,
14. Eta zahartarzünialano emanen dizü ekhoitzte; azkhar eta zall dükezü, erranik izan dadin.
15. Gure Jinko Jauna xüxen eta gaizki gabe dela.

GORANTZA XCII.

Bethidanik da Jauna. Jinkuaren ahala, handitarzüna eta egja.

Dabiden gorantza edo khantoria; lürra muldatü zenian.

1. Jauna erregetü da; indarrez eta loriaz beztitürik bere ahala jauntsi dü.
2. Lürra tinkatü da, eta ezta khordokatüko.
3. Ordü hartan adelatürik züzün zure jargia, bethi geroztik beitzinen.
4. Ibaiek, Jauna, ibaiek ozentü tizie beren orruak,
5. Ibaiek goratü tizie beren holak; hurrak herotz handitan gañtizen zielarik.
6. Itxasoko builtak harrigarri dira; harrigarriago da, hatik, Jauna zelü gañian.
7. Sinhetsgarri tüzü hanitx hitzaman tüzünak, Jauna, zure saintütarzüna zure etxenko edergallü dükezü bethiko egünetan.

GORANTZA XCIII.

Popüliaren aholkia. Jinkuak zaflatüko tü gaxtuak. Jinkuaren zühürtzia. Jaunak salbatüko dü bere popülia.

Dabiden khantoria asteko laugerren egüneko.

1. Mendeküko Jinko Jauna, mendeküko Jinkua, agert zite.
2. Jaiki zite, lürreko jüjia; ürgüllütsier emezü bere saria.
3. Nuiz artio, Jauna, nuiz artio ogengiliak hantüko dirade?
4. Nuiz artio solaz tzarretan ariko dirade ogengile gaizki mintzazaliak oro?
5. Zankhopetan dabilazie, Jauna, zure popülia, eta arrabaskatzen dizie zure funtsa.
6. Erhaiten tizie alhargüntsa eta atzia; erhaiten dizie haur zürtza.
7. Erraiten dizie: Jaunak eztü ikhusten; deusik eztaki Jakobon Jinkuak.



8. Gizon ertzuak, entheleg'ezazie; gizon tuntuak, behin phürü zühürt ziteie.

9. Beharria muldatü dienak ezta entzünen? Begia egin dienak ezta ikhusiko?

10. Nazioniak hezten tienak etzütieia heziko; etzütieia eskolatüko?

11. Badaki bai Jaunak, gizonen goguk gogo balheiak direla.

12. Dohatsü, Jauna, zük eskolatü düzün gizona, eta zure begia erak-hutsi derozüna,

13. Haren ganik hürrünt ditien egün gaxtuak, ogen giliaren zilua egin artio!

14. Jaunak eztü bere popülia ohiltüko, ez eta ere bere züzen phartia ützi.

15. Jüjamentia ütziüko da jüstiziala, eta bihotzez xüxen direnak oro jarraikiko zaitzo.

16. Ene althe nur jaikiko da ogengilen kuntra? Enekila nur egonen da gaizkigilen kuntra?

17. Jinkuak lagüntü ezpanündü, ene bizia laster eraitsi zatien hobialat.

18. Bena erran düdanian: Zakhua igitzen zitazü; zure ürrikaltarzüna, Jauna, jin zitazüt lagüntzera.

19. Ene bihotz min handien izariaren arabera, zure aholkiek alageratzen zitazien arima.

20. Zuri loth laitekia gaizkiko hokia, bortxakeria züzenaren lekian ezarten diena?

21. Gaizkigilek xederak hedatzen xüxen denari, eta ogenik eztien odola ixurten.

22. Jauna da ene ihes lehia, eta ene esparantxaren zenda.

23. Gaña eror eraziko deie beren gaizkia, beren malezian itho eraziko tü; Gure Jinko Jaunak ezdeustüko düti.

GORANTZA XCIV.

Khantore huntzaliak nahi lüke gizonen laida ezen Jauna, eta bihotza gogort eztezen.

Gorantza edo Dabiden khantoria.

1. Tziauste, uhatxez eta zinkhaz ari gitien gure salbamentüko zendaren uhuretan.

2. Guazkion aitziniala, eta khant'arrapikotsez ari gizkon.

3. Jauna Jinko handia beita eta jinko güzien errege handia.

4. Ahürrian etzekitzen tü lürreko bazter güziak; harenak dirade mendi kükülak.

5. Harena beita itxasua, egin beiti; haren eskiek muldatü beitie leiherra.

6. Tziauste, belharrika gitien, othoit dezagün, ari gitien marraskaz egin gütien Jaunaren aitzinian.

7. Gure Jinko Jauna da; gü girade haren bazkagiako popülia, eta haren esküpeko ardiak.

8. Entzüten badüzie egün haren mintzua, zien bihotzak eztetzatziela gogort,

9. Zien aitek gogortü zütien bezala khexüko egünian, therritatzen nündielarik desertian; borogatü nündien, nahi bada ene lan miragarriak ikhusi zützen.

10. Berrogei urthez phüntsü egon niz arraza horen kuntra, eta erran dü: bihotza nahasirik dü.

11. Eztütü ezagützen ene bidiak, eta zin egin dü ene khexian eztele sarthüko ene phausagian.

GORANTZA XCV.

Esker eta laidorio Jaunari hunki egiten dielako.

Eliza egin zütienian, bahiguatik ütziü unduan.

1. Khanta Jaunari khantore berri; lürreko popüliak, khant' ezazie Jaunari.

2. Khant' ezazie Jaunari, benedik' ezazie haren izena; egünetik egüniala haren salbamentiaren berri emazie.

3. Haren loria barre'ezazie nazionen artian, eta haren miragarriak popülü güzien artian.

4. Jauna handi eta laidagarri beita; eta jinkuak oro beno izigarriago.

5. Nazionen jinko güziak jinkaizün baizik eztirade. Jaunak egin tü zeliak.



6. Loria eta laidoriuak haren aitzinian duatza; indarra eta boztariau haren egongian daude.

7. Jaunari eskhent etzotzie, gizeliak, Jaunari eskhent etzotzie zor zaizkon loria eta uhuria; eskhent ezozie bere izenaren loria.

8. Dohañak ekhar etzotzie, eta ztiauste haren heupiala; othoi zazie Jauna bere eliza heupian.

9. Haren aitzinian ikhara ditiela lürreko ekhoiliarrak; errazie nazionen artian: Jauna erregiñatzen da.

10. Tink tinka dagoke lürra, eta ezta igitüko; Jaunak xüxenguan jüjatüko tü popüliak.

11. Botz ditiela zeliak, alagera dadila lürra, orruaz ari dadila itxasua edeiten dütieneke; boztario ditiela kanpuak edeiten dütien güziaki.

12. Oihanetako zühañak ari ditiela uhatxex Jaunaren aitzinian, horra beita; horra beita lürrenen jüjatzerä.

13. Xüxenguan jüjatüko dü lür güzia, eta bere egiaren arabera popülü güziak.

GORANTZA XCVI.

Jauna erregiñatzen da; xüxenguan jarririk dago. Xüxen dienen zori huna.

Dabiden khantoria, bere herrialat jin zenian.

1. Jauna erregiñatzen da; botz dadila lürra; botz ditiela itxasoko ühar-te salduak.

2. Odeiz eta ülhünpez üngüratürik da, xüxenguaren eta jüjamentia-ren gañen phausatü dü bere jargia.

3. Aitzinian baduako süia, eta üngürüko oro erratzen deitzo.

4. Haren iñhaziak argitzen tüzte bazter güziak; eta haren ikhustian ikharatzen da lürra.

5. Ezkua bezala, hurtzen dia mendiak Jaunaren aitzinian, lürreko nausiaren aitzinian.

6. Zeliak agertzen düte haren xüxentarzüna, eta lürreko ekhoiliarak (sic) oro haren loriari soz daude.

7. Ahalkez gorri ditiela añaner othoiez ari dienak, eta bere jinkaizü-nez hantzen dienak!

8. Hua othoi dezela jinko güziek; entzün dezala Sionek, eta botz dadila.

9. Jüdako neskatilak botz ditiela, Jauna, zure jüjamentien gatik.

10. Zü beitzirade Gañgañkua, lür güziaren bürüzagia, eta jinko ororen nausi gehiena.

11. Jinkua maite düzieneke hügünt ezazie gaizkia; Jaunak bere adixki-den arimak begiratzen tü, eta gaizkigilen eskietarik erruaiten.

12. Argia zabaltü da xüxenentako, eta boztariau bihotz hunentako.

13. Jaunian alagera zizteie, jüstuak, eta laid' ezazie haren saintütärzü-neko orhitzpena.

GORANTZA XCVII.

Jaunaren ahal handia. Popülien boztariau eta zorihuna.

Dabiden khantoria.

1. Khant' ezazie Jaunari khantore berri; miragarriak egin beitütü;

2. Haren esküñak eta beso saintiak salbatü gütü.

3. Jaunak erakhutsi dü bere salbamentia, eta nazioner agertü deie bere jüstizia.

4. Ohartü da bere ürrikaltarzünaz eta Israeleko-etxiari hitzaman zien egiaz.

5. Lürreko bazter güziek ikhusi düte gure Jinkuaren salbamentia.

6. Lürreko bazterrak, Jinkuari ari zizteie uxatxex; khant' ezazie, laid' ezazie eta sonü egiozie.

7. Ari zizteie Jaunari khant'arrapikotsez, arrabitotsez eta khantalo-tsez; xaranbelotsez eta tütotsez.

8. Alagera zizteie Jaunaren aitzinian, zien Erregeren aitzinian; itxasua eta edeiten dütieneke, lür güzia eta han daudenak herotsez ari ditiela.

9. Ari ditiela ibaiak eskü zapartaka, mendiak aldiz jauzteka, Jaunaren aitzinian; horra beita lürrenen jüjatzerä.

10. Xüxenguan jüjatüko dü lür güzia, eta bardinguan popüliak.



GORANTZA XCVIII.

*Erregiñatzen da Jauna. Jinkua othoi dezela popüliek, Moisek,
Aarunek eta Samüelek egin düten bezala.*

Dabiden khantoria.

1. Jauna erregiñatzen da. Khexa ditiela nazioniak. Kherübimen gañen jarririk dago, ikhara dadila lürra.
2. Sionen handi da Jauna; nazione güzien gagnen dago.
3. Laida dezela zure izena, handi, izigarri eta saintü delakoz. Erregeren ahala xüxengua khi beita.
4. Adelatü düzü xüxengua; Jakobi egiten derozü jüjamentü eta jüstizia.
5. Gorantza egiozie gure Jinko Jaunari; belharrika zizteie haren zankho petako hokiaren unduan, saintü beita.
6. Moisek eta Aarunek aphezen artetik, eta Samüelek helez ari zeitzen artetik.
7. Oihü egin zioieen, eta Jaunak ihardetsi zeien.
8. Mintzatü zeien odei baten gañetik, eta eman zeitzen maniak eta legia begiratü zützen.
9. Gure Jinko Jauna, haier behatü zinen; haientakoro ürrikalkor izan zinen, zaflatzen züntienian ere beren ogenen gatik.
10. Laid' ezazie gure Jinko Jauna; belharrika zizteie haren mendi saintiaren aitzinian, gure Jinko Jauna saintü beita.

GORANTZA XCIX.

*Laid' ezazie Jauna; sar zizteie haren elizan, eta aithor ezazie
haren popülia zireiela.*

Laidatzeko khantoria.

1. Lürtarrak, uhatxez ari zizteie Jinkuari; botzik zerbüttx' ezazie Jauna.
2. Haren aitziniala zuazte alagranzia handitan.
3. Jakin ezazie Jauna Jinkua dela; harek egin gütü; ezkirade gihau egin.

4. Haren popülia eta haren ardiak zireie; sar zizteie laidoriotsez haren portal-petan; haren etxe-heupian khant'arrapikotsez laid' ezazie.

5. Laid' ezazie haren izena, Jauna hun beita; haren ürrikaltarzüna bethikua beita; haren egia undoriotik undorietara igaranen beita.

GORANTZA C.

Printze hun ogenik gabe bizi den baten itxura: hügünt dü okherkeria, hezten tü gaxtuak eta berhezen aitzindari hunak xüxenen begiratzeka.

Dabiden khantoria; beretako.

1. Khantatüko ditit, Jauna, zure ürrikaltarzüna eta zure xüxengua.
2. Khantalotsez bide thona gabiari jarraikiko nüzü. Nuiz jinen zira-de ene ganat?
3. Ene etxen ebiliko nüzü bihotz xahütarzünian.
4. Eztit goguan hartüko egiteko gaxtorik, hügüntüren tit arnegaten ürhatsak;
5. Gaxtueki eztit egitekorik; mardallera estit (sic) ezagützen.
6. Arrabaskatüko dit bere anaia mihi khaldüz gordallian larrützen diena.
7. Eztit janen begia gora eta bihotza harro dütienequila.
8. Begixtatüko tit gizon egiatsiak, ene khantian jar erazteko; bide xüxenian dabilana ene mixkandi dükezü.
9. Ürgüllüz hantürik dena eztüzü ene etxen egonen; gezürtia etxeki dit ene ganik hürrün.
10. Argi hastetik lürreko ogengiliak oro ezdeüstüko ditit; gaizkigile güziak xahatüko ditit Jaunaren hiritik.

GORANTZA CI.

Babilonen bahi zaguen popüliaren othoitzia. Bahigua akabatzen da, eta Jerüsaleme araeraikiten.



**Eskarniuetan daguenaren othoitzia; bere bihotza
hüsten dü Jaunaren aitzinian.**

1. Jauna, beha zite ene othoitzari, eta ene oiha hel dadila zure gana.
2. Zure begithartia eztezdazüla bazterrialat ütüz; ene eskarnioko egünetan beha zakitzat.
3. Nik oi hü egiten deizüdan bezañ sarri, hel zakitzat.
4. Ene egünak khia bezala beituatza, eta ene ezürak labeko thoska bezala idortzen beitura.
5. Ephaitürik niagozü belharra bezala; bihotza eihartü zitazüt, ene ogiaren jatia ahatze beitzait.
6. Hasperen eta heiagora egitez larria ezürer josi zitazü.
7. Desertüko pelikanuaren üdüri nüzü, etxau ziluetan daguen hüntza bezalakotü nüzü.
8. Iratzarririk niagozü hegatzeko kaheka bezala.
9. Ene etsaiak egün oroz gaizkiz ari zitztadatzü; eta lehen laidatzen nündienek ere burhauz xahatzen nizie.
10. Jaten dit hautsa ogia bezala, eta ene edatekuari nahasten ditit ene nigarrak.
11. Zure khexia eta zure samindüra diela kausa; altxatü unduan urt-huki benaizü.
12. Ene egünak itzala bezala aphaltzen tüzü; ni aldiz belharra bezala eihartzen nüzü.
13. Zü hatik, Jauna, ber bera zaude bethi, eta zure orhitzpena undoriotik undorietara baduazü.
14. Jaiki zite, eta Sioni ürrikalt zakitzo, hari ürrikaltzeko tenoria jin beita.
15. Zure mixkandiek maite beitzüte hanko harrisi iralliak; ürrikalt betzeie hanko lürra.
16. Jauna, zure izenaren beldür tükezü nazioniak, eta zure loriaren, lürreko erregiak oro,
17. Ar' eraiki dütükezünian Sioneko etxiak, eta agertü ziatienian zure lorian;
18. Behatü ziatienian aphalen othoitzari, eta haien galthua gütietsitü eztükezünian.
19. Hoiek oro izkiribatürik dütükezü undokuentako; eta sorthüko den popüliak laidatüko dizü Jauna;
20. Bere gañeko egongia saintütik sogin dielakoz Jaunak; zelütik sogin dielakoz lürrialat,

21. Bahi daudenen heiagoren entzüteko, eta herioko hurren salbatzeko;
22. Barreia ezen Sionen Jaunaren izena, eta haren laidoria Jerüsalem,
23. Popüliak eta erregiak alageratü diatienian Jaunaren zerbützatzeko.
24. Ene bidian indarrak phorrokatü deitzat, llabürtü dütü ene egünak, eta erran deiot:
25. Enezazüla mündütik eruan ene biziko egünen erdian; zure urthiak undoriotik undorietara beituatza.
26. Hatsarrian zük, Jauna, egin düzü lürra, eta zeliak dütüzü zure eskien lanak;
27. Hoiek igaranen dütüzü; zü aldiz egonen zirade; arropa bezala, oro zahartüko tüzü;
28. Zük khanbiatüko dütüzü, eta khanbiatürik dütükezü estalgi bat bezala; zü aldiz ber bere bethi zaudeke, eta zure urthiak etzaitzü aphürtüko.
29. Zure sehien hurrak zurekila dütükezü, eta haien azia eztüzü seküla zure khantütik igitüko.

GORANTZA CII.

Eskerrak Jinkuari hunki egin dielakoz; bere popüliari pharkatü deitzolakoz ogenak, eta haren flakeziaz ürrikaltü delakoz.

Dabidentako.

1. Oi, ene arima, benedik' ezazü Jauna; nitan den güziak benedika dezala haren izen saintia.
2. Oi, ene arima, benedik' ezazü Jauna; eztetzatzüla ahatz egin deitzün hunkiak.
3. Pharkatü deitzü zure ogen güziak, sendotü deitzü zure minak.
4. Heriotik ara erosi beteizü bizia; ürrikaltarzünez eta graziaz üngüratü zütü.
5. Zure nahiküntia huntarzünez bethe dizü, eta gaztarua, arranuarena bezala, araberritü deizü.
6. Ürrikalkor da Jauna; ogenik gabe lehertürik dienen althe jarten da.



7. Bere bidiak agertü deitzo Moisei, eta Israeleko haurrer bere nahiküntiak.

8. Jauna ürrikalkor da, eta ürrikaltsü; lüzakor da eta ürrikaltsü.

9. Ezta bethi khexatüko, ezta bethi mehatxüz ariko.

10. Etzaikü ari gure ogenen arabera; ezkütü zaflatzen gure gaizki handien arabera.

11. Zelia lürretik gora den bezañ bestez bere ürrikaltarzüna hedatü dü beldür zaitzonen gañera.

12. Ekhi jaikigia itzalgiatik hürrün den bezañ bestez, gütarik hürüntü dütü gure ogenak.

13. Aitak bere haurrez ürrikalt dien bezala, Jaunak ürrikalt dü bere sehiez; beitaki nulako den gure bellatarzüna.

14. Ohart da erhauts baizik ezkiela. Gizonaren egünak belharra beza-la dirade; sorhoko lilia bezala zabaltzen da;

15. Hatstto bat gañetik igaraiten zaio; galtzen da, eta zaguen lekia eztü ezagützen.

16. Jaunaren ürrikaltarzüna aldiz bethierekua da, bethi hedatüko da beldür zaitzonetara.

17. Haren xüxengua hedatüko da haurren haurretara, haren adixki-detarzünaren begirazaletara,

18. Haren maniez ohart dietetara, manü haien begiratzeko.

19. Zelian Jaunak adelatü dü bere jargia, haren bürüzagigua orotara hedatzen da.

20. Benedik' ezazie Jauna, aingürü güziek; indar handikuek, haren erranen egilek, haren mintzua entzüten düzien bezañ sarri.

21. Benedik' ezazie Jauna, haren armadek eta aitzindariak, haren nahiküntien egilek.

22. Benedik' ezazie Jauna, güne güzietan egin dütien lan ederrek; oi! ene arima, benedik' ezazü Jauna.

GORANTZA CIII.

Jinkuaren zühürtarzüna eta ahala.

Dabiden khantoria.

1. Oi, ene arima, benedik' ezazü Jauna. Ene Jinko Jauna, nula handitü zien!

2. Loriaz eta edertarzünez bestitü zirade, argia jautsi düzü arropa bat bezala.

3. Zabaltzen düzü zelia, oihal-olha bat bezala; gañeko selauriak hursatzen derotzü.

4. Odeietara igaran zia, eta aizen hegaletan bazuaza.

5. Heguak dütüzü zure mezü-egiliak, eta garrak zure aitzindariak.

6. Lürra, bermatü beütüzü bere erruetan, eztüzü sekülan igitüko.

7. Osinak, arropa batek bezala üngüratzen dizü; hurrak junpaka ari tüzü mendi gañetan.

8. Mehatxatzen dütüzünian, ihes duatzü; zure ühülgiaren orruak izitzen beütütü.

9. Mendiak goratzen tüzü, eta ibarrak aphaltzen egin derezün günial' artio,

10. Gainti elezen, hurrer ezarri derezü zedarri bat; gehiago eztizie lürra gaintitüko.

11. Ibarretarik elkhi erazi tüzü üthürriak, eta mendi artetarik baduatzü hurrak.

12. Han kanpoko aberek edaten dizie, eta basa astuak hurrez asetzen düzü.

13. Zelüko txoriak hur unduetan diagotzü, osto petarik khant'arrapikotsez.

14. Zelü gañetik hurstatzen tüzü mendiak, eta lürra asetzen düzü zure lanen ekhoitzez.

15. Belharrak sorth erazten tüzü aberentako, eta lanthariak gizonentako.

16. Lürretik elkh erazten düzü ogia; eta arduak alagerazten dizü gizonaren bihotza.

17. Oliuak beno leinth erazten diozü begithartia, eta ogiak bihotza azkhartzen diozü.

18. Asetzen dira kanpoko zühañak, eta Jaunak lanthatü tien Libaneko izeiak; haietan txoriek egiten tüzte bere habiak.

19. Bere habia izeietan egiten dü zikoñak; mendi gañetan dagotza orkhatzak, eta zenda petan erbiak.

20. Argizagia egin dü tenoren markatzeko; ekhiak badaki nun dien bere itzalgia.

21. Ülhüna igorten düzü, eta egiten düzü gaia; gaiatz paseiün ebilten tüzü basa ihizi güziak.



22. Lehu hümiak orruaz, zerbaiten atzaman nahiz, janhari galto ari dira Jaunari.
23. Ekhia jaikiten da, eta saldoka etzatera baduatza oro.
24. Ordian gizona langitera badua, eta arratsartio lanian ari da.
25. Jauna, zuñen handi diren zure eginak! Zühürki egin tüzü gaiza güziak; zure dohañez bethe düzü lürra.
26. Zuñen handi den itxaso hau! Adarrak zuñen lüze tien! Arrañ parrastaz betherik,
27. Txipiak eta handiak hazten tü; gañetik igaraiten zaitzo untziak.
28. Han ere diagozü txostatzeke egin düzü balena; zuri beha diagozü oro, janhari haidürü.
29. Zük emaiten derezünian bazkatzen tüzü; ahürra zabaltzen düzünian, zure dohañez asetzen tüzü.
30. Begihartia bazterrialat ütültzen derezünian, izitzen tüzü; hatsa idekiten derezünian, hiltzen tüzü, eta erhautsetara ütültzen.
31. Hatsa igorten derezünian, phitzten tüzü, eta lür gañia araberritzen düzü.
32. Jaunaren loriak irañ dezala bethi. Jauna loriatüko da bere eginetan.
33. So batez harri erazten dü lürra; mendiak huntkitzen batü, sü eta khe goiti urthuk erazten deie.
34. Khantatüko dü Jaunari bizi nizano; sonü eginen derot ene azken egünialano.
35. Ene solaza laket dakiola, ni bozten niz Jaunian.
36. Xaha ditiela lürretik ogen eta gaizkigiliak. Oi, ene arima, benedik' ezazü Jauna!

GORANTZA CIV.

Eskerrak Jinkuari dohañez bethe tielakoz Jüdiuak. Jaunaren hunkiegnak, Abraham deithüz geroztik Jüdiuak sar artio hitzaman zeien lürrian.

Laida Jauna.

1. Laid' ezazie Jauna; eta haren izenari oihü egiozie, haren eginen berri nazioner emezie.

2. Khant ezozie eta sonü egiozie; haren miragarri güziak erran itzartzie.
3. Loria zizteie haren izen saintian; alagera dadila Jaunaren bilha dabilzanan bihotza.
4. Txerk' ezazie Jauna eta haren indarra; txerk' ezazie haren begihartia.
5. Ohart zizteie egin dütien miragarrik mirakülliez, eta haren ahoko elhez,
6. Abrahamen azia, haren sehiak, Jakoben haurrak, harek berhezi zützenak.
7. Gure Jinko Jauna da; haren jüjamentiak lür güziala hedatzen dia.
8. Egin dien adixkideguaz ohart da, baita ere milagerren undoriualano bere hitzamanaz.
9. Abrahami hitzaman zeionaz, eta han Isaaki egin zeion zinaz,
10. Jakobi, legia bezala, eta Israeli, hitz hartia bezala, bethiko bermatü zeionaz.
11. Erraiten zeioarik: Emanen deiat hire züzen pharte Kanaaneko lürra,
12. Güti zaudelarik orano, eta atze zabiltzalarik lürrian,
13. Herratürik populütik popüliara, erresumatik erresumala.
14. Nihur ere etzeien ützi gaizki egitera, eta haien kausa mehatxatü zütien erregiak;
15. Erraiten zeioarik: Eztitzatziela hunki nik berekatiak; ez minik egin ene profeter.
16. Gosia deithü zien lürriala; ogi büriak oro phorrokatü zütien.
17. Aitzinian igorri zeien gizon bat; Josef mixkandi bezala saldürik izan zen.
18. Boiak ezarri zeiotzen zankhuetan, eta bürdün khatiak bizkarrian, erran zien denbora hel artio.
19. Jaunaren gokuak süstatü zien; erregek bürdüñak khent erazi zeitzon, eta populien büruzagiak soltatü zien.
20. Bere etxeko nausi ezarri zien, eta bere huntarzün güzien aitzindari.
21. Eskola litzan, nahi lütükien bezala, hanko aitzindariak, eta zühürtarzüna erakhuts lizen aitzindari zaharrer.
22. Eta Israel sarthü zen Ejiptuan, eta Jakob, atze bezala, heltü zen Khamen lürriala,
23. Eta bere popülia borthizki emendatü zien, eta bere etsiak beno azkharragotü zien.



24. Hera gaitz bat populü horen kuntra bihotzian phiztü zeien Ejip-tarrer, eta Jaunaren sehier gaxtokeria egin nahiz hasi zien.
25. Igorri zeien, arren, Moise bere sehia, eta Aaron haitatia,
26. Haien aitzinian egin lezen miragarri, eta miraküllü Khameko lürrian.
27. Ülünak igorri zeitzen, eta ülün petan süntsütü zütien, bühürt elitien haren manier.
28. Hurrak khanbiatü zeitzen odoletara, eta hil erazi zeitzen arrañak.
29. Hanko lürra igelez bethe zen erregeren selaurietarano.
30. Mintzatü zen, eta ülziek eta eltxuek bazterrak bethe züzten.
31. Harri erauntsiak eta sü-gar errerazliak igorri zeitzen lürretara.
32. Aihentziak eta phikotziak zaflatü zeitzen, eta phorrokatü zeitzen alhorretako zühañak.
33. Mintzatü zen; eta saldoz saldo parrastaka jin ziren llarhotiak,
34. Eta jan züzten haien lürreko belharrak oro, eta ekhoitzak oro.
35. Eta jo zütien Ejiptoko lehen sorthü güziak, hanko indar hatsarria.
36. Hantik diharüz eta ürhez kargatürük eruan zien bere populüa, eta gizelietan etzen nihur ere eri.
37. Haien abiatzian Ejiptua alageratü zen; beldür handian iaurri beitzüten.
38. Odei bat hedatü zeien itzal egin lizen; eta sü bat, argi litzan gaiaz.
39. Galth'egin züten; eta ttorttoruak jin zeitzen, eta zelüko ogiaz ase zütien.
40. Arrailtatü zien botxia, eta hantik turrustaz elkhi zien hurrak, desertü idorran gainti igaran zien ibaiak,
41. Orhit beitzen Abraham bere sehiari eman zeion hitz saintiaz.
42. Hotseman zütien arren bere populüa boztariotan, eta bere haita-tiak alagranzietan.
43. Eta eman zeitzen nazionen lürrak, eta jabetü zütien populien lanez,
44. Begira ahal litzan haren maniak, eta haren legiari jarraiki liti.

GORANTZA CV.

Babilonen bahiguan zaudenen othoiztiak; beren ogenak eta aitene-nak aithortzen düzte. Jaunari galthatzen deioe bahiguatik eraman ditzan beren herrialat.

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jinkua, hun delakoz; bethierekua delakoz haren ürri-kaltarzüna.
2. Nurk erranen dütü Jaunaren ahalak? Nurk barreiatüko dütü haren laidoriuak?
3. Dohatsü xüxenguan ari dienak, eta zer nahi tenorez xüxengua begiratzen dütienak!
4. Gützaz ohart zite, Jauna, zure populüaren amorekati; ikhustera jin zitzaizküla zure salbamentiareki.
5. Ikhus dezagün zure haitatien dohatsütarzüna; alagera gitien zure populüarekila; eta laida zitién zure züzenareki.
6. Gure aitek bezala, ogen egin dizügü, gaizki ari izan güttüzü; gaizkiak egin tizügü.
7. Gure aitek Ejiptuan eztitizie enthelegatü zure mirakülliak. Etzütüzün ohart zure ürrikaltarzün handiez;
8. Eta bühürtü zeitzün heltzen zielarik itxasuala, itxas Gorriala.
9. Bena Jinkuak salbatü zütien, bere izenaren gati, bere ahalaren erakhutsteke.
10. Itxaso Gorriaren kuntra khexatü zen, eta idort erazi zien, eta itxa-son gainti hotseman zütien, desertian gainti bezala,
11. Eta hügüntzen zütienetarik eruan zütien, eta soltatü zütien etsaia- ren eskütik.
12. Eta eskarniazaliak hosinian süntsütü zütien, hetarik bat ere ezpei- tzen salbatü.
13. Ordian sinhetsi zütüzten haren elhiak, eta khantatü haren laidori- uak.
14. Bertan ahatze zütüzten haren eginak, ügürüki gabe haren goguen thermaña.
15. Behar etzen bezalako nahiküntiak goguala jin zeitzen desertian, eta Jauna therriatü züten hur gabeko günian.
16. Galthatzen zütina eman zeien, eta as'erazi zütien.
17. Phausü lekhian gaitzi egin züten Moisei eta Aaroni, Jaunaren aphezari.
18. Lürrak ahua zabaltürük iretsi zien Dathan, eta barnen zerratü zien Abiron bere giza salduareki.
19. Sü bat phiztü zen haien bilkhüran, eta garrek jan züzten ogengi- liak.



20. Xahal bat egin züten Horeben, eta othoiez ari izan zeitzon.
21. Jinkuaren loria khanbiatürük belhar jale baten üdüripeniala.
22. Ahatze züten beren Jinko salbazalia; Ejiptuan hañ beste egin ziena; miraküllüz Xamen lürra bethe ziena; eta itxas Gorrian izigarri agertü zena.
23. Jaunak arrabaskatü nahi zütiela ziuen, Moise, bere haitükua, arte-kari jin zeionian aitziniala othoiez.
24. Ema lezan bere khexia, eta eletzan arrabaska. Eta kasürük batere etzütten egin hañ nahigarriko lürraz.
25. Etzüzten sinhetsi haren elhiak, eta bere oihal-olhetan marmallaz ari zien, eta Jaunari etziradien behatü.
26. Jaunak altxatü zien bere eskia haien egoxteko desertian;
27. Haien arrabaskatzeko nazionen artetik, eta barreatzeko güne güzietarat.
28. Beelfegori eman zütten beren arimak, jaten zütelarik hiler esk-hentzen zen apairütik.
29. Eta beren gaizkieginek Jinkua khex'erazirik, hetarik parrasta handi bat hil zen.
30. Finees jaiki zen behala; heriuari бүрү egin zeion, eta pharatü zütien haren kolpiak.
31. Eta untsa egin ziela diote undoriotik undoriuala bethi.
32. Aharrako hurretan ere therritatü züten Jauna, eta hortakoz Moise zaflatürük izan zen, gogua samintü zeioelakoz.
33. Bere erranetan düdatü zen. Etzüzten arrabaskatü Jaunak erran zeitzen nazioniak.
34. Nahasi zien nazione haiekila, eta hek bezala egiten ikhasi züten; hen jinkaizünen sehitü zien, eta hortakoz behatztopatü zien.
35. Debrier erhorik eskentü zeitzen beren muthikuak eta neskatilak.
36. Ogen gabeko odola ixuri züten, beren semen eta alhaben odola; sakrifikatü beitzütten Khanaaneko jinkaizüner.
37. Lürra odol balsa pian, hen gaizkiez estalirik zaguen, eta likhitz-keriakan ari izan zien hanko jinkaizüneki.
38. Jauna khexü handitan jarri zen bere popüliaren kuntra, eta has-tiatü zien bere züzenphartia.
39. Eruaitera ützi zütien nazioner, eta beren hügüntzalen mixkandi-tzera.
40. Eta etsaiek eskarnia erazi zütüzten, eta beren üztarri pian ezarri zütüzten.

41. Eta gogoz bethi gaizkiz ari zeitzon, eta beren ogenen gatik zaflatürük ziradien.
42. Eskarniuetan zaudelarik, Jaunak sogin zeien; eta hen othoitzia-ri behatü zen.
43. Bere adixkideguaz ohartürük, ürrikaltü zen, bere ürrikaltarzün handiaren arabera.
44. Eta bahitü zütienen artian ükhen erazi zeien pharkamentü.
45. Salba gitzatzü, gure Jinko Jauna, eta nazionen artetarik bil gitzatzü,
46. Laida dezagün zure izen saintia, eta loria gítien zure laidoruan.
47. Benedika dadila Israeleko Jinko Jauna mendez mende, eta popülü güziak erran dezala: Halabiz, hala biz.

Bostgerren Libria.

GORANTZA CVI.

Jüdiuen eskerrak Babiloneko bahiguatik soltatü zienian. Bahigua hua desertüko bidaje baten, gatzelü baten, eritarzün baten, aro-gaitz baten üdüri zela dioie.

Laida Jinkua.

1. Laid' ezazie Jauna, hun delakoz, haren ürrikaltarzüna bethierekua delakoz,
2. Jaunak erosi dütienek, eta bazter orotarik bildü dütienek erran behar düte.
3. Ekhi jalkhigiatik itzalgialano, hegua aldetik iphar aldialano,
4. Herratürük ziradien basa bazterretan, hur eta hiri gabeko günetan;
5. Egarriz eta gosez ethenik, hatsa galtzen zütelarik.
6. Beren eskarniuan Jaunari oihü egin zioien; eta beharretarik idoki zütien;
7. Eta bide xüxenaz lagüntü zütien, hel litien ekhoiliarez betherik zen hiriala.
8. Laida dezela Jauna bere ürrikaltarzünaz, eta egin tien mirakülliez gizonen haurrentako.



9. Ase erazi beitu flakatürük zen arima; bere huntarzünez ase beitu gosetürük zen arima.
10. Ülünpian etzanik zienak, herioko itzalpian; emütsguan eta bürdün petan bahi,
11. Jinkuaren manier bühürtü zielakoz, Gañgañkuaren aholkier kasürik egin etzütelakoz,
12. Irallirik zauden, bihotz minez erdiratürük; eta nihur ere lagüntzera etzeien heltzen.
13. Eta beren bihotz-minetan Jaunari oihü egin zioien, eta eskarniuetarik soltatü zütien.
14. Khentü zütien ülünpetarik, herioko itzal petik, khatiak hautsirik.
15. Laida detzela Jaunaren ürrikaltarzüna, eta gizonen haurrentako egin dütien mirakülliak.
16. Hautsi beitätü letuzko borthak, phorrokatü beitätü bürdün hagak.
17. Gaizkiko bidetik khentü dütü, beren gaizkien kausa zaflatürük izan zielakoz.
18. Haien bihotzek hastio züten hazkürria, eta herioko borthala heltü zien.
19. Eta beren eskarniuan oihü egin züten Jaunari, eta beharretarik soltatü zütien.
20. Bere hitza igorri zeien, eta sendotü zütien, eta heriotzetik idoki zütien.
21. Laida detzela Jaunaren ürrikaltarzüna, eta gizonen haurrentako egin dütien mirakülliak.
22. Eskent diozela laidoriozko sakrifizio, eta alageraki barreia ditzela Jaunak egin dütiene berriak.
23. Itxason gainti untzietan dabiltzanek hur handietan lanian aritze-ko,
24. Ikhusi dütüzte Jaunaren lanak eta mirakülliak hosin barnen.
25. Elhe batez jaik erazi dü arogaitza, eta goratü dira hur hollak;
26. Zelia bezañ gora altxatzen ziren, eta itxas zolala eraisten; eta hen bihotza harritürük zaguén.
27. Harat hunat zabiltzan, ordiak bezala, zühürtarzüna galdürük.
28. Eta beren bihotz-minetan oihü egin züten Jaunari, eta eskarniotik soltatü zütien.
29. Arogaitza ather erazi zien, eta itxas hollak ixilt erazi.
30. Eta alageratü ziradien hollak ixiltü zielakoz, eta Jaunak hel erazi zütielakoz nahi züten portiala.

31. Laida detzela Jaunaren ürrikaltarzünak, eta gizonen haurrentako egin dütien mirakülliak.
32. Gora dezela Jauna popülükö bilkhüran, eta zaharrak jarririk dau-den lekhian.
33. Ibaiak hur gabe erazi zütien, eta hur begiak idort erazi.
34. Lür ekhoitzdünak khanbi erazi zütien lür gaziatar, hanko ekhoi-liaren gaizkien kausa.
35. Eta gero desertiak khanbiatü zütien hurretara, eta lüidorrak üthür begitara.
36. Egarri zienak han ezarri zütien, eta hiri bat han egin züten.
37. Erein züzten alhorrak, eta lanthatü miñatziak, eta ekhoitzpen handi ükhen züten.
38. Benedikatü dütü, eta hanitxtü dirade; eta haien aberiak eztira aphürtü.
39. Aphürñi ziradien bihotz minez eta eskarnioz betherik zienak.
40. Jaunak laidogarri erazi zütien haien printziak, eta barreia erazi basa desertian.
41. Azkenian eskarniuetarik idoki tü bihotz min dünak, eta haien etxequak, ardi salduak bezala, hanitx erazi tü.
42. Hori ikhusi düte xüxenek, eta boztariotü dirade; gaxtokeriak ahua zerratü dü.
43. Zühür denak gogo eman beza gaiza hoier, eta enthelega beza Jaunaren ürrikaltarzüna.

GORANTZA CVII.

Profetak Jaunaren laidoriuak nahi tü barreiatü. Othoitzen dü Jauna solta dezan bahiguitik popülia, eta laster leheneko günetarat ekhar eraz dezan.

Dabiden khantoria.

1. Adelatürük dit bihotza, ene Jinkua, adelatürük dit bihotza. Khan-tatükö deizüt, eta sonü eginen deizüt ene lorian.
2. Iratzar zite, ene arima; iratzar zizteie, ene txaranbela eta zithara, argi ürratzian jaikiko niz.



3. Laidatüko zütüt, Jauna, popülien artian; sonü eginen deizüt nazio-
nen artian.
4. Zure ürrikaltarzüna zelietan gora beitua, eta zure egia odeietan
gora.
5. Jinkua, igaran zite zelü gañetara, zure loriak estal beza lür güzia,
zure maitiak solta ditien.
6. Salba nezazü, Jauna, eta beha zakitzat. Jinkuak erran dü bere
saintütarzünian:
7. Alagera niz, bürüzagitü niz Sikhemez, izartü düüt oihal-olhako iba-
rra.
8. Enia da Galaad, enia da Manase; Efraim da ene bürüko zürkhaia;
9. Jüda ene hirien erregia; Moab ene esparantxen untzia.
10. Hedatü düüt ene ürhasa Idümeala; atziak adixkidetü zaitzat.
11. Nurk sar erazi nai hiri azkharretan? Nurk sar erazi nai Idümean?
12. Eza zük, Jinkua; nahi bada ohiltü güntüzün, eta gure indarren
aitzinian etzinadien haboro ebilten?
13. Lagünt gitzatzü gure etsaien kuntra, gizonen lagüntzak funtsik
ezpeitü.
14. Jinkuareki balentia eginen dügü; harek erhautstüko tü gure
etsaiak.

GORANTZA CVIII.

*Khantore gliaren othoitzia, etsaiak gaizkiz ari zaitzolako.
Erakhusten dü bere aphürtarzüna, eskarniua eta bihotz-mina.
Hel egiten deio Jaunari, eta laidatüko diela hitzemaiten.*

Ürhentzeko Dabiden khantoria.

1. Jinkua, ene ladoriuen xedia, etzitiela ixilt; ogengile gezürtiaren
ahua zabalik beitago ene kuntra.
2. Gezürrez mintzo ziztatzü; ene unduan erraiten tizie hügüntgarri-
ko elhe eli bat, eta ogenik gabe güdükatzen ari ziztatzü.
3. Maithatü behar lekhian hügüntzen nizie, ni aldiz othoiez ari niezü.
4. Hunki egin ordari gaizkiz ari ziztatzü; eta maitharzün ordari has-
titzten nizie.

5. Ene etsaiari bürü egile emozü gaxtua; eta esküñian egon dakiola
debria.
6. Jüjatzen datienian, ükhen beza ogen; bere othoitzia ere handi
dizola ogena.
7. Aphür zitzaizkola bere egünak; eta beste bat jar dadila haren
aitzindariguan.
8. Zürtz ditiela haren haurrak, eta alhargüntsa dadila haren emazia.
9. Harat hunat ebil ditiela haren haurrak, borthaz bortha eske, beren
oihal-olha gaixuetarik hürrün.
10. Hartzedün uhuñak mutxa dizola huntarzüna, eta atzek eruan
dizoiela bere lanen saria.
11. Eztezala ükhen lagüntzalerik; eta haren hurrek eztezala ükhen
ürrikaltzalerik.
12. Hil zazkiola bere haurrak, eta gal beza bere izena lehen undo-
riuarekila.
13. Haren aitaren gaxtokeria agert dadila Jaunaren goguala, eta haren
amaren ogena eztadila gorda.
14. Hen gaxtokeriak daudiela bethi Jaunaren aitzinian, eta hen orhitz-
pena xaha dadila lür gañetik; ürrikaltzera ezpeita ohartü,
15. Eta heriotzialano akhülatü beitü, emüts-eskelia, bihotza phorro-
katürük zena.
16. Maite beitü maleditzionia, ikhustera jin dakiola; beneditzionia
ezpeitü nahi ükhen, hürrünt dakiola arren.
17. Maleditzionia jaunts beza, arropa bezala; hurra bezala tripan sar
dakiola, eta ezürretarano oliua bezala.
18. Izan dakiola jauntsten dien arropa bezala, eta tinka dezala, gerri-
kuak bezala,
19. Ene etsaier, ene kuntra mintzo diener, zaharo hori begira dezala
Jinkuak.
20. Jauna, Jauna, lagünt nezazü zure izenaren amorekati, ezti beita
zure ürrikaltarzüna.
21. Solta nezazü, emüts eta eskele beniz; bihotza erdiratürük dit.
22. Aphaltzen den itzala bezala banuazü, eta llarhotia bezala hotse-
maiten nizie.
23. Baruak flakatü diztadatzü iztazañak; mehe mehia nüzü oliua
mentstürük.
24. Laidogarritü benitzaie, ikhusten naienian harat hunat erabilten
dizie büria.



25. Lagünt nezazüla, ene Jinko Jauna; salba nezazüla zure ürrikal-tarzünaren arabera.

26. Jakin beze zure eskiak salbatü naiela, eta hori zihauk egin düzüla.

27. Hek maradikatzen nizie; zük benedika nezazü; ene kuntra jaiki-ten tüzü; nahas itzatzü, eta zure sehia botztüko düzü.

28. Ahalkez bezti ditiela ene etsaiak, eta jaunts dezela laidogarri-tarzüneko estalgia.

29. Eta laidatüko düt Jauna ene indar oroz, eta khantatüko deitzot laidoriuak bilkhüra handietan;

30. Emütsaren esküñian beitago, eskarniazaletarik haren arimaren soltatzeko.

GORANTZA CIX.

Profetak khantatzen tü Jesü Khristen erregua eta aphezgua.

Dabiden kantoria.

1. Jaunak ene Jaunari erran deio: Jar zite ene esküñian,
2. Zure etsaiak huñ petan hokitako ezar deitzüdan artio.
3. Jaunak Sionetik igorriko deizü bürüzagiguako makhila; manhatüko düzü zure etsaien artian.
4. Zure indarrak biltzen dütükezün egünian, althatürrik jinen zaizü zure popülia, eta zure gazteria arthizarrak sortzen dien ihitza beno habo-ruago dükezü.
5. Jaunak zin egin dü, eta ezta dolütüko; aphez zira zü bethiereko, Melkhisedeken lerruaren arau.
6. Zure esküñian diagozü Jauna; bere khexüko egünian phorrokatüko tizü erregiak.
7. Nazioniak jüjatüko tizü, eta lürra khortpitz hilez estaliko; hanitxi büria zaphatüko beteie lürrian.
8. Bidian ühaitzeko hurretik edanen dü, eta hortakoz altxatüko dü büria.

GORANTZA CX.

Jaunak bere popüliari egin deitzon hunkiak laidatzen tü khantore huntzaliak. Zühürtarzünaren hatsarria Jaunaren beldürra.

Laida Jinkua.

1. Laidatüko zütüt, Jauna, ene bihotz oroz; jüstuen gauhelieta eta bilkhüretan.
2. Jaunaren obrak handi, bere nahiküntien arabera eginak.
3. Egin tien lanek erraiten Jaunaren laidoriuak eta handitarzüna haren xüxengua mendez mende igaraiten.
4. Bere miraküllien orhitzpena Jaun ürrikaltsiak begiratü dü; gose ziener jatera eman deie.
5. Bere adixkideguaz ohart da bethi; egin tien lanen indarra agertü dü bere popüliari.
6. Emaiten zeiolarik nazionen züzen phartia; haren eskien lanak egia eta xüxengua.
7. Haren manü güziak fidelki egin eta xüxenguan bermatzen dirade.
8. Eroslia bere popüliari igorri deio; bethiko manhatü dü bere adixkidegua.
9. Haren izena saintü eta izigarri da. Zühürtarzünaren hatsarria, Jaunaren beldürra.
10. Jakintza huna düte haren manier jarraikiten dienek; hen laidoriuak bethierekuak dirate.

GORANTZA CXI.

Jaunaren beldür eta ürrikalt denaren dohatsütarzüna. Aberats eta ahal handiko date lürrian. Xüxenaren orhitzpena ez galtzen; goithüko tü bere etsaiak.

Laida Jinkua Agjea eta Zakharia ützüli dielakoz.

1. Dohatsü Jinkuaren beldür den gizona, eta haren manietan laket dena!



2. Haren azia azkhar date lürrian, xüenen undoria benedikatürik date.
3. Loria eta huntarzün badütüzke etxen; haren xüengua mendez mende dagoke.
4. Xüenentako ülhünpetarik elkhi da argia; Jauna da ürrikaldün, ürrikaltsü eta xüen.
5. Dohatsü ürrikaltar jesailer pherestazalia; bere solazen zühürki adelazalia! Behin ere ezpeita khordokatüko.
6. Xüenaren orhitzpena bethierekua date; harez gaizki mintzatzen dienen ezte latsa.
7. Esparantxa hartzeko bihotza indarrez betherik, latsa gabe dateke bere etsaiak arrabaskatürik ikhus artio.
8. Bere huntarzünak phartitü tü eta eskeler eman; haren xüenguak bethi irañen; haren indarra lorian goratüko.
9. Ogengiliak ikhusiko dü, eta khexatüko da, hortzez karraskaz ariko da, eta eihartüko; ogengilen nahiküntia hatik galdüko da.

GORANTZA CXII.

Profetak goratzen tü Jaunaren handitarzüna eta indarra.

Laida Jinkua.

1. Laid' ezazie, mixkandiak, laid'ezazie Jaunaren izena.
2. Jaunaren izena laida bedi orai danik bethiere artino.
3. Ekhi jalkhigiatik itzalgialano laidagarri beita Jaunaren izena.
4. Jauna dago nazione güzien gañen; eta haren loria zelieta gañen.
5. Nur da gure Jinko Jaun gañian daguearen üdüri; aphaltzen denaren xehen ikhusteko zelian eta lürrian,
6. Emütsa erhautsetik eta eskelia gorozetik eraikiten dütienaren,
7. Hen ezarteko aitzindarien eta printzen artian:
8. Bere etxen emazte behota, haur hanitxen botzetan ama erazirik, ezarten dienaren?

GORANTZA CXIII.

Jinkuak egin dütien miragarriak Ejiptotik elkitzian; itxas Gorritik eta Jordanetik igaraitian. Jaunaren beneditzionia Israelentako.

Laida Jinkua.

1. Israel elkhi zenian Ejiptotik, eta Jakobon etxia basa populü artetik;
2. Jüdan Jinkuak ezarri zien bere egongia, eta Israelen bere bürüzagügua.
3. Itxasuak ikhusi zien, eta ihes jua zen, Jordane gibelialat ützüli zen.
4. Mendiak, ahazartzak bezala, eta mendixkak, ardiak bezala, jautzeka ari izan zien.
5. Itxaso, zentako ihes bahu; eta hi, Jordana, zentako gibelialat ützültzen iz?
6. Zer zünien, mendiak, ahazartzak bezala, jautzeka aritzeko, eta ziek, mendixkak, axuriak bezala libertitzeko?
7. Lürra, ikhara adi Jaunaren aitzinian, Jakobon Jinkuaren aitzinian,
8. Khanbiatü beitü botxia hurretara, eta zenda üthürri turrusta egiletara.
9. Ez guri, Jauna, ez guri eman loria, bena bai zure izenari,
10. Zure ürrikaltarzüna eta egia diela kausa; nazionek erran eztezen: Nun da hoi Jinkua?
11. Gure Jinkua zelian dago; nahi tienak oro egin tü.
12. Nazione jinkaizüna zilharrez eta ürhez gizonen eginik dira.
13. Badüte aho, eta ezte mintzatzen; badüte begi, eta ezte ikhusen;
14. Badüte behari, eta ezte entzuten; badüte südür eta ezte senditzen;
15. Badüte eskü, eta ezte aztatzen; badüte zankho, eta ezte ebiltzen; tzüntzürretik ezte oihürük egiten.
16. Huak bezalaka ditiela hen egiliak, eta hetan loriatzen dienak.
17. Israeleko etxiak esparantxa dü Jaunian; Jauna dü lagüntzale eta begirazale.
18. Aaroneko etxiak esparantxa dü Jaunian; Jauna dü lagüntzale eta begirazale.



19. Jaunaren beldür dienek esparantxa düte Jaunian; Jauna da hen lagüntzalia eta begirazalia.

20. Jaunak, gützaz ohartürrik, benedikatü gütü.

21. Benedikatü dü Israeleko etxia, benedikatü dü Aaroneko etxia.

22. Benedikatü tü Jaunaren beldür dienak oro, txipiak eta handiak.

23. Hanitx deitzatziela zier eta zien haurrer eman deitzien dohanak.

24. Benedika zitzela zelia eta lürra egin dütien Jaunak.

25. Zelien zeliak Jaunarenak dira; lürra eman dü gizonen haurrer.

26. Jauna, etzütie ez laidatüko hilek, ez eta ere hobialat eraitsi dienek.

27. Bena gük (bizi gienek), benedikatüko dügü Jauna orai danik bet-hiere artino.

GORANTZA CXIV.

Eskerrak Jaunari Babiloneko bahiguatik soltatü delakoz bere popülia, eta ützül erazi delakoz hitzamaneko lürrialat.

Laida Jinkua.

1. Maithatü düt Jinkua, entzün beitü ene othoitziaren botza.
2. Beharria ene ganat aphaltü dü; ene biziko egünetan oihüz ariko nitzaio.
3. Herioko minez üngüratürrik nintzan, eta hobiko eskarniuek hartü nündien.
4. Ediren nütien eskarniuek eta bihotz-minak, eta Jaunari hel egin neion.
5. Oi! Jauna, solta ezadazüt arima. Jauna ürrikaltsü eta xüxen; gure Jinkua ürrikalkor da.
6. Jaunak begirutzen tü txipi dienak; aphaltü niz, eta salbatü nai.
7. Ützült zite, ene arima, zure phausiala; Jaunak hunki egin beteizü;
8. Soltatü beitätü heriotik ene arima, nigarretarik ene begia, erortetik ene zankhuak.
9. Jaunaren aitzinian ebiliko niz bizien lürrian.

GORANTZA CXV.

Eskerren khantoria Babiloneko bahiguatik soltatürrik izan zian Israelarrak.

Laida Jinkua.

1. Sinhetsi beitätü, mintzatü niz, bihotz-min handitan nintzalarik.
2. Ethenik erran dü: Gizon dena gezürti da.
3. Zer emanen derot Jaunari eman deitzadanen ordari?
4. Hartüko dü salbamentüko xalhia, eta hersatüko niz Jaunaren ize-nari.
5. Hitzaman deitzodanak eginen deitzot popülü güziaren aitzinian, Jaunarentako balius beita xüxenen heriua.
6. Oi! Jauna, ni nizalako zure sehia, zure sehia eta zure gelhariaren semia,
7. Hautsi deitzadatzü bahiguako khatiak; eskentüko deizüt laidoriozko sakrifizio bat, eta Jaunaren izenari oihü eginen diot.
8. Jaunari hitzaman deitzodanak eginen deitzot popüliaren aitzinian, Jaunaren etxe heupian, zure erdian, oi! Jerüsaleme.

GORANTZA CXVI.

Jaunaren ürrikaltarzünaren khantatzera, khantore huntzaliak khümitatzen-tü nazione güziak.

Laida Jinkua.

1. Jauna laid'ezazie, nazione güziek; laid'ezazie ziek ere, popülü güziek.
2. Haren ürrikaltarzüna segürtatü delakoz gütan gañen, eta Jaunaren egia bethierekua delakoz.



GORANTZA CXVII.

Eskerrak Jaunari hunki egin dielako. Khantore huntzaliak nahi dü nazione güziek laida ezen Jinkua. Erakhutsten dü zer lange-retan izan den, eta nula hantik elkhi den.

Laida Jinkua.

1. Laid' ezazie Jauna, hun delakoz, eta haren ürrikaltarzüna bethierekua delakoz.
2. Erran beza Israelek hun dela, eta haren ürrikaltarzüna bethierekua dela.
3. Erran beza Aaroneko etxiak hun dela eta haren ürrikaltarzüna bethierekua dela.
4. Jaunaren beldür dienek erran beze orai haren ürrikaltarzüna bethierekua dela.
5. Jaunari hel egin deiot ene eskarniuan; behatü zait, eta zabalían eza-rrí nai.
6. Jauna lagüntako dü, eniz gizonen lotsa.
7. Jauna ene lagün dü, eztüt ene etsaien axolik.
8. Hobiago da Jaunari fidatzia eziez eta gizoner.
9. Hobiago da Jaunian esparantxa ükheitia eziez eta printzetan.
10. Nazione güziek üngüratzen nündien, eta garhaitü tüt Jaunaren izenian;
11. Üngüratzen nündien eta tinkatzen, eta Jaunaren izenian arrabaskatü tüt.
12. Erlek bezala, üngüratzen nündien; eta, khaparreko süia bezala, hil dia. Jaunaren izenian arrabaskatü tüt.
13. Phusatzen nündian, oi! etsaia, eror erazteko, bena Jinkuak lagüntü nik.
14. Jinkua ene indarra dük, ene khantoren süjeta eta ene salbazalia.
15. Alagranziasko eta salbamentüzko oihü bat entzün da xüxen die-nen oihal-olhetan.
16. Jaunaren esküñak agertü dü bere ahala; Jaunaren esküña goratü da; Jaunaren esküñak erakhutsi dü bere indarra.
17. Eniz hilen, biziko niz Jaunak egin tienen erraiteko.
18. Garrazki zaflatü nai Jaunak, bena enai hil erazi.

19. Zabalt itzadatzie xüxenguak borthak, barneat sar nadin Jaunaren laidatzeko. Hau da xüxenak sartzen dien Jaunaren bortha.
20. Eskerrak emaiten deitzüt, Jinkua, behatü zitzaiztalakoz, eta ene salbazalia izan zielakoz.
21. Harginek nahi etzüten harria, harri kantala egin da.
22. Hau da Jaunaren lana, gure begien miragarria.
23. Soizie Jaunak egin egüna; boztario gitien, alagera gitien hartan.
24. Oi! Jauna, salba gitzatzü; oi! Jauna, solta gitzatzü. Benedika dadi-la Jaunaren izenian horra dena!
25. Benedikatzen zütügü zü, Jaunaren etxetierra. Jinkua da Jauna; argitü zaikü.
26. Althareko adarrer esteka eta tink ezazie eskentü behar zaion abe-ria.
27. Zü zia ene Jinkua; laidatüko zütüt; zü zia ene Jinkua, loriatüko zütüt.
28. Eskerrak emanen deitzüt, behatü zitzaiztalakoz, eta salbatü naizülakoz.
29. Laid'ezazie Jauna, hun delakoz, eta haren ürrikaltarzüna bethie-rekua delakoz.

GORANTZA CXVIII.

Jinkuaren legari jarraikizalen dohatsütarzüna. Jaunaren legen edertarzüna.

Laida Jinkua.

- ALEF. 1.** Dohatsü ogen gabe duatzanak bere bidetan; Jinkuaren legari jarraikiten dienak!
2. Dohatsü haren erranen begirazaliak, eta bihotz oroz haren bilha dabilzananak.
 3. Gaizki giten ari dienak haren bider ezpeitia jarraikiten.
 4. Begiratürük izateko eman tüzü zük zure maniak.
 5. Hanbat hobe ene bidiak aphaintürük badira, zure manien nik egi-teko.
 6. Enüzü galdüko zure maniak bethi aitzinian balinbatüt.



7. Erremestiatzen zütüt bihotzez, ikhasi dütüdalakoz zure xüenguako jüjamentiak.

8. Begiratüko tit zure maniak, zük enezazüla üt.

BETH. 9. Nula gaztettuak xahatüko dü bere bidia? Zure erranen egi-tez.

10. Ene bihotz oroz txerkhatü zütüt; enezazüla zure manietarik okher eraz.

11. Ene bihotzian gorde tit zure maniak, gaitzi etztien.

12. Benedikatürük zia, Jauna, erakhuts ezadazü zure manien xüengua.

13. Ene ezpañek erran tizie zure ahoko jüjamentü güziak.

14. Zure erranen bidian laket nüzü aberatstarzün orotan bezañ beste.

15. Zure manietan trebetüko nüzü, eta soginen dit zure bider.

16. Gogo emanen dit zure bider, eta eztitit zure elhiak ahatzeko.

GIMEL. 17. Zure sehiari emozü zor zaion saria; emadazü bizia, eta begiratüko ditit zure maniak.

18. Argit zadatzü begiak ikhus detzadan zure legeko miragarriak.

19. Ni lürrian atze nüzü; eztezadatzüla gorda zure maniak.

20. Zure manien ikhasteko nahiküntiak erratzen ditazü bethi arima.

21. Ürgüllütsier khexatzen beitzira, maradika ditiela zure manietarik hürrüntzen dienak.

22. Nitarik khent itzatzü ahalkiak eta laiduak, egiten beitütüt zure maniak.

23. Bilkhüra egin dezela printzek, eta eni gaizki egiteko hitz hart dezela; zure sehiak gogo emanen dizü zure manier,

24. Zure maniak beitirade ene goguen hazkürriak eta aholkariak.

DALETH. 25. Ene arima erhautsari lothürük düzü, zure hitzaz phitz eraz neza.

26. Erakhutsten deitzüt ene bidexkak, eta behatzen zitzaizat. Erakhuts itzadatzü zure maniak.

27. Entheleg'eraz ezadazü zure manien bidia, eta goguan erabiliko ditit zure miragarriak.

28. Debeiatürük luak hartü ditazü arima, zure elhez azkhart nezazü.

29. Nitarik hürrünt ezazü gaizkiko bidia, eta ürrikalt zakitzat zure legian.

30. Egiazko bidia berhezi dit, eta eztitit ahatze zure jüjamentiak.

31. Lothü nüzü zure erraner, Jauna; enezazüla gal.

32. Zure manien bidian ebili nüzü, bihotza zabaltü deitazünian.

HE. 33. Erakhuts ezadazü, Jauna, zure manien bidia, eta jarraikiko niozü ürhentzialano.

34. Emadazü enthelegü zure legiaren ikhertzeko, eta ene bihotzian begiratüko dit.

35. Lagünt nezazü zure manien bidexkan, bidexka hortan laket beniz.

36. Ene bihotza pleg'ezazü zure erranetara, ez aldiz sori ezten irabaziala.

37. Ützül etzatzü ene begiak, soz egon ezttien banitatiari, bizi eraz nezazü zure bidexkan.

38. Segürta ezazü zure elhia zure lotsa den sehi gañen.

39. Nitarik hürrünt ezazü beldür düdan laidua, hun beitia zure jüjamentiak.

40. Hasperenez niagozü zure manien undotik; zure xüenguala phitz eraz nezazü.

VAU. 41. Zure ürrikaltarzüna eta zure salbamentia phausa ditiela, Jauna, nitan gañen zure elhiaren arabera.

42. Ordian ihardetsiko diet gaizkiz xahatzen naiener zure elhetan düdala sinheste.

43. Ez khent seküla ene ahotik egiazko elhe hori, zure jüjamentietan esparantxa handi beitüt.

44. Begiratüko dit zure legia bethi, mendez mende.

45. Ebiliko nüzü kanpo handian, maite beitütüt zure maniak.

46. Zure legez mintzatüko nüzü erregen aitzinian, eta ahalkerik ezti-ket.

47. Zure maniak goguan erabiliko ditit, maite dütüdalakoz.

48. Altxatüko tit ene eskiak zure manietara, maite beitütüt, eta trebetüko nüzü her jarraikitza.

ZAIN. 49. Ohart zite zure sehiari eman derozün hitzaz, hartan gañen bermatzen beniz.

50. Ene aphaltuan aholkatzen benai, eta zure hitzak bihotza phizten beteit.

51. Ürgüllütsiek ase nizie beren trüfakeriez, bena zure legetik enüzü okhertü.

52. Zure bethiereko jüjamentien orhit izan nüzü, Jauna, eta aholkatü nüzü.

53. Harritü nüzü ogengilen ikhustian zure legiaren üzten.

54. Zure legiak ditit ene khantoren süjeta ene desterrüko lekhian.



55. Zure izenaz ohartzen nüzü gaiaz, Jauna, eta begiratzen dit zure legia.
56. Hola ari nüzü zure manietan laket nizalako.
- XETH.** 57. Ene phartia düzü, Jauna, zure legiaren begiratzia.
58. Othoitü dit zure begihartia ene bihotz oroz; ürrikalt zakitzat zure hitzaren arabera.
59. Goguan erabilten tit ene eginbidiak, eta ene ürhotsak ützültzen tit zure manietara.
60. Lehiatzen nüzü, eta eztit berantzen, zure manien egiteko.
61. Ogengilen sokek üngüratü nizie, eta eztit ahatze zure legia.
62. Gai erditan jaikiten nüzü zure xüenguako jüjamentien laidatze-ko.
63. Zure beldür dien güzien, eta zure maniak begiratzen tienen adixkide nüzü.
64. Zure ürrikaltarzünaz, Jauna, betherik düzü lürra; erakhuts itzatzü zure maniak.
- THETH.** 65. Oi! Jauna, zure sehiari hunki egiozü, zure hitzaren arabera.
66. Ikhas etzatzü hungua, eskolagua eta jakingua, zure manietan sinheste beütüt.
67. Zaflatürük izan beno lehen, ogen egin nizün, eta hortakoz begiratü tit zure erranak.
68. Hun zirade zü; zure hunguan erakhuts itzatzü zure maniak.
69. Ürgüllütsiek gezürak huntü tizie ene kuntra, nik, aldiz, ene bihotzian begiratü tit zure maniak.
70. Bihotza ezni bezala bellatü ziezü; ni, aldiz, zure lege pian laket nüzü.
71. Hun zitazü aphaltü naizülakoz, ikas ditzadan zure maniak.
72. Diharü edo ürhe athiak beno hobiago düzü enetako zure ahotik elkhi den legia.
- JOD.** 73. Zure eskiek egin nizie, eta muldatü, enthelegü emadazü zure manien ikhasteko.
74. Zure beldür dienak botz ditiela ene ikhustez, zure hitzetan esparantxa beütüt.
75. Badakit, Jauna, xüxen diela zure jüjamentiak eta aphaltü naizüla zure egian.
76. Aholka nezala zure ürrikaltarzünaz, zure sehiari hitzaman derozünaren arabera.

77. Hel dakiztadala zure hunkiak, eta biziko nüzü, zure legia laket betzait.
78. Ahalke ditiela ürgüllütsiak, ogen gabe galdü nahi ükhen benaie, zure maniak goguan dütüdararik.
79. Ene ganat jin ditiela beldür dienak zure, eta zure legia ezagützen tienak.
80. Ene bihotza egon dadila xahü xahia zure manietan, ahalkez gorri enadin.
- KAPH.** 81. Ene arima engoxatzen düzü zure salbamentiaren haidürü; zure hitzian esparantxa dit.
82. Begiek min egiten ditazie zure hitzamaner soz egoitez. Nuiz aholkatüko naizü?
83. Izotzian daguen xahakua bezalatü nüzü; nahi bada ere eztitit ahatze zure maniak.
84. Zure sehiaren egünek zunbat denbora irañen düte? Nuiz jüjatüko tüzü ene eskarniazaliak?
85. Sinhets-gabekuek ezdeuseria eli bat, zure legiaren arabera etzien eli bat, erran ditzatzie.
86. Zure maniak oro egia dütüzü; ogen gabe eskarniatü nizie; lagüntzera hel zakitzat.
87. Abanzüni lürrialat egotxi nizie; bena eztitit hatik ützi zure maniak.
88. Bizi eraz nezazü, zure ürrikaltarzünaren arabera; zure ahoko erranak begiratüko tit.
- LAMED.** 89. Sekülakoz, Jauna, zure hitza zelian diagozü,
90. Zure egia undoriotik undorietara hedatzen düzü; lürra egin düzü, eta txüti diagozü.
91. Orai artio zure legez oro txüti diagotzü; orok egiten tizie zure maniak.
92. Zure legian laket ezpanintz, hil nintekezü behar bada ene aphalguan.
93. Sekülan eztitit ahatzeko zure maniak, hez phitz erazi benaizü.
94. Zuria nüzü; salba nezazü, zure manien bilha nabilazü.
95. Ene gal erazteko ogengiliak erphai egoiten ziztatzü; eta nik zure erranak goguan erabilten tit.
96. Ikhusi dit bethegin sarri orok bere hegia badiela; zure maniak aldiz bazter gabe tüzü.
- MEM.** 97. Zure legia zunbat maite düdan, Jauna! Egün oroz hartan dit ene gogua.



98. Ene etsaiak beno zühürragotzen nizü zure legiak, bethi beität goguan.
99. Ene eskolazaliak beno jakintsiago nüzü, jarraikiten nizalako zure manier.
100. Zühürrek beno enthelegü haboro badit, zure maniak begirutzen dütdalako.
101. Bide gaxto orotarik bazterzen tit ene ürhasak, zure erranen begiratzeko.
102. Enüzü zure jüjamentietarik hürrüntzen, zük eskolaten naizülako.
103. Zure elhiak ene ahoko zuñen ezti diren! Eztia beno eztiago tüzü.
104. Zure maniek eskolaten nizie, eta hortakoz hügünt dit gezürrrezko bide güzia.
- NÜN. 105. Zure elhia ene ürhasen süsia düzü, eta ene bidexken argia.
106. Zin egin dit, eta goguan hartü zure xüxenguako jüjamentiak begiratüren tüdala.
107. Bihotz min handitan nüzü, Jauna; bizi eraz nezazü zure erranaren arabera.
108. Agrada itzatzü, Jauna, ene ahuk gogo hunez hitzaman deitzünak; eta erakhuts itzadatzü zure jüjamentiak.
109. Eskietan dit bethi ene arima, eta ezti ahatze zure legia.
110. Ogengilek hedatü diztatzie zepho eli bat, bena enüzü zure manien bidetik okhertü.
111. Zure maniak züzen phartetako ditiket bethi, bihotza alageratzen beteite.
112. Ene bihotzari har erazi diot zure manien egiteko bidia, sariaren gatik.
- SAMEKH. 113. Gaizkigiliak hügün ditit, eta maite dit zure legia.
114. Ene lagüntzalia eta begirazalia zia zü, zure hitzian esparantxa dit.
115. Hürrünt zizte ene ganik, gaizkigiliak, Jaunaren manier nahi niz jarraiki.
116. Zürkhaitz nezazü, Jauna, zure hitzamanaren arabera; eta biziko nüzü; ene esparantxetan enezazüla trunpa.
117. Lagünt nezazü, salba nadin; eta zure maniak begiratüko tit bethi.
118. Ohiltzen tüzü zure jüjamentietarik apartatzen dienak oro, gogo gaxtua dieielako.
119. Lürreko ogengile güziak arnegatak bezala beitia ene begietan, maite ditit zure erranak.

120. Zure beldürraz txist'ezazü ene aragia, zure jüjamentien lotsa nüzü.
- AIN. 121. Untsa eta xüxenki ari izan nüzü; enezazüla eman eskarniatzen naienari.
122. Hunki egitian laket eraz nezazü, eta ürgüllütsiek enezela gaizkiz lehert.
123. Begiak askortü ziztatzü zure salbamentiaren haidürü, eta hitzaman zineitadan jüstiziaren haidürü.
124. Zure sehiari egiozü zure ürrikaltarzünaren arabera; ikhas itzadatzü zure maniak.
125. Zure sehia nüzü ni; emadazü zure erranen ezagützeko enthelegia.
126. Zerbaiten egiteko ordü düzü, Jauna; irailtzen dizie zure legia.
127. Zure maniak ürhia eta diharria beno maitiagi tit.
128. Hortakoz zure manietan nabilazü, eta gaizkiko bidia hügün dit.
- PHE. 129. Miragarri beitia zure erranak, ene arima beha ziezü.
130. Zure elhe xuritik argitzen dizie, eta txipier emaiten dizie enthelegia.
131. Ahua zabaltü dit eta hats hartü gabe egon nüzü, zure manien ükhen nahiz.
132. So'gidazü, eta ürrikalt zakitzat, zure izena maite dütener ürrikalzen zien bezala.
133. Hitzaman düzün bezala, lagünt etzatzü ene ürhasak, gaxtoke-riak enezan goith.
134. Solta nezazü eskarniazaletarik, zure maniak begira ditzadan.
135. Zure sehiaren gaña argi eraz ezazü zure begithartia, eta erakhuts itzadatzü zure maniak.
136. Zure maniak begirutzen eztütönen gatik, ene begiak nigar turrustaz ari tüzü.
- SADE. 137. Xüxen zirade, Jauna; xüxen düzü zure jüjamentia.
138. Manhatü deiküzü xüxenki jarraikitez zure erraner eta zure egari.
139. Saminak eihatzen nizü, ene etsaiek ahatze dütielako zure erranak.
140. Zure erranak borogatürük dütüzü; maite ditizü zure sehiak.
141. Muthikotto mesperetxatürük den bat baizik enüzü ni, eta halarik ere eztiit ahatze zure maniak.
142. Zure xüxengua bethiereko xüxengua düzü, eta zure legia, egia.
143. Eskarniua eta antsia jin ziztatzü; bena zure maniek botztü nizie.



144. Zure erranak bethi xüxenekuak düttüü; enthelegü emadazü, eta biziko nüü.

KOPH. 145. Bihotz barnetik oihü egin dit; Beha zakitzat, Jauna; begiratüko tit zure erranak.

146. Oihü egin deizüt; salba nezazü, eta begiratüko tit zure maniak.

147. Argia hasi beno lehen oihü egiten deizüt, zure elhetan esparan-txa beitüt.

148. Argia beno lehen begiak zure ganat eraiki tit, zure erranen goguan erabilteko.

149. Jauna, entzün ezazü ene botza zure ürrikaltarzünaren arabera, eta phitz eraz nezazü zure jüjamentiaren arabera.

150. Hüllantzen tüzü gezürren undotik dabiltzanak, eta zure legetik hürrüntzen dienak.

151. Bena zü hüllan zirade, Jauna, eta zure maniak egia düttüü.

152. Badakit aspaldian sekülakoz bermatü tüzüla zure erranak.

RES. 153. Ikhus ezazü ene bihotz mina; eta salba nezazü; ezpeitüt zure legia ahatze.

154. Ene althe jar zite, eta salba nezazü; phitz nezazü zure erranaren arabera.

155. Ogengiletarik salbamentia hürrün, zure manien bilha eztabiltzala-koz.

156. Zure ürrikaltarzünak hanitx düttüü, Jauna; phitz nezazü zure xüxenguaren arabera.

157. Hanitx tüzü ene eskarniazaliak; bena enüzü zure erranetarik okhertü.

158. Gaizkigiliak ikhusi tit, eta phastikatü nizie, zure erraner jarraiki-ten eztielakoz.

159. Soizü, Jauna, nula maithatü düttüdan zure maniak; phitz nezazü zure ürrikaltarzünaren arabera.

160. Zure elhen hatsarria egia, eta zure xüxenguako maniak bethiere-kuak.

SKHIM. 161. Ogen gabe eskarniatü nizie printzek; bena ene bihotza zure erranen baizik eztüzü beldür izan.

162. Botztüko nüzü zure manietan, bere aberatstarzünetan bozten den gizona bezala.

163. Gezürra hügün dit ooren gañetik, eta zure legia maite.

164. Egünaz zazpitan laidatzen zütüt, zure xüxengua dela kausa.

165. Zure legia maite dienen bake handi; harri behatztapazalerik ezta hentako.

167. Zure erranak egiten tizü ene arimak, maite beitütü tinki.

168. Jarraikiten nüzü zure manier eta erraner, aitzinian beitütüt bethi.

TAU. 169. Ene oihia, Jauna, hel dadila zure gana; argi nezazü zure hitzamanaren arabera.

170. Ene othoitzia hel dakizüla aitziniala, salba nezazü zure hitzaren arabera.

171. Ene ezpañek barreatüko tizie zure laidoriuak, erakhutsi deizta-daketzünian zure maniak.

172. Ene mihiak erranen tizü zure elhiak, zure maniak oro egia diela-koz.

173. Begira neza zure besuak, zure manier jarraiki nizalako.

174. Hasperenez niagozü, Jauna, zure salbamentiaren nahiz, zure legia bethi goguan dit.

175. Bizi bedi ene arima, eta laidatüko zütüt; zürkhaitz nezala zure jüjamentiak.

176. Galdürik den ardia bezala, herratürrik nüzü; txerk'ezazü zure sehia, ezpeitütüt zure maniak ahatze.

GORANTZA CXIX.

*Mihi gaxtuez khueintatzen da Profeta. Bere desterrü handiak
bihotz min emaiten deio.*

Ozken khantoria.

1. Eskarniatürrik nintzalarik oihü egin deiot Jaunari, eta ihardetsi deit.
2. Jauna, ezpañ gezürtietarik eta falsietarik solt' ezazü ene arima.
3. Zer probetxü dükek edo zer ükhenen dük hire mihi gaxtotik?
4. Güdükariaren flex zorrotz, süian txispiltia bezala, beitük mihia.
5. Zer zorigaitza enetako, sobera egon nizalako Zedareko ekhoilia-rekila! Sobera atzetü beita ene arima.
6. Bakiaren hügüntzaleki bake nintzan; mintzatzen nintzeienian, güdükatzen nüdüden.



GORANTZA CXX.

*Bahi daudenek hel egiten düte Jaunari, eta Jaunian ezarten düte
esparantza.*

Ozken khantoria.

1. Begiak eraiki tüt mendietara, hantik heltüko zait sokhorri.
2. Ene sokhorria Jauna ganik, zelia eta lürra egin dütienu ganik.
3. Eztik khordokatzera ützioko hire zankhua; hire zañ denak eztik loik
eginen.
4. Eztük phürükaz ariko, ez lotan sarthüko Israelen zañ daguena.
5. Jaunak begiratüko ai; Jauna dükek hire esküñeko itzala.
6. Egünaz ekhiak ehai erreko, ez eta ere gaiaz argizagiak.
7. Gaitz orotarik begiratüko ai, Jaunak, begiratüko dik hire arima ere.
8. Hire sargia eta elkhigia zañtuko tik Jaunak oraidanik bethi artio.

GORANTZA CXXI.

*Bahi daudenak botzten dirade laster ikhusiko düztelakoz Jauna-
ren eliza eta hiri saintia. Jauna othoitzen düte igor ditzan bere
beneditzioniak Jerüsalemi eta hanko ekhoiliarer.*

Ozken khantoria.

1. Boztü niz erran deitadelakoz: Jaunaren etxerat juanen girade.
2. Gure ürhatzak zure heupetan baratü tüzü. Oi! Jerüsaleme!
3. Jerüsaleme hiria bezala eginik da, etxe güziak algarri jünto.
4. Jaunaren giz'eliak harat duatza, Israeleko legiaren arabera, Jauna-
ren izenaren laidatzea.
5. Han txüti daude xüxenguako jargiak, Dabiden etxeko jargiak.
6. Bakia galth'ezazie Jerüsamentako; dohatsü maite zützenak, hiri
saintia!
7. Bakia phausa dadila zure harrisetan, eta dohatsütarzüna zure jau-
regietan.
8. Ene anaien eta adixkiden gatik, zuretako bakia nahi nikezü.

9. Gure Jinko Jaunaren etxia dela kausa, huntarzün güziak desiratzen
deitzüt.

GORANTZA CXXII.

Babilonen daudenen othoitzia eta khueintak, libertatiaren nahiz.

Ozken khantoria.

1. Zure ganat, zelian zaudena, eraikiten tit ene begiak.
2. Nula ere mixkandien begiak lothürik beitaude bere nausien eskier,
3. Eta neskatuarenak etxekanderiarener, hala hala gure begiak josirik
daude gure Jinko Jaunari, gützaz ürrikalt dadin artio.
4. Ürrikalt zakizkü, Jauna, ürrikalt zakizkü, laido frankoz aserik bei-
kirade.
5. Gure arima askortürik düzü ahalkegaben mithiriguez eta ürgüllü-
tsien mesperetxiez.

GORANTZA CXXIII.

*Babiloneko bahiguatik soltatü dienen eskerrak. Aithortzen düte
galdürik ziratiela Jinkuak soltatü ezpalütü.*

Ozken khantoria.

1. Jauna ezpalinbaliz gurekila izan, erran dezala orai Israelek, Jauna
ezpalinbaliz gurekila izan,
2. Gure kuntra jaiki zien gizonen behar bada bizirik iretsi güntüzken.
3. Hen khexian, herakiten zelarik, behar bada itho ginantien.
4. Gure arima ühaitz gainti igaran da, behar bada igaran zatien elk-
hiko etzen hurretik.
5. Benedika bedi Jauna, ezkütielakoz ützi hen hortzentako.
6. Txoria bezala, gure arima ezkapi da ihizlariaren zephotik.
7. Zephua hautsi da eta gü salbatü girade.
8. Gure lagüntza zelia eta lürra egin tien Jaunaren izenian dago.



GORANTZA CXXIV.

Jinkua da xüxenen begrazalia eta atherbia. Eztütü ütziko ogengilen esküpien. Haren bidetik okhertzen dienak zaflatüko tü.

Ozken khantoria.

1. Sioneko mendia bezala dirade Jaunari fida dienak. Jerüsalemeko ekhoiliara ezta sekülan igitüko.
2. Jerüsalemengü üngürian mendiak, bere popüliaren üngürian Jauna, orai danik bethi artio.
3. Jaunak eztü ütziko ogengilen zaharua xüxenen gaña erortea, xüxenek gaizkiala heda eztezen beren eskia.
4. Hunki egiezü, Jauna, hun diener eta bihotzez xüxen diener.
5. Bide okherretarik dabilzanak gaizkigiler jüntatüko tü Jaunak. Bake Israeli.

GORANTZA CXXV.

Bahigüatik elkhi undoko boztariua. Jüdiuek othoitzen düte Jauna beren anaiak ekhar eraz ditzan barreiatürik diren günetarik. Laster ikhusiko düztela uste düte.

Ozken khantoria.

1. Jaunak Sionerat bahi zaudenak jin erazi zütienian, ametsetan dienak bezala ginen.
2. Ordian gure ahuak uhatxez bethe zien, eta gure ezpañak khantarrapikotsez.
3. Ordian jenten artian erranik izan zen: Hoientako gaiza handiak Jaunak egin tü.
4. Gaiza handiak guretako egin tü bai Jaunak, eta gü boztariotü girade.
5. Ekhar eraz itzatzü hunat bahi daudenak, lüidorriala ekhar erazten düziün bezala ühaitza.
6. Nigarretan ereiten dütenek boztariuan ephaitüko düte.
7. Nigarrez baduana, ereiteko azia bizkarrian.
8. Alagranzian ützüliko da, azaez kargatürik.

GORANTZA CXXVI.

Gizonen lanek eztüte probetxürik, Jaunak lagüntzen ezpalinbatü. Familia handia dien gizonaren zorihuna.

Ozken kantoria.

1. Jaunak berak ezpadü etxia egiten, probetxü gabe lanian ari dirade etxegiliak.
2. Jaunak ezpadü hiria begirutzen, probetxü gabe erne dago hiri zaña.
3. Probetxü gabe jaikiten zireie argia beno lehen. Jaiki zizteie, phausatü unduan, eskarnioko ogi jaliak.
4. Bere adixkider lua igorten deie Jaunak; huntarziün pharte haurrak emaiten deitze; sari pharte sabeleko ekhoitza.
5. Flex (sic) zorrotzak gizon azkharraren eskian dien bezala, hala hala dira gizon gazten haurrak.
6. Dohatsü haur nahi dien bezañ beste dükiena! Ezpeita ahalketüko bere etsaier mintzo datienian hiriko portaletan.

GORANTZA CXXVII.

Jaunaren beldür dienen dohatsütarzüna. Lan sariaren jatia. Emazte hun baten eta haur hanitxen ükheitia. Herriko bakiaz gozatzia.

Ozken khantoria.

1. Dohatsü Jaunaren beldür dena, eta haren bider jarraikiten dena!
2. Zure eskü lanez biziko zirade; dohatsü zirate eta zori hun dükezü.
3. Zure emaztia, mahats molkhoz zure etxe unduan bethatzen den aihena bezala, dükezü.
4. Zure haurrak, aldiz, mahañ üngürian, oliotze phertika eli bat bezala dütükezü.
5. Holaxet dükezü benedikatürik Jaunaren beldür den gizona.



6. Sionetik benedika zitzala Jaunak! Ikhus ezazü zure biziko egünetan Jerüsalemeke zori huna;
7. Ikhus itzatzü zure haurren haurrak. Bake Israeli.

GORANTZA CXXVIII.

Nahi bada gaztaro danik eskarniatürük izan den, Jaunak soltatü Israel. Batetan lürrialatü dirade etsaiak.

Ozken gorantza.

1. Hanitx eskarniatü naie gaztarotik orai dano, erran ahal dio Israellek.
2. Hanitx eskarniatü naie gaztarotik orai dano, halarik ere enaie goithü.
3. Bizkar gañen golde nabarrez ildo lüziak egin deiztade.
4. Jaunak, xüxen delakoz, phorrokatü tü ogengilen sokak.
5. Ahalkez gorri ditiela, eta gibelialat ützü Sionen hügüntzale güziak.
6. Izan ditiela, ebaki gabe eihartzen den hegatzeko belharra bezala.
7. Hartarik ephailiak ezpeitio esküta bat egin, ez eta ere azaugiliak kholkua betha.
8. Eta igaraiten dienek ezpeitüte erraiten; Jaunak deiziela beneditzio-ne; benedikatzen zütiegü Jaunaren izenian.

GORANTZA CXXIX.

Babilonen bahi zaudenen othoitzia. Beren ogenak Jaunari aithortzen düttüzte, eta ogenen pharkamentiaren haidürü daude.

Ozken khantoria.

1. Zilo barnetik, Jauna, zure ganat oihü egin dit; entzün ezazü ene oihia.
2. Beha ditiela zure beharriak ene othoitzari.
3. Gure ogener sogiten badüzü, Jauna; Jauna, nur egon daite txütü zure aitzinian?

4. Bena zü ürrikaldün zirade; eta, zure legiaren amorekati, haidürü egon nitzaizü, Jauna.
5. Ene arima haidürü dago, Jaunaren erranian esparantxa beittü.
6. Goizeko erphaiguatik arratsekualano egon dadila Israel Jaunaren haidürü.
7. Jauna ürrikaldün beita, eta franko erosten beittütü.
8. Eta erosiko dü Israel egin dütien gaizki orotarik.

GORANTZA CXXX.

Babilonen bahi daudenen gogüak. Jaunian ezarten düttüzte beren esparantxak.

Ozken khantoria.

1. Eztüzü ez, Jauna, ene bihotza hantü; eztütüzü ez ene begiak oldartü.
2. Enüzü ez senthokerian ebili; enüzü ere nindiuen beno gorago altxatü.
3. Gogo aphalttuak ezpalin batüt hartü, soberegi altxatü balinbadüt ene arima,
4. Amak thitia idoki deion haurra bezala, jar dadila ene arima.
5. Jaunian esparantxa ükhen beza Israelek orai danik bethi artio.

GORANTZA CXXXI.

Jüdiuen othoitzia bahi zaudelarik. Erraiten düte Jaunari ohit dadin Dabidi hitzaman zeitzonezaz, eta eraiki dezan bere eliza, baita ere berma Dabiden bürüzagüa.

Ozkhen khantoria.

1. Ohit zite, Jauna, Dabidez, eta haren eskarnio güziez.
2. Jaunari zin egin deio eta Jakobén Jinkuari hitzaman:
3. «Sarthzen baniz ene etxe barnen, igaraiten baniz ene phausüko ohe gaña,



4. Üzten batüt lotara ene begiak, eta lo phürüka egitera ene begi ezpalak,
5. Güne bat ediren beno lehen Jaunarentako, egongia bat Jakoben Jinkuarentako...»
6. Jakin dügü Efratan zela; ediren dügü oihaneko ordokian.
7. Sarth gitien haren egongiala; othoi dezagüla ürhotsak baratü dütien lekhian.
8. Jaiki zite, Jauna, zuaza zure phausiala, zü eta zure saintütärzüneko arkha!
9. Zure aphezak jaunts beze xüxengua, alagera bite zure phartelian-tak.
10. Dabid zure sehia dela kausa, eztezazüla hürrünt eraz zure Khristuaren begithartia.
11. Jinkuak zin zinez hitzaman deio Dabidi, eta eztü bere hitza janen: «Zure sabeleko ekhoitza ezarriko dit zure jargian.
12. Zure haurrek begiratzen batüzte hitzaman deitena, eta erakhutsi deitzedan maniak;
13. Eta hen haurrek ere bethi begiratzen batüzte; zure jargian jarriko tüzü bethi.
14. Jaunak haitatü beitü Sione, bere egongiatako haitatü beitü.
15. Han ene bethiereko egongia, han egonen niz, haitatü düdalakoz.
16. Benedikatüko düt hanko alhargüntsa; ogiz ase eraziko tüt hanko eskeliak.
17. Salbamentia jauntsiko deiet hanko aphezer; eta hanko phartelian-tak alagranzian boztüko dirade.
18. Han hanitx eraziko düt Dabiden indarra, han adelatüko düt süsi bat ene Khristuarentako.
19. Ahalkez estaliko tüt haren etsaiak, eta ene saintütärzüna lilitüko da haren gañen».

GORANTZA CXXXII.

Adixkideguako dohatsütärzüna.

Ozken khantoria.

1. Oi! Zuñen hun eta gozogarri den anaien algarrekila egoitia!
2. Üdüri beitü Aaruni бүрүtik bizarriala eraisten zeion üsañ huna!

3. Arropa hegjalano iaurtzen zeiona; üdüri beitü Hermoneko menditik Sioneko mendiala eraisten den ihitza.
4. Han iauri beita Jaunak bethiko beneditzionia eta bizia.

GORANTZA CXXXIII.

Aphezak eta berretterrak Jaunaren laidatzea khümitatzen tü khantore huntzaliak.

Ozken khantoria.

1. Orai arren benedik'ezazie Jauna, Jaunaren zerbüttxari güziek,
2. Jaunaren etxen, eta Jaunaren etxe-heupian zauden güziek.
3. Gaiaz altx' etzatzie eskiak haren ganat, eta benedik' ezazie Jauna.
4. Sionetik benedikata zitzela zelia eta lürra egin tien Jaunak.

GORANTZA CXXXIV.

Jaunaren laidoriuak. Israelentako egin dütienak erraiten dirade. Jinkaizünen ezdeuseria.

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jaunaren izena; sehiak, laid'ezazie Jauna,
2. Jaunaren etxen, gure Jinkuaren etxe-heupian zaudenek.
3. Laid'ezazie Jauna, hun beita; khant'ezazie haren izena, ezti beita.
4. Jaunak haitatü beitü Jakob, eta hartü beitü Israel bere züzentako.
5. Badakit Jauna handi dela, eta gure Jinkua dela Jinko güzien artian.
6. Nahi ükhen tienak oro egin tü zelian eta lürrian; itxasuan eta osin orotan.
7. Odeiak lür bazterretarik jaiki erazten tü, eta inhaziak hurt erazten.
8. Bere huntarzüen thegitik idokiten tü aiziak. Jo tü Ejiptoko lehen sorthiak gizonetik aberialano.
9. Eta hire barniala igorri tik, oi! Ejiptua, kheñü eta miraküllü handiak Faraunen eta haren sehien kuntra.
10. Nazione salduak zaflatü tü, errege salduak ere erhotü,



11. Sehon Amorhetarren erregia; Og Basaneko erregia, eta Khanaa-neko errege güziak.
12. Hen lürrak Israeltarrer, bere popüliari, züzen phartetako eman deitze.
13. Oi! Jauna, bethierekua düzü zure izena; zure orhitzpena hedatzen düzü, Jauna, undoriotik undoruala.
14. Jaunak bere popülia jüjatzen dü, eta haren othoitzez ematzen da.
15. Nazionen jinkaizünak zilharra eta ürhia, gizonen eskü lanak.
16. Ahua badüte, eta eztia mintzutzen; begiak batüzte, eta eztüte ikhusten;
17. Beharriak batüzte, eta eztüte entzüten; südür zilua batüzte eta eztüte senditzen.
18. Üdüri dakitzela beren egiliak, eta hetan sinheste düten güziak.
19. Israeleko etxia, benedik'ezazü Jauna. Aarunen etxia, benedik'e-zazü Jauna.
20. Lebien etxia, benedik'ezazü Jauna. Jaunaren beldür zieien güziek, benedik'ezazie Jauna.
21. Sione gañetik benedika bedi Jerüsalemene dague Jauna.

GORANTZA CXXXV.

*Jinkuaren ürrikaltarzüna erakhutsten dü khantore huntzaliak
Israelentako egin dütien miragarrietan.*

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jauna, hun beita, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
2. Laid'ezazie jinkuen Jinkua, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
3. Laid'ezazie Jaunen Jauna, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
4. Miragarriak egin tü, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
5. Ezagützereki egin tü zeliak, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
6. Hurren gañen gogort erazi dü lürra, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
7. Argigile handiak egin tü, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna;
8. Ekhia, egüna manha lezan; bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.

9. Argizagia eta izarrak, gaiaz argi lezen, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
10. Jo dü Ejiptua bere lehen sorthietan, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
11. Hantik idoki dü Israel, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna,
12. Eskü azkharraz eta beso lüziaz, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
13. Bi aldetarat arrailtatü dü itxas Gorria, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
14. Itxas erditik igaran erazi dü Israel, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
15. Egotxi dü Faraun bere indarreki itxas Gorri barna, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
16. Hotsaman dü bere popülia desertü gañti, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
17. Zaflatü tü errege handiak, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
18. Erho tü ahal handiko erregiak, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna,
19. Sehon, Amorhetarren erregia, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna,
20. Og, Basaneko erregia, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
21. Hen lürak züzen pharte eman tü, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna;
22. Züzen pharte Israel, bere sehiari, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
23. Gure aphaltarzünian ohartü da gützaz, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
24. Khentü gütü gure etsaien artetik, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
25. Hazküri emaiten dü bizi dien güzier, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
26. Laid'ezazie Zelüko Jauna, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.
27. Laid'ezazie Jaunen Jauna, bethierekua beita haren ürrikaltarzüna.



GORANTZA CXXXVI.

Babilonen bahi zaudenek xaatxetarik txilintxau ezarten dütüzte beren xiribiak eta arabitak; eztüzte khantatü nahi beren khantore saintiak. Gor daude Babilonetarren othoitzer.

Dabiden khantoria Jeremiarentako.

1. Babiloneko ibar hegietan jarri girade, eta han nigarrez ari ginen Sionez ohitzen ginelarik.
2. Babilone erdiko xaatxetarik txilintxau ezarri güntien gure soniak.
3. Bahitü güntienek erran zeikienian khanta ginezan.
4. Pikarraitü güntienek erran zeikienian, Sioneko khantoretarik khant'ezagüzie zunbait.
5. Nula khanta ginitzake Jaunaren khantoriak arrotz lürrian?
6. Oi! Jerüsaleme, nik ahatzten bazütüt, ahatz bekit esküñaren erabiltia.
7. Tzüntzürrari loth dakidala mihia, zützaz ezpaniz ohitzen,
8. Jerüsaleme ezpalinbada ene boztarioko lehen mira,
9. Ohart zite, Jauna, Edomen haurrez Jerüsalemeko egünian.
10. Erraiten beitzien: erauz ezazie; erauz ezazie erruetarano.
11. Babiloneko neska txarra, dohatsü egin deiküñanaren ordaria emanen deñana!
12. Dohatsü hire haurrak, atzaman unduan, harri baten kuntra phorokatüko tiena!

GORANTZA CXXXVII.

Profetak laidatzen dü Jauna behatü zaiolakoz. Printziak oro khümitatzen tü othoitze egitera Jaunari. Langer güziatarik Jaunak begiratüko diela esparantxa dü.

Dabidentako.

1. Laidatüko zütüt, Jauna, ene bihotz oroz; ene ahoko hitz güziak entzün beitütüzü.

2. Khantatüko deizüt Aingürien aitzinian; belharikatüko nüzü zure eliza saintian, eta loriatüko dit zure izena.

3. Zure ürrikaltarzüna eta egia diela kausa, ooren gañetik goratüko beitüzü zure izen saintia.

4. Zer nahi egünez nik zuri hel eginik ere, beha zakitzat; hanitxtüko düzü ene arimaren indarra.

5. Laida zitzela, Jauna, lürreko erregek, zure ahoko elhiak entzüten dütielarik.

6. Khanta bitze Jaunaren eginbidiak, Jaunaren loria handi beita!

7. Gora beita Jauna, eta aphalekuer sogiten beitü, eta gora dienak hürrünetik ikhusten beitütü.

8. Eskarniuen artian ebili baniz ere, zük bizia eman deitazü, eta eskiaz pharatü tüzü ene etsaien khexiak; zure esküñak salbatü nizü.

9. Ene althe düket Jauna. Bethierekua düzü Jauna zure ürrikaltarzüna; eztezazüla üt zure eskiek egin diena.

GORANTZA CXXXVIII.

Oro badakitza Jinkuak; ikhusten tü gaiza ülhünenak eta barnenak. Haren argitik gordeko diela uste dütenentako zorigaitz.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria.

1. Borogatü naizü eta ezagütü zük, Jauna; Jarririk edo txüti egiten dütüdanak oro badakitzü.

2. Hürrünetik ezagützen tüzü ene goguak oro; traukatü düzü ene bidexka, eta nuan bidia.

3. Ezagützen tüzü ene ütül-üngürü güziak, ene mihiak erran beno lehen.

4. Badakitzü zük, Jauna, gaizak oro, heltüko direnak eta igaran direnak. Zük egin naizü, eta gañen phausatü deitazüt eskia.

5. Zure jakintartzüna enia beno harrigarriago düzü; gora beita, enintezü hartara hel.

6. Nuat juan nainte zure izpiritütik hürrün? Nuat ihes egin niro zure begithartetik?

7. Zelialat igaraiten baniz, han zirade zü; ifernialat eraisten balin baniz, han ere ikhusten zütüt.



8. Argi hastian jaunsten batüt hegalak, eta itxas bazterrialat egoitera balin banua;
9. Han ere zure eskiak lagüntzen nizü, eta begiratzzen zure esküñak.
10. Erranen düta: «Behar bada ülhünak gordeko nai»? Bena ene khantian gaia argi argia diagozü.
11. Ülhünperik eztüzü zuretako, gaia egüna bezañ argi düzü, haren ülhüna zuretako argia bezala beita.
12. Zü ene goguen bürüzagia zirade, amaren sabeletik elkitzian hartü benaizü.
13. Hañ untsa egin naizülakoz, laidatzen zütüt: Eder diela zure eginak untsa beitaki ene arimak.
14. Ene ezürren jostüra etzaizün gordatzen, gohortzen nintzalarik gordallian, eta bilbatzen zelarik ene khorpitzza lürpian.
15. Zure begiek ikhusten zizien ene mulde gabeko ekheia; hoiek oro izkiribatürük zütüzün zure librian; gure egünak izartürük dütüzü, eta nihurk ere izaria eztezü gaintitzen.
16. Jinkua, zure goguak zuñen eder dien! Zuñen hanitx dien!
17. Khuntatzen balin batüt, hariña beno hanitxago dütüzü; iratzarzen nizanian haier niagozü ametsez.
18. Jinkua, zentako eztütüzü erhaiten ogengiliak? Odolkhoiak, hürürünt zizteie nitarik.
19. Zien goguan beitziozie: «Probetxü gabe gure hiriez nausitüko dia».
20. Zure hügüntzaliak eztütüta hügüntü, Jauna? Eniza debeiüz eihartü zure etsaiak diela kausa?
21. Untsa hügüntzen ditit, etsaitako ere bai hartzen.
22. Boroga nezazü, Jinkua; ezagüt ezazü ene bihotza; zerbait galth ezadazü eta erakhats itzadatzü ene bidexkak.
23. Soizü eia nitan badenez gaxtokeriako biderik; eta lagünt nezazü bethiereko bidetik.

GORANTZA CXXXIX.

Khantore huntzaliak othoitzen dü Jinkua gaxtuen xederetarik begira dezan. Bere etsaiak galdüko tiela dio. Jaunaren jüstiziaren haidürü daga.

Ürhentzeko. Dabiden khantoria.

1. Jauna, gizon gaxtotik begira nezazü; solta nezazü gizon borthitzetik.
2. Gaxtokeria dabilazie bihotzian, egün oroz ari ziztatzü gerlan.
3. Sügiak bezala, zorrotü tizie beren mihiak, eta sügen phozua ezpañ petan dizie.
4. Begira nezazü, Jauna, ogengilen eskütik, eta solta nezazü xüxen eztiatarik.
5. Ene eror erazteko gogua beitüte. Ürgüllütsiek gordallian hedatü beteite zepho bat,
6. Hedatü beteite txedera bat, bidian ene behatztopezteko.
7. Jaunari erran dü ordian: Ene Jinkua zira zü; beha zite, Jauna, ene othoitzeke botzari.
8. Jauna, Jauna, ene salbamentüko indarra, begir' ezazü ene büria güdükako egünian.
9. Enezazüla, nahi lükien bezala, ene etsaiari hartzera ützi; ene kuntra hitz hartü dizü, enizazüla ützi, hant eztaadin.
10. Üngüratzen naienen ezpañetako phozua, gaña eror dakiela berer.
11. Süzko inkhatzak eror dazkitzela gaña; süialat urthuk itzatzü, hantik elkh ahal eztiiten.
12. Gizon mihi lüzia ezta lürrian bermatüko; gaxtuari jarraikiko zaio zorigaitza zilual'artio.
13. Badakit Jaunak begiratüko diela emütsa, eta xüxenki ariko dela eskeliarekila.
14. Xüxenek, arren, laidatüko dizie zure izena; eta xüxen dienak egonen tüzü zure begitharte aitzinian.

GORANTZA CXL.

Khantore huntzaliak othoitzen dü Jinkua begira dezan gaxtuen adixkideguatik eta bilkhüretarik. Arranküra da eskarniatürük delakoz. Esparantxa dü Jaunian.

Dabiden Khantoria.

1. Jauna, oihü egin deizüt; hel zakitzat; beha zite ene mintzuari, oihü egiten deizüdanian.



2. Ene othoitzia hel bedi zure gana, inseinsüko khia bezala; ene eskiek eskentzen deiziena, aldiz, arratseko sakrifiziua bezala.
3. Ene ahuari ezorzü ahozañ bat, ene ezpañer aldiz begirazale bat.
4. Gaitzialat eztezazüla irall eraz ene bihotza, ogen estakürü bilha ebil enadin.
5. Gaizkiz ari dien gizonekila, eta izan enadin ogengile handienen khide.
6. Xüxenak eraik bekitzat ene ogenak bere ürrikaltarzünian, eta gaizkigliaren oliuak eztezala leinth ene büria.
7. Ene othoitzia igorriko beitüt bürü egitera hen nahiküntier; hen jüjiak lehertü beitira zenden kuntra.
8. Behatü dirade ene elher, ozenak dielakoz. Nula ere lür tharrokak barreatzen beitirade alhorrian,
9. Hala hala gure ezürrak barreatürük izan dia hobi hegjan. Jauna, Jauna, zütan esparantxa ükhen beitüt, bizia eztezadazüla idok.
10. Beren zephuetara batetan eror ditiela ogengiliak oro, nihau hantik igaraiten nizalarik.

GORANTZA CXXI.

Engaddiko kharbian Jaunari othoiez dago Dabid hantik idoki dezan; hitzamaiten deio eskerrak eta laidoriuak emanen deitzola, langeretik elkhi datienian.

Dabiden enthelegia kharbian zaguelarik. Othoitzia.

1. Botza goratzen düt Jauna ganat; oihüz othoitzen düt Jauna.
2. Haren aitzinian iaurtzen düt ene khueinta; ene bihotz-mina erak-hutsten deiot,
3. Bihotza mentsten zaitalarik: «Ene bidia zük badakizü;
4. Ebilten nintzan bideko gordallian hedatü ditazie zepho bat.
5. Eslküñialat sogin düt, baita begixtatü bazterrak; nihurk ere enizie ezagütü.
6. Ihes egiteko mediorik enizün, ene bizitziaz ihurk ere etzizün axo-lik.
7. Oihü egin düt zure ganat, Jauna, eta erran deizüt: Zü zia ene esparantxa eta ene züzena bizien lürrian.

8. Ene othoitzia beha zite, bihotza erdiratürük beitüt phenaz.
9. Lasterkatzen naienetarik solta nezazü, ene kuntra azkhartü beiti-rade.
10. Gaztelütik ene arima idek ezazü, laida dezan zure izena; xüxenak ene haidürü diagotzü, nik galthatü deizüdana zük eni eman artio».

GORANTZA CXXII.

Dabid, Jerusalemetik Absalunek ohilt erazi dianian, Jaunari helez ari da, eta galthatzen deio erakhuts dizon hartü behar dien bidia.

Dabiden khantoria, Absalun bere semiak lasterkatzen zielarik.

1. Jauna, beha zite ene othoitzia; zure egiatsütarzünian, ene othoitziala hed'etzatzü beharriak; zure xüxentarzünian beha zakitzat.
2. Etzitiela auzian sar zure mithilarekila, zure aitzinian bizi dena ezpeitaite xurit.
3. Etsaiak eskarniatzen dizü ene arima, eta lürrian erabilten herrestaz ene bizia.
4. Ülhün petan ezarri nizü, lüzaz geroz hilik dienak bezala. Ene izpiritia phorokatürük düzü; bihotza ere nahasten zitazü.
5. Ohartzen nüzü egün zaharrez, goguan dabiltzat zure eginak oro; zure eskü-laner beha niagozü.
6. Zure ganat hedatzen tit ene eskiak; egarri den lürra bezala, diagozü ene arima zure aitzinian.
7. Ene behatzea lehia zite, Jauna; ene izpiritia engoxatürük beita.
8. Eztezadazüla ütül zure begithartia bazterrialat, hobialat eraisten dienen izan enadin üdüri.
9. Goiz hastetik entzün eraz ezadazü zure ürrikaltarzünaren mintzua, zütan esparantxa ükhen beitüt.
10. Erakhuts ezadazü ebili behar düdan bidia, zure ganat eraikiten beitüt ene arima.
11. Eruan nezazü, Jauna, ene etsaien eskietarik zure ganat ihes egin beitüt. Erakhuts ezadazü zure nahiküntien egiten, ene Jinkua beitzia zü.
12. Zure Izpiritü hunak lagünt nezala bide xüxenian. Zure izenaren amorekati, bizi eraz nezazü, Jauna, zure xüxentarzünaren arabera.



13. Eskarniotik idok ezazü ene arima, eta zure ürrikalguaz arrabask'itzatzü ene etsaiak.

14. Gal eraz itzatzü ene arimaren eskarniazale güziak, zure mithila beniz ni.

GORANTZA CXLIII.

Eskerrak Jaunari sokhorri igorri dielakoz. Othoitzen düte barreira ditzan popülüko bakiaren thürbüstea jin dien erregiak.

Dabiden khantoria. Goliathen kuntra.

1. Benedika bedi ene Jinko Jauna, gerlako trebetü beitütü ene besuak, eta güdükako ene eskiak.

2. Ene ürrikalkorra eta ihes lehia, ene begirazalia eta soltazalia beita.

3. Ene estalgia da, eta hartan esparantxa hartü dü; eskü pian nazioniak ezarri deitzat.

4. Jauna, gizona zer da, zük haren arthatzeko? Edo gizonaren semia zü hartaz arranküratzeko?

5. Ezdeus bat da gizona; haren egünak itzala bezala duatza.

6. Jauna, apha itzatzü zure zeliak, eta eraits zite; hunk'itzatzü mendiak, eta khetan jar ditiela.

7. Zure iñhaziak argi eraz itzatzü ene etsaien barreiatzeko; igor itzetzü zure flexak, harri ditien.

8. Gañetik hed'ezazü zure eskia; eruan nezazü; salba nezazü hur handietarik, atziaren haurren eskietarik.

9. Hen ahua ezdeuseriaz mintzatü beita, gezürti txar beita hen esküña.

10. Jinkua, khantatüko deizüt khantore berri; sonü eginen deizüt hamar khordako xiribirian.

11. Zük salbatzen beitütüzü erregiak; zük ezpata gaxtotik begiratü beitüzü Dabid, zure sehia.

12. Khent nezazü atzen haurren eskietarik, hen ahua ezdeuseriaz mintzo beita, hen esküña eskü gaxtua beita.

13. Gure semiak, lanthare azkharrak bezala, beitia gaztaruan;

14. Gure alhabak, elizako kantalak bezala, beitia ederki aphañtürik.

15. Gure zederak ekhoitzez mükhürri, ekhoitzetara gainti bite.

16. Gure ardiak, ernaltürrik, üsü üsia erdi bite; gizent bite gure idiak.

17. Gure harrisiak eztiela lürta; eztezela agert sargiarik; gure kharriketan ezadila entzün heiagorarik.

18. Dohatsü holako huntarzünez gozaten den nazionia; dohatsü Jinkua nausitako dien popülia!

GORANTZA CXLIV.

Dabiden khantore.

1. Laidatüko zütüt ene Jinko Erregia! Benedikatüko dit bethi zure izena mendez mende.

2. Egün oroz benedikatüko zütüt; benedikatüko dit bethi zure izena mendez mende.

3. Jauna handi da eta hanitx laidagarri; haren handitarzünak ezti mügarik.

4. Undokuek undoriokuer erran beze zük egin tüzünak; zure ahalarren berri eman beze.

5. Mintzatüko tüzü zure loriako edertarzünez, eta erranen tizie zure miragarriak.

6. Mintzatüko tüzü zure indar izigarrikuaz, eta zure handitarzünaz.

7. Erranen dizie zure eztitarzüna zuñ handi den, eta zure ürrikal-tarzünian boztariotüko tüzü.

8. Jauna ürrikalkor eta ürrikaltsü da; lüzakor eta ürrikaltsü.

9. Jauna güzientako ezti da; egin dütien gaiza güziez ürrikalt dü.

10. Laida zitzela, Jauna, egin tüzün gaizek orok; benedika zitzela zure saintiek.

11. Zure bürüzagüko loriaren berri eman beze, eta mintza bite zure ahalez.

12. Erakhats dezen gizonen haurrer zure ahala, eta zure bürüzagüguako loria handia.

13. Zure bürüzagüga bethiko bürüzagüga düzü; zure nausigua hedatzen düzü undoriotik undorüala.

14. (Jauna xüxen bere erran rotan, eta saintü bere egitate güzietan).

15. Jaunak zürkhaitzen tü erortea duatzenak oro, eraikiten ere bai lürrian dianak.



16. Orok begiak zuri josirik ditizie, Jauna; ordü denian emaiten derezü hazkürrü.

17. Ahürra zabaltzen düzü zük, eta nahi den bezala asetzen düzü bizi dena.

18. Jauna xüxen da bere bide güzietan, eta saintü bere lan orotan.

19. Oihü egiten dioienen khantian dago Jauna, bihotzetik oihü egiten dioienen khantian.

20. Beldür zaitzoner, nahi düten bezala, egiten dee; hen othoitziari beha dago, eta salbatzen tü.

21. Begirutzen tü maite dütienak, ogengiliak aldiz galtzen.

22. Ene ahuak erran betza Jaunaren laidoriuak; bizi dien güziek benedikika beze bethi haren izen saintia, mendez mende.

GORANTZA CXLV.

Profetak laidatü nahi dü Jauna. Ezta behar fidatü printzer, ez eta ere gizon semer, bena bai Jinkuari, haren ahala eta huntarzüna handi dielakoz.

Laida Jinkua; Agjeak eta Zakhariak.

1. Oi! ene arima, laid'ezak Jauna. Bizi nizano laidatüko düten Jauna; bizi nizano khantatüko düten Jinkuaren loria.

2. Etziteiela fida printzer, ez eta ere gizon semer, hetarik ezta salbamentia jiten.

3. Elkhitzen zaie hatsa, eta lürrialat ützültzen dia; hen goguak oro galtzen dia egün hartan.

4. Dohatsü Jakobean Jinkua lagüntzale diena! Bere Jinko Jaunian esparantxa diena! Zelia eta lürra, itxasua eta edeiten düten güziak, egin beittütü Jinkuak.

5. Begirutzen beittü bethi hitzamana, gaizki pian lehertürük dienak ürgaitzen beittütü; gose diener jatera emaiten beteie.

6. Jaunak laxatzen beittütü estekan daudenak; Jaunak argitzen beittütü ütsiak.

7. Jaunak aphaintzen beittütü phorrokatürük dienak, Jaunak maite beittütü jüstua.

8. Jauna atzen althe jarten beita; zürkhaitzen beittütü zürtza eta alhargüntsa, eta ogengilen bidiak phorrokatzen.

9. Jauna bürüzagi dateke mendez mende; hire Jinkua aldiz, Oi! Sione, undoriuetarik undoriuetara.

GORANTZA CXLVI.

Jaunaren laidoriuak. Bere popülia biltzen dü; Jerüsaleme eraikiten, gaxtuak lürrialat egösten, jüstua hunkiz bethatzen. Gizoner eta bizi diener behar zaien hazkürrü emaiten dee.

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jauna; laidatzia hun beita. Agrada eta laket dakiola gure Jinkuari laidoriua.

2. Eraikiten zielarik Jerüsaleme, Jaunak algarganatü tü Israeleko haur barreiatia.

3. Bihotza phorrokatürük zütenak sendotü tü, eta hertsallü ezarri dee zauri gañen.

4. Izar salduak khuntatü tü, eta bakoitxa deithü bere izenaz.

5. Gure Jauna handi; haren ahala zabal, haren zühürtarzüna müga gabe.

6. Mantsuak arthatzen tü, eta ogengiliak herrestaz erabilten.

7. Algarreki laid'ezazie Jauna; zithareki khantüz ari zitzoie gure Jinkuari.

8. Zelia odeiez übeltzen dü, eta lürrentako adelatzen dü euria.

9. Mendietan sorth erazten tü belharra, eta gizonen behar tützen lanthariak.

10. Aberer emaiten dee behar zaien hazkürrü; bele hümer ere bai, galthatzen dütenian.

11. Zaldiazen indarrer fidatzia etzaio agrada; ezta ere fida gizonen zañ zalhier.

12. Jauna laket da haren beldür dienekila, eta haren ürrikaltarzünian esparantxa dütenekila.



GORANTZA CXLVII.

Profetak khümitatzen dü Jerüsaleme Jaunaren laidatzea, begiratü dielakoz, eta huntarzünez bethe dielakoz; mintzo da Jaunaren ahal handiaz; elhürra, lantxurda, txitxerra eta kharrua egin beütü.

Laida Jinkua.

1. Jerüsaleme, laid'ezak Jauna; Sione laid' ezak hire Jinkua.
2. Zailtü beütü hire portaletako güntzak; benedikatü beütü hire barneko haurrak.
3. Hire bazterretan phausatü dik bakia; og'irin liliz ase erazi ai.
4. Lürrialat bere mezia igorten dik, eta haren errana behala egiten dük.
5. Elhürra, ilhia bezala, eror erazten dik; lantxurda, erhautsa bezala, barreiatzen dik.
6. Txitxerra, kharrua bezala, iaurtzen dik; haren hotzaren hüllan nur egon daite?
7. Mezü igorten diek eta hurt erazten tik; haren hatsak, igaraitian, lodi erazten tik ibarrak.
8. Jakobi igorri diok bere legia, bere maniak eta jüjamentiak aldiz Israeli.
9. Eztik ez hola hola egin beste nazione güzier; eztieta ez bere maniak erakhatsi. Laida Jinkua.

GORANTZA CXLVIII.

Khantore huntzaliak güziak khümitatzen tü Jaunaren laidatzea.

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jauna zelü gañetan, laid'ezazie güne gorenentan.
2. Laid'ezazie, ziek haren Aingüriek; laid'ezazie, ziek haren indarrek.
3. Laid'ezazie, ekhia eta argizagia; laid'ezazie izar argitsiek.
4. Laid'ezazie zelien zeliak; eta ziek, gañgañeko hurrek, laid'ezazie Jaunaren izena.

5. Mintzatzü zen, eta egirik izan zien; manhatü zien, eta zerbaitü ziradien.

6. Bethiko mendez mende xarthatü beütü, eman deien legia eztüte hautsiko.

7. Lürretik laid'ezazie Jauna, heren sügek eta osin güziek;

8. Süiek, txitxerrek, elhürrek, kharruek, eta arogaitzek, haren manü egilek;

9. Mendiek eta mendixka güziek, zühañ ekhoitzdünek, eta izei güziek;

10. Basa ihiziek eta abere güziek, sügek eta txoriek;

11. Lürreko erregek eta popüliek; mündüko printzek eta jüjek,

12. Muthikuek eta neskatilek, zaharrek eta gaztek, laida beze Jaunaren izena, handi beita haren izena!

13. Haren loria lürra eta zelia beno gorago da; hark borthiztü dü bere popüliaren indarra.

14. Saintü güziek laida beze; Israeleko hurrek, bere khantüko popüliak, ere bai. Laida Jinkua.

GORANTZA CXLIX.

Israel, laid'ezazü loriaz bethe behar zütien Jinkua, etsaiak azpiala ezarri behar deitzüna.

Laida Jinkua.

1. Jaunari khant'ezozie khantore berri; khant'etatzie haren laidoriak saintien bilkhüran.

2. Alagera bedi Israel bere Egilian; boztario bite Sioneko haurrak beren Erregian.

3. Haren izena laida dezela hüxtülotsez, laida dezela atabalotsez eta sonüz.

4. Jauna goza beita bere popülian; bere salbamentian loriatzen beütü bihotza erdiratürük dütenak.

5. Lorian alageratüko dia Sainüak; bere phausüko ohetan boztariotüko dia.

6. Jaunaren laidoriak bethi hen ahuan, eta bi ahotako ezpatak hen eskietan,



7. Nazionez mendekatzeko, eta popülien zaflatzeko,
8. Hen erregen estekan, eta hen aitzindarien bürdün petan ezarteko.
9. Hen kuntra manhatürik izan den jüjamentia egin dadin. Hori da haren haitatien loria. Laida Jinkua.

GORANTZA CL.

Jaunaren aphezek Elizan sonüz laida beze Jinkua.

Laida Jinkua.

1. Laid'ezazie Jauna bere egongia saintian; laid'ezazie zelian, bere ahaleko lanian.
2. Laid'ezazie bere indarrarian; laid'ezazie bere handitarzü (sic) thini gabian.
3. Laid'ezazie tütotsez, laid'ezazie txürülotsez eta xiribiriotsez.
4. Laid'ezazie atabalotsez eta hüxtülotsez; laid'ezazie arabitotsez eta orgiñotsez.
5. Laid'ezazie zinbal ozenotsez; laid'ezazie alagranziako zinbalotsez. Bizi den orok laida beza Jauna! Laida Jinkua!!

Ürhentze.

JONASEN LIBRIA

BÜRÜ I.

Jonas Ninibara igorriak ihes egiten dü, eta untzi batetan sarthü-rik, itxasoz badua. Tenpesta batek irailtzen dü itxason barna.

1. Jauna mintzatü zen Jonas Amathiaren semiari, erraiten zeiolarik:
2. Zuaza orai Ninibako hiri handiala, eta han barrei'ezazü ene elhia, hanko gaxtokeria altxatü beita ene gan'artino.
3. Jonas jarri zen, arren, bidian; bena goguala jin zeion Tharsiserat juaitia, Jaunaren aitzinetik ihes egiteko. Eraitsi zen Joppera, eta edirenik Tharsiserat abian zen untzi bat, hartan sarthü zen bestekila, eta phakatü zien hiri hartarat igaraiteko saria, Jaunaren aitzinetik ihes egiteko.
4. Bena Jaunak igorri zien itxas gaña aize oldartü bat, eta tenpesta handi bat jinik untzia phorrokatzeko perillian zen.
5. Mariñelak lotsatürük, oihüz deith egiten hasi ziren Jinkuari, eta karga urthuki züten itxasualat, untziaren arhintzeko. Jonas hatik, untzi zolala eraitsirik, han tinki lo zaguen.
6. Haren gana hüllantürük, untzi zañak erran zeion: Nula egiten ahal düzü lo? Jaiki zite, deith egizü zure Jinkuari; bentüraz orhitüko beita gützaz, eta ezpeitüke nahi hil gitien.
7. Erran züten gero algarren artian: Ikhertü behar dügü zorthia, jaki-teko nuntik gaitz hau horra zaikün; eta zorthia urthukirik erori zen Jonasen gaña.
8. Galthatü zeioen, arren: Erran ezagüzü zerk gütien perill huntan ezarri. Zer ofizio düzü? Nunko zira? Nuat zuaza? Zuñ da zure herria?
9. Ihardetsi zeien: Hebrear nüzie, eta zelüko Jinko Jauna, itxasua eta lürra egin tiena, zerbütatzen dit.
10. Ordian, lotseri handi batetan sarthürük, erran zeioen: Zertako hola egin düzü? Jakin beitzüten bera ganik Jaunaren aitzinetik ihesi zuala.
11. Erran zeioen, arren: Zer egin behar deizügü itxasoko bulltetarik gure begiratzeko? Ühinak goratzen ziren eta lodiagotzen.
12. Jonasek ihardetsi zeien: Har eta urthuk nezazie itxasualat eta ematüren da. Badakit ni nizalakoz tenpesta hau jin dela ziren gaña.



13. Mariñelek hatik lhü idorrjala arrimatü nahi züten untzia, bena etzioten, itxasuak goratürük bere ühinez gordatzen zütielakoz.

14. Oihüz, arren, erran züten Jinkuari: Othoitzen zütügü, Jauna, gizon hunen heriotziak ezkitzan galeraz, eta gaitzik egin eztiendola eztezazün gütan gaña eroreraz; zük nahi düzüna egiten beitüzü.

15. Jonas hartürük urthuki züten itxasualat, eta behala ematü zen.

16. Jinkuarentako gürgarriko lotsa bat jarri zen gizon hoien goguan. Jaunari eskentü züzen hostia eli bat eta bere hitz emanak.

BÜRÜ II.

Arrañ batek iresten dü Jonas. Profetaren othoitzia. Itxas bazterrialat goit'urthukitzen dü arrañak.

1. Jinkuak ordü berian igorri zien arrañ handi bat Jonasen irestera; hirur egünez eta hirur gaiez egon zen arrañaren tripan.

2. Hantik Jinko Jaunari othoiez.

3. Erraiten zeion: Oihü egin dit Jaunari ene bihotz-min handian, eta entzün nizü; hobi barnatik oihü egin deizüt, eta entzün düzü ene botza.

4. Itxas barneko hur zolalano urthuki naizü; ald'orotarik büsti nüzü, züre ühinak oro gañetik igaran betzaiztan.

5. Eta erran dit: zure begien aitzinetik urthukirik nüzü; bena hatik ikhusiren dit orano zure egongia sañtia.

6. Hur pian nintzalarik, herioko müga ikhusi dit; hosinak ald'orotarik üngüratürük, itxas ühinek büria gañtitü ditaze.

7. Eraitsi nüzü mendien erruetarano; lüretik kazatürük banintz bezala, ikhusten nüzü hur gaztelü huntan; hirokeriatik begjatzen deitazüt bizia, oi ene Jinko Jauna.

8. Ene bihotz-min handian, Jauna, orhitü nüzü zützaz; igaran dadila ene othoitzia zütara, zure egongia sañtiala.

9. Ezdeuskerier jarraiki zalek, üzten dizie ürrikoa soltazalia.

10. Nik hatik eskentüko deitzüt sakrifiziuak laidoriozko kantikekila; Jaunari erranen ditit salbatzeko hitzaman dütüdanak oro.

11. Ordian arrañari Jaunak manhatürük goit'urthukitzez Jonas, urthu-ki zien itxas bazterrialak.

BÜRÜ III.

Jonasek banatzen dü Ninibako arrabaskia. Ninibarrek penitentzia egünik, Jinkuak pharkatzen dieie.

1. Beste aldi batez Jauna minzatü zen Jonasi, erraiten zeiolarik:

2. Zuaza orai Ninibako hiri handiala eta han barreia ezazü manhatü deizüdana.

3. Jaunak manhatü bezala, juan zen Jonas Niniba hirur egüen bideko hiri handiala.

4. Eta han sarthürük egün batez ebili zen, oihüz ziuelarik: Berrogei egüen barnen Niniba arrabaskatürük date.

5. Ninibarrek Jinkuan sinhetsirik, manhatü züten orok barur egin zezen, eta zakiak jauntsi züzen, handienek eta txipienek.

6. Berri hori jakin unduan erregek, jaiki zen bere tronotik eta arropak bilaizirik, jauntsi zien zakü bat eta hauts gañen jarri zen.

7. Oihüz gero jakin erazi zien Ninibako bazter orotan erregeren eta printzen manü hau: Gizonek, zamariak, idiek eta ardiek eztezela deus jan; eztiela bazkagialat juan, eta eztezela edan.

8. Gizonak eta aberiak egon ditiela zaküz estalirik, eta ahal oroz oihü egin dezela Jaunari; bakoitxak, haren ganat ützülik, üt dezala gaizkiko bidia, eta eskiak theiütü deitzen gaxtokeria.

9. Nurk daki Jaunak ezteikünez pharkatüko, ematüren eztienez bere khexü borthitza, eta khanbiratüren eztienez gure galtzeko eman dien mania?

10. Haien egitater behatürük, Ginkuak ikhusi zien, gaizkiko bidia ützi-rik haren ganat ützüli zirela; eta haiez ürrikaltürük igorri nahi zeitzen gaitzak etzeitzen igorri.

BÜRÜ IV.

Jonas bihotz minetan dago haren errana ezte-lakoz egün. Jaunak enthelegerazten deio eztiela ükhen behar bihotz minik Niniba ezte-lakoz galdü.

1. Ordian Jonas bihotz min handi batek hartürük khexatü zen:



2. Eta Jaunari erran zeion: Eniena hola erraiten ene herrian nintzarik orano? Hortakoz goguan hartü niziün Tharsiserat juaitia. Banakiziün Jinko ezti, hun, lüzakor, ürrikalsü bat zinela, eta bekhatiak pharkatzen zünütiela.

3. Othoitzen zütüt arren, Jauna, khorpitzetik idok'ezadazüt orai arima, hiltzia bizia beno nahiago beütüt.

4. Ihardetsi zeion Jaunak: Uste düzia khexatzeko arrazu zunbait badüzüla?

5. Ninibatik jalkhirik, goizeko aldian jarri zen Jonas, eta han heipe egin zien batetan phausatü zen, hirian zer heltüren zen jakin artino.

6. Ordian Jinko Jaunak sortherazi zien, Jonasen бүрү gañetik, hüntz osto undobat, itzal egile bat, haren heipian egon ahal zadin, beruak akhitürük beitzen; eta Jonas alageratü zen.

7. Biharameneko argi hastian, Jaunak igorri zien har batek xilatürük, hüntz osto undua eihartü zen.

8. Gero ekhia agertü zenian, süzko aize bero bat Jaunak eraik'erazirik, Jonas ekhi pian ükho zaguen, hatsik ezpeitzuuen har, eta hil nahitü zen, erraiten zielarik: Bizi beno nahiago niz hil.

9. Jaunak erran zeion ordian: Uste düzia arrazu zunbait badüzüla hüntz osto horren kuntra khexatzeko? Jonasek ihardetsi zeion: Bai, bai, arrazu badit khexatzeko, eta hil nahitzeko ere.

10. Jaunak erran zeion: Khexatzen zira, dohañik, zük lagüntü gabe, gai batez sorthü eta handitü zaizün hüntz osto baten kuntra, biharamen gaiian hil zaizülakoz.

11. Eta nik eniokezü pharka Niniba hiri handiari, hanko seitan hoge mila jenter, eskü esküña exkerretik ezagützen eztiener, eta abere salduer?

RÜTHEN LIBRIA

Lüzien Napoleon Printze ükara dakienari

Printze jakintsü, pare gabia,
Zure ganat, ni, Rüthen libria,
Ziberuako zaia jauntsirik,
Hüillantzen nüzü, ahalketürük.

Botz nüdükezü, sotto bat egin
Nahi bazineit. Lehen hunki-jin
Egin zeiola Booz handiak
Rüth gaixuari, dio ixtoriak.

Ber hunki-jina ükhen baleza
Ziberutarrak, haren bihotza
Iratzar laite Jaun Lüzienen
Gor'altxatzeko laidoriuen.

BÜRÜ I.

Moabiko aldialat badua Elimelek eta han hilzen. Haren semiak han ezkhuntzen. Noemi eta Rüth ützültzen dira hantik Beth-lehemerat.

1. Israel Jüjen eskü pian zaguen denboran, gosete handi bat jin zen alde hartara; ordü hartan arren Bethlehem Jüda herriko gizon bat juan zen, emaztia eta bi semiak hartürük, denbora zunbaiten igaraitera Moabiten aldetara.

2. Elimelek deitzen zen gizon hura, haren emaztia aldiz Noemi. Mahalon zen haren seme baten izena, Khelion aldiz bestiarena; Efrata-



kuak ziren, erran nahi beita Bethlehem Jüdan den herrikuak. Jinik arren Moabiten herrialak, han egon ziren.

3. Elimelek Noemien senharra hil zen gero, eta alhargüntsa bere bi semekin baratü.

4. Seme hoiek ezkhuntü ziren Moabiko bi neskatilarekin, bata deitzen beitzen Orfa, bestia aldiz Rütth. Hamar urthe alde hartan igaran unduan,

5. Hil ziren Mahalon eta Khelion; Noemi aldiz ber bera baratü zen senharra eta bi semiak galdürrik.

6. Seme zenen Moabitar emaztekin bere herrialat ütül nahitü zen, jakinik Jaunak sogin ziela bere popüliari baita ere igorri zeiola zer jan.

7. Lür arrotz hortarik elkhirik alhargüntsa gazte hoiekin, Jüda herriko bidian sartzian,

8. Erran zeien: Zuazte ziren amen etxerarat. Jaunak egin dezeiziela ene seme zener eta eni egin düzien bezala.

9. Edirenerazi dezeiziela phausia senharrak hartüren tüzien etxen. Besarkatü zütien gero; eta bi alhabaizün hoiek nigarrez eta marraskaz erraiten dioie:

10. Juanen gütüzü zurekin zure herritaretarat.

11. Noemik erran zeien: Zuazte, ene haurrak, zertako jin zinezteie enekila? Banükia orano seme zunbait sabelian ziren senhartako?

12. Ütül zizte, ene haurrak, eta jua, zahartziak higatürrik beniz; eninte haboro ezkhunt. Gai huntan berian haur egin eta sorth banintza ere,

13. Zaharregi zinezteie haiekin ezkhuntzeko, ügürüki nahi balütüzie ere handi artino eta ezkhunt adinialano. Othoi, ene haurrak, eztezaziela hola egin; zien bihotz minak handierazten dü enia, Jaunaren eskü latza hedatü beita nitan gaiña.

14. Orano ere marraska handiagorekin nigarrez hurtzen dira. Orfa, amaghinarreba besarkatü unduan, gibelilat ütülü zen. Rütth aldiz Noemiekin egon.

15. Noemik erran zeion: Zure ahizpa baduazü herrialat, bere jinkuen ganat; zuaza zü ere harekila.

16. Rütthek ihardetsi zeion: Enezazüla bortxa zure ganik hürrüntzera, eta ene etxerat ütültzera; nuat nahi ere juanen beitzira, zurekila juanen nüzü; nun nahi ere egonen beitzira, zurekila ni egonen nüzü; zure herritarrak eniak dütükezü, zure Jinkua ere bai ene Jinkua.

17. Zü hiltzen ziraten lekhian ni ere hilen nüzü; nun ere ehortzirik beitzirate ni ere han ehortziren nizie. Jinkuak garrazki erabil nezala sekulan, bizi nizano, zure ganik baztertzen baniz.

18. Noemi, Rütthen nahia ikhusirik, ixiltü zen, eta etzeion haboro erran, jua zadin bere etxekuen ganat.

19. Algarrekin arren bidian jarri unduan, heltü ziren Beth-lehemera. Hoi en jin berria behala han iauri zen, eta emaztek zioien: Hau Noemi düzü.

20. Noemik erran zeien: Enezaziela deith Noemi (erran nahi beita ederra), bena deith nezazie Mara (erran nahi beita kharatsa), orenen Bürüzagiak kharatstarzünenez bethe benai.

21. Betherik hebentik jalkhi ninzan, hütsik hunat Jaunak ekharri nai. Zertako arren ni deith Noemi, Jaunak aphaltü naienaz gerozti, eta orenen Gehienak bihotz minez bethe?

22. Holaxet Noemi, arrotz lürrian Rütth Moabitar alhabaizünarekin egonik, ütülü zen Beth-lehemerat, garagarren muzteko aruan.

BÜRÜ II.

Rütth badua garagar bürüxkakara Boozen alhorriala. Boozek hunki-jin egiten deio.

1. Bazen arren gizon aberats bat Booz deitzen zena, Elimeleken askazi bat.

2. Eta Rütth Moabitarrek amaginarrebari erran zeion: Juanen nüzü alhor zunbaitetara, eta bürüxka ephailek ütziak bildüren ditit, nun ere edirenen beität etxeko Jaun hun zunbait. Noemik erran zeion: Zuaza, ene haurra.

3. Juan zen arren eta bürüxka biltzen ari zen ephailen undotik, Elimeleken askaziaren, Booz-en alhorrian.

4. Alhorriala Bethlehemetik jinik, ephailer Boozek erran zeion: Jauna daguela ziekin. -Baita ere zuekin, ihardetsi zioien.

5. Ordian Boozek muthiko ephaile zaiñari galthatü zien: Zuintakua da neskatila hori?

6. Ihardetsi zeion: Moabitar Moabiteko aldetik Noemiekin jin den hua düzü.



7. Galthatü diküzü nahi günienez ützi ephailen undotik бүрүккакара: eta goizaz geroztik heben diagozü etxerat ützüli gabe.

8. Boozek erran zien Rütthi: Beha zite, ene haurra, etzitiela juan bes-ten alhorretara бүрүккакара; egon zite heben eta zuaza ene neskatuekin,

9. Eta jarraiki zitzaie azauak eginik diratien lekhü orotara, manhatü beität ene mixkandier eztezezien ogenik egin; egarri ziatenian ere, juan zite unzithegiala eta edan ezazü mixkandiek edaten düten huretik.

10. Rütthek belharikatürük, бүria lürriala aphaltürük, erran zeion Boozti: Nuntik horra zait dohain handi hau, holako hunki-jin ederra ezpeitüt merexitzen nik, arrotz herrietakua beniz?

11. Ihardetsi zeion: Erran ditazie nula bizi izan zien zure amaginarrebekin, zure senharra zentüz geroztik, eta nula ützi tüzün zure etxe-kuak eta zure sorth lekhia hunat jente arrotzetarat jiteko.

12. Jaunak eman deitzazüla egin dütüzün hunkiak oro, eta Israeleko Jinko Jaunak, zuintarat jin beitzira gordatzera, eman dezeizüla egin düzün ordaria.

13. Eskher mila, ene Jauna, erran zeion, ohilterazi dütüzü ene phenak; zure elhek bihotza hunki ditazie, nahi bada ere enizan hun zure mixkandi izateko.

14. Booz-ek erran zeion: Barazkaitako tenorian jin zite hunat, eta jan ezazü ogia ardu-ozpinian bustatzez. Jarri zen arren ephailen khantian eta hartü muillia buzi bat: jan eta ase unduan, arrasta goititü zien.

15. Hantik jaikirik бүрүккakan ara hasi zen. Booz-ek hati bere mixkandier manhatü zien: Ütziko düzie zirekin garagar ephaitera, nahi dükenian.

16. Zien eskütetarik ere ützi zirekin garagar бүria erortera, ahalketü gabe bil ahal ditzan; eta nihurk ere deusik eztezeiola erran biltzen dütielakoz.

17. Бүрүккakan ari izan zen aratsartino; eta manxolak jo eta bihia berhezi unduan, üken zien garagar ephi izari bat kasik (erran nahi da hirur lakha).

18. Suñian bihia hartürük hirialat juan zen, eta amaginarrebari erakutsi: eskentü eta eman zeion ere harentako goititü zien janharria.

19. Amaginarrebak erran zeion: Nun izan zira бүрүккakan, nun ari izan zira lanian? benedika dadila zützaz pietate ükhen diena. Rütthek erran zeion, izan zen alhorreko nausia deitzen zela Booz.

20. Noemik ihardetsi zeion: Jaunak benedika dezala hilentako begiratü dielakoz bizientako ükhen zien ber nahia. Gizon hori gure askazi hüillanena düzü.

21. Rütthek derio: Manhatü ditazü haren mixkandiekün juaitez bihiak oro bil artino.

22. Ihardetsi zeion amaginarrebak: Hobe düzü, ene haurra, juan zitiene ephaitera gizon horen neskatilekin, nihurk phena egin ahal eztezezien beste alhor zunbaitetan.

23. Jüntatü zen arren Boozen neskatiler, eta haiekin juan ephaitera, garagarra eta ogiak sabaian sar artino.

BÜRÜ III.

Rütthek galthatzen dü Booz emaztetako har dezan. Boozek hitz emaiten deia.

1. Rütth ützüli zenian amaginarreba ganat, Noemik erran zeion: Goguan dit, ene haurra, zure phausian ikhusteko, nahi zütüt untsa ezarri.

2. Booz zuiñen neskatilekin alhorrian izan beitzira, gure askazi hüillana düzü, eta gaur bere garagarra ezkaratzian aizatüko dizü.

3. Ükhüz eta üsain hobenez bereka zite arren, har zatzü zure arropa ederrenak, eta juan zite haren ezkaratziala. Boozek etzütiela ikhus, jan eta edan dien beno lehen.

4. Etzatera juaiten datenian, so gizü nuat duan, eta harat zü ere juanik, altxatüko derozü estalgia zankhuen aldetik; han ere etzan zite, eta lo egizü. Gero erranen deizü berak zer egin behar dükezün.

5. Rütthek erran zeion: Zük manhatzen deitazün bezala eginen dit.

6. Juan zen arren ezkaratziala eta amaginarrebak manhatiak egin zütien.

7. Eta nuiz ere Booz, aihaltü unduan azau metala lotara juan beitzen, emekiñi jinik Rütthek estalgia eraiki ziren zankhuen aldetik eta han etzan zen.

8. Gai erdi aldian, Booz izitü zen emazte bat zankho unduetan etzanik ikhustez,

9. Eta erran zeion: Nur zia zü? Ihardetsi zeion: Rütth nüzü, zure mixkandia: heda ezazü zure estalgia mixkandin gaiña, zure askazi hüillana beniz.

10. Boozek erran zeion: Jinkua daguela zurekin, ene haurra; bihotz huna züniela banakizün, bena orai hobiago düzüla ikhusten dit, ezpeitzia nahi ükhen juan muthiko gazte, eskele, edo aberatsetarat.



11. Etzitiela arren beldürt; zük erranak oro eginen tit: hebenko gente orok badakizie emazte xüxena zirela.

12. Ene askazi zirela badakit, bena ni beno askazi hüillanago bat badüzü.

13. Gaur lo egizü; bihar goizan askaziguako legez hartü nahi bazütü, untsa; ezpalinbazütü nahi aldiz, hitz emaiten deizüt egiazki nik hartüko zütüdala. Lo zite hor argiala artino.

14. Gai orotan arren haren zankho unduetan lo egin ziren; eta argi ürätzian, gizonek algar orano ezagüt ahal etzioien tenorian, jaiki zen. Booz-ek erran zeion orano: Begiraizü nihurk ere jakin eztezan hunat jin zirela.

15. Heda zazü eta bi eskiez etxek zure estalgia. Eman zeion ordian sei lakha garagar, eta bihia hartürük Rütth hirialat ützüli zen;

16. Heltü zenian, amaginarrebak galthatü zeion: Ene haurra, zer egin düzü? Eta erran zeitzon Boozek harentako egin zütienak oro;

17. Ori eman deiztadan sei lakha garagarrak, erraiten zeitalarik: ezti nahi juan zitien eskiak hütsik amaginarreba ganat.

18. Noemik erran zeion: Beha egon zite, ene haurra, eia nula ützüli-
ren den gaiza. Gizon horrek ezti kezü thaik bere errana egin artino.

BÜRÜ IV.

*Rüttek, Boozekin ezkhuntü unduan, sorthzen dü Obed, Dabiden
aita handia.*

1. Booz juan zen arren hiriko portialia eta han jarri zen, eta igarai-
ten ikusirik askazi minzatü giren hua, bere izenaz deitzen dü eta erraiten
deio: Tziauri amiñi bat hunat, eta jar zite. Askazi hura jin eta jarri zen.

2. Boozek hamar gizon hiriko zaharrenetarik berhezi unduan, erran
zeion: Jar zizteie heben.

3. Eta jarri zirenian holaxet minzatü zen bere askaziari: Noemik,
Moabiko aldetik hunat ützüli denak, saldü behar dizü Elimelek gure aska-
ziaren alhor pheza bat.

4. Jakin zinezan hori nahizan dit gure hiriko heben jarririk diren
gizon zahar hoioren ororen aitzinian. Pheza hori nahi badüzü, askaziguaz-
ko legez, erosi, eros ezazü, eta zuria izan dadila. Ezpalin badüzü nahi,
minza zite, jakin dezadan eia zer egin behar düdan. Haren askazi hüilla-

nenak gü gütüzü; zü lehena, ni bigerrena. Ihardetsi zeion: Erosiko dit
alhorra.

5. Boozek orano erraiten deio: Noemi-en alhorra erosi unduan
behar dü kezü ezkhuntü ere Rütth Moabitarrarekin, hunen senhar zenaren
leinhüra gal eztadin.

6. Ihardetsten deio: Üzten deizüt ene askaziguazko züzena, ene etxe-
ko leinhüra nihauk galtzera ezpeitüt ützi behar. Zerbütxa zite zihau ene
zügenaz, gogo hunez üzten beteizüt.

7. Bethi danik Israeleko lürrian, nuiz eta ere züzena batak bestiari
emaiten beitzien, züzen emailiak bere oskia huiñetik idokirik, emaiten
zien askaziari: kheñü horek erran nahi zien nula züzena batatik bestiala
igaraiten zen.

8. Boozek erran zien arran bere askaziari: Idok ezazü oskia: eta idoki
zien bezain sarri

9. Boozek erran zien zahar eta gente ororen aitzinian: Jakile zireie
nula egün bürüzagitzen nizan Elimeleken, Khelionen eta Mahalonen
huntarzünez, Noemi-i erosi dü tüdalakoz,

10. Eta nula ere hartzen düdan emaztetako Rütth Moabitarra, Maha-
lonen alhargüntsa; zentü denaren izena gal eztadin haren anaie eta herri-
tarren artian: badakizketzie hoiek.

11. Portalian ziren gentek, zaharrek ere, ihardetsi zioien: jakile
gütüzü. Zure etxen sartzen den emazte hori izan bedi Ratxel eta Lia Israel
egin dütenak bezala, izan dadila Efratan xüxendürazko mirail bat, eta
horen izena fama dadila Bethlehemen.

12. Zure etxia hanitx dadila emazte horrek emanen deitzün haurrez,
Jüdan Thamarek hanitxü zien Pharesena bezala.

13. Boozek hartü zien arren Rütth eta harekin ere ezkhuntü: ezkhuntü
unduan, Jinkuak igorri zeion seme bat.

14. Eta emaztek erraiten züten Noemi-i: Jinkua dela laidatü, ezpeitü
nahi ükhen zure leinhüra ez eta ere zure izena gal litien Israelen,

15. Nahi ükhen beitü haur bat ükhen zenezan aholkazale eta hazzale
zahartarzüneko; haur bat sorthü deizü alhabaizün maitiak, balio beitüke
zazpi semek beno haboro.

16. Noemik, haurra hartürük, bulharrian ezarri zien; besuan erabilten
zien eta hazten.

17. Haren aizo emaztek alagranzian zioten: Sorthü zaio Noemi-i haur
bat, eta izentatü züten Obed, zuin izan beitzen Isai-en, Dabiden aitarene,
aita.

18. Hau da Pharesen etxeko leinhüra: Phares izan zen Esron-en aita;



19. Ebron aldiz Aram-en; Aram aldiz Aminadab-en;
20. Aminadab aldiz Nahason-en; Nahason aldiz Salmon-en;
21. Salmon aldiz Booz-en; Booz aldiz Obeden;
22. Obed aldiz Isai-en; Isai aldiz izan zen Dabiden aita.

SALOMUNEN KANTIKEN KANTIKA

BÜRÜ I.

Ginkotiar kantika huntan den senharra Jesü-Khrist bera da. Eliza da hunen emaztia. Jesü-Khristentako Elizak dien mait-harzüna. Eliza eskarniatürrik da. Jesü-Khristek erakhusten deitzen egin-bidiak; emaiten deitzen dohaiñiak. Jesü-Khristek eta Elizak algarri diotzen laidoriuak.

EMAZTIAK

1. Eman deizadala ahoz pot-bat; zure thitiak ardua beno hobiago dütüzü,
2. Lili araruen üsaiña dizie. Zure izena olio ixuria bezala beita, neskatila gaztek maite zütie.
3. Eraman nezazü zure gibelian; laster eginen dizügu zure üsaiñ hunen artian. Erregek sar erazi nizü bere gordaillian. Libertitüko eta alageratüko gütüzü, orhitzten gielarik zure thitiak ardua beno hobiago direla. Bihotza xüxen dienek maite zütie.
4. Oi Jerüsalemeko neskatilak, beltza niz, bena ederra; beltza Zedareko olha-oihalezkuak bezala, ederra aldiz Salomunen pabilluak bezala.
5. Etziteiela khueinta beltxkatü nizalako; ekhiak jan deit itxura argia. Ene amaren haurrak ene kuntra jaiki dira: aihenztoi-zaiñ ezarri naie, eta eztüt ene miñabersia begiratü.
6. Oi, ene bihotz maitena, erran ezadazüt nuat alhatzera hots emaiten tüzün arresak, nun phausatzen zien ügerditan, herra ahal enadin zure lagünen arreser jarraikitzez.

SENHARRAK

7. Ezpalin badakizü, emazte ooren ederrena, jalkhi zite, eta jarraiki ene arresen herexer, eta eraman itzatzü zure ahüññiak alhatzera artzaiñ olhen unduetara.
8. Oi ene maitia, zure edertarzüna ene kabale Faraunen karoher üztartürrik direnena bezala düzü.



9. Maxelak ürzo aphala bezain eder tüzü, lephua aldiz zilharresko khatia bezala.

10. Eginen deitzügu ürhez zilharstatürik khatiak.

EMAZTIAK

11. Errege deskansatzen zelarik ene narduak üsaiñ hun iaurri dizü.

12. Ene maitia enetako düzü mirhazko buket bat bezala, egonen düzü ene thitien artian.

13. Ene maitia enetako Zipreko mahats molkho bat bezala, Engad-diko aihenetan jinik.

SENHARRAK

14. Zuiñ eder zien, ene maitena, zuiñ eder! Zure begiak ürzo aphalarenak bezala tüzü.

EMAZTIAK

15. Zuiñ eder zien, ene maitia, eta xarmagarri! Gure ohia liliz estalirik düzü.

16. Gure etxen sumerak zedrez, mürrü estalgiak aldiz izeiez.

BÜRÜ II.

Jesü-Khristek Elizarentako dien maitharzüna. Laidorio eta dohaiñ emaiten deitzonak. Eliza haren erraner beha dagu. Jesü-Khristek eta Elizak algarganako dien maitharzüna.

SENHARRAK

1. Ni nüzü sorhoko lilia, nabaillako jondane-johane lilia.

2. Nula ere naharren artian beita lilia, hala hala ene maitena neskati-len artian.

EMAZTIAK

3. Nula ere beita sagartzia oihaneko zühaiñen artian, hala hala ene maitia gizon semen artian. Phausatü nüzü ene maitiaren itzal pian, haren frütia ene ahoko ezti beita.

4. Ardu-tegian sar erazi nizü, eta maitharzünaren bandera pian ezari.

5. Süstenga nezazie liliz, azkhar nezazie frütiez; maithariak benai eihartzen.

6. Eskü-eixkerra бүрү gainen ezar deizadala, eta esküñaz besarka nezala.

SENHARRAK

7. Jerüsalemeko neskatiak, othoitzen zütiet oihaneko oreiñ eta orkhats hümez, eztezaziela iratzar eraz ene maitena, nahi dien bezaiñ beste üt ezazie lo egitera.

EMAZTIAK

8. Enzüten düten ene maitiaren botza, horra beita jauztekez mendietan behera, igaraiten tielarik mendixkak.

9. Oreiñ hümia bezala ene maitia. Hortxe düzü harrisiari jünto, leihoko phertiken artetik soz.

10. Orai mintzo zitazüt erraiten deitalarik: jaiki zite behala, ene maitena, ene ürzua, ene ederrena, eta tziauri.

11. Negia igaran, odeiak arhintü, euria ere athertü düzü.

12. Gure herrian liliak sortzen, mahatsten muzteko tenoria heltzen, ürzo aphalen hasperenak entzüten dütüzü.

13. Phikotzia phiko emaiten hasi düzü: mahatste lilitiek üsaiñ hun iaurtzen dizie. Jaiki zite, ene maitena, ene ederra, eta tziauri.

14. Zü, ene ürzo aphal zenda-xilo eta kharbetan gordatzen zirena, ager zite; ene beharrier entzün eraz ezezü zure botza; ezti düzü botza eta xarmagarri begitartia.

15. Atzaman itzagützü haxeri hüme mahats jaliak, lilitan beita zure mahatstia.

16. Enia düzü ene maitia eta ni harena, lilien artian bizi beita.

17. Argi-ürraziak ülhüna emeki emeki ohilt artino, hunat jin zite, ene maitia, eta Betherreko mendi gainetan ebiltan dien oreiñ eta orkatz hümek bezala egizü.

BÜRÜ III.

Elizak Jesü-Khrist bere senharraren txerkatzeko hartzen dien artha, gordatzen denian eskarniuetan. Ükheiten dien argi berria eskarniuen undotik. Jesü-Khristen loria bere saintien artian.

1. Ohian txerkhatü düten gaiez ene maitia; txerkhatü düten, eta eztüt ediren.



2. Jaikiren niz, hiriko üngüria eginen düet eta txerkhatüko düet ene maitia kharriketana eta plazetan: txerkhatü düet eta eztüt ediren.
3. Bürü-eginik hiri-zaiñekila galthatü deiet: eztüzieia ikhusi ene maitia?
4. Haietarik hürüntxkatzian ediren düet ene maitia, eta baratü ere. Eztüt ützioko juaitera ene amaren etxen, ni sorthü nizan khanberan, sar den artio.

SENHARRAK

5. Jerüsalemeko neskatilak, oreiñ eta orkhatz hümez othoizten zütiet, eztezaziela iratzar eraz ene maitena, nahi dien bezaiñ beste ützi eza-zie lo egitera.

EMAZTIAREN LAGÜNEK

6. Nur da desertian gora jaikiten den hau, khiak insensütik bezala, erhauts mota orotako üsaiñ hunak iaurtzen tielarik?
7. Hau Salomunen ohia hirurtan hoge gizon azkharrenez üngüratürik:
8. Oro ezpata-dünak, trebe dia gerlan: bakoitxak ezpata dü saihsiesian gaiko xedera zunbaiten beldürrez.
9. Errege Salomunek Libaneko zurez egin dü txariot bat:
10. Orratzak zilharrez eta etzangia ürhez egin deitzo, estalgia aldiz eskarlatez; gaiza arraruenez edertü deio erdia, Jerüsalemeko neskatilen amorekatik.
11. Jalkhi zizte kanpuala, Sioneko neskatilak, eta tziauste errege Salomunen ikhustera, amak bürian ezarri deion khuruarekin, ezteietako egü-nian, egün boztariozkuan.

BÜRÜ IV.

*Jesü-Khristek Elizari eman deion edertarzüna laidatzen dü.
Erraiten deio ützi dezan mündü tzar hau eta haren ganat juan
dadin. Bere emaztiaren bihotza nahi dü orenen tako, haren salbü,
izan dadin zerratürrik.*

1. Zuiñ eder zien, ene maitena, zuiñ eder! Ürzo-aphalaren begiak düttüzü, gordailian denaz mintzatü gabe; bilhuak aldiz Galaadeko mendin gora horra dien ahüntzek bezala;

2. Hortzak aldiz ükhüzgiatik arres muxtürük jiten dienek bezala, bakoitxa bi axurieki, ezpeita haietan antzürük.
3. Ezpaiñak düttüzü eskarlat hegal baten pare; minzua ezti: maxelak, grenada sagar erdi bat bezala, gordailian denaz minzatü gabe.
4. Zure lephuak Dabiden gaztelü azkharra üdüri dizü: mila txista-pharazale eta gerlarien armak oro han txilinxau beitia.
5. Zure bi thitiak bi oreiñ-hüme lilien artian alha direnak bezala tüzü.
6. Goiza agert artio, ülhünpia juan artio, erreziña üsaiñ hunetako mendi eta mendixketarat juanen nüzü.
7. Eder ederra zia, ene maitia, thonarik batere ezpeittüzü.
8. Tziauri Libanetik, ene emaztia, tziauri Libanetik; tziauri: khuruatüren zütügü: tziauri Amanatik, Sanir eta Hermon gaiñetik, lehu lezetarik, parduen mendietarik.
9. Bihotza erdiratü deitazüt, ene arreba emaztia, erdiratü deitazüt so ezti batez, eta lephoko bilho batez.
10. Zuiñ eder tüzün thitiak, ene arreba emaztia! Zure thitiak ardua beno ederago tüzü, eta gaiñen düzün üsaiña lili oroena beno hobiago.
11. Ezpaiñak düttüzü, emaztia, ezti orraze bat bezalako; ezti eta ezni zure mihi pian diagotzü, eta zure arropen üsaiña insensiarena bezala düzü.
12. Ene arreba emaztia, baratze zerrailüstatia, baratze zerrailüstatia eta üthürri khatiatia.
13. Zure baratzia gozagarri lantharez, betherik beita grenada-sagarrerez, Zipreko frütü melga oroz, eta akharez.
14. Akhara eta aza-fraia, kanabera üsaiñ-düna eta zinnamona, Libaneko zühaiñ ororeki, mirha eta aloesa eta undo üsaiñ-dün hobenak han dira.
15. Baratzen üthürria, Libanetik turrustaz jiten dien üharri bizien phützia zirade.
16. Jaiki zite, hegua, jaiki zite, ügerdiko aizia; buhezazü ene baratze gaiña bazter orotarik, üsaiñ lanhuak hantik iaur ditien.

BÜRÜ V.

*Eliza lehian da Jesü-Khristi hunki-jin egiteko. Nula ihardesten
dien haren nahier. Bere maitharzüna nula erakhusten deion.*



*Nulako antsiarekin txerkatzen dien gordatzen denian. Jesü-Khris-
ten edertarzüin eta bethegin-saria.*

EMAZTIAK

1. Jin dadila, ene maitia, baratziala eta jan dezala bere zühaiñen frütietarik.

SENHARRAK

Jin nüzü ene baratziala, ene arreba emastia, bildü tit mirha eta undo üsaiñdünak: jan dit orrazia eztiareki: edan dit ene ardua ezniareki. Jan eta edan ezazie, ene adixkidiak; ordi zizteie, ene maitiak.

EMAZTIAK

2. Ni lo, eta ene bihotza iratzarririk. Ene maitiaren botza heltü ene gana. Zabal ezadazüt bortha, ene arreba, ene maitia, ene ürzua, ene emazte thona gabia; büria zerenez, bilhuak aldiz gaieko hur txortez bustirik ditit.

3. Bilaizirik nüzü, nula jauntsiko düt zaia? Zankhuak ükhüzi tit, zeren ara theiütüko tüt?

4. Eskia bortha xilotik igaran ene maitiak, eta herotsak ene sabela ikhara erazi.

5. Jaiki ninzan maitiari idokitzeko: eskiak mirhaz, erhiak ere mirha baliusenaz bethe nütien.

6. Zabaltü nien maitiari bortha, bara elkhirik; doidoia igaran zen, eta juan hantik. Bihotza haren botzak hurtü zeitan: txerkhatü nien eta ez ediren: oihü egin neion, eta etzeitan ihardetsi.

7. Herri-zaiñeki bürü egin düt; jo eta kolpatü naie: mürrü-zaiñek eram deite ene kapa.

8. Jerüsalemeke neskatilak, edireiten badüzie ene maitia, othoi, othoi, erozie maithariak eihartzen naiela.

EMAZTIAREN LAGÜNEK

9. Emazte ooren ederrena, nulako da maiten deitzen düzün hori maite ooren gaiñeti? Nulako da maite maiten hori gü hola othoitzeke?

EMAZTIAK

10. Ene maitena xuri eta gorri, milatarik berhezirik.

11. Büria dü ürhez, bilhuak aldiz, palmer frütien gisan, belia bezañ beltz.

12. Begiak dütü ürzo eznez ükhüzirik erreka eta ühaitz unduetan daguenak bezala.

13. Maxelak, lilitze üsaiñ-dün üsaiñ hun saltzalek lanthatürük direnak üdüri. Ezpaiñak, jondane johane lili mirha iaurtzen diena bezala.

14. Eskiak ürhestatürük, paierian eginik, diamantez betherik. Bulharra xuri, safir muhuriz izarstatürük.

15. Zankhuak, marbolazko orratz ürhez zolatiak bezala. Begitartia, Libaneko mendia bezala; gaintitzen tü bestiak oro izeiak zühaiñak bezala.

16. Botz ezti, xarmagarri, maithagarri; holako da ene maitia, ene adixkidia, oi Jerüsalemeke neskatilak!

EMAZTIAREN LAGÜNEK

17. Nuat juan da maite düzüna, oi emazten ederrena! Nun gorde da zure maitia, haren txerkatzea juan gitien zurekila?

BÜRÜ VI.

*Jesü-Khristen maitharzüinaren xedia Eliza da. Bere emaztiaren
edertarzüinak erakhusten tü. Eliza ari da arimen ikhertzen:
debriak lan hortarik gibeltü nahi lüke.*

EMAZTIAK

1. Ene maitia eraitsi da bere baratziala, lanthare üsaiñdünen mahaiñiala, han bizitzeko eta lili biltzeko.

2. Ni maitiarena; ene maite, lilien artian bizi dena, enia.

SENHARRAK

3. Eder zia, oi ene maitena, eta eztitarzünez bethia; Jerüsaleme bezain eder, armada bat bezain izigarri zia.

4. Zure begiak nitan gaiñetik idok itzatzü: bortxatü nindizien laster hürrüntzera. Zure bilhuak Galaad menditik jitian agertü den ahüntz saldua bezala tüzü.

5. Hortzak ükhüzgiatik jiten den arres saldo batek bezala, bakoitxa bi axurieki, antzürük ezpeita haietan.

6. Nula ere beita grenada sagar axala, hala hala zure maxelak.

7. Badia han hirurtan hoge erregiña eta lautan hoge bigarren belhaiñeko emazte, neskatilak aldiz saldozka.



8. Bat da ene ürzo, bethegin maitia, amaren alhaba bakoitza, bizia eman deionak berhezia. Neskatilek ikhusi eta famatü düte dohatsiena dela. Erregiñek eta beste emaztek laidatü düte.

EMAZTIAREN LAGÜNEK

9. Nur da ekhia jalkitzen den bezala horra den hau, argizagia bezain eder, ekhia bezain argi, armada bat bezain izigarri?

EMAZTIAK

10. Inzaurstoiala eraitsi niz, nabaillako frütien ikhustera, aihena lilitü eta grenada-sagarrak handitü zienez jakitera.

11. Deusik eztüt jakin, bihotza txartü betzeitan Aminadaben txarionten kausa.

EMAZTIAREN LAGÜNEK

12. Tziauri, tziauri, Sülamita, tziauri, tziauri, ikhus zitzagün.

BÜRÜ VII.

Jesü-Khristek agerterazten tü orano Eliza bere emaztiaren edertarzünak. Elizak aithortzen dü dütien baranthailak oro zor deitzola. Egon nahi dü harekila.

1. Zer ikhusiren düzie Sülamitan armada bat herrokan baizik? Zer oski, zer ürhots ederrak dütüzün, erregiña alhaba! Zure iztazaiñak lephokhatia ederki eginak bezala tüzü.

2. Phikostia düzü untzi paierian egin bat bezala; sabela aldiz, liliz üngüratürrik den ogi-athe bat bezala.

3. Zure bi thitiek bi oreiñ-hüme üdüri dizie.

4. Lephua bolia bezain xuri düzü. Begiak dütüzü Heseboneko üthürbegi gente salduer agertzen direnak bezala. Södürra aldiz, Libaneko thorre Damas aldialat soz daguena bezala.

5. Büria, Karmelego mendia bezala; bilhuak aldiz, errege arropa bitan gorri-gian sarthü bat bezala.

6. Zuiñ eder eta graziaz bethia zien, oi ene maitena, ene bihotz huna!

7. Gerria zühaiñ bat bezaiñ lerden düzü, thitiak aldiz mahats molkuak bezala.

8. Erran dit: igaranen niz zühaiñala eta bildüko düten haren frütietarik; eta zure thitiak dütükezü mahats molkuak bezala, eta zure aho hatsa sagar liinen üsaiña bezala.

9. Zure tzüntzürretik elkhitzen dena ardu hun bat bezala düzü.

EMAZTIAK

Hun beita ene maitiak edateko, ezpaiñ eta hortzen artian lüzaz erabilteko.

10. Ni ene maitiaren, eta haren bihotza ene ganat ütül.

11. Tziauri, ene maitia, jalkhi gitien kanpualat, egon gitien herrixketan.

12. Goizik jaiki gitien aihenztoialat juaiteko: ikhus dezagün aihena lilitzen denez; liliek sortzen dütenez muhuririk; grenada sagarrak lilitan direnez: han eskentüko deitzüt ene thitiak.

13. Jadanik lo-belharrek bere üsaiña iauri dizie. Gure etxaltian frütümelga orotarik badizügü. Begiatü deitzüt, ene maitia, berriak eta zaharrak.

BÜRÜ VIII.

Elizak Jesü-Khristentako dien maitheria. Maitheri haren photeria. Zer egiten deion maitheri harek. Jesü-Khristek entzün nahi dü zor deitzon erremestiuen khantatzen.

1. Nurk emanen deit zure egüz-anaie ükheiteko dohaiña, ediren ahal zitzadan kanpuan, besarka zitzadan eta heben harat mesperetxa enizen?

2. Hartüko eta lagüntüko zütüt ene amaren etxera: han erakhutsiko deiztatzü ene egin-bidiak, eta emanen deizüt edatera ardu üsaiñstatü hun bat, eta ene grenada-sagar fardillu ihitz bat.

3. Eskü eixkerra bürüpien zeitalarik, esküiñaz besarkatü nai.

SENHARRAK

4. Othoitzen zütiet, Jerüsalemeko neskatilak, eztezaziela iratzar eraz ene maitena: üt ezazie lo egitera nahi dien bezain beste.

EMAZTIAREN LAGÜNEK

5. Nur da desertian gora horra den hau, dohaiñez betherik, bere maitian gaiñen eskia ezarririk?

**SENHARRAK**

Iratzar erazi zütüt sagartze pian: han züntien zure amak egin eta sorthü.

6. Ezar nezazü zure bihotz gaiñen eta zure beso gaiñen, bürdüña esteka bat bezala: maitheria heriua bezañ azkhar beita, maitheriaren garra ere bai ifernia bezañ latz: süzko eta garrezko beütütü litxerrak.

7. Hur handiek eztiote hil ez eta ühaitzek itho maitheria. Amodiua-rentako gizonak etxeko huntarzünak oro emanik ere, mesperetxa litzake, deusik eman ezpalinbalü bezala.

EMAZTIAK

8. Gure aurhidia txipi, eta thitirik eztü: zer eginen dügü gure aurhi-diari, minzatü behar dükeogün egünian?

SENHARRAK

9. Harrisia balin bada, egin dezagün hartan gaiñen ürhezko thorre bat: bortha bat balin bada, zerra dezagün izeiezko borthal-hagez.

EMAZTIAK

10. Ni ere harrisi bat bezala: thitiak thorretü zitzaizt, haren aitziniala agertüz geroztik, bakia ediren beütüt.

11. Aihen bat badü bakezaliak mündü hanitxen aihenztioian: begira-tzera eman dü; aihen zaiñ bakhoitxak mila zilhar buxi eman behar dü han-tik eraikiten dien frütien ordari.

12. Ene aihena, ene aitzinian. Oi bakezalia, zure aihenak emanen deizü mila zilhar buxi, begirazaler aldiz berehün.

SENHARRAK

13. Oi baratzetan egoiten ziena, gure adixkidiak beha diagotzü: enzün eraz ezadazüt zure botza.

EMAZTIAK

14. Laster egizü, oi ene maite maitia, oreiñ eta orkhatz hümiak beza-la, zuaza üsaiñ hundün mendietan gora.